



EUSKAL EDIZIOGINTZAREN **HASTAPEN IKERKETAK**

Mikel Ayerbe Sudupe (koord.)

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Euskal ediziozintzaren hastapen ikerketak [Recurso electrónico] / Mikel Ayerbe Sudupe (koord.). – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2021]. – 1 recurso en línea: PDF (156 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN. 978-84-1319-349-6.

1. Edición – País Vasco. 2. Literatura vasca. I. Ayerbe, Mikel, coord.

(0.034)655(460.15)

(0.034)891.69.09

Aurkibidea

Hitzaurrea. <i>Mikel Ayerbe Sudupe</i>	4
1. Editore traditore: editorearen irudikapena euskal narratiban <i>Mikel Ayerbe Sudupe</i>	8
2. Tiratzaile bakartiaren lana: Euskal poesiaren antologiak eta euskarara ekarritako poetenak <i>Alexander Gurrutxaga Muxika</i>	33
3. Bibliodibertsitatea: irakurketa-planerako baliabide <i>Miren Ibarluzea Santisteban</i>	55
4. Euskal literatura itzuliari buruzko gogoeta <i>Elizabete Manterola Agirrezabalaga</i>	65
5. Euskal artista garaikideen sormena euskal liburu-azalen diseinu eta ilustrazioetan <i>José Antonio Morlesín Mellado</i>	96
6. Literatur aldizkariak argialetxeen eratzet bidean (1975-1984) <i>Beñat Sarasola Santamaria</i>	107
7. Ibilaldia euskal klasikoaren ediziozintza modernotik (1840-2020) <i>Eneko Zuloaga</i>	124

Hitzaurrea

Mikel Ayerbe Sudupe

Argitalpen hau UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduriko «Euskal ediziozintzaren mundua: argitalpen eremuaren bilakaeraren ikerketa historikoa (XIX-XX. mendeak)» (US 17/10) ikerketa-proiektuaren emaitzetako bat da. CSICeko katedradun Pura Fernandezek zuzentzen duen EDIRED —Editores y Editoriales Iberoamericanos (XIX-XXI)— nazioarteko egitasmo eta ikerketa sarearekin lankidetzan garatu dugu¹. Era berean, proiektua Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikerketa talde egonkortuaren ikerketa-lerroetako bat izan da, IT 1047-16 (Eusko Jaurlaritza) eta FFI2017-84342-P (MINECO) proiektuen baitan garatua.

«Euskal ediziozintzaren mundua» proiektua hutsune bat betetzeko eratu zen. Izan ere, euskal ediziozintza gutxitan izan da, gutxiegitan ez esatearren, azterkizun sakon eta sistemikoen jomuga. Literatura plazaratzen duten argitaletxeen industriari buruzko ikerketak, kultur sorkuntzaren ondasunaren eta ondarearen ikuspegitik garrantzitsuak izan arren, nekez bihurtu dira azterketa serioen erdigune, nahiz eta esanguratsuak diren euskal nazio-iruditegi sinbolikoaren eraikuntzan. Hori horrela, modu ez-sistematikoan, askotariko helburu eta ikuspuntu metodologikoz eginiko hurbilketak nagusitu dira orain arte euskal ediziozintzaren ikerketan.

Zorionez, salbuespenak ere izan dira eta, ezin bestela izan, argitalpen honekin Juan Mari Torrealdairi omen egitea dagokigu, euskal ediziozintzan eginiko hamaika azterketa eta argitalpenengatik. Liburugintzari buruz egindako *Euskal kultura gaur* (1975) ikerketan, besteak beste, 1545etik 1975era arteko euskal literaturari buruzko azterketa kuantitatiboa biltzen du, ikuspegi historiko zehatzez gaikako sailkapenak eta argitaletxeetako agenteen fitxetako datuak bilduz (elkarteak, editoreak edo argitaletxeak), sari zein beke-

¹ Ikus http://www.cervantesvirtual.com/portales/editores_editoriales_iberamericanos/

tako beste hainbat informazio aurkeztearekin batera. Ildo beretik, *Euskal Kultura gaur. Liburuaren mundua* (1997) lan mardulean, bi hamarkada lehenago eskainitako datuak osatu eta berrirakurri zituen. Horiez gain, *Torrealdaiak 30 urte liburugintzan 1976-2005* (2007) eta euskal edizioaren sektorearen ekoizpenari buruzko beste hainbat ikerketa argitaratu ditu, besteak beste, *Euskal liburuaren bide luzea: Gerraosteko liburugintzaz oharrak* (1983) edota Euskal Liburugintza izenburuarekin *Jakin* aldizkarian urtero, 1986tik ia gaur egunera arte, osaturiko euskarazko liburu argitaratuen zerrenda-katalogoa, *Jakinen* webgunearen «Liburuaren Behatokia» atalean ikusgai daudenak. Halaber, Koldo Mitxelena bezalako kulturguneetan hainbat artxibo eta katalogazio lan egina da Torrealdai; euskal liburugintzak jasandako zentsura aparatuen ondorioak azaleratu zituen *La censura de Franco y el tema vasco* (1999) eta *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1976-1983* (2000) lanetan.

Zalantza izpirik gabe, Memoria Historikoa Literatura Iberriarretan (MHLI) ikerketa-taldearentzat iparrorratz baino gehiago izan dugu Torrealdai ikertzaile eta adiskidea. Berak bakarka baina erabakitasun eta eraginkortasunez abiatutako bideari talde lanean eman nahi izan diogu jarraipena. Eta horren guztiorren ondorioetako eta emaitzetako bat da euskal argitalpengintzaren hainbat alor aztertzen dituen lan kolektibo hau. Zuri, Torrealdai, eskaintzen dizugu argitalpena; zinezko lan bide-urratzaile sendoak erein eta bildu zenituelako etorri dira, besteak beste, liburu honetako hastapen-ikerketak.

«Euskal ediziogintzaren mundua: argitalpen eremuaren bilakaeraren ikerketa historikoa (XIX-XX. mendeak)» proiektuaren gainerako emaitzak www.mhli.net helbideko «Editeus» atalean daude eskuragarri. «Euskal edizioaren hiztegia» azpiatalean euskal edizioaren munduari buruzko informazioa eskaintzen da; orotara ia 50 soslai osatu ditugu eta alfabetikoki ordenaturiko hurrenkeran, euskal argitaletxeen, inprimategien eta editoreen informazioa bildu eta aurkeztu dugu. Era berean, «Multimedia gunea»-n MHLiko kideek euskal ediziogintzako pertsona esanguratsuei egindako bideo-elkarrizketak zintzilikatu dira. Editoreen artean, besteak beste, L. Zugaza, X. Mendiguren, G. Arrese, P. Elzaburu, I. Estornés, A. Urretabizkaia eta I. Sarasola edota I. Borda eta L. Etxezarretaren elkarrizketak bildu ditugu. Hamasei elkarrizketa, orotara. Azkenik, «Joan Mari Torrealdairen txokoa»-n bildu ditugu haren biografia eta lanen zerrenda, MHLiko kideek Torrealdairi egindako bideo-elkarrizketa, eta ikerketa taldekoek Torrealdairekin lankidetzan egindako kongresuak eta bestelako emaitzak.

Beharbada, izen arranditsuegia jarri diogu ediziogintzaren azterketan beste urrats bat ematera datorren *Euskal ediziogintzaren hastapen ikerketak* honi. Baina, egiazki, hurbilpen sakon eta ekarpen zorrotz hauek merezi dute euren kalitatearen mailako izenburu arranditsu batean biltzea. Zazpi ikuspegi zehatz euskal argitalpengintzari erreparatzeko, besteak beste, literaturaren soziologiatik, arte adierazpenetatik, itzulpengintzaren esparrutik, didaktikaren eremutik edota euskal fikzioaren baitatik abiatuta.

Artikuluak egileen abizenaren arabera antolatu ditugu, alfabetikoki. Izenburuak aurreratu bezala, «*Editore traditore*: editorearen irudikapena euskal narratiban» lanean Mikel Ayerbek (UPV/EHU-MHLI) editorearen errepresentazioak aztertu ditu azkenaldiko euskal fikzioan. Are, editore traditore binomioak irudikatu bezala, ondorioztatuko du editorea tartean denean harreman gatazkatsuak islatzen direla euskaraz idatziriko ipuin, antzezlan eta eleberrietan.

Alex Gurrutxagaren (UPV/EHU-MHLI) «Tiratzaile bakartiaren lana: euskal poesiaren antologiak eta euskarara ekarritako poetenak» artikuluak ere izenburu ezin zehatzagoa du; kontuan izanda Gurrutxagak lupaz behatu dituela euskal poesiaren antologia bilduma nagusiak eta, bereziki, euskarara ekarri diren poeten antologiak. Antologiaren inguruan egin diren zenbait ikerketa oinarri teorikotzat baliatuz, antologiek euskal literatura sistemaren baitan duten kokapenaz hausnarketa eskaini eta poesia antologiak sistemako gainerako elementuekin harremanetan aztertu ditu.

Miren Ibarluzeak (UPV/EHU-MHLI) «Bibliodibertsitatea: irakurketa-planerako baliabide» artikuluan, aldiz, edizioaren soziologiaren eremuko bibliodibertsitate kontzeptua aplikatzen du Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren esparruan. Ikastetxeko eta gelako biblioteketako testu-aniztasuna sustatzeko eta bermatzeko aldarria izateaz gain, bestelako zehar-lerroak lantzeko bitarteko ere badenez, hezkuntza eredugarriko ikasleen eskubide ere bilakatzen da bibliodibertsitatea.

Erdaratutako euskal literaturari erreparatzen dio Elizabete Manterolak (UPV/EHU-TRALIMA/ITZULIK) «Euskal literatura itzuliari buruzko gogoeta» izeneko artikuluan. Itzulpenen ekoizpenak izan duen garapena ikertzea xede izanik, azken urteetako joerak argi eta zehatz identifikatu ditu. Halaber, itzulpenak euskal literaturan betetzen duen paperaz eta gure literaturak beste hainbat literaturarekin dituen harremanez hausnartuz, besteak beste.

«Euskal artista garaikideen sormena euskal liburu-azalen diseinu eta ilustrazioetan» izenburua esleitu dio bere ekarpenari José Antonio Morlesínek (UPV/EHU-LAIDA) eta hainbat euskal artista garaikide esanguratsuk diseinatutako eta ilustratutako liburu-azaletan oinarritzen da ikerlana. Batetik, artistek liburu-azalaren berariaz egindako ilustrazio edota diseinuak aztertzen ditu, egileen produkzio artistikoarekiko kidetasunak nabarmenduz. Bestetik, argitalpenen azaletan ilustrazio gisa erreproduzitu diren zenbait artelanen azterketa ere burutzen du. Artelanen testuinguru aldaketa horren ondorioz, hots, liburuaren edukiarekin erlazionatzean, artelanez interpretazio berriak eragin ditzaketela jabetuko gara.

Beñat Sarasolak (UPV/EHU-MHLI) aldizkariak euskal literatur sistemaren egonkortzean eta argitaletxeen osieran egindako lana nabarmentzen du «Literatur aldizkariak argitaletxeen eratze bidean (1975-1984)» artikuluan. Bi aldiren bereizketa eginda, Lehen Francostea (1975-1980) eta Bigarren Francostea (1980-1984), aldi bakoitzean agerturiko aldizkariak xeheki azaltzen dira, gerora argitaletxe profesional bihurtu zirenak (*Susa, Maiatz, Pamiela*) edota bazterrean geratu ziren beste zenbait ezinbesteko aldizkari (*Ustela, Pott, Oh! Euzkadi*). Literatur aldizkariak euskal literatur sistemaren egituraketan izandako garrantzia eta hainbat argitaletxeren sorreraren ernamun izan zirela argi argudiatzen du Sarasolak.

Eneko Zuloagak (UPV/EHU-MLV) denboran atzerago luzatu du begirada eta 1850 baino lehenagoko testu klasiko kanonikoen berrargitalpenak ikertu ditu «Ibilaldia euskal klasikoaren edizio gintza modernotik (1840-2020)» artikuluan. Aintzat hartzeko moduko 1840-2020 urteen arteko denbora-tartea azterkizun izanik, testu klasiko kanonikoak nork eta zein modutan argitaratuak eta berrargitaratuak diren bildu du, bestelako xehetasu-

nak ere aipatuz. Berrargitalpenok garaian garaiko kultura-jendeak eta inprimatzaileek izandako interes soziokulturalen eta literarioen berri ematen dute, batetik; eta bestetik, argitaratzaileek zituzten xede, ezagutza eta praxien arabera testuei emandako tratamenduak azaleratzen dira.

Zazpi artikulu orotara, euskal ediziozaren esparrua argitzeko zazpi begirada poliedriko, bakoitza gai eta ikuspegi zehatz batean oinarritua. Hastapen ikerketak izanagatik, ez dira hurbilpen makalak, inolaz ere. Eta halere, artikulu hauen hastapen izaera da nabarmendu nahi genukeena. Hastapen oro jarraipena izateko bokazioz ernaltzen baita, eta argitalpen hau ere xede horrekin eratu dugu.

Ez dira gutxi digitalizazioak ediziozara ekarri dituen eraldaketak, eta argitalpen digital honek horren erakusle izan nahi du. «Aro digitala» deiturikoak esparru editoriala irauli du, bai ekoizpenari dagokionez, bai edukiak proiektatzeari eta zabalkunde moduei dagokionez ere. Bada, zabalkunde mota horren aldeko apustua egin nahi izan dugu, euskal ediziozaren ikerketetan jarritako harri honek oinarri sendoa izan dezan.

Editore traditore: editorearen irudikapena euskal narratiban¹

Mikel Ayerbe Sudupe

UPV/EHU-MHLI

Laburpena

Artikulu honetan editorearen irudiaz arduratuko gara; zehazkiago, editorearen irudikapena euskal fikzio garaikidean zein modutara jorratu den aztertuko da. *A priori*, norbaitek pentsa lezake editorearen agerpenak ez direla hainbesterako izango euskal narratiban, baina ondoren ikusiko denez, editorearen fikziozko irudikapenak ez dira gutxi, ez dira ausazkoak eta, sarritan, literatur esparruko gatazkak agerrarazteko ere baliatzen dira editoreak literaturan. Gainera, editorearen irudia, kasu gehienetan, metaliteratura edota metafikzio joerako lanetan agertuko da. Eta izenburuko *editore traditore* binomioak irudikatu bezala, ondorioztatuko dugu editorea tartean denean harreman gatazkatsuak islatzen direla euskaraz idatziriko ipuin, antzezlan eta eleberrietan.

1. Sarrera

Literatur sisteman bestelako osagaiek parte hartu arren, Idazleak, Liburuak eta Irakurleak osatzen omen dute literatur esparruko hirutasun santua. Eta Editorea? Non kokatu editorearen irudia? Hirukiaren zein erpinen aldera lerratzen da? Editoreak sarritan, eskuizkribuen lehen irakurleak izateaz gain, idazketan ere laguntzen baitio idazleari. Liburugintza da editorearen zeregina, argitaletxeko katalogoaren ardura izatearekin ba-

¹ Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) IT 1047-16 ikerketa-taldearen eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen parte da.

tera, merkatuarekin etengabe borrokatzera behartuta, salmenta, promozio eta bestelakoez gainezka. Eta idazleekin hartu-emanak izatera ere bai, idazleen eta liburuen zaldun ibiltari izateraino.

Askotan esan izan da editoreak eta idazleak bikote harreman bat osatzen dutela. Alberto Manguelen arabera, ordea, editorearen eta idazlearen harremana maitasun harremana baino zailagoa eta konplexuagoa da: «a las pasiones y celos, infidelidades y delicias de esta última, deben sumarse a la primera la intimidad intelectual y emotiva que se establece entre ambos, y también la dependencia económica a la que suelen ser condenados» (Manguel, 2018: 52). Maitasuna, ordea, gorrotoa izendatzeko beste modu bat baino ez da eta literaturaren mundutxo honetan, ezagunak dira editore eta idazleen arteko gatazkak ere: Raymond Carverren idazlanetan Gordon Lysh editorearen gehiegizko eskushartzea, adibidez (2009an argitarata emandako *Beginners* lanean, editorearen eraginik gabe irakur daitezke jatorriz 1981an kaleraturiko *What we talk about when We Talk About Love* liburuko ipuinak); Cristina Moralesek 2020an berrargitaraturiko *Introducción a Teresa de Jesús* laneko hitzaurreak berriki astinduriko hautsak (Anagramak argitaratu du aurrez 2015an Lumen argitaletxeak *Malas palabras* izenarekin kaleraturiko saiakera); edota Nobel Saria eskuratu duen Louise Glück-en itzulpenen argitalpenen harira berriki sorturiko Pre-Textos eta Visor argitaletxeen arteko hikamika; Javier Marias eta Anagramako Jorge Herralderen arteko aspaldiko tirabirak...

Eta hain zuzen ere, Herralde bera da edizio lanari eta bere ibilbide editorialaren ingurumariak —sariak, bildumen inguruko informazioa, idazleei eskainiriko omenaldietako hitzaldiak, Espainiako argitaletxeen panoramari buruzko gogoetak edo beste herrialdetako zenbait editorerekin izandako harremanak, besteak beste— hiru liburukitan bildu dituena: *Opiniones mohicanas* (2001), *Por orden alfabético. Escritores, editores, amigos* (2006) eta *Un día en la vida de un editor y otras informaciones fundamentales* (2019). Azken ale horretako lehen orrietan, «los libros de editores o sobre la edición interesan *muchísimo* a *poquísimas* personas» berresten du egileak (Herralde, 2019: 17); eta zinez, liburu erabat interesgarriak dira ez soilik Anagrama bezalako argitaletxe ospetsu bateko editorearen ibileren berri izateko, baita Espainiako literatura sistemako argitalpengintzaren berri izateko ere, zuzeneko testigantzen bitartez. Beste editore-liburu gomendagarri bat 2000ean kaleratu zen Diana Athill-en *Stet: An Editor's Life* litzateke.

Zoritxarrez, euskal literaturaren esparruan nekez topa genezake halako hurbilpenik editorearen zereginei lotuta, Juan Mari Torrealdairen *Euskal kultura gaur* (1997) hartatik hona. Horrenbestez, egun euskal editoreen berri prentsako elkarrizketetatik jaso daitezke gehien bat². Berriki, hainbat argitaletxetan editore erreleboa egon da (Susa, Txalaparta eta Igelan, adibidez), eta horren harira, Gorka Arrese, Leire Lopez Ziluaga, Mikel Soto edota Garazi Arrulari hainbat elkarrizketa egin zitzaizkien editoregintzari

² Hain zuzen, hutsune hori betetzera dator MHLI ikertaldeak abiatutako «EDITEUS: Euskal edizioaren mundua», non, besteak beste, euskal edizio gintzako pertsonen egindako elkarrizketak ikusgai dauden. Era berean, «Euskal edizioaren hiztegia» atalean, Euskal edizioaren munduari buruzko informazioa biltzen da: argitaletxe eta editoreen soslaiak, inprentak, bitartekariak... www.mhli.net helbidean ikusgarri.

buruz³. Arresek, Susako editore lana utzi ostean, honela definitzen zuen editorearen betebeharra, orkestra-gizonaren irudia bereganatuz: «Idazlearen laguntzailea da editorea, idazleari bere liburu ahalik eta egokien plazaratzen lagunduko diona. Idazlearen ahalegin estetikoaz arduratuko da aurrena, baina ondoren liburuaren forma fisikoaz, fabrikazioaz, finantziarioaz, zabalkundeaz eta promozioaz» (Alberdi, 2018). Soto ere antzera mintzo da: «Euskal Herriko tamainan, ez da existitzen beste esparru batzuetan existitzen den editore ia-ia purua, zeina bakarrik dedikatzen den originalak irakurtzera, zuzentzera... Gurean editore bat da psikologoa, harreman publikoak, prentsa, kontularia, zuzentzailea... Denetarik pixka bat egin behar du» (Sarriugarte, 2019). «Testuak behar duena eta idazleak behar duena ez dira beti gauza bera, eta ni hor tartean nago» zioen Susako editore hasiberri Lopez Ziluagak, eta argitaletxean egondako beste zenbait aldaketaren berri ere eman zuen: «Susan egon den aldaketa bat da orain batzorde editorial bat dagoela. Argitaratuko diren liburuak zein izango diren pentsatzeko orduan ez ditut erabakiak nik bakarrik hartzen, batzordearen laguntzarekin bai-zik» (Kamio, 2018).

Edonola ere, artikulua honen helburua ez da euskal editoreen eta argitalpengintzaren berri zehatza biltzea, euskal fikzioari erreparatuko baitiugu hemen: narratibari, hain zuzen. Euskal narratiban editorearen irudia nola errepresentatu den aztertuko dugu, irakurleari editorearen irudiaz euskarazko fikzioan idatzi dena bilduz eta eskainiz, balizko interpretazio eta ondorioekin. Miren Ibarluzeak *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan* 2017ko tesian itzultzailearen irudiarekin nola, halaxe egingo dugu ondorengo orriotan editorearen irudiarekin. Izan ere, fikzionalizaturiko itzulpenaren eta itzultzailearen gaia aztertzen du Ibarluzeak euskal narratiban, eta ondorioztatzen du fikzioan errepikatu egiten direla itzultzaileei lotzen zaizkien irudiak eta motiboak. Eta editoreen irudiarekin ere antzerakoa gertatzen dela ikusiko dugu jarraian.

Azkenik, azterketa honen aurrekaritzat har daiteke José Luis Diegoren «Editores en la literatura» 2019ko artikulua. Bertan, Honoré de Balzac, Max Aub, Italo Calvino edota Enrique Vila-Matasek fikzioan landu dituzten hainbat eta hainbat editore errepresentazio sailkatzen ditu egileak editore «sultan», «oportunistak», «hipokrita», «pirata» eta «sabeliztun» kategorien baitan.

Jarraian, beraz, euskal literaturan agertu izan diren editoreak aztertuko ditugu. Obraren berezitasunak eta ezaugarriak aintzat hartuz eta editorearen gainean ematen den ikuspegiaren arabera, hainbat multzotan banatuko ditugu editorearen irudikapenak: editore simulakroen agerpenak; editorearen egiletasuna lantzen dutenak; edizio gintza eta genero gatazkak... Ekin diezaiozun, ordea, mendeku literario gisa ulertu izan diren lanekin.

³ Era berean, booktegi.eus atariko Elkarrizketa sailean Xabier Mendigureni egiten dioten elkarrizketan ere edizio gintza da gai nagusietako bat: <https://booktegi.eus/bideoa/252/xabier-mendiguren> [2020/11/15].

2. *Vendetta* narratiboak?

Euskal Literatur Sistemaren erradiografia narratibo kritikorik izan bada, 2004. urtean Ur Apalategik argitara emandako *Gure Gauzak S.A.* nobela da. Izan ere, thriller gisa mozorroturiko kontakizunean kritika guztien jomuga bilakatzen da euskal literatur sistemaren baitan merkatuek, instituzioek, erreperitorioek eta gainerako elementuek izaniko bilakaera. Eta nola ez, baita edizioaren mikromunduarena eta, bereziki, editorearen irudi jakin batena ere.

Era berean, 2006an Donostia Hiriko Kutxa literatur sarietako antzerki saria eskuratu eta urte berean kaleratu zen Aitor Aranaren *Editorea* antzezlan. Kasu honetan, idazle baten esperientzietatik abiatuta, piezan X izendatzen den editorearen praxi bidegabeak salatzea helburu duen testua litzateke.

Ibon Egañak ezin hobeki laburbiltzen du bi liburuen muina, eta baita idatzi zireneko testuingurua ere:

Euskal literaturaren argitalpen bidea euskararen eta kulturaren aldeko lan militante izatetik pixkanaka beste edozein hizkuntza «normalizatutan» bezala industria bat izatera igarotzearekin (bere botere-lehiekin, diruzasetasunekin, ezinikusiekin eta nagusikeriekin) kezka eta ezinegona sortu da zenbait idazlerengan, eta baita errealitate hori kritikatzeko beharra ere. Esanguratsua da, eta zer pentsatua eman behar lukeena, denbora tarte laburrean Ur Apalategiren *Gure gauzak S.A.* eleberria eta Aitor Aranaren *Editorea* antzezlan argitaratu izana, biak ere esperientzia pertsonal zuzen nahiz zeharkakoago baten ondorioz sortuak eta biak ere euskal literatur eta kultur sistemaren fikzio bidezko kritika zorrotzak. Kritika global, orokorragoa bata, editorearen figuran zentratua bigarrena (Egaña, 2006).

2.1. *Gure Gauzak S.A.*

Apalategiren *Gure Gauzak S.A.* nobela berezia izan zen argitalpenetik bertatik hasita: «Gauza jakina dena da argitaletxeengandik ez duela Ur Apalategik sostengurik jaso, bera parte den Utriusque Vasconiaen bertan literatur-bilduma abiatu behar izan baitute eleberrri honi aterabidea emateko» (Estankona, 2004). Izan ere, Utriusque Vasconiae argitaletxeak (2002-2018) bi urteko ibilbidea egin zuen ordurako, helburu nagusi gisa bokazio akademikoarekin eta euskaraz euskal pentsamendua landuz eta hedatuz. Horrela, beste argitaletxeetan bidea itxi ziotelako argitaratu zen *Gure Gauzak S.A.* aipaturiko argitaletxean, literatur sorkuntza lanak kaleratzeko berariaz sortutako *Egunero irakurtzen delako* sailaren baitan. Eta noski, liburua argitaratzeko eragozpenen artean, euskal kulturako barne mekanismoei ez ezik, argitalpen eta edizio munduari eginiko kritika zorrotzak aipa daitezke, besteren artean.

Argumentuari dagokionez, Julene Oihanburu da nobelako protagonista, gazte izanik ere euskal kulturgintzaren atea irekita dituen euskal filologiako ikasle, ipuin-idazle hasiberri eta *Gure Gauzak S.A.* argitaletxeak sustaturiko beka bat eskuratu duen emakumea. Gaston Berrizar idazle «baztertuaren» biografia egitea izango da diru-laguntza eskura-

tzeko bidea. Baina bidea labirinto bilakatuko da orriak aurrera doazen heinean eta beka-ikerketak ofizialetik at bestelako bidezidor arriskutsuak ere aurkituko ditu protagonistak. Bidegurutzeko honen erdian, Julene inguratzen duten pertsonaiek egoera are gehiago korapilatuko dute.

Askotariko irakurketa-mailak eskaintzen ditu nobelak eta plano hauek hiru ildo nagusitan biltzen ditu Apalategik: batetik, thriller eta intrigazko nobelaren berezitasun guztiak jorratzearen ahalegina nabari da; bestetik, metaliteraturaren bidezidorretatik abiatuz euskal literaturaren bestelako bilakaera bat irudikatzen du («bazterreko» idazle apokrifoaren testu eta belaunaldi-kideekin, adibidez); eta, azkenik, euskal literatur sisteman atze-oihaleko estoldak agerrarazi eta salatze asmoz, satira gupidagabea burutzen du⁴. Ez alferrik, liburuaren sarrerako hiru epigrafeetatik ondorioztatu daitekeena ere ez da ausazkoa, nobelaren tonua eta, neurri batean, gibel-asmoa ere iradokitzen baitute: «L'extravagance est le privilège du réel / Krimena negozioren luzapen naturala da / The show must go on» (3)⁵.

Gure Gauzak S.A. izenburuak Euskal Herriko balizko argitaletxe handienetarikoari egiten dio erreferentzia, baina bestelako argitaletxeak ere aipatzen dira —Erne, Haranzabal edota Iparraldeko Ohara, esaterako—, bai eta argitaletxeen arteko talka irudikatu ere. Honela mintzo da Ilun Zaldunbide idazle pertsonaia Erne eta Gure Gauzak alderatzera-koan eta, bide batez, Mikel Agirre fikziozko editorea ere aurkeztuko du:

—Erne hobea da, kalitate literarioa hobeto zaintzen dute. Alderatu besterik ez dago beraien katalogoa eta hauena, baina profesionaldu nahi dugunontzat ez dago *jeje*kin⁶ elkarbizi beste erremediorik. Askoz ere azpiegitura indartsuagoa dute. Ekoizpenetik hasi eta banaketa nahiz promozioari dagokionean ez dute lehiakiderik. Kontuz baina, hor datorkigu eta euskal zerbitzuko «jedi» nagusia: Obi Wan Agirre. Indarra gurekin bedi (13).

Editorearen aurkezpena parodia hutsa da, eta karikaturizazioa areagotu egiten da, ondorengo pasartean editorea aurkezpen ekitaldiko pintxoak eta edariak herioak harturik bereganatzen irudikatzean. Edonola ere, beste une batean Gure Gauzak-eko literatur sailaren zuzendarietatik honako zehaztapena gaineratuko du Zaldunbide pertsonaia: «Jefea? Ez. Hori morroia da. Morroien burua, nahiago baduzu. Jefea, benetakoa, beste hura da [...] Andoni Urdangarin, Gure Gauzak-eko gerente eta sortzailea» (17).

⁴ Eleberriko kritikak askotariko norabideetan botatako geziak bezalakoak dira: enpresa handiaren hedatze estrategien baitan balizko liburu-denda txikia «irensteko» egindako presio eta sabotaje neurriak agertzen dira (banatzailearekin izandako gorabeherak, kasu); fikziozko Francisco Melchor epai-leak Gure Gauzak argitaletxea ETAre jardunarekin nahastu eta nolabait, euskal kulturaren kriminalizazioaren salaketaren gaia ere jorratzen da, bestelako inplikazio batzuekin, ordea (kasu honetan, Baltazar Garzon-en trasuntoa eta *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera daude atze-oihal gisa, garaiko egorearen isla). Edonola ere, honako honetan, argitaletxeen errepresentazioari eta editorearen irudiari errepertatuko diogu.

⁵ Parentesi artean zehaztuko dira aztergai izango ditugun liburuetako aipuen orrialdeak. Erreferentzia guztiak liburuen lehenengo ediziotik hartu dira. Bibliografian zehaztuko dira azterturiko liburuen erreferentzia osoak.

⁶ Nola ez, «jeje» Gure Gauzak argitaletxea izendatzeko modu isekaria da.

Editorea izateaz gainera, idazlea ere bada Mikel Agirre eta uneren batean aditzera ematen da bere idazlanei aterabidea ematen diela bere argitaletxean bertan, beste zenbait idazleren eskuizkribuak baztertuz. Bestalde, editore gisa baliaturiko praxi desegokia ere salatzen da nobelan —«dirudienez oso modu sadikoan jokatzeko du gustatzen ez zaizkion liburuen egileekin» (98)—; eta, era berean, Julene Oihanbururen peskizak ere eragotziko ditu editoreak, ezkutuko arrazoiak medio.

Une batean, *Gure Gauzak S.A.* nobelako salaketa are metafikzionalagoa bihurtzen da, pertsonaiak Durangoko azokan daudela *Nesken egüna* aldizkari satiriko-pornografiko-kritikoaren ale berrian «Sexu txantaia euskal literaturan!» testua ikusten dutenean.

—Editoreetaz ale berezia egin duzue ala?

—Ipuin bat da. Argitaraldi batek nola idazle neska gazteei txantaia sexuala egiten dien argitaratzearen truke kontatzen du.

—Hortaz, ez nenbilen urruti. Anonimoa?

—Ano Nimio ezizenez dator. Eta eskerrak. Izan ere, bertan gure mundutxo literarioko osagai batzuk, eta bereziki pertsonaren bat, nahiko erraz ezagutu lezake edo-nork (124).

Bira metafikzional honen bidez, obraren izaera autokontzientea nabarmentzen da eta nobelaren baitako elementuak ere azaleratu egiten dira: «gracias a la apuesta del escritor por una acción comunicativa capaz de incorporar un acto de construcción textual en la que se ponen en descubierto las estructuras confortantes de ese mismo texto» (Camarero, 2004: 457). Beraz, nobelako fikzioaren baitako aldizkariko ipuinak irakurtzen ari garen nobelaren funtzio bera betetzen duela esan daiteke, eta fikziozko ipuinean bezala, mundutxo literarioko osagai eta pertsonaren bat ere erraz ezagutu daiteke Apalategiren *Gure Gauzak S.A.* liburuan. Estankonak «zorrotz» idatziriko nobelatza aipatu zuen prentsako kritikan, «hain zorrotz, non euskal literatur munduan —eta batez ere Elkar argitaletxearen inguruan— izena duen orok baitauka bere txotxongiloa Ur Apalategik eraiki duen fikzioan» (2004). Eta adibidez, Ilun Zaldunbide pertsonaiaren atzean egon daitezkeen hezur haragizko idazlearen zantzuak nabari daitezkeen arren, edota Erne eta Gure Gauzak argitaletxeen atzean dauden benetako izenak nabarmenak izanagatik, Apalategik satira muturreraino eramanez eta errealitatea eta hiperbolea gainjartzen ditu, «fikzioa kritika sozialerako tresnatzat hartzean» (Egaña, 2004).

Hala izanagatik, liburuari eginiko kritiketan behin eta berriz aipatu zen mendeku literarioaren auzia: «entzun ditut gorrotoa eta mendekua daudela sorburuan» zihoen La-sartek (2004); Epaltzak (2004) ere aipatzen du sobera nabari zaiola mendeku nahia eta ondorioztatzen du: «Bertze kontu bat da zerk egiten duen irakurlearengandik tira, idazlearen gaitasunak haria aitzina eramateko, edo orrialdez orrialde euskal argitalpengintzaren erraldoia eta —bereziki— haren ingurukoak egurturik ikusteak sorrarazten duen morboak». Eta, jarraian, gaineratzen du: «Eta hala ere zaila zait irensten liburu honetan pertsonaia batzuek hartzen duten jipoi gupidagabea. Arazoa nirea da noski: pertsonaia horiek pertsona erreal eta ezagunen alter ego begibistakoak izaki, eta nik horiek nekez egiten ahal halako egur metaren merezidun». Bestalde, bitxia bederen bada beste editore batek, Luis Haranburu Altunak (2004), nobelaren aldeko kritika idatzi izana, *Gure Gauzak S.A.n* «edizioaren mundua bere miseria eta morrontzekin deskribatzen» dela adieraztea

eta bestelako gogoetak berrestea: «Tranpaz eta desitxuraz beterik ageri zaigu Apalategiren fikzioan euskalgintzaren hainbat desitxura eta gezur. Baina Apalategik ez du zauri mingotsean arakutzen eta ironiaren distantziaz janzen du lotsagarria den bilutsa [sic]».

Zenbait idazlek pairatzen dituzten bidegabekeriez gain, Gure Gauzak argialetxearentzat urte luzez arituriko ilustratzaile eta maketatzaile baten kasua ere aipatzen da nobelan. Fernando Egiguren da bere fikziozko izena eta berak azaltzen du nola argialetxean Gaston Berrizarren eskutik sartu bazen ere —hasieran ilustrazioak egiteko eta ondotik, zenbait itzulpen eta testu erredakzio idazteko—, enpresako langile soldatapeko bihurtzearekin batera ez zizkiotela egile eskubideak aitortzen eta ezta ordaindu ere. Are gehiago, Gure Gauzak-eko buruen aldetik Berrizarrekiko bazterketa gertatzen denean Egiguren ere baztertu egiten dute eta azkenik Haranzabal argialetxera alde egingo du. Egile eskubideekin lotuta, gainerakoa ere zehazten da eleberrian: «Ba al dakizu zenbat kantari eta idazle nardaturik dauzkaten, gaur egun ere, autore eskubideak ez errespetatzeagatik... Eta ez pentsa kantari hasi berri edo ezezagunetaz ari naizenik» (197).

Eleberriaren amaiera aldera, thriller kutsuko kontakizunetan gertatu bezala, erritmo oso bizkorra bereganatzen du *Gure Gauzak S.A.*-k eta korapilo asko askatzen dira. Korapilo horietako batek Oihanburu ikertzen ari den Gaston Berrizar idazlearekin du zerikusia, eta zehazki, Gure Gauzak argialetxearen sorreran izan zuen parte-hartze zuzenarekin. Izan ere, errebelazio gisa kontatuko da Berrizarrek 1971an Gure Kausa⁷ deituko zen argialetxea sortzeko egin zuen ahalegina; eta baita sortu ere, nahiz eta berehala «Haien Kausa» izatera pasatuko den, pertsonaia baten hitzak erabiltzearen. Transakzio horren inguruko xehetasunak Berrizarrek berak idatziriko gutun batean aurkituko ditu Oihanburuk, Gure Gauzak argialetxearen historia laburtzen duen hogeitau folioetan (266-268): enpresaren sortze agiriak, Urdangarin kontablearekiko ezadostasunak, 90eko hamarkadan enpresa Fundazio bihurtzeko eginiko urratsak, Gure Banaketak zabaltzailearen irismena, Gure Liburudenda katearen inguruko berriak... Eta errebelazio horrek bestelako ondorioak ere ekarriko ditu nobelaren amaieran, Julene Oihanburuk ez baititu datu esanguratsu horiek bilduko azkenik argitara emango duen Berrizarren biografia ofizialean.

2.2. *Editorea*

Aurrez esan bezala, Aitor Aranaren *Editorea* antzezlanak 2006ko Donostiako Kutxa irabazi zuen eta epaimahaiak⁸ argitaraturiko oharrean, lan honen koordinadak zehaztearekin batera, esplizituki konparatzen da Apalategiren lanarekin:

Gutxitan aztertu da zehazki eta kritikoki gure literaturan euskal edizioaren barne egitura. Eleberri bat ezik (Ur Apalategiren *Gure Gauzak S.A. Utriusque Vasconiae* 2004) ez dago ia deusik, baina oraingoan kazetari eta idazle baten arteko elkarrizketa ziztakor, sakon, eta ongi egituratuaren bitartez eraman ohi da kritika antzerti arlora (77).

⁷ Izena, Jean-Paul Sartrearen *La Cause du peuple* agerkaritik moldatua omen (135).

⁸ Aurelia Arkotxa, Ana Toledo, Daniel Landart eta Patri Urkizuk osatu zuten epaimahaia.

Izan ere, antzezlan osoa idazle eta kazetari baten arteko solasera mugatzen da, kazetariak ohiko hitz aspertuen ordezkariak mamitsu bat nahi duela-eta, *Gure kontuak SA* izeneko liburua amu gisa erabili eta idazleari editorearen irudian zentratu nahi duela adierazi ostean. *Editorea* antzezlanak hor egiten du metafikziorako ziaboga, narratzaileak aitortzen baitu liburu bat idazten ari dela *Editorea* izenburuduna. Eskuarte dugun antzezlanak izan beharrean, ordea, «eleberria da. Inguru eta giroa asmatuak dira, baina muina egiazko da» (23). Eta garrantzitsua da idazleak liburu intradiegetikoaz esandakoa, Aranaren antzezlanaren sarreran ere antzeko ohar bera txertatzen baita: «antzezlan honetako gertakariak erabat eta zeharo daudelako errealitateari lotuta» (11).

Fikzioan jorratzen direnak errealitatean oinarrituta badaude ere, sarrera horretan atentzioa deitzen duen beste ezaugarria 1. pertsona pluralaren erabilera da. Plural maiesatikoa baino, salaketa kolektibo baten zantzuak bildu nahian ziur aski, egileak nabarmentzen baitu beste hainbat idazlerekin ere jarri dela harremanetan eta eurek ere jasan dituztela editorearen bidegabekeriak. Bestalde, Apalategiren nobelak izandako kritiken ondorioz, Aranek argiki azpimarratzen du *Editorea* idazteko bulkada ez dela gorrotoak bideraturiko izan:

Bidegabekeria pasibo edo aktibo (ez dakigu benetan) iraunkor baten iraupenak berak bultzatu gaitu *Editorea* kaleratu nahi izatera, egia baita leku eroso eta boteretsu samarra eskuratu duten euskal editore batzuek idazle interesgarrien lanak eta jardunbideak zapuztu edo atzendu edo desagerrarazi dituztela; halako indarrez, gainera, ezen zenbaitetan euskal literaturaren garapen bideetan eragin gaitzesgarria izan baitute. Hainbatetan modu pasiboan edo aktiboan egin da hau, eta baieztapen hau bera gure egia dela diogu (12-13)⁹.

Egiantzekotasuna baino, egiazkotasuna bilatzen baita lerrootan; autofikzioaren bitartek, ordea. Egia fikzioz mozorrotuta, beraz, betiere zenbait editoreren botere-gehiegikeria salatzen: horretarako, «X editore» gisa izendatuko da kritika guztien iturria den Euskal Herri erdialdeko argitaletxe handienetako editorea. Halaber, idazlea ere bada X editorea eta «bere argitaletxean nahi adina argitaratzen ari bazen eta, aldi berean, idazle askoren maila bereko lanak baztertzen... bere buruari euskal literaturaren munduan lekua egiten ari zela pentsa daiteke» (44). Horrez gain, idazleak editorearekin izaniko hamaika desenkontru kontatzen ditu, lan munduko giro eta harremanekin lotutakoak gehienak —errespetu faltak, hitz itsusiak, jarrera desagokiak, idazle kontsakratuei negar eginarazi izana—, eta baita praxi askoz bidegabeagoak ere. Hala nola, literatur sari batean epaimahaikide gisa eginiko jukutria (45-49). Bestetik, sarreran 1. pertsona pluralaren erabilerekin egin bezala, idazleak bere bizipenei dimentsio kolektiboago bat erantsi nahirik, gainerako idazle adiskideak elkarrizketatuko ditu eleberrirako dokumentazio gisa eta euren eskutik jasoko ditu beraiek ere jasandako itsuskeriak. Gainera, X editorearekin izaten duen istilu baten ostean argitaletxe bereko X2 editorearengana ere joko du laguntza eske eta izaten duten elkarrizketak oraingoz hemen azterkizun ditugun bitartek lanak zuzenean uztartzen ditu: «X2 editoreak Ekialdeko idazlearen *Gure kontuak SA* li-

⁹ *Editorea* antzezlaneko *Editorea* nobelaz ere antzera mintzo da idazlea: «nire eleberrian inoren izenik argi jakinarazteko asmorik ez dut: nik ez daukat ezer argitaletxe horren kontra, bertan ari diren batzuen bidegabekeriak eta axolagabekeriak ari naiz; baita botere-gehiegikeriak ere» (24).

burua ezagutzen al nuen galdetu zidan eta baietz erantzun nion, idazle hori nire *Editorea* idazteko elkarrizketatu bainuen beste hainbatekin, libururako dokumentazio lan egitean» (67).

Zorionez, azkenean X editorea atzean utzi, beste zenbait idazlerengan babesa aurkitu eta bestelako editoreak badirela ere jabetuko da idazle protagonista: «Editore jator askoak aurkitu nituen orduan [...] Baditut bereziki maite ditudan bost editore, hiru gizonetako eta bi emakumezko» (43).

Ondorioz, X editoreak bere egindako *modus operandi* bidegabeen eta bere botere-gehiegikeria erakustaldien aurkako kontakizuna nagusitzen den neurrian, norbaitek erraz esan dezake editore jakin baten aurkako mendekua nagusitzen dela, eta oso tangentialki X2 editorearenganako, nahiz eta egileak X editorearen atzean editore batzuen bekatuak salatu nahi izan. Rojok prentsako kritikan «editoreen kritika dago liburuan, nabarmen eta ageriko» (2006) zehaztu zuen arren, ez ahaztu iruzkinari «Editorearen kritika» izenburua ezarri ziola.

2.3. *Ehiztariaren isilaldia*

Luis Garderen *Ehiztariaren isilaldia* nobela 2015ean argitaratu zuen Pamielak eta 2016ko Euskadi Literatura saria eskuratu zuen. Nobelaren trama nagusia Gerra Zibileko Ezkabako ihesaldiari buruzkoa izan arren, «protagonista memoria berreraikitze ahaleginetan aritzen den pertsona dugu» eta «ahantzura horren aurka altxatzen da Luis Garderen avatarra dirudien narratzailea» (Rojo, 2015). Izan ere, idazleak autofikzioaren ildoari egiten dio tira hainbatetan nobelan eta bide horretatik, editore batekin izandako gorabeherak aipatzen ditu «Liburu baten bide epikoa» deituriko kapituluan.

Horrela, Garde idazleak bezala, narratzaileak aditzera emango du bere *Oihan narra* aurreneko poemarioaren ondotik, jasotako prentsako kritika bateko «epikoegia» hitzak sorturiko hausnarketa (Kortazar, 2004)¹⁰. Eta jarraian, *Haize hegoaren aroak* bigarren poema liburua argitaratu aurretik, narratzaile autofikzionalak zehaztuko du: «argitaratzaile ezagun batek deitu zidan esanez nire estreinako liburua gustatu zitzaizola, ea idatzitako material gehiagorik neukan. Baietz erantzun eta, azken-aurreko zuzenketak egindakoa, nire poema epikoa bidali nion» (128). Editoreak, ordea, behin eskuizkribua irakurritakoan dezepzioa berehalakoa izan dela jakinaraziko dio eta baita zergatiaren arrazoiak eman ere. Idazlea ziur da, ordea, liburu hark kalitatearen aldetik gutxienezko estandar batzuk betetzen zituela: «Baliteke, dena den, uste hori hagitz aspaldi galdu nuen xalotasunaren itsumustuko adierazle izatea, irakurle jaunak poemetako batzuei kutsu *naif* arin bat hartzen ziela esateko potro santuak izan baitzituen» (129). Jarraian, editorearen blogean izaniko ika-mikatxoa ere laburbiltzen da eta idazlea autozentsuratu egingo da, azkenean ez baitio editoreari bidaliko bururatzen zaion mezu esanguratsua: «*Beti arte, argitaratzaile argitsu hori. Segi bizkor obra onen eta kakaren arteko iragazi funtzio zi-*

¹⁰ Nobelaren kritikaren egilea esplizituki aipatzen ez bada ere, 2004an *El Paisen* Jon Kortazarrek ataratako «Bizitzaren bide erdian» iruzkina dago aipamenaren atzean.

bikoa betetzen, baina ez nahasi zure kokapena eta jar zaitez iragazkiaren alde garbian, otoi» (130). Pasartearen amaieran, narratzaileak zehazten du proiektua Iruñeko editore batzuei igorri eta «artisaunen arretaz eta arteaz» lan egin ostean, poemarioa argitara ematen dutela.

Beraz, esan daiteke nobelaren plano autofikzionala baliatzen duela narratzaileak ize-nik aipatzen ez den editorearekin iraganean izandako kontuak kitatzeko.

3. Editore simulakroak

Baudrillard-en *hiperreal* kontzeptura (1978) hurbiltzeko intentziorik gabe, atal honetan editorearen irudi umorez parodiatur, antzaldatur eta beste hainbat simulakro saiakera jorratuko dira. Egia da aurreko ataleko adibideetan ere editorearen irudia parodiatur ageri zela, baina errealitate zehatz baten adierazle bezala aurkezten dira, kritika sistemiko edo orokorragoaren baitan (*Gure Guazak S.A.*) edota kritikaren jomuga gisa (*Editorea*). Hurrengo adibideetan, aldiz, editorearen irudiaren gaineko umorea, ironia edota karikatuzazioa muturrera eramanda agertzen dira eta errealitatearekiko ezein lotura lausoago agertzeaz gain, bestelako irakurketa eta interpretazio ildoak ere eskaintzen dituzte.

3.1. «Suhiltzaileak (epilogo)»

2006an argitaratu zuen Jon Alonsok *Erretzaileen eremua* ipuin-bilduma eta epilogo gisa liburua ixten duen «Suhiltzaileak» ipuinean editore bat da protagonista, Balkan Txiki argitaletxeko arduraduna: «argitaletxe artesanala zen, produkzio laburra baina zaindua kaleratzen zuena» (136). Argitaletxeak su hartu du eta suhiltzaileak ageri dira sutan dagoen argitaletxea itzali nahian, etengabe *mekaguendioska*. Sua itzali ostean, editoreak bere burua entregatzen du polizia-etxean, sua piztu izanaren erantzulea bera dela aitortuz eta «'nekea' eta 'eroaldi iragankor baten mende egon izana' alegatuz» (136). Edonola ere, laster zabalduko dira benetako arrazoen inguruko zurrumurruak; hots, editoreak ezinbestean argitaletxeari su eman ziola hainbat idazlerekin tratuan ez jarraitzeko:

Editorearen kolega batzuek ahapeka aitortu zuten bere jokabidea ez zitzaiela hain aparteko eta burugabea iruditu; izan ere, halako idazle «interesgarri» eta are «oso interesgarrien» elementia bat edonoren eramana eta pairamena mila puska txikitantatzeko modukoa izan behar zen, eta denek gogoratzen zuten editorea bere kortakoak mimoz artatzen, bizkarraren gaineko esku-zarta amultsuak banatzen, animo eroriak altxatzen, idazle desmotibatuak adoretzen, idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzten, zalantzatiei segurantza ematen, seguruegiei freno jartzen; hasiberriei idazle interesgarriak izateko aholkuak ematen, interesgarriei oso interesgarri izateko gomen-dioak partitzen, eta jada oso interesgarri zirenei bere mukizapi propioa maileguan uzten negar egin zezaten, eta are lepoa edo magala ere eskaintzen mukizapia sobera umel eta mukiz beteta geratzen zenean; eta hau gero eta maizago gertatzen omen zen, zeren, editorearen aholkuak hain zirenez onak eta egokiak, oso interesgarritzat har zitezkeen idazleak erruz biderkatzen ari baitziren, perretxikoek klima-baldintzak alde dauzkate-nean, eta horrela (136-137).

Ez alferrik, kompetentziakoa den Entelekia argitaletxeko —ironikoki argitaletxe artesanak eta interesgarria hau ere— editoreak ere ondotoxo ezagutzen du egoera eta bera-taz errukitzen da: «bera izatera, aspaldi suizidatu zatekeela, edo lanbidez aldatu» (137); eta, are, idazle gogaikarrien izurritea oso hedatua dagoela ere jakin badaki: «hain artesanalak eta hain interesgarriak ez ziren argitaletxeetan ere egoera ez zela askoz hobe» (138).

Azkenean, nahiz eta editoreak sua piztu izana aitortu, agintariak ebatziko dute sua kortozirkuitu batek eragin zuela eta hala, ipuineko azken paragrafoan editorea agertuko da agintarien prentsaurrekoan herioak harturik, aparra ezpainetan eta rotaflex batekin, eta bertaraturikoen aurka amilduko da. Hor amaitzen da ipuina.

Ondoriozta daitekeenez, orain arte ez bezala editorea biktima gisa agertzen zaigu eta idazleak dira bere ezinegonaren arrazoi eta motibo. Idazleak dira euren zilborrari begira bizi direnak eta, gainera, aditzera ematen da ipuineko protagonistari gertatu bezala, beste editoreak ere antzeko egoeran daudela. Beraz, editorea baino, kasu honetan idazleak liriteke kritikaren erdigune, baina erraz nabari daiteke idazleen pairamenak jasan beharrak eramaten duela protagonista egiten duena egitera.

3.2. *Hor hago Kevin?*

Simulakroetan simulakroena izan liteke Kevin Heredia izenarekin sinaturiko *Hor hago Kevin?* nobela, 2010ean argitaratua. Kevin Heredia pseudonimoaren atzean Gorka Bereziartua, Aritz Galarraga, Ion Olano eta Beñat Sarasola ezkututzen ziren eta *Berria* egunkarian literatur erreportajeak eta iritziak sinatu ostean, nobela hori kaleratu zuten.

Erabat metaliterarioa da liburuko trama, liburuaren idazketa eta nobelaren lapurreta bilakatzen baitira *leitmotiv* nagusi, nahiz eta, azken finean, trama aitzakia bihurtu literatur eremuko bestelako zenbait aje edota garai hartako hainbat eztabaida koiuntural ere hizpide izateko.

Editorearen irudia dela eta, lehendabizikoz benetako izen-abizenekin aipatzen dira nobelako bi editore nagusiak: Xabier Mendiguren Elkar argitaletxeko arduraduna eta Meettok argitaletxe berriko Ramon Etxebeste, hain zuzen. Mendiguren editorearen kasuan, parodia gainditu eta karikaturara hurbiltzen da haren irudikapena: aurrena Kevin Herediari proposizio lizun bat egingo dio, Haur eta Gazte Literaturako lan bat idaztea, hain zuzen: «Badakik, lau tontakeria, ez dik oso landua izan behar. Gero apainduko genikek marrazki batzuekin» (32). Herediak, ordea, nahiago du nobela bat idatzi eta idazketa aldiari ekin ostean, lapurtu egingo diote nobela argitaragabea gordetzen zuen ordenagailua. Lapurretaren atzean Xabier Mendiguren egon daitekeela ondorioztatzen du egileak, eta hor hasiko da nobela berreskuratzeko pertsekuzioa. Editorea agertu eta desagertu egingo da nobelan zehar, bere laguntzaile Murong txinatarrarekin, une batean aditzera emanaz Mendigurenen «beltz» literarioa ere badela.

Azkenean, errealitatean gertatu bezala, eleberriko fikzioaren baitan ere *Hor hago Kevin?* nobela Meettok argitaletxeak kaleratzen duenean, lapurretaren katramila argitzen

da: «editoreen arteko trasbasea» (186) izan da guztia. Hipotesi horren arabera, Heredia-ren nobela Mendigurenek lapurtzen badu ere, Elkar argitaletxean ez argitaratzea ere erabakitzen du eta Meettok argitaletxe berriko Ramon Etxebesteri luzatzen dio eskuizkribua, «Meettok argitaletxe hasiberria zenez eta momentu horretan publikatzeko haragi freskorik ez zuenez» (186).

Errealitatea eta fikzioa eskutik etorri arren, horrek ez du esan nahi goian aipaturiko editoreen arteko harreman horiek horrela izan zirenik, ezta izaten direnik ere; baina, aldi berean, editoreen eta argitaletxeen arteko harremanez hausnartzeko bidea ere irekitzen du.

3.3. «Distopia literarioak»

Uxue Alberdik 2013an argitaratu zuen bigarren ipuin-liburua, *Euli-giro*, eta bederatzi ipuinetako bi erabat metaliterarioak izanagatik, «Su txikian» eta «Distopia literarioak», azken horretan editore *berezi* batekin egingo dugu topo.

«Distopia literarioak» ipuinean Martina protagonistak Joana logela-kidea ezagutuko du eta halako batean, gau erdian, Joanak Martina esnatu eta kanpoan zelatan dagoen auto beltza erakutsiz, Benoit editorea jarraika dabilkiola adierazten dio izututa. Orduan, Joanak Martinari, bere literatura zaletasuna ikusirik, hurrengo gauean Benoitekin duen hitzordura bere ordeztu joateko gonbita luzatzen dio. Eta Martinak onartu egiten du. Benoit editorearen etxera iristean, emakume batek irekitzen dio atea eta arropa guztiak erantzeko eskatzen dio. Aretora biluzik sartu eta bertan dau den beste guztiak bera bezala biluzik daude, Benoit editorea izan ezik. Muturreko egoeretan jartzen ditu editoreak ondoren, iseka eginaz edo zigortuz, neska-mutilak idaztera behartuz. Gau osoa idazten pasa ondoren, Martina etxera pozik itzultzen da, inoiz idatzi dituen lerro onenak idatzi dituen sentipenarekin. Etxera iristean, ordea, auto beltz batek harrapatuta Joana ospitalean dagoela jakingo du eta ihesari ekingo dio.

Ipuina hain xeheki laburbiltzearen arrazoi nagusia Uxue Alberdiren «Distopia literarioak» ipuinak Alice Munroen *Too Much Happiness* (2009; *Zorion handiegia*, 2012) ipuin-bildumako «Wenlock Egde» ipuinarekin duen zorra azaleratzea da¹¹. Bi kontakizunetako argumentuaren muina ezberdina bada ere, Alberdik Munroen ipuineko pasarte bat berri-dazten duela esan daiteke. Munroen ipuinean ere bat-batean elkarbizitzen jartzen diren bi ikaskide aurkitzen ditugu, eta batak besteari Purvis jauna jarraika dabilkiola jakinaraziko dio. Besteak hurrengo eguneko hitzordura bere ordeztu joatea onartu eta Purvisen etxera iristean, biluzarazi eta aulki batean eserarazi ondoren, poesia irakurtzera behartuko du neska Purvis jaunak.

¹¹ *Euli-giro*ko «Su txikian» ipuinean esplizituki aipatzen da Alice Munro protagonista *idazlearen* ahotan: «idazle-idazlea... ez, baina argitaratu izan dizkirate istorio batzuk, ez oso txukunak hala ere. Alice Munro, hori bai amona distiratsua, eta gure adinean» (57).

Ipuinek bestelako amaiera badute ere, Munroren ipuineko hainbat xehetasun berri-dazten ditu Alberdik; Martina ere literatur lan bat egiten aritzea¹², auto beltzarena eta emakume laguntzailerena, Benoiten etxearen kokalekua... Edonola ere, Purvis jauna editore bihurtzea da Alberdiren «Distopia literarioak» ipuinak eskaintzen duen bariazio garrantzitsuena. Izan ere, eta lotura hori agerikoago egiteko, bi izenen parekotasuna dago. Zeren Alberdiren ipuineko editorea gehienetan Benoit gisa aipatzen bada ere, une zehatz batean abizena erabili eta «Marvis jauna» deitzen diote. Eta bi pertsonaien karakterizazioan eta ipuineko argumentuan antzekotasunak bazeuden, izenen aferak adierazten du Alberdiren Marvis jauna Munroren Purvis jaunaren oinordeko dela.

Hori horrela, «Distopia literarioak» kontakizuneko Benoit Marvis editorea da, baina bere helburuak lortzeko bitarteko guztiak zilegi direla sinetsi ez ezik, helburu horietara iristeko muturreko bitartekoak besterik ez daudela praktikan jarriko du. Hasi-eran, Joanak Martina Benoiten hitzordura joan dadin konbentzitu nahi duenean, «Ez duzu editore hoberik aurkituko. Unibertsitatean ez dizute erdirik ere irakatsiko, bost axola zaie literatura» diotso eta, jarraian, «Gosea, bakardadea, sumina! Horra hor literaturaren hiru zutabe behinenak!» (82) gehituko du. Ipuinak aurrera egin ahala eta Martina Benoiten etxean biluzik areto nagusira sartzen denean konturatuko da nondik zetozen Joanaren hitzak. Benetan egoera distopikoa kontatzen dena, idazle gai eta editorearen artekoa:

Libre zegoen aulkian eseri nintzen, larru hotza sentitu nuen ipurmasailetan. Denen gorputz argal eta zurbilak izerdi-patsetan zeudela jabetu nintzen. Benoit ere izerditan zegoen, alkandora blaituta zuen besapeetan eta bularrean. Hatsanka mintzatzen zen eta listuak alde egiten zion ezpainen artetik.

—Idazle eskasak zarete, narrasak, utziak! Noren errespetua nahi duzue hitz horien truke? Begiratu zuen ipurdiak, bularrak, bisaiak. Zer berri dakarte humanitatearen historiara? Bereziak zaretela uste duzue... Bakarrak... Begiratu zuen haragiari; begiratu zuen hitzei... Sentitzea ez da aski! Kontzientzia ez da aski! Ausardia ez da aski! Gazte harrook... Gauza bat esango dizuet: zuen buruez idaztea laketzen bazaizue, sartu luma uzkian eta egiezue fabore liburuak irekitzeko lana hartzen dutenei (85-86).

Horren ostean, editore sadikoak banan-banan iraindu eta zigortuko ditu idazten ari direnak, puta alaeana edota aulkirik gabe «eserita» idaztera: «Idatzi mundua zuen gorputz biluziei begira balego bezala. Zeren beldur zarete?» (88). Harrigarriki, ordea, Martina protagonista inoiz baino gusturako aterako da gau makur horretatik, poltsan daratmatzan orrialdeak sekulan idatzi dituen onenak diren jakitun zorientasun lasai batek zeharkatzen duela.

Idazle hasiberri masokistari idazketa-lezioa ematen dion editore sadikoa, beraz, distopia literario honetan aurki daitekeena.

¹² «Wenlock Edge» ipuineko protagonista *Sir Gawain eta Zaldun Berdea* obraren gainean lan bat egiten agertzen den bitartean, «Distopia literarioak» ipuineko protagonista distopia literarioen gaineko lan bat egiten agertzen da. Ipuinari ukitu metafikzionala eman eta ondotik etorriko den egoera distopikoaren aurrekari. Era berean, agerikoa da Munroren ipuinak duen karga metafikzional nabarmena.

4. Editorea editore lanetan?

Usu erabili den baliabide literarioa da aurkituriko eskuizkribu bat argitaratzen duen narratzaile/editorearen kasua, sarritan aurkituriko eskuizkribu horretatik abiatua bes-telako sorkuntza lan bat eginez, gainera. Euskal literaturako bi liburu arrakastatsu aipatzearren, hortxe daude *Obabakoak*-eko Camilo Lizardiren gutuna eta «Jose Francisco» ipuineko grabazioa eta Joan Mari Irigoienen *Babilonian* egileak aitortzen duena. Esan bezala, lizentzia poetiko hau maiz erabili izan da, eta editorearen irudikapena lantzeko ere, erabat baliagarria izan daiteke.

4.1. Max Brod sindromea: *Mea Culpa* eta *Etxeko hautsa*

2011 urtean argitaratu ziren Uxue Apaolazaren *Mea Culpa* eta Anjel Lertxundiren *Etxeko hautsa* eleberriek bat egiten dute metafikzio narratiboa *work in progress* moduan aurkeztean. Lehenik eta behin, gatazka armatuaren eta arazo soziopolitikoaren inguruko istorioak eta gogoetak kontatzeko, eta, bigarrenik, idazketaren gatazka bera idazketa gai bihurtzeko. Egitura formal eta narratiboari dagokienez, eleberriak ezberdinak izanagatik, egia da korrelazio tematikoak ere partekatzen dituztela, baita baliabide metafikzionalen erabilera ere (Ayerbe, 215: 182-184), eta horrek ahalbidetzen du biak batera aztertzea: are gehiago, kontuan izanik editoreak duen esku-hartzea bi nobelen baitan idazten den nobela argitaratzerakoan.

Mea Culpa eleberriko Lur narratzaile-protagonistak beka bat eskuratu du nobela bat idazteko¹³. Ezinean dabil, ordea, entrega datarekin berandutzen ari baita. Kosta egiten zaio hastera, idazketari aurre egitea, sufritu egiten du eta idatziko duenaren beldur da. Halere, bere grabagailuarentzat errezitatzen du, ez ironiarik gabe: «eskertuko nuke anagnorisiren bat, horretarako idazten dudala suposatzen baitut, idatzi ondoren ez dakidan zerbait ikasteko» (21). Lur kaotikoa, desordenatua eta neurotikoa da, eta grabagailuaz eta idazketaz baliatzen da bere ideiak eta hitzak ordenatzeko. Izan ere, Lurren idazketa-prozesua ere kolokan dago, barne-borroka bat da, gatazka pertsonal bat.

Jarraian, argumentuaren askotariko korapilo eta gainerako xehetasunen berri emateko inolako intentziorik gabe, editorearen irudia agertzen den pasarteari erreparatuko diogu. Hori horrela, *Mea Culpa* nobelaren epilogoan hartzen du ahotsa editoreak eta, are, narratzailea bihurtzen da: «Amalur Iturraldek irakurri berri duzuen eleberri amaitu gabea bidali dit kartzelatik, argitaratu edo ez zalantza handiak sortu dizkidana» (181). Bai, Lurrek kartzelan amaitzen duela dirudi eta, bai, azkenean eleberria ez duela amaitu dirudi. Eta horixe izango da editorearen zeregina, amaitu gabeko nobelari amaiera bat erantsi eta argitara ematea: «bukaera bat osatuko luketen datuak emango ditut, grabagailutik hartuak edo transkribatuak gehienak, era ahal bezain ordenatuan [...] Nobela osatzeko Amalurren nota bat, berarekin izan dudana elkarriketa pareta, eta Elisak utzi zion herentzia txikia ditut» (181-182). Beraz, editorea izango da epilogoaren bidez nobela itxiko duena, Lurren eta Elisaren sekretua argituko duena eta, azkenean, nobela argita-

¹³ Uxue Apaolazak ere beka bat eskuratu zuen *Mea Culpa* idazteko, XII: Igartza saria, hain zuen.

ratuko duena. Nobela argitaratu Lur idazlearen iritziaren kontrara, hala idazten baitio Lurrek editoreari igortzen dion notan: «*beharbada konbentzi nazakezu liburua argitaratzeaz, baina berez ez nuke egin beharko*» (184).

Bestetik, Lertxundiren *Etxeko hautsa* eleberriko narratzaile-idazlea, Gorka, bere aitari aitortzen bat idazten hasiko da, aurretik inoiz kontatu ez zizkion gertakari batzuetatik abiatuta. Ez eleberri bat idazteko ideiarekin, baizik eta idatzitakoa irakurtzeko asmoarekin: aitzak gaixotasun mental degeneratiboa du, eta oso litekeena da entzuten duena ez ulertzea. Horrela, batetik, esatearen eta idaztearen arteko konfrontazioa planteatzen da, *verba volant, scripta manent*. Bestetik, azken batean bere buruarekin eta bere buruarentzat idazten ari den narratzailea gailenduko da: «Zertan ari naiz? Nire burua ispiluaren aurrean jartzen» (21). Eta idazten eta idazten jarraitzen duen heinean, *work in progress* delakoak bere gatazkak nabarmentzen ditu idazketari berari buruz, narrazioari buruz; eta, azkenean, hasierako aitortpena pixkanaka-pixkanaka kontakizun bilakatuz joango da, nobela bihurtzeraino.

Izan ere, Agustin adiskideak Gorka idazten ari denaren berri jakingo du eta idazlea konbentzituko du idatzitakoa berari uzteko, irakur dezan. Horrenbestez, aita-seeen eremu pribatuko idazlanak beste izaera bat bereganatuko du eta baita Gorkaren idazle-mamuak iratzarri ere:

Hurbiltzen ari da idatzitakoak Agustini erakutsi beharko dizkiodan egun hori, eta gero eta gehiago kezkatzen nau egiteko horrek. Lotsa eta kezka, biak batera eragiten dizkit Agustin imajinatze hutsak nik idatzitakoa irakurtzen. Eta biak, dosi handitan. Hartu dudan lanak ez du berak espero duena aseko, beldur horrek eta lotsa horrek aspaldi egina dute habia nire baitan. Hasieran, orriok idazteari ekin nionean, zu zintudan buruan. Beste inor ez. Zurekin neuzkan zor zaharrak kitatu nahi nituen, hori nuen helburu, baina Agustini agindu nionetik idatzitako guztia pasatuko niola lana bukatu bezain laster, parez pare jarri zait bera ere. Arian-arian, zure eta nire arteko zor zaharretatik beste plaza zabalago batera pasatu naiz, bada, eta Agustinek orriok irakurriko dituela jakiteak, ekarri du aldaketa [...] Agustin imajinatzen hasi nintzen nik idatzitakoa irakurtzen. Nire kabutako Agustinek iruzkinak egiten zizkidan, kontu-gidoi eske hasten zitzaidan, zerbait aldatu beharko nukeela esaten zidan (204-205).

Hori horrela, Agustinek Gorka bultzatu nahi du lan hori argitara dezan, baina behin eta berriz aurkituko da idazlearen ezetzarekin: «Ezta erotuta ere!, eta lehentxeago pentsatu duan bera ateratzen zait: notario baten aurrean sinatu behar badut ere argitaratzeko debekua, ni, notarioarengana» (205). Agustinek bere teman jarraitzen du, ordea, eta Gorkak zin egiten dio argitaratu aurretik amaitu egin behar duela, gero Agustinen iritzia jakin nahiko lukeela, eta gero gerokoak.

Eleberri osoan Gorka da narratzaile autodiegetikoa baina epilogoan Agustinek hartuko du hitza: «Eskuizkribua hemen bukatzen da egileak bukatutzat eman zuelako. Nire tabernara etorri eta eskura eman zidan, irakurtzeko lana banuen akaso damurik ez nuela izango esanda» (239). Gorkari hemen argituko ez dugun zerbait gertatu baitzaio, eta handik denbora batera irakurtzen du eskuizkribua Agustinek. Baita, nolabait, berridatzi ere: «Bertan agertzen den Agustin ez naiz ni, eta ez soilik izen hori nik jarria delako eskuizkribuan ageri den nire izenaren orde» (240-241). Lerro batzuk aurrerago, liburuaren

apailatzean bere esku hartzea areago doala aitortzen du, *Etxeko hautsa* liburuko azken hitzetan:

Eskuizkribuaren irakurraldi pausatua goak etorri ziren gero. Horietako batean bururatu zitzaidan izenburua, testu barrutik ateratako esamolde zahar bat erabilia. Liburuaren hasierako aipuak ere nik ipini dizkiot, neuk banatu dut liburua lau partetan. Ez niri galdetu zergatik erabaki nuen lagunaren nahia traizionatu eta hark idatzi zuena argialetxearen eskuetan uztea. Irakurleak hausnar dezala zergatik egin dudana. Aise onartuko dut epaia (241).

Mea Culpan eta *Etxeko hautsan*, nobelen baitako nobelak idazle-narratzailea ez den beste pertsona baten eskutik argitaratzen dira. Apaolazaren liburuan editorea da zeregin hori burutzen duena eta, aldiz, Lertxundiren kasuan idazlearen lagun mina arduratzen da liburua egituratu eta argialetxe batera bidaltzeaz. Beraiek dira ordura arte idazlearen eremu pribatukoa zen zerbait publiko egiteko erabakia hartzen dutenak, idazleen beraien debekuen gainetik, Max Broden oinordeko balira bezala. Horrela, bi kasuetan epilogoan hitza hartu eta «editoreek» euren arrazoiak azaltzearekin batera, nobela argitaratu aurretik eginiko eraldaketan berri ere aipatzen dute biek ala biek, *aurre-testuen* (Bellemin-Nöel, 1972) antolaketa eta manipulazioen berri emanaz. Bi argitalpenak, ondorioz, idazlea ez den argitaratzaile baten berrinterpretazioa edota berridazketak dira, inondik ere.

4.2. Edizioa fikzio: *Pendrive*

Aurreko bi lanetan idazleek, nolabait bada ere, argitaratzailea izango denarekin harremana izaten badute ere, ondorengo lanean ez da hartu eman zuzenik egongo. Izan ere, 2013an kaleratu zen Irene Mardarasen *Pendrive* nobelaren oinarrian eskuizkribu aurkituaren joko dago. Berdina gertatzen da 2012ko Bertol Arrietaren *Alter ero* ipuin liburuko «Un tal Ekain» ipuinarekin ere. Narrazio metaliterario horretan Julio Cortázarri egiten zaio omenaldia, narratzaileak Cortázarren semea dela frogatu nahi duelarik. Ohar honekin amaitzen da ipuina:

Editorearen oharra: Ekain Kortabarriaren ustekabeko heriotzak izoztuta utzi gaitu bere ingurukoak, hitzik gabe idazle handiaren hainbat eta hainbat miresle. Patuak nahi izan du artikulu hau aurkitzea, bere paper ugarien artean. Perfekzioaren hain zalea zen idazle donostiarrak zuzenketak egingo lizkiokeen arren, bere horretan argitaratzea erabaki dugu (gaztelaniazko izenburua errespetaturik), denontzat daukan interes metaliterarioarengatik (65).

Eta hain zuzen, «joko borgestar» horretaz baliatzen da Mardaras *Pendrive* liburua egituratzeko eta «lehen atalean narratzailea editore gisa aurkezten zaigu» (Gurrutxaga 2013). Izan ere, editoreak zirriborroz, apuntez eta narrazioz betetako USB bat aurkitzen du eta argitara ematea erabakiko du eta ondorioz, idazleak, «editorea hain zuzen liburuaren edizio-prozesuaren berri emango digun pertsonaia bihurtzen du, besteak beste, lanak biltzen dituen eduki ezberdinak aurkeztuko dizkiguna» (Urkulo 2013). Egiletasunaren inguruko auzia planteatzeaz gain —lehen atalean aitortzen baitu zenbait ipuini izenburua berak jarri diela, hainbat orrialde baztertu egin dituela eta liburuaren izenbu-

rua ere berea dela—, editorearen lanbideaz ere hausnarketa egiten da inplizituki. «Edizioa fikzio» izeneko aitortza kapituluak irekitzen du liburua eta, besteak beste, honelako hitzak biltzen dira, eta azken esaldiak iradokitzen duen bidea ere esanguratsua da, joko metaliterarioa aintzat harturik:

Editore batek inoiz egin behar ez zuena egitera ausartu naiz egile jakinik gabeko lana argitaratzean. Behin langa urratuta, ustezko proiektuak nahasi egin ditut [...]

Nire izenean erregistratu dut sei hilabete luzez itxaron ondoren jabeak bere burua ager zezan; inongo arrakastarik gabe, usu denari kontra eginez, honelakoetan haiek, idazleak, egoten baitira aiduru editorearen erabakiaren zain.

Idazle moduan funtzionatuko ez duen beldur, editore koldarrak sortutako lana dantekeela pentsatuko duenik ere egongo da. Pentsatzea dohainik da (10).

Jarraian, *short story cycle* egituran, bata bestearen atzetik datoz ipuin gisako kontakizunak, narrazio matrizeak oharrekin, Sarrionandiaren Ginebra erreginaren berridazketa «Ginebra erreginaren itzulera» ipuinean, ohar metafikzionalak, pendrive galduaren gaineko hipotesiak eta amaieran, berriro ere, «Editorearen epilogo» deituriko editorearen oharra, «oso borgestarra hau» ere (Gurrutxaga, 2013). Horrela, idazketari eta literaturari buruzko gogoeta eta galdera metafisikoen ostean, ondorengo ondorioztatuko du: «Berdin dio norena den pendrivea, edo nork aurkitu duen. Hitzek, entzun ala irakurri, beste zerbaitetan arreta jartzen behartzen gaituzte. Hitzek, esan ala idatzi, beste unibertso bat sortzen laguntzen digute» (125).

Beste unibertso literario bat sortzen du editoreak, beraz, bere burua idazle edo egile izendatuz. Aldi berean, baita kontaktzen duen guzti horren *benekotasuna* auzitan jarri ere, pendrivea zinez existitu den ala ez zalantzan jartzeraino. Fikzio-hitzarmenaren ispiatze honetan, editorearen irudia bera ere irakurlearen eta idazlearen artean ezkututzen baita.

5. Editorearen akabua: *Twisteko* Fede Epelde

Harkaitz Canoren *Twist* (2011) nobelan bestelako editore baten irudiarekin egiten dugu topo. Editore baten akabua (eta berpiztea) kontaktzen da nobelako «Paper requiem» kapituluak, itsu gelditzen hasiko den Fede Epelderena, hain zuzen.

Diego Lazkano idazlea da *Twisteko* protagonista eta krisi existentzial betean murgildurik, ez daki nola aurre egin hurrengo nobelari. Iraganeko mamuak hurbilegi sentitzen ditu, Soto eta Zeberio adiskideenak bereziki —Lasa eta Zabalaren trasuntuak, *gerra zikinaren* testuinguruan GALEk 1983an bahitu, torturatu, erail eta kare bizian lurperatutako ETakideak—. Izan ere, Lazkano da bi lagun atxiloteten eta desagerketaren erantzulea eta, gainera, Sotoren eskuizkribuak bere egin eta ondorengo urteetan lagunaren hitzak plagiatu eta bereak balira bezala berridatziko ditu Lazkanok. Horrela, nobelak Lasa eta Zabalaren kasuaren fikziozko berreraiketa bat eskaintzeaz gain, beste adierazpen artistiko batzuen diskurtso-planteamenduak ere sakonki jorratzen dira: antzerkia, arte instalazioak, performanceak edota itzulpenak, kasu. Eta hein handi batean, ondoriozta daiten nobelak alegoria bat planteatzen duela errealitatea fikzioaren artifizioaren bidez irudikatze beharrari eta ezintasunari buruz.

Liburua tonu eta eite ezberdina duten zortzi kapitulutan banatzen da eta bosgarrenengo atala da «Paper requiem» deiturikoa. Bi plano paralelotan banatzen da: batetik, Fede Epelde editorearen gainbehera fisiko eta laborala kontatzen da; eta bestetik, Idoia kazetariaren gainbehera eta kazetaritzaren egungo bilakaera dekadentea islatzen dira. Bi plano hauek plano berean bilduko dira kapitulu amaieran, Fedek eta Idoiak bat egiten dutenean.

Fede Epelde editorea xeble hutsa da, *rara avis* bat egungo garaietan, eta ironia metadiegetikoz Idoiak ondorioztatzen duenez: «editore hura, Fede, bera zen nobelako pertsonaia» (282). Nobelako pertsonaia ematen duen nobelako pertsonaia da editorea. Kapitulu hasieran, adibidez, Luzio maketatzailarekin ageri da «Garamond» letra tipoari buruz eztabaidan, eta askotariko letra tipoen abantailak eta desabantailak aztertu ondoren, hausnarketa ezin aproposagoa burutuko du Fedek zeregin horretaz: «Ofizio zahar eta xarmangarria, desagertzeaz dagoena» (237). Hortik kapituluaren izenburuko «Paper requiem» adiera, besteak beste, paperaren hileta kantak, kazetaritzaren gainbeherari bezalaxe, argitaletxearen eta editorearen ordura arteko egiteko moduen akabuari ere egiten baitio erreferentzia. Horren erakusle da Fede Epeldek urte luzez uko egin arren, azkenean onartu egiten duela offseta baztertu eta inprenta digitalean sartzea (254). Erabaki horretan, ordea, bere gaixotasunak ere badu zerikusirik.

Izan ere, Fede Epelderi gaixotasun «kronikoa, progresiboa eta atzera ezinezkoa» (242) diagnostikatuko diote: itsu gelditzen ari da. Eta zer okerragorik editore batentzat itsu gelditzea baino? Idazleen kasuan bezala, ikusezintasuna editore baten akabua izan daitekeela argi dago. Gainera, Federi bost urte falta zaizkio erretirorako eta bizitza oso bat liburugintzan eman arren, argitaletxearen itxiera gainera dator kio, irtenbiderik aurkitu ezean. Horrenbestez, Borges idazlearen *alter ego* gisa, Fede Epeldek aurrera egitea erabaki eta irakurle eta zuzentzaile lanak burutuko dituen idazkari bat kontratatuko du, eskuizkribuak ahoz goran irakur diezazkion eta argitaletxera iristen diren orijinalak elkarrekin lantzeko.

Orijinalak entzun ahala hautatu eta baztertzea zen errazena. Izatez, boz gora entzunda inoiz baino garbiago *ikusten* zuen Fedek noiz ez zegoen orijinal bat inondik inora argitaratzerik. Kaxkarkeriak ez zuen ozen irakurtzerik ametitzen [...] Arazoa hautatutako orijinalekin izaten zuen: hauek hobetzen hasita, esaldi narrasak edo ilunak berehala detektatzen zituen arren, kosta egiten zitzaion Federi entzute hutsarekin sintaxi eta ordena aldaketak proposatzea. Horretarako, ez zen aski irakurle bat ondoan izatea; irakurtzen jakiteaz gain, idazten ere bazekien norbait beharko zuen (253).

Idoia pertsonaia izango da, azkenean, konfiantzako idazkari-irakurle-idazle-editore hori. Eta nahiz eta bigarren kapituluan «Fede Epelde, Diegoren editorea. Hirurogei urteko triperre sibarita» (95) gisa deskribatu eta harekin lan egitea baino ordura arte bezala jarraitzea nahiago duela berretsi izanagatik, kazetari gisa izaten duen bilakaeraren ondotik onartu egiten du Federen lan eskaintza. Fedek, aurrez, argitaletxe handi batean lan egin zuen (242), baina bestelakoa da bere argitaletxearen egoera:

Idoia argitaletxea lehen aldiz bisitatu zuenean, estonatu geratu zen: supermerkatuko orga metalikoz beteta zegoen korridorea, eta hauetako bakoitzean neurri handiko zientoka gutunazal pilatzen ziren, postatik iritsi ahala sailkatuko zituen inor gabe.

Orga hauetako zenbaiten hondoan, kolorea erabat galduta zuten sobre zigilatuak, sekula irakurriak izango ez zirenak (279).

Bestalde, editorearen egunerokotasunaren eta zereginen berri ere ematen da eta hemen ere ez da ironiarik falta. Argitaletxea liburu soberakinak xehatu eta birziklatzera bota beharrean kartzeletara bidaltzen hasiko da baina presoak kexatu egingo dira liburuon kalitateagatik, eta Fedek arrazoia emango die: «kartzelan daude baina literatura unibertsaleko onena merezi dute, ez gure erdipurdiko autore hauek helduentzat idazten duten haur literatura modu hori!» (232). Bestetik, editoreari psikologo lanak egitea ere tokatzen zaiola adierazten da, bere buruaz sinestunegi den idazleei egurra emanaz eta, aldiz, autoestima gutxiko idazleekin kontrakoa landuz. Azkenik, Idoiarekin lanean hasi eta orijinalak aztertzen hasten denean, lanak baztertzeko erabilitako argumentuek ere asko dute umoretik eta esajeraziotik: hiru lan izenburugatik bakarrik baztertzeko dituzte, beste bat sarrerako aipuaren egileagatik, eta asko eta asko bestelako arrazoiengatik: «Cheeverren plagioa!», «Edipo berriro?» edo «Hori ez da literatura, hori karaokea da! Kalkoa!» (281). Dena den, eta Idoiaren laguntzari esker, eskuizkribu bat balekostat jo eta *Moby Dick* irakurtzen zuen eskolta eleberria argitaratu egingo dute; eta liburuak arrakasta izango duenez, Federen argitaletxeari arnasa apur bat emango dio horrek.

Dena den, kapituluko muina eta nobela osoko traman giltzarri den pasartea Fede Epelde editorearen eta Diego Lazkano idazlearen artekoa da. Aurrerago esan bezala, Soto eta Zeberio salatu ostean Diegok Sotoren eskuizkribuak bereganatzen ditu. Une horretatik aurrera, Lazkano Sotoren hitzez eta ahotsaz jabetzen da eta bere liburuetan lagun zenaren testuak plagiatu edota eraldatzen ditu: sinbolikoki, eskuizkribuak berridaztearen bidez, Sotok bizirik darrai Lazkanoren idazkietan, bere oroimenean bezainbeste. Besterik da, ordea, besteek pentsatuko dutena, egia jakitean.

Izan ere, Lazkanoren liburuak argitaratzerakoan Fede Epelde editoreak ez zekien afera horretaz txintik ere eta nobelako «ilegorria» pertsonaia misteriotsuenaren bidez jabetuko da Lazkanoren suplantazioaz. Ilegorriak izokin koloreko karpeta luzatzen dio Federi: «Kopiak dira, kalko-orriekin ateratakoak. Garai hartan dena bikoizten zen. Diego Lazkanok dauzka jatorrizkoak» (263). Fede eta Diegoren arteko eztabaida dator hurrengo pasartean, Epeldek Lazkanori egindakoa aurpegiatzen dionean eta orijinaltasunaren, berridazketaren edota kokreazioaren inguruko buruz buruko gatazka dialogikoa izaten dutelarik. Editoreak antzezlan bat hartu eta nobela bihurtzea, ipuinak puztu eta nobela bilakatzea, paragrafo eta orrialde osoak hitzez kopiatzea eta are, hildako batekin hori egin izana leporatzen dio idazleari. Idazlea, aldiz, babestu egiten da apunteak eta zirriborroak eraldatuz obra propioa sortu duela esanaz, jatorrizko berrehun foliotatik milaka idatzi dituela argudiatuz eta, gehienez ere, Sotoren eskuizkribuak abiapuntu gisa erabili zituela, adiskideak hasirikoari amaiera emanaz. Azkenean, Fedek Diegori mehatxu egingo dio prentsari bere «inspirazioen iturria» jakinaraztearekin eta Diegok hala ez egiteko erregutuko dio behin eta berriz. Azkenean, nobelan ez da argitzen Fede Epelde editoreak bere mehatxua betetzen duen, eta kapitulua argitaletxean izandako lapurreta batekin ixten da: norbaitek izokin koloreko karpeta ostu du, plagioen progak berarekin eramanez.

Ikus daitekeenez, Canoren *Twist* nobelako Fede Epeldek bestelako irudikapen bat eskaintzen du. Ironia erabili arren, editore lana bere horretan islatzen da; are, galzorian

dagoen espezie bateko kide gisa ageri zaizkigu Fede editorea eta Luzio maketatzaileria. Federen itsutasunak desagertzen ari den ofizio horren dekadentzia nabarmenago islatzen du eta offseta atzean utzi eta edizio digitalari men egitea ere eraldaketa horren adierazle dira. Ez alferrik, plagioaren auziaz aritzerakoan, bere buruaren «jatorri humanista zaharkitua» (266) azpimarratuko du, kokreazioaren teoria postmoderno berriak erabat baztertuz. Editore bati eta edizioa ulertzeko modu bati eskainiriko hileta kanta ere badelako *Twisteko* «Paper requiem» kapitulua.

6. Editoreak eta genero gatazkak

Orain arteko irudikapen literario guztietan gizonezkoak dira editorea gorpuzten dutenak. Egia da Aranaren *Editorean*, idazleak editore emakumeak aipatzen dituela, zehazki bi, baina orain arteko kontakizunetan ez zaie ahotsik eman. Eta are, parodikoki aurkezturiko editorearen irudikapen maskulinoei, paternalismo, gizonkeria eta matxismo kiratsa darie.

Editore-editore ez izanagatik, Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrak* (2011) ipuin-liburuko «Bernardo et Ramon» kontakizunean emakume bat dugu narratzailea: Gisele. Unibertsitate esparruan ibilbide akademiko arranditsudun irakaslea da, munduko literatur sistemetan espezialista eta, gainera, «Gallimard argitaletxeko *Du monde entier* bildumaren irakurketa komiteko partaide» dena (171)¹⁴. Eta hain zuzen, Frantziako argitaletxe garrantzitsu bateko irakurketa komiteko partaide izateak edizio gintzan ematen dion kapital sinbolikoa izango da ipuinean gauzatuko den enkontruaren arrazoi nagusia, Saizarbitoriaren *Rossettiren obsesioa* omentzearekin batera¹⁵. Giselek literatur munduko botorea islatuko luke, baina literatur sistema txikiagoen kasuan, euskal edizio gintzari lotuta, adibidez, nekez aurkituko dugu halako emakume editoreen irudikapenik. Nahiz eta bestelako irudikapenak ere agertzen hasiak diren.

6.1. *Nobela errealista bat*

Orrialdeek aurrera egin ahala editoreek protagonismoa bereganatzen duten eleberri metafikzionala dugu Joxean Agirreren *Nobela errealista bat* (2019). Eleberrian gatazkarekin loturiko istorioekin obsesionatuta dagoen taxilaria, emaztea, eta emaztearen maitale idazlearen arteko kontuak nahastuko dira. Bereziki, idazleak idatziz jartzen dituen

¹⁴ Izatez, Bourdieauren jarraitzaile diren Pascale Casanova eta Gisèle Sapiroren ezaugarriak ditu Giselek, Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eleberriko protagonista gogorarazteaz gain.

¹⁵ Apalategiren ipuina Saizarbitoriaren *Rossettiren obsesioa* eleberriaren *remake* edo berridazketa bat da. Nobelako hainbat elementu parodiatzen dira ipuinean eta bereziki, sedukzioaren eta artearen arteko tentsioa nabarmentzen da. Era berean, ordea, euskal literaturaren nazioartekotzearen problematika (kanona, itzulpen estrategiak, merkatuaren boterea, sistema arteko lehiak...) ere azaleratzen da. Hain zuzen, testuartekotasuna itzulingururik gabe aipatzen da metairuzkin honekin: «Ez dakit Antso ohartua zen *nouvelle*-aren egoera eta gurearen arteko antzekotasunaz» (182), eta ondorengo burutazioekin.

taxilariaren ahozko istorioak eta ondoren jasoko den hilketagatik. Dena den, editoreak dira arretagune azterlan honetan eta hori horrela, editore burua eta editore laguntzaileak bereizten dira kontakizunean. Honela azaltzen du laguntzaileetako batek: «Asko saltzen duen idazle bat hiltzen denean editore burua bera agertzen da hiletetara, baina bigarren lerrokoa denean ni bidali ohi nau» (67). Editore burua gizonezkoa da, eta laguntzaileak, bi emakume: Maider eta Leire. Laguntzaileak izango dira, ordea, tramari aterabidea ematen asmatuko dutenak.

Editore buruak presio egingo dio Agirrezabal¹⁶ idazleari nobela errealista bat idatz dezan, eta Maiderrek jakinaraziko dio editore buruak bazuela ildo editorial bat, edo zaleztasun obsesibo bat bederen; eleberriaren izaera parodikoarekin lotu behar dena, ezinbestez:

Editore buruak zuen errealismoarekiko eta memoria hurbilarekiko obsesio hori ez baita normala, bulegotik igarotzen diren idazle gazte guztiei aholku bera ematen baitzien, modu errealista batean gure iragan hurbilari heltzeko, gure memoria hurbilaren irakurketa literaturak erabaki beharko balu bezala (74).

Are, editore buruaren eskrupulurik eza nabarmenago geratzen da Agirrezabalen eleberri amaitugabearen gainean sortuko liratekeen kalapitek —albo-kalteak eraginagatik—, ekar diezazkioken irabazi guztien gainean hausnartzen duenean (100). Hala, eleberri amaitugabeari balio gehiago emateko epilogo bat eranstea erabakiko du editore buruak eta taxilari narratzaileari aginduko dio berau idazteko. Betiere Leire editore laguntzailearen laguntzarekin. Eta azkenean, editorea izango da idazle-gai berria idazten jarri eta eleberria argitaratzen lagunduko duena, editorearen zeregina behar lukeena azken muturreraino eramanez.

6.2. *Aitaren etxea*

Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019) ere nobela erabat metafikzionala da, idazketaren gatazkak eta genero gatazkak uztartzen diren neurrian. Ismael sorkuntza eta identitate krisi betean dagoen idazle arrakastatsua da eta Jasone emazteak, aldiz, aspaldi utzi zion idazteari senarraren idazlanak zuzendu eta orrazteko. Kontakizuneko hirugarren erpina «beti presente» (28) dagoen Iñaki Jauregi editoreak osatzen du eta laugarrena, Ismaelen arreba eta Jasoneren adiskide min den Libek.

Jasonek eta Jauregik unibertsitate garaian, literatur aldizkari bat koordinatzen zuten Letren Fakultatean. Bertan argitaratu zuen lehen ipuina Ismaelek eta baita Jasonek berak ere. Ondotik, idazteari utzi zion azken honek, Ismaelen idazketarekiko fideltaunez. Jauregik eta Jasonek literaturarekiko antzeko ikuspegia landu dute urtetan eta hala konatatuko du Jasonek: «Garai hartan elkarrekin argitaletxe bat sortzeko gonbidapena egin zidan. Argitaletxe txiki bat, gure gustuko liburuak argitaratu ahal izateko. Bazekien Li-

¹⁶ Nobelan autofikzio parodikoa nonahi ageri da. Idazlearen izena bera Agirrezabal izateak eta eskaintzen diren deskripzioek (15) aditzera ematen duten bezala.

berekin antzeko proiektu bat nuela, eta haren atxilotetak eta Berlinerako ihesaldiak dena zapuztu zuela» (84). Jasonek uko egingo dio, baina Jauregik argitaletxea sortu eta bertan argitaratuko ditu Ismaelen liburuak. Harez geroztik, behin baino gehiagotan luzatuko dio Jasoneri argitaletxean lanean hasteko gonbita, ikusita Ismaelen idazlanetan zenbat nabaritzen den Jasoneren eskua.

Halatan, azken urtean Jasone nobela bat idazten ibili da ezkutuan eta aski hausnartu ondoren, Jauregiri erakustera ausartuko da. Honek, ordea, nobela Ismaelena dela pentsatuko du, une batez ere egilea Jasone izan daitekeenaren aukera txikienari bizkar emanaz: «segundo batez ez ninduen idazle modura ikusi. Agian ezta unibertsitatean ere» (167).

Ideia bat izango du, orduan, Jasonek, eta liburuarekin zer egingo duen erabaki ostean, lortuko du «Jauregik azkenik idazle baten modura ikuste[a]» (204). Jasoneri begiak irekiko zaizkio lekuz kanpo eta baliabiderik gabe datzan Jauregiren aurrean eta epifania bat izango du:

Jauregirengandik beti lortu nahi izan dudana bere onespena izan da. Bere onarpena [...] Eta bat-batean, Ismael Jauregiren iritziaren presiotik libratuta zegoen modura, nik ere sentitu nuen halako askatasun bat, arindu moduko bat. Eta konturatu nintzen azkenik zer sentitzen nuen Jauregi ikustean: niri ez zitzaidan Jauregi gustatzen, nik Jauregi izan nahi nuen [...] Eta konturatu nintzen ez nuela Jauregi behar nire nobela onartu eta argitaratzeko. Nik neuk egin nezakeen nahi izanez gero. Ni Jauregi izan nintekeela sinetsi nuen. Beti amestutako argitaletxe hura sortu nezakeen, zergatik ez. Ez nion inori baime-nik eskatu behar. Agian Liberi proposamen hura egiteko unea zela pentsatu nuen» (206).

Badirudi, beraz, isilean idazle izan den Jasonek editore izateko ametsa betetzeko nahia gauzatzeari ekingo diola, Liberekin batera, gainera, *Jauregi style*-dun editorearen bestelako eredu bat helburu. Ondorioztatu daiteke, uneoro egiletasuna auzitan jartzen den bezala, *Aitareen etxea* nobelan *aitareen argitaletxea* ere jomugan jartzen dela, sinbolikoki bada ere.

7. Ondorioak

Editorea protagonista edo pertsonaia gisa agertzen diren euskarazko narratiba lanen errepassoa gauzatu ostean, esan daiteke, batetik, hasiera batean espero baino lan gehiagotan aurkitu dugula editorearen irudia eta, bestetik, ia lan gehienak metafikzioaren eta autofikzioaren ildotik jorratu izan direla. Modu horretan, literatur sistemako osagaien loturak azaltzeaz gain (idazlea-editorea harremanak, kasurako), literatur sistemaren inguruko gogoeta orokorragoak ere txertatzen dira.

Ibarluzeak (2017: 324) fikzioan aztertutako itzultzailearen irudian jazo bezala, fikzioko editoreek ere modu errepikatuan partekatzen dituzte zenbait rol, ezaugarri eta jarrerak. Eta era berean, itzultzaileei lotutako pertzepzio negatiboa bada nagusi itzultzaileez zabalduetako iruditegian (Ibarluzea 2017: 328), antzekoa esan genezake euskal fikzioan landu izan den editorearen errepresentazioari buruz ere. Edonola ere, kritiken itua, edukia eta forma bera ere eraldatu egiten da lan batetik bestera.

Apalategiren *Gure Gauzak S.A.* eta Herediaren *Hor hago Kevin?* nobeletan, adibidez, parodiaren bidez modu hiperbolikoan zein karikatura gisa agertzen dira editoreak, lehenengoan literatur sistema ustelduko agente usteldu gisa; eta bigarrenean, aldiz, izen-abizenaz izendatzen den Xabier Mendiguren editorearen pantomimaren bidez, esaterako. Are, bietan du garrantzi berezia liburua argitaratu zeneko euskal literaturen esparruan pil-pilean zeuden eztabaida literarioak fikzioan txertatu eta jorratzeko egindako ahaleginak ere.

Aranaren *Editorea* antzezlanean eskaintzen den ikuspuntua *Gure Gauzak S.A.* eleberriaren ildotik joan badaiteke ere, proposatzen duen salaketak helburu zehatzagoak ditu: zenbait editoreen jarrera eta jokabide bidegabeak nabarmentzea, hain zuzen. Era berean, Garderen *Ehiztariaren isilaldia* eleberrian ere tokia eskaintzen zaio fikzioaren bidez idazlearen eta editore jakin baten arteko garai bateko tirabirak azaldu eta, hein batean, kontuak kitatzeko.

Aipaturiko eleberrietan editorearen irudi zekena eskaintzen da, eskrupulurik gabekoa eta bere ongizate eta idazletasunaren alde edozer egiteko prest dagoenarena. Aldiz, Alonsoren «Suhiltzaileak» ipuinean editorea da idazleen eta, bereziki, euren egoen eta presioen biktima gisa aurkezten zaiguna, editorearen parodiaren txanponaren beste alde bat bezala.

Aldiz, metafikzio bailabideak gailentzen dira Apaolazaren *Mea Culpa*, Lertxundiren *Etxeko hautsa* eta Mardarasen *Pendrive* nobeletako editorearen irudikapenean. Fikzioaren mugak gaindituz, irakurleak eskuartean duen liburua editore horien eskuek landua izan da, berridatzaia eta berregitaratua. Idazle zereginak ere bereganatzen dituzten editoreak, guztiak ere.

Canoren *Twisteko Fede Epelde* editorearen kasuan, aldiz, izaera berezi eta jarrera desagokiak dituen editorea izan arren, garai bateko ediziozaren akabuaren alegoria bilakatzen da pertsonaia. Tipografia eta bestelako xehetasunekin obsesionatuta, itsu geratzen ari da, gainera. Bestalde, *Twisteko* hari mataza nagusietakoa den plagioaren auzia dela eta, nobelako eztabaidarik sutuena eta sakonena izango du Fede Epelde editoreak Diego Lazkano protagonista idazlearekin.

Azkenik, genero gatazkarekin loturiko auziak nabarmendu behar dira. Orain arte aipaturiko editore pertsonaia guztiak gizonezkoak izateaz gain, gizontasun irudikapenari dagokionez ere jarrera gaitzesgarria dute: neskazaleak, misoginoak, sadikoak, paternalistak... Editorearen errepresentazio maskulino horien ondoan, Agirreren *Nobela errealista bat* eleberriko emakumezko editore laguntzaileak aurkitzen ditugu: ausartak, idazleari muturreraino laguntzeko prest daudenak eta orrialdeek aurrera egin ahala protagonismoa bereganatuko dutenak. Apalategiren «Bernardo et Ramon» ipuineko Gisele ere salbuespena genuke, editorearen irudikapenari dagokionez.

Era berean, agerikoa da Jaioren *Aitaren etxea* eleberriaren ahalegina askotariko genero gatazken auzia lehen lerrora ekartzeko. Idazketa eta ediziozari lotuta, isilduriko emakumezko protagonista ahaldundu egingo da eta aurre egingo dio, azkenean, inoiz aintzat hartu ez duen gaztetako lagun editore gizonezkoari. Ez alferrik, Jasone protagonistak Libe koinatarekin batera argialetxe bat sortzeko gogoetarekin ixten da liburua; sinbolikoki, *aitaren* argialetxearen alternatiba bat aurkeztuz, alegia.

Bibliografia

- Agirre, Joxean (2019): *Nobela errealista bat*, Donostia: Elkar.
- Alberdi, Uxue (2013): «Distopia literarioak» in *Euli-giro*, Zarautz: Susa: 77-90. or.
- Alberdi, uxue (2018): «Gorka Arrese: 'Ez gara batere modernoak, ez dugulako kultura lehen lerroan jarri'», *Uberan*, 2018/02/09. Sarean: <http://uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/ez-gara-batere-modernoak-ez-dugulako-kultura-lehen-lerroan-jarri> [2020/01/25].
- Alonso, Jon (2006): «Suhiltzaileak (epilogoak)» in *Erretzaileen eremua*, Zarautz: Susa. 133-139. or.
- Apalategi, Ur (2004): *Gure Gauzak S.A.*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Apalategi, Ur (2010): «Bernardo et Ramon» in *Fikzioaren izterrak*, Zarautz: Susa, 159-186. or.
- Apalaza, Uxue (2011): *Mea Culpa*, Donostia: Elkar.
- Arana, Aitor (2006): *Editorea*, Donostia: Kutxa.
- Arrieta, Bertol (2012): «Un tal Ekain» in *Alter ero*, Zarautz: Susa. 45-65. or.
- Ayerbe, Mikel (2015): «Work in Conflict: (meta)literatura y escritura en novelas que abordan el conflicto vasco» in Ezeizabarrena, M.J. eta Gómez, Ricardo (koord.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 173-189. or.
- Bellemin-Nöel, Jean (1972): *Le texte et l'avant-texte. Les brouillons d'une poème de Milosz*, Paris: Larousse.
- Camarero Arriba, Jesús (2004): «Las estructuras formales de la metaliteratura» in Iñarrea Las Heras, I. eta Salinero Cascante, M.J. (koord.), *El texto como encrucijada*, Logroño: Universidad de La Rioja. 457-472. or.
- Cano, Harkaitz (2011): *Twist*, Zarautz: Susa.
- Diego, José Luis (2019): «Editores en la literatura» in *Los autores no escriben libros. Nuevos aportes a la historia de la edición*, Buenos Aires: Ampersand, 33-50. or.
- Egaña, Ibon (2006): «Erabat eta zeharo?» in *Berria*, 2006/05/14. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1557> [2020/02/15].
- Epaltza, Aingeru (2004): «Gore» in *Nabarra*, 2004/08. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1119> [2020/02/22]
- Estankona, Igor (2004): «Cosa Nostra» in *Deia*, 2004/07/13. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1103> [2020/02/22]
- Garde, Luis (2015): *Ehiztariaren isilaldia*, Iruñea: Pamiela.
- Gurrutxaga, Alex (2013): «Aldamioa eta etxola», *Berria*, 2013/12/29. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5982> [2020/03/25].
- Haranburu Altuna, Luis (2004): «Gure Gauzak S.A.» in *Egan*, 2004-1/2, 279-283. or. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1139> [2020/02/22].
- Heredia, Kevin (2010): *Hor hago, Kevin?*, Donostia: Meettok.
- Ibarluzea, Miren (2017): *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*, EHU. Sarean: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/26629/TESIS_IBARLUZEA_SANTISTEBAN_MIREN.pdf?sequence=1&isAllowed=y [2020/09/01].

- Jaio, Karmele (2019): *Aitaren etxea*, Donostia: Elkar.
- Kamio, Ariane (2018): «Esaldi bakoitzean eta hitz bakoitzean dena jokatzeko delako badakien literatura horretan sinesten dut», *Gara*, 2018/12/18. Sarean: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2018-12-18/hemeroteca_articles/esaldi-bakoitzean-eta-hitz-bakoitzean-dena-jokatzeko-dela-badakien-literatura-horretan-sinesten-dut [2020/01/25].
- Kortazar, Jon (2004): «Bizitzaren bide erdian», *El País*, 2004/11/28. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1189> [2020/03/05].
- Lasarte, Gema (2004): «Oso gureak, gainera», *Berria*, 2004/12/18. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1198> [2020/02/22].
- Lertxundi, Anjel (2011): *Etxeko hautsa*, Irun: Alberdania.
- Manguel, Alberto (2018): «Autor, editor, lector: Una santísima trinidad» in *Revista de la Universidad de México*, 1. zenb., 52-54. or.
- Mardaras, Irene (2013): *Pendrive*, Zarautz: Susa.
- Munro, Alice (2012): «Wenlock Egde» in *Zorion handiegia*, Donostia: Meettok. 75-131. or.
- Rojo, Javier (2006): «Editoaren kritika», *El Correo*, 2006/05/12. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=1560> [2020/02/18].
- Rojo, Javier (2015): «Ahanzturaren aurka», *El Correo*, 2015/10/03. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=6749> [2020/04/10].
- Sarriugarte, Danele (2019): «Esango nuke baxu gaudela, zentzu guztietan», *Argia*, 2019/02/3. Sarean: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2630/mikel-soto-irakurle-kabroi-ohi-bat> [2019/03/03].
- Urkulo, Iraitz (2013): «Maitasunaren historia», *Berton*, 2013/12/29. Sarean: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5978> [2020/03/25].

Tiratzaile bakartiaren lana: Euskal poesiaren antologiak eta euskarara ekarritako poetenak¹

Alexander Gurrutxaga Muxika

UPV/EHU-MHLI

Laburpena

Artikulu honek ikuspegi orokor bat eskaini nahi du euskaraz aurkitu ditzakegun poesia antologiengatik inguruan. Horretarako, batetik, euskal poesiaren antologia nagusiei erreparatzen zaie, bilduma horietan dauden irizpideak markatuz. Bestetik, berriz, euskarara ekarri diren poeten antologiak erreparatzen dira, haien nolakotasunak eta ezaugarriak aztertuz, eta gogoetarako ildo posible zenbait seinalatuz. Oinarri teoriko gisa, antologiengatik inguruan egin diren zenbait ikerketa hartu ditugu aintzat; horrela, antologiengatik gure literatur sistemaren baitan duten kokapenez hausnartu dugu, baita antologia batzuek eta besteek sistema horretako beste elementuekin duten harremanaz ere. Azkenik, panoramika orokorrari behatzeak aukera ematen digu etorkizuneko lan eta ikerketa ildoez pentsatzeko.

1. Sarrera

Antologia, berekin dakarren hautapen eta nabarmentze ariketa dela medio, bereiz aztertu beharreko literatur generoa da. Sortzen den unetik bertatik, antologia harreman zuzenean sartzeko da literaturaren historiarekin eta kanonarekin; izan ere, antologia apai-

¹ Artikulu hau MHLI ikerketa taldearen IT 1047-16, US17/10, FFI2017-84342-P proiektuen baitan idatzia da.

latzen duenak —bere asmoa eta irizpideak edozein direlarik ere— testu multzo bat aukeratu eta beste batzuen artetik nabarmentzen du, eta hain zuzen horrek definitzen du antologia, artefaktu gisa, literatur sistemarekiko. Marta Palenquek (2004), xx. mendeko poesia antologia espainiarrez egindako azterketan, sintetikoki adierazten du nola historiaren eta antologiaren diziplinak bat etortzen diren funtzioei dagokienez: «historiadores y antólogos realizan labores paralelas no sólo en el sentido de su tarea sino, también, de su finalidad: todos consagran autores y textos, los convierten en norma y ejemplo» (2004: 313). Esan liteke, beraz, antologiaren izaeran badagoela elementu metaliterario bat bere eragina eta harrera baldintzatzen dituen eta, honenbestez, antologiak aztergai funtsezkoak dira hala literaturaren historiarentzat nola literatur kritikarentzat².

Gure lanaren asmoa ez da antologieng inguruko saio orokor bat egitea, ezta, jakina, poesia antologieng inguruko azterketa oso bat egitea ere; umilagoa da xedea. Orain arte hainbat adituk aztertu dituzte euskal poesiaren antologiak, eta gogoetarako nahiz eztabaidarako ildo interesgarriak aurkeztu dituzte haien ezaugarrien eta eraginaren inguruan. Hemen, lehenik, laburki ekarriko ditugu gogora lan horiek, ikerketaren egoeraren erretratu bat nolabait osatzeko asmoz. Antologieng azterketa horietan bi motatako bildumatzeak hartu izan dira kontuan: batetik, euskal irakurleentzat egindako antologiak —Santiago Onaindiarena (1954), adibidez— eta, bestetik, erdal irakurleentzat egindako euskal poesiaren antologiak —Iñaki Aldekoaren antologia (1993), esate baterako—. Ildo horien ikerketan sakondu beharra adierazi dute aztertzaileek; alabaina, bada antologia mota bat oraindik seinalatu ere apenas egin dena. Hain zuzen, artikuluko xume honen bigarren asmoa eremu hori ikergai espezifiko gisa markatzea da, euskarari ekarri zaizkion erdal poeten antologiak aipatuz.

Esparru horrek, euskal literaturan baino, euskarara itzuli den literatura unibertsalaren eremuan kokatzen gaitu, eta ezinbestekoa da, ondorioz, aurreko bi antologia motetatik bereiztea. Era berean, ordea, ezberdintasun hori dela eta, itzulitako poesiaren antologiek esparru bikaina eskaintzen diote polisistemen bidetik literatur sistemen arteko eragin askotarikoak aztertu nahi dituenari. Izan ere, erdal poeten antologiak maiz izan dira lehen urratsa egile edo poesia ezezagunak gure literatur sisteman txertatzeko, eta batzuetan gerora garatu diren bideak seinalatu dituzte³. Hemen iruzkinduko ditugun euskarara itzulitako poeten antologiak ez dira asko, baina aztertzeko modukoa da zenbaterainoko eragina izan duten haietan antologatuta dauden erdal poetak euskal sisteman ezagutarazten eta txertatzen. Egiazki, artikuluko honen asmoa ez da bide hori agortzea, eta egoera orokorra deskribatu eta zenbait iruzkin egitearekin konformatuko gara.

Esan bezala, euskarara ekarritako poeten antologiei erreparatuko diegu. Lehenik, ordea, ohar teoriko labur bat egingo dugu antologiak sistemari begira kokatzeko, eta be-

² David Sterne (1997) iradokitzen duen bezala, antologiak literatur sisteman duen presentzia ez da pentsa litekeen bezain berria eta, beharbada, «may also be its oldest literary genre» (1997: 1). Azken batean, *Talmuda* edo *Biblia* antologia gisa osatuak daude edo, gutxienez, «anthological habit» bat erakusten dute.

³ Ildo bertsutik, interesgarria da gure idazleek euren obretan —aipuen bidez, etab.— txertatu dituzten egileek gure sisteman egin duten ibilbideaz pentsatzea.

rrikusiko ditugu, halaber, euskal poeten antologiez adituek egindako azterketak. Behin ikerketaren egoera orokorra gaingiroki marraztuta, itzulitako poeten antologiaren eremuari helduko diogu, azterketarako hainbat ildo apalki iradokiz.

2. Ohar teoriko zenbait: antologiak eta literaturaren historiak

Antologiak sortzetik darama bere baitan elementu metaliterario bat: kanonarekin harremanetan sartzen da (Stern, 1997), literaturaren historiarekiko kokatzen, eta egile edo testuen panorama jakin bati heltzen dio zuzen-zuzenean. Gainera, sistema baten egoera eta sintomak ere adieraz ditzake; David Sternek adierazten zuen bezala, «the anthology offers a splendid opportunity to test and expose the boundaries of our conceptions about literature» (1997: 3). Izan ere, antologia bat egiteak, oroz gain, sail erraldoi bati mugak jartzea suposatzen du, eta hauek ezartzean agertzen diren irizpideak kontzepzio kultural, historiko eta literario jakin baten erakusgarri izaten dira. Horregatik, antologiaren esparrua sakonki landu duen María Do Cebreirok esaten duen bezala, «las antologías constituyen, a menudo, el último eslabón de una serie de procesos y decisiones cuyo examen echa luz sobre el modo en que se escriben la historia, la literatura y la historia de la literatura» (2004: 326).

Berezko izaera hautatzaile hori dela eta, antologiek gogoetarako eta eztabaidarako ateak zabaltzen dituzte, literaturaren ekintza konkretutik harago joan eta galdera sistematikoa eta teorikoa azaleratuz. Sternek dioenez (1997), gutxienez bost baldintzapean teoriko har litezke aintzat: antologatzen diren testuen literatur generoa; antologia inplizitua edo esplizitua den; antologiaren funtzioa edo asmoa; tradizioa sortzeko, mantentzeko edo transmititzeko erakusten duen indarra —iraganera begira nola kokatzen den, beraz—; eta, azkenik, antologiak daukan ahalmena kultura eta komunitatea sortu edo birsortzeko —etorkizunera begira duen indar eragilea, kasu honetan⁴—.

Antologoek irizpide askotarikoekin ezartzen dituzte euren antologietarako mugak, eta irizpide aldaketa orok eztabaida dakar, ezinbestean, nabarmendutako corpusaren gainean. Irizpideak argitzeko, ohikoa izaten da antologia apailatzen duenak hitzaurre edo sarrerako testu bat egitea, non aukeraketaren atzean dauden arrazoiak argitzen eta justifikatzen diren. Ziurrenik, Do Cebreirok emakume poeten antologiez esaten duena zabaldu liteke bestelako kanon tradizional zein, bereziki, kanon defizitarioetara ere: «conscientes de la necesidad de abrir un debate en torno a los procesos de canonización deficitaria, los antólogos ofrecen, antes de cada una de sus elecciones, una introducción pormenorizada que contextualiza y legitima la oportunidad de cada uno de los espacios antológicos» (2004: 329). Sarrera testu horiek izaten duten ibilbidea, gainera, espero litekeen baino konplexuagoa da. Izan ere, Otaegik dioen bezala, antologia aipatuenean hitzaurre edo sarrerako azalpen teorikoak literaturaren historia askoren oinarri bihurtu izan dira: «genero bateko poetikaren bilakaeraren azalpen-saio goiztiarrak izan dira sarritan, literaturaren historia orokorraren muin bilakatu aurretik» (2013a: 518). Are gehiago, antologietan dauden izenen eta literaturaren historietan dauden artean dis-

⁴ Lan honetan genero poetikoaz soilik ariko gara. Horrez gain, ordea, Sternek aipatzen dituen gogoetagai guztiak ukituko ditugu modu batera edo bestera.

kordantziak egon badauden arren, Otaegiren ustez baieztatu daiteke «antologiek finkaturikoaren ildotik osatu dela euskal literaturaren historia garaikidea» (2013a: 528).

Antologoen irizpideak sinplifikatzea arriskutsua izan baliteke ere, euskal poesiaren antologietan joera zenbait nabarmendu izan dira, eta, Iratxe Retolazak esaten duenez, gure antologoen sarrerako azalpen testuetan «se aprecia claramente ese deseo (o/y obsesión) de demostrar que la literatura vasca se puede homologar a las corrientes europeas con más renombre» (2007: 24). Asmo horri lotuta, antologia gehienak asko gerturatu dira antologia argitaratzen den garaia⁵. Otaegiren hitzekin esanda, «heziketa helbururik ez duten antologo guztien antologiek hurbileko testuak hobesten dituzte» (2013a: 544). Joera horrek, ordea, literaturaren historiaren ikuspegi orokorrarekiko distortsioa ekartzen du maiz, etorkizunean bigarren planoan geratuko diren egile ugari aurki daitekeelarik hainbat eta hainbat antologiatan⁶.

Bestalde, kontuan izan behar da antologia batek ez duela soilik autore edo poema sail bat ekartzen lehen planora; irizpidea bera ere egiten du ikusgarri. Autore antologatuak eredu gisa ager daitezke, erreferente literario eta kultural bihurtzen dira eta, Itamar Even-Zoharren (1990) ildotik esateko, errepertorio jakin baten kanonizazio posiblerako eragile bihurtzen dira. Esate baterako, Santiago Onaindiarena bezalako antologiaren asmoa, egile jakin batzuen lana nabarmentzetik harago, euskal literaturaren eta euskal nazioaren errepresentatibotasuna eta zilegitasuna defendatzea izan da. Otaegiren hitzetan, «Onaindiaren antologiak euskal literaturaren corpusa batera aurkeztu, eta, haren balioa eta kalitatea erakutsiz, euskarari berari prestigioa ematea bilatzen zuen. Hizkera sistemikoa erabiliz, kapital sinboliko hura erakutsiz, euskal kulturaren izaera bera aldarrikatzen zen Onaindiaren asmoa» (2013a: 529). Horrek esplikatu lezake edizio dotore bat egitea, eta egileak kronologikoki aurkeztea, haien inguruko sarrera goraiatzaile baten ondoren. Onaindiak azaleratu nahi zuen errepertorioa euskarazko poesia zen, beraz, eta antologiak —liburuan bilduriko egileetatik harago doan— kanonizazio dinamiko baterako indarra egiten du. Gauza bertsua gertatzen da, adibidez, Do Cebreirok aztertutuen emakumezko poeta katalanen antologiek ere, generoaren irizpidea txertatuz, emakumeek idatzitako poesia ikusarazi eta aldarrikatzen baitute —ez bakarrik antologaturiko emakumezko poeta horiena—.

Do Cebreirok adierazi duen bezala (2004), emakumeen presentzia eskasa izaten da poesia antologia orokorretan, non eta ez den irizpide hori berariaz kontuan hartzen. Hain zuzen, ikertzaileak esplikatu duen bezala, «emakumeen antologiek» material poetikoa ulertzeko modu alternatiboak sortaraz ditzakete, ohiko antologia kontserbatzailegoek proposatzen dituzten arkitekturen ordez. Hori dela eta, Do Cebreirok defendatzen du kasutan «irudimen antologiko» delako batez hitz egin dezakegula, mekanismo horiek planteamendu berritzaileak eta eragileak sortarazten dituzten neurrian.

⁵ Hala gertatzen da Onaindiaren kasuan (1954), San Martinenean (1969), Izagirrerenean (2000), Kortazarrenetan (2000, etab.) eta beste hainbatetan.

⁶ Horrek ez du automatikoki suposatzen antologiaren irizpideak okerrak direnik, baizik eta obrak egilearen testuingurua garaitzen duela, Bajtinek denbora handia deitzen zuen hartan txertatuz, eta testuinguru berrietako irakurketa askotarikoak ahalbidetuz.

Hain zuzen, antologia mota horri buruz ari galerarik, normalean, poeta(k) zenbat eta bazterrekoagoa(k) izan, proposamenak are ausart, desberdin edo apurtzaileagoa behar du literatur aditu nahiz irakurleen arreta erakarri ahal izateko. Horixe baieztatzen du Do Cebreirok: «con frecuencia, la articulación de proyectos legitimadores por parte de los grupos emergentes necesita un gran margen de imaginación antológica que garantice el ‘impacto’ y la visibilidad social de sus propuestas» (2004: 333). Adibide gisa, Iñigo Astizek apailaturiko Sandro Penna poeta italiarraren antologia har genezake gogoan (2019): edizio estetikoki landu bat, Farmazia Beltzak eta EFI arte galeriak atondua, Damaris Pannen irudi apurtzaile ugarirekin. Ildo beretik joan zen liburu aurkezpena ere, non poesia irakurketa, irudien proiektzioa eta zuzeneko piano musika ezkondu zituzten. Adibide bat baino ez da, baina pentsa dezagun gisa horretako proposamen hibridoek, disko-liburuez, proiektu ilustratuez, etab.

Terminologiari dagokion azken ohar bat ere egin nahi genuke atal hau ixteko. Tituluan bertan «poeten antologiak» aipatu ditugu, eta badago, gure ustez, horretarako arrazoirik. Izan ere, antologia nagusietan —hala euskaraz nola gure inguruko hizkuntzetan egiten direnetan— oso ohikoa den arren «poesia antologia»z hitz egitea, nahikoa da antologia ezagunenen taxua, hautaketa eta egituraketa ikustea —edo makrotestua, hitz batean esateko⁷—, konturatzeko, askotan, antologatzen dena ez dela poesia izaten, poetak baizik. Erdal hiztunentzat egin diren euskal poesiaren antologietan, irizpide nagusia ez da poemak hautatzea izaten, baizik poetak hautatzea —edozein delarik ere haien aukeratzeko irizpidea—. Zilegi bekigu, beraz —gutxienez zalantza terminologiko edo taxonomiko bat txertatzearen—, «poeten antologia» kontzeptua baliatzea kasu horietan⁸; beharbada esan liteke poesiaren antologia bai egiten dela, baina autore horien obren baitan, behin egileak aukeratutakoan. Akaso termino bereizketa nahasgarri gerta liteke zenbait kasutan, baina beste zenbaitetan beharrezko ñabardura da, baita literaturaren historiari begira ere, bereizketa horrek azpimarratzen baitu poesiaren esparruan eragile gisa nagusitzen dena ez dela poema konkretuaren balio sinbolikoa, baizik eta egitura semantiko handiago bat osatzen duen obra poetikoarena.

3. Euskal poesiaren antologiak

Euskal literaturaren historiako antologia gehienak poesiaren generoari eskainiak izan dira. Bistan denez, poesiak tradizionalki izan duen izaera formalak laguntzen du horretan, baina, gainera, Retolazak adierazten duen bezala, «la poesía ha sido en el sistema literario vasco el género con más prestigio, el género cumbre hasta finales del siglo XX»

⁷ Makrotestuaren kontsiderazioa eta azterketa guztiz emankorra izaten da bai poesia garaikide liburuak bai antologiak aztertzerakoan. Maria Corti (1978) eta Cesare Segre (1985) bezalako aditu italiarren eskutik garatu da, batez ere, makrotestuaren inguruko teorizazioa, eta aplikazio interesgarriak egin izan dira gerora, hala nola López-Casanovarena (2007) edo Otaegirena (2013b).

⁸ Antologia zenbaitek ez du ezkututzen poeten antologia gisa sortua denik. Kasu nabarmenetako bat emakume poeten antologiak izan ohi dira, «emakumeen antologia» edo «emakumezko poeten antologia» gisako terminoek argi erakusten baitute poesia antologietan, oro har, egileei begiratzen zaiela irizpideak ezartzerakoan.

(2007: 22). Genero prestigiotsuena izateaz gain, poesia ahozko adierazpenei lotua egon da tradizionalki, eta, Retolazak dioen bezala, bertan gauzatu izan dira lehen berrikuntza eta modernitate saiakerak ere. Zentzu horretan, Otaegiren iritziz, azpimarratu egin behar dira, batetik, «obra arestiarraren inpaktu modernizatzailea» eta, bestetik, euskal kantagintza berriaren fenomeno (2013a: 549). Azken honi dagokionez, badakigu kantagintzak euskal poesiaren zabalkunderako bitarteko itzela suposatu zuela. Garai berriagoi dagokionez, Otaegik Xabier Leteren figurak izan duen eragina nabarmentzen du, bereziki «azken kantaldi eta errezitaldien harrera jendetsua, ia osoki egilearen figura publikoaren ondare sinbolikoak soilik esplika dezakeena» (2013a: 549). Horrela, bada, arrazoi hauek eta beste zenbait tarteko, euskal poeten antologiek bizi-bizirik jarraitzen dute.

Euskal poesiaren antologia nagusiak orokorrak izan dira. Santi Onaindiaren *Mila euskal-olerki eder* (1954) hartu izan da abiapuntu nagusitzat. Joera erromantiko esentzialis-taren zordun da Onaindiaren bilduma, eta Pizkundeko poetikaren ildo nagusietan oinarritzen da, ikuspegi nazionala eta soziolinguistikoa uztartzen dituelarik⁹. Asmo horri dagokionez, Do Cebreirok eta Retolazak bat egiten dute adieraztean, batak Kataluniaz eta besteak Euskal Herriaz, poesia, XIX. mendetik, identitate nazionalaren elementuak gorde dituen generotzat hartu izan dela¹⁰. Ez da ahaztu behar, bestalde, antologia hori argitaratu zenean oraindik ez zegoela euskal literaturaren historiari —pentsa dezagun, beraz, antologiak har zezakeen karga historiagileaz—.

Gerora, gisa horretako antologia orokorrekin batera —Xabier Mendiguren eta Koldo Izagirrek (1998) hezkuntzarako egin, adibidez—, asmo edo esparru txikiagoa zutenak ere eman dira argitara —hala nola Juan San Martinena (1969)—. Antologia orokorretan, lan eskerga izan zen Koldo Izagirrek apailaturiko *XX. mendeko poesia kaierak* (2000) bilduma. 40 poeta antologatu zituen —beste hainbeste liburukitan—, bakoitzaren 25 poema inguru txertatuz liburu bakoitzean. Asmoa, argia: XX. mendeko euskal poesiaren antologia orokor eta sendo bat egitea. Eta esan liteke antologia honen eragin kanonizatzailea, hala gerora egin diren literaturaren historietan nola irakurleen iritzietan, guztiz eraginkorra izan dela¹¹.

Antologia txiki edo espezifikagoei begiratzen badiegu, lehenetarik da San Martinek atondua. Haren *Uhin berri* antologiak espresuki aurkezten zuen bilduma bat ez zena izango elementu bereizgarri nazionalen erakusgarri, baizik era berriko poesia modernoarena. San Martin garai hartako eragile garrantzitsuenetakoa izan zen, eta bere antologia garaikidetasunera begira apailatua dago. Palenqueren hitzekin esateko (2004: 314), iduri

⁹ Onaindiaren antologiaz geroztik, Otaegik nabarmendu bezala (2013: 552), poesia antologia nagusiek oso kontuan izan dute euskara batuaren irizpidea: batua baliatzen zuten edo hartara hurbiltzen ziren poetak antologatu izan dira.

¹⁰ Sternek literatura juduaren esparruko antologiak aztertu ditu, eta, dioenez, aro modernoan antologiak erreminta erabakiorrak izan dira «for cultural retrieval and re-creation» (1997: 2).

¹¹ Bada salbuespen bat: antologia horretan ez dago Xabier Lete, zeina bai azaldu zen San Martinen edo Aldekoaren antologietan. Izagirrek iradoki duenez, Letek uko egin zion haren antologian agertzeari. Paradoxikoki, 2017an —Lete hila ordurako—, Izagirrek *Elurra ikusi dut* izeneko antologia eman zuen argitara, non Leteren obra poetikoaren lagin zabala bildu zuen, epilogo kritiko luze batekin atonduz.

luke antologoa kezkatzen duena garaikidetasun edo modernitate irizpidea dela —zerk merezi duen, alegia, kanonean sartzea—. Hitzaurrean zehaztu zuen asmo hori, hasieratik: «Garai bakoitzari berea. Euskal poesiak badu uhin berria, gure literaturan bere toki berezia eskatzen duena eta ongi merezi duena. Uhin berri hau gogoan harturik egin dut eskuetan duzun bilduma» (1969: 7). Eta olatu hori, San Martinen aukeraketaren arabera, 1964aren ondoren hasten da, bi arrazoigatik: batetik, Baionako euskara batuaren inguruko bileragatik eta, bestetik, Gabriel Arestiren *Harri eta Herriren* argitalpenagatik. Horrela, antologiak bost urte baizik ez ditu hartzen —argitalpena 69koa baita—, baina, kurioski —edo ez hainbeste, San Martinen jakintza handia aintzat hartuta—, bere antologian dauden izen gehienak ondorengo literaturaren historiek nabarmendu dituztenak dira —nahiz eta batzuk bigarren planoan geratu diren—. San Martinen asmoa hain da argia, ezen, oin-ohar batean dioen bezala, «lehenagoko jokerak ezagutu nahi dituenak ikus beza A. Onaindiaren *Milla euskal-olerki eder*» (1969: 8).

Handik lau urtera, Ibon Sarasolaren *Gerraondoko euskal poesiaren antologia* (1973) agertu zen, zeinak, Retolazaren arabera (2007: 22), Onaindiaren lanean zegoen ikuspegiari erantzuten zion nolabait: Onaindiak goi eta behe poesia batera aurkeztu zituen bezala, Sarasolak poesia kultuaren esparrua zedarritu nahi izan zuen. Honen lana, gainera, bat dator San Martinek egindako banaketa kronologikoarekin; izan ere, gerra osteko poesia antologatzen duelarik, 1945 eta 1963 bitarteko lanak sartzen ditu bertan, eta itxiera data hori markatzen duena Arestiren poemategiaren agerpena da. Urte horretara arte iritsi zen, halaber, Joan Amenabar. Bi liburukitan aurkezturiko *Euskal poesia kultuaren bilduma* (1983) antologiak asmo historizista argia zeukan: 1880an hasita, Pizkundearen hasiera hartzen zuen abiapuntutzat, poesiaren eta kulturaren berritzean garai hark izan zuen garrantzia erabatekoa markatuz; eta 1963 arte iristen zen, beste behin onartuz Arestiren obrak suposatzen duen mugarria.

Euskal irakurleentzat egin diren antologiek batera, hor daude kanpora begira egin direnak ere —Mari Jose Olaziregik apailaturiko *Six Basque Poets* (2007), Jose Angel Irigarayren *Siete poetas vascos* (2009), etab.—. Kasu hauetan, eta atal teorikoan aipatu dugun bezala, antologiek sarrera edo hitzaurre luze eta sakonak eduki izan dituzte, kanpoko irakurlari gure literaturaren historiaren berri eman nahirik. Horrela, bidenabar, testu guztiz baliotsuak bihurtu dira kritikarientzat eta literaturaren historiaren ikertzaileentzat, poemak biltzeaz gain, poetiken inguruko oharrek eskaintzen baitituzte.

Iñaki Aldekoaren antologia kasu argia da puntu honetan; gisa honetako antologiaren lehen mugarria dela esan ahal izango litzateke. Alde batetik, *Antología de la poesía vasca* (1993) sarrera luze bat dauka, non Aldekoak euskal literaturaren ikuspegi historiko-kritiko bat plazaratzen duen. Halako sarrera batek —ordu arte egin gabea izateaz gain— lehen planoan jartzen du antologiak literaturaren historia egitearekin duen harremana. Beste alde batetik, Aldekoak aitortzen du antologia bideratzeko irizpideetako bat gutxienez poetek euskal poesia modernizatzen izandako eragina izan dela; horrela, irizpide literario eta estetikoak jarraitzen saiatzen da. Ondorioz, Arestiren aurretik, Jon Miranderen poesiari erreparatzen dio, eta gero datoz Mikel Lasa, Ibon Sarasola, Xabier Lete, Bernardo Atxaga, etab. Gaurtik begiratuta, argia da Aldekoaren antologiak gerora etorri diren literaturaren historiei jarri dien oinarria.

Aldekoak bezala, Jon Kortazarrek ere irizpide literarioek markaturiko antologiak egitera jo du, nahiz eta data gertuagokoak hartu dituen aintzat, posmodernitateari loturiko berrikuntzen aro bat markatzeko asmoz. Hain zuzen, hainbat antologia egin ditu (2000, 2006) 90etan argitaratzen hasi ziren poetak kontuan hartuta, 2000. urte ingurura arte iristen diren bildumetan. Poeta haiengan dauden berrikuntza estetikoak eta, batez ere, posmodernitatearen eragina frogatzeko ahaleginak dira antologia hauek; bereziki 2006koa, zeinak, Aldekoarenak bezala, azalpen kritiko luze bat dakarren¹².

Egon dira aipatzea mereziki luketen antologia gehiago ere —hala nola Emilio Cocol (1994) edo Lourdes Otaegik (2014) italiarara egindakoak, edo Patri Urkizuk gaztelaniara egindako antologia orokorra (2009)—, baina ezin ditugu hemen guztiak iruzkindu.¹³

Gaur egunera etorrita, Retolazak adierazten duen bezala (2007: 23), antologiek zuzendu edo osatu egin nahi izaten dituzte antologia zaharragoen hutsuneak. Hori dela eta, besteak beste, emakumezkoen obrak nabarmentzeko beharra azaleratu da. Asmo horren erakusgarri dira Julia Otxoak (1990) eta Arantza Fernandezek (2001) egindako antologiak. Espresuki euskaraz —eta euskal irakurleentzat— egindako emakumezko poeten antologia bat aurkitzeko, ordea, 2019raino etorri behar dugu, Balea Zuria argitaletxe gaztearen eskutik, *Lurra eta dardara* argitaratu baita berriki. Bertan, «zortzi ahots emakumezko» bildu dituzte: Amaia Lasa, Itxaro Borda, Tere Irastortza, Amaia Iturbide, Miren Agur Meabe, Aintzane Galardi, Castillo Suarez eta Leire Bilbao. Poeten antologia baten aurrean gaude, beraz: 1948an sortua zaharrena, gazteena 1978an. Gero, poeta bakoitzak erabaki du zein poema sartu bilduman. Izaskun Gracia Quintanak hitzaurrean dioenez, antologiaren asmoa ez da kanon bat ezartzea, proposamen sorta bat eskaini eta beste ahots batzuk entzunaraztea baizik. Beraz, Do Cebreirok iruzkindutako emakume katalanen antologietan bezala, kasu honetan ere asmoa da erreperitorio ezkutuagoa osatzen duen emakumezkoen poesiari ikusgarritasuna ematea.

Aurrekoaren ildo beretik, Anjel Lertxundi idazleak eta Antton Valverde musikariak argitaraturiko antologia txikia ere aipatu nahi genuke (2020), honek ere berariaz hartzen baitu aintzat generoaren irizpidea. Disko-liburua 2019aren amaieran Txillida-Lekun zuzenean grabaturiko errezitalditik gorpuztu da, eta bost poetaren lanak biltzen ditu: Itxaro Borda, Arantxa Urretabizkaia, Tere Irastortza, Jule Goikoetxea eta Miren Agur Meabe¹⁴. Lertxundik eta Valverdek osatutako lanak ez du, apika, literaturaren historiari eragingo dion antologia bat osatzeko asmo espliziturik; alabaina, ikusgai dago, poeta horien indar

¹² Bost poeta gazteren antologia bat ere bideratu zuen Kortazarrek (2005), baina, beharbada gertutasun gehiegizkoak ekarritako distortsioa dela eta, momentuz ez da ikusi poeta horiek poesiaren esparruan belaunaldi aldaketarik ekarri dutenik —ezta euren artean belaunaldi bat osa dezaketenik ere—.

¹³ Gure ustez, beste literatur sistementzat egin diren antologiaren alorra sakonago ikertu beharra dago. Edonola ere, itzulpenen alorrean, Elizabete Manterolaren doktore-tesia aipatu nahi genuke (2011), non, Atxagaren obra itzuliaren azterketatik abiatuta, beste hizkuntzetara egindako itzulpenen inguruan egiten den gogoeta.

¹⁴ 2013an 3 L: *Lauaxeta*, *Lizardi*, *Lete* izeneko disko-liburua eman zuten argitara Lertxundik eta Valverdek, eta proiektu berriak antzeko formatua du. Ohar gaitzen, bidenabar, proiektua hibridoa dela, bat eginez, Do Cebreirok (2004) aipatzen duenaren ildotik, bigarren planoan dauden poetek plazaren erdigunea hartzeko behar duten apustu ausartagoekin.

nabarmenagatik eta Lertxundiren kapital eragilea medio, zenbaterainoko eragina izan lezakeen antologiak. Aipagarria da, bestalde, Balea Zuriak argitaratu duen antologiaren eta honen arteko bat etortzea ez dela oso altua: bost eta zortziko zerrenda horien artean, hiru poeta dira komunak —Borda, Irastortza eta Meabe—.

Esan dugu antologiak kanonarekin eta literaturaren historiarekin jartzen direla harremanetan jaio orduko. Gehitu behar genuke hainbat antologiak literaturaren kritika ere gertutik ukitzen duela. Ildo horretan, adibide interesgarria da Iban Zalduak editatutako *Poetikak & poemak* (2005), zeinak lehen planora ekartzen duen antologatutako poeta bakoitzaren mundu poetikoa. Egiazki, liburu hori, antologia bat baino gehiago, aukeraketa bat da, beharbada ez pentsa litekeen bezain asmo kanonizatzailearekin egina —Sternen ildotik, esan liteke ez dela antologia esplizitu bat—; aldiz, egile bakoitzaren poetikari buruzko iruzkinak balio handia hartzen dute makrotestuaren baitan. Horrela, Do Cebreirok Maria-Mercè Marçalen *Cartografies del desig. Quinze escriptores i el seu món* (1998) liburuz esaten duena esan liteke Zalduaren antologiaz ere:

Si bien el enfoque de la obra no es explícita ni exclusivamente antológico, desde el momento en que los textos de las autoras antologadas son introducidos al hilo de una serie de consideraciones teóricas sobre sus obras, las figuras autoriales se convierten en motores poderosísimos de la organización del dispositivo textual. (2004: 332)

Azkenik, ez genuke iradoki gabe utzi nahi, hemen laburki aipatu ditugun antologia liburuen ondoan, aztergai dagoela aldizkari edo argitalpen txikietan argitaratzen diren poeten kasua, baita han eta hemengo panoramiketan aipatzen direnen kasua ere. Izan ere, kasu horietan, kanpora begirako kanonizazio indar bat egon liteke, oso txikia izan arren. Esate baterako, Mateo Rello poetak zuzenduriko *Caravansari (Poesía contemporánea en lenguas peninsulares)* aldizkariaren sei zenbakietan hainbat euskal poetaren lanak agertu ziren¹⁵, eta, osotasunean hartuz gero, esan liteke aldizkariak euskal poesiaren antologia moduko bat osatzen ziharduela. Ikertzeko daude, esan bezala, halako kasuak.

4. Euskarara ekarritako poeten antologiak

Poesia itzuliaren ikerketari dagokionez, ezer baino lehen, Ane Garcia Lopezek egingandako azterketa aipatu behar dugu, «Poesia-itzulpena: jarduera periferiko baten analisisa» (2017) izenburua duena, atal honetan maiz egingo baitiogu hari oihartzun. Garcia Lopezek azterketaren lehen abiapuntua kuantitatiboa bada ere, maila kualitatiboko hainbat ekarpen egiten ditu, ikerbideak iradoki eta fenomeno literarioak esplika litzaketan hipotesiak plazaratuz.

Itzulitako poeten antologiei begiratzuz gero, egin beharreko lehen oharra da kasu honetan bi langintzek egiten dutela bat. Euskal irakurlearentzako euskal poesiaren antolo-

¹⁵ Aldizkari horren sei zenbakietan, konkretuki, honako poeten lanak eman ziren argitara euskara-gaztelania edizio elebidunetan: F. Juaristi, I. Borda, H. Cano, I. Estankona, A. Iturbide, H. Etxarte, R. Arregi, I. Astiz, B. Atxaga, M. A. Meabe eta H. Larretxea.

gia bat prestatzen duen egileak antologo lana hartzen du bere gain —eta, sarrera testurik balego, izatekotan, kritikariarena—; aldiz, itzulpen antologietan, itzultze eta antologatze lana juntatzen dira. Euskaratik beste hizkuntzetara egindako antologietan, ez da arraroa lan horiek bi pertsonaren artean egitea; kasu batzuetan poeta da bere poemak —adibidez— gaztelaniara itzultzen dituen, eta beste batzuetan itzultzaile profesional batek eskuz esku egiten du lan antologoarekin. Aldiz, euskarara ekarritako antologiaren kasuan —eta galdetu beharko genuke ea hau zenbateraino den gure sistemaren berezitasuna—, itzultzailea eta antologoa pertsona bera izaten dira askotan. Garcia Lopezek dioen bezala, «kasu horretan, argi geratzen da itzultzailearen lana ez dela soilik hitzak itzultzea, baizik eta zubi-lana egiten duela» (2017: 126).

Poesia itzuliaren kasuan arreta ematen duen beste datu bat da poeta gehienek kasuan monografiko bakarria ekarri dela euskarara: Garcia Lopezek zifren arabera, 100 monografiko pasatxotan, «egile bakoitzeko lan bat ia» (2017: 126). Beraz, apenas itzultzen dira erdal poeta baten liburu bat baino gehiago eta, sakonago begiratu behar den arren, faktore honek narratibarekiko anomalia nabarmena ematen du. Izan ere, nobelagileen kasuan arrunta den bezala nobela bat baino gehiago itzultzea, iduri luke poeten kasuan nahikoa irizten zaiola bere poesia —poesia zerbait— itzulia izateari. Egia esan, poesia itzuliaren corpusari gaineratik begiratzen dion edonork sumatuko du euskarara ekarritako poeten corpusa irregularra dela literaturaren historiarekiko. Adibidez, italieratik euskaratu den poesiaren kasuan, Cesare Pavese askotan itzuli den bitartean, Salvatore Quasimodo Nobel Sariaren bi poema dauzkagu, edo Francesco Petrarca klasikoaren bakarria. Literaturaren historiaren eta itzulpen corpusaren arteko diskordantzia moduko horren eragileak asko eta askotarikoak izan daitezke, eta ez da gure xedea horietan sartzea, baina pentsatzekoa da faktore berberak eragiten dutela antologietan azaleratzen den irregulartasuna ere.

Antologiei dagokienez, corpusa zehazteko zailtasun metodologikoak aipatzen dituzte Palenquek eta Garcia Lopezek —nork bere eremuan—; Garcia Lopezek, konkretuki, zortzi lan zenbatu ahal izan ditu —baina zein diren zehaztu gabe—. Ikertzailearen arabera, zortzi argitalpen horietan idazle bat baino gehiago dago jatorrizkoan (2017: 125)¹⁶. Zifren aldakortasuna aintzat hartu arren —eta ikertzaileoi beti-beti zerbaitetik ihes egiten digula esanda—, bistan da zifra oso txikia dela. Hau da, poesia itzuliaren corpus orokorra aski txikia izanik —Lopez Gasenik (2009) %8an kokatzen zuen—, ezinbestean, poeten antologiak oso-oso gutxi dira. Horrek, ordea, ez digu ahantzarazi behar antologiaren izaera metaliterario eta eragilea, Garcia Lopezek esaten duen bezala, «euskal poesiaren polisisteman eragin zuzena izan baitezake» (2017: 126).

Antologia hauetan, euskal poesiaren antologietan bezala, poetak dira —batez ere— aukeratuak, ezen ez poema solteak; hau da, poeten antologiak dira gehienak. Halere, bada euskal poetek apailaturiko zenbait antologia zeinetan poeta minor edo ez hain kanonikoen poemek lekua aurkitu duten —Luigi Anselmik (2006) edo Joseba Sarrionandiak

¹⁶ Garcia Lopezek bi itzulpen balira bezala aipatzen ditu Gerardo Markuletaren antologiaren edizio biak (1997 eta 2014). Guk bakar gisa hartuko dugu; ondorioz, Garcia Lopezek zifra zazpita jaitziko litzateke.

(1984, 1991, 2006) egindako antologiez ari gara, adibidez—. Esan liteke, beraz, antologoen irizpide pertsonalak tartean sartu direnean, antologia hauek kanon alternatiboak proposatu dituztela, aldi berean itzulpen corpusaren diskordantzia eraginez literatura-ren historiekiko.

Historikoki, poesia itzuliaren lehen antologiak aldizkarietan argitaratuak dira¹⁷; aro garaikidean, preseski, ematen du 80ko hamarkadak mugarri bat jartzen duela —ikusiko dugun bezala, antologia liburuekin gertatzen den gisa berean—. Adibidez, Baionako *Maiatz* aldizkarian (1982-) poema itzulpen asko argitaratu dira; batzuetan antologia txikiak osatuz, hala nola 12. zenbakian, zeinetan poeta sobietarren antologia labur bat aurki dezakegun, edo 16.ean, non mundu arabiarreko zenbait poeta irakur daitezkeen. Esan behar da, gainera, alor honetan Itxaro Borda poetaren ekimena guztiz klabea izan dela, hark itzuliak izan baitira poeta askoren lanak: «ekimen indibidualez itzuli du —dio Garcia Lopezek—, bere identitateak literaturan sumatzen zituen hutsuneak beteko zituen erreferentziak hautatu eta gure polisistemara ekarrita» (2017: 133). Ildo beretik, *Susa* aldizkarian (1980-1994) ere poema itzuli ugari atera zen. Esate baterako, kartzelako poemena antologia labur bat argitaratu zuten 23-24 zenbakietan. Guztiz aipagarria da aldizkariok euskal literatur sistema aberasten eta modernizatzen egindako ekarpena eta, esan bezala, azterketa sakonagoak merezi lituzkete poesia itzuliaren esparruari egin dioten ekarpenari dagokionez.

Jarraian, eta corpora zehazte aldera, bi motatako antologiei gertuxeagotik erreparatuko diegu. Lehenik, euskal idazleek apailaturiko antologiak izango ditugu hizketagai, eta, ondoren, antologia gisa osatu diren bilduma zabalak.

4.1. Euskal idazleek apailatuak

Poesia itzulpen gehienek asmo pertsonalen ondorioz egin izan dute aurrera eta, horregatik, Garcia Lopezen hitzekin esateko, beharrezkoa da etorkizuneko azterketetan «poesia-itzulpena ekimen indibidual gisa» aztertzea (2017: 131)¹⁸. Guk hartxintzar bat jarri nahi genuke beharrezko analisisien bide horretan.

Euskal poeta zenbaitek antologiak egiteko joera erakutsi du urte luzez. Horien artean aparteko lekua hartzen du, hala egin dituen euskal poeten antologiengatik nola euskarara egin dituen itzulpenengatik, Koldo Izagirrek¹⁹. Antologia itzuliez ari ga-

¹⁷ Atzerriko aldizkarietan argitaratu diren euskal poeten antologiek bezala, alor honek ere ikerketa sakonagoak merezi lituzkeelakoan gaude.

¹⁸ Hala izanik ere, interesgarria Amaia Apalauzak *Senezen* argitara emandako «Itzultzaileak eta poetak eskuz esku katalanezko poesia euskaratzen» (2017: 141-164) irakurtzea, non Gràcia Jiménezek eta Joannes Jauregik talde-itzulpenari buruz egindako gogoetak jasotzen diren. Gogoeta horiez gain, Apalauzak Esteve Plantada eta Gràcia Jiménezek poema zenbait erantsi zituen artikuluan, katalanez eta euskaraz. Beraz, antologia txiki bat ere osatu zuen.

¹⁹ *Armiarmaren* web orrirako ere itzulpen ugari eginga da Izagirre, baina ez gara hemen horretan sartuko.

rela, aipagarria da, batetik, *Ahalegina* izeneko bilduma txikia. 2004an argitaratu zuen Koldo Mitxelena Kulturunearen eskutik, eta 19 poetaren poema bana bildu zuen bertan. Egiazki, ez da oihartzun handiko lana, baina interesgarria da poesia antologiaren ideiarra gehien hurbiltzen den lanetarik dugulako. Bestetik, oihartzun handiagoa izan zuen antologia bat ekarri behar da hona. 1988an, *Aresti / Ferreiro / Espriu* hirukoaren antologia bat apailatu zuen. Bistan denez, antologia horretako hiru egileek bi elementu oinarrizko dituzte, gutxienez, komunean: batetik, poesia sozialaren izen handiak izatea nor bere eremuan, Celso Emilio Ferreirok *longa noite de pedra* izendatu zuen garaian; eta, bestetik, Espainian hitz egiten diren hizkuntza nazional gutxituetako poetak izatea. Antologia argitaratu zenerako, poeta horietako bakoitzak aitorten erabatekoa jaso zuen norbere eremuan, eta Izagirreraren antologiak oihartzun egiten zion balioespen horri. Gainera, antologiak Arestiren obra testuinguru zabalago batean ulertzeko aukera eskaintzen zuen, testuinguru historiko iberiarraren baldintzapean eta periferiako idazleen arteko kulturarteko sare batean.

Izagirrerena ez da Aresti beste idazleekin harremanetan jarri duen antologia bakarra. 2011n, EuskAlema elkarteak *Brecht-Aresti. Poema hautatuak – Ausgewählte Gedichte* izeneko bilduma eman zuen argitara, Hedoi Etxartek eta David Lindemannek editatua. Jakina da Bertolt Brechten lanak harrera ona izan duela euskal sisteman, eta zentzu horretan aipamen berezia merezi luke Mikel Laboak haren lau poemarekin osaturiko EPak (1969). Aipaturiko antologiari dagokionez, Izagirrerenean bezala, interesgarriena edizioak iradokitzen duen testuarteko sarea da, aukera ematen baitio irakurleari irakurketa konparatu bat egiteko Arestiren obra Brechten obraren eraginpean berrinterpretatuz.

Hedoi Etxarteren ekarpenekin jarraituz, Garcia Lopezek *Ihes ederra* (2009) aipatzen du, Etxartek berak eta Alain Urrutiak sorturiko komikia. Eta egia da komiki horrek hainbat idazleren poema itzuliak hartzen dituela bere baitan: V. Holan, F. de Azúa, W. B. Yeats, P. Éluard, M. Tsetaieva, etab. Gainera, aipagarria da nola integratzen diren testuok liburuaren baitan, adierazpen askotarikoen eta joko hipertestualen konbinazio konplexu batean. Hala ere, nolabait poemaren antologia ere baden horrek antologia ohikoaren funtziotik diferentea den asmo bat dauka komikiaren egitura makrotestuarekin; antologia, bestela esanda, inplizitua da gehienez ere.

Gorago esan dugu 80ko hamarkadan biraketa bat gertatu zela gero eta sendoagoa zen euskal literatur sisteman, eta indartze prozesu horrek antologiaren esparrua ere ukitu zuela ematen du. Aipatu dugun Izagirreraren antologia hamarkada horretan atera zen, eta orduan ikusi zuten argia, halaber, Joseba Sarrionandiaren bi antologia orokorrek: 1984an *Alkohola (poemak)* izeneko bilduma argitaratu zuen, eta handik zazpi urtera *Hezurrezko xirulak* (1991). Sarrionandiaren izena funtsezkoa da poesia itzuliaren esparruan, eta bereziki antologia itzulienean. Sarrionandiaren itzulpen lanek bere idazle tailerraren zantzuak ematen dituzte: etengabe zabaltzen den mundu bat, esparru berrietara eramaten duen indar zentrifugo bat duena, eta agortezina dena harreman intertestualetan. Tailer horren erakusgarri handi bat «marginalia» deitu ohi den generoa da —Julio Ramón Ribeyrok *prosas apátridas* izen iradokitzailarekin bataiatua—, Sarrionandiak modu jorian landu duen eremua. Beste gune esanguratsu bat, esan bezala, itzulpenek osatzen dute, non idazleak bere literatur unibertsoa zabaldu eta bere luma zorrozten duen.

Sarrionandiaren lanak maila teorikora jotzen duten elementuak ere baditu, hemen sakondu ezin ditugun alderdi interesgarrietara bideratzen dutenak ikerketa. Esate baterako, *Hezurrezko xirulak* bilduman, Sarrionandiak bere poemak ere txertatu zituen antologiaren baitan, gezurrezko egileen izenpean —poema apokrifoak ere sartu zituen, alegia—; eta itzultzaileen izen batzuk ere asmatu zituen. Gisa honetako jokoak ohikoak dira Sarrionandiaren obran, non, Aiora Jakak (2012) aztertu duen bezala, sortze prozesua eta itzulpen prozesua modu konplexu eta sortzailean korapilatzen diren. Ziurrenik, Sarrionandiaren antologiaren loratze handiena *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (2006) lanak suposatzen du —egileak dioenez, 1996 ingurutik egiten ari zen itzulpenak dira—. Aurreko liburuetako paratestuek itzulpen-antologia izaera erabat argitzen ez bazuten, izenburu honek beste buelta bat dakar, ikuspegi literario oso bat kondentsatzen baitu —Jakak itzulpenaren epistemologia posmodernoren argitan esplikatzeko duena—, zeinetan poesia idaztea, idazleak liburuaren hitzaurrean dioen bezala, «translazioa» den beti.

Ez da erraza Sarrionandiaren ikuspegiak gure sisteman izan duen iragazkortasuna neurtzea, baina edonorentzat bistakoa da garai berekoa dela, besteak beste, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988), gisa horretako joko ugarian parte hartzen duena. Ziurrenik egile hauek euskal literatura homologatu eta literatur sistema unibertsalera proiektatzeko zuten egarriak eragin zuzena izan zuen gisa honetako praktiketan, horixe baitzen modu bakarra euskal literatura beste sistemekiko harreman dialogikoan kokatzeko.

Asmo pertsonaletatik sorturiko antologia orokorrekin amaitzeko, Luigi Anselmiren lana aipatu behar da. Anselmi ibilbide luze eta sendoko poeta da, gaur egun kasik kultuko egilea. Ibilbide horretan sumatzen diren joerak eta irakurketak *Bertzerenak* (2006) liburuan erakutsi zituen, hein batean bederen. Antologia orokor eta apetatsua da, ziurrenik are interesgarriagoa Anselmiren poetika landuaren osagarri gisa, itzulpen bilduma gisa irakurtzeko baino —beharbada horrek azaltzen du liburu honek oihartzun handiegirik ez izana—. Ibon Egañak —berak egin da liburuari egindako prentsako kritika bakarra— modu argian adierazten zuen nola antologoak, itzultzaile ere baden neurrian, ahots asko eta era askotakoak bere ahots propiora ekartzen dituen, oso urrunak diren autoreak —denboran, estiloan, etab.— elkarrengana gerturatu:

Itzulpena, gainera, maila bitakoa da hau bezalako antologia apetatsu batean, hizkuntza jakin batera ez ezik hizkuntza poetiko propio batera ere egiten baita itzulpena, oraingoan Luigi Anselmirenera, halako moldez non bestela izango ez lukeen batasuna ematen baitie itzultzailearen ahotsak (arnas klasikoko hizkuntza, arkaismoak maite dituen, ekialdeko euskalkietarako joera duena...) tradizio eta jatorri hain dibergente ko testuei. Horrek justifika lezake, halaber, lehendik euskaratuak ziren hainbat poema bere gisan emateko bildumagileak egindako hautua. (*Berría*, 2006-09-17)

Euskarara poesia itzuli duen beste idazle eta itzultzaile bat Eduardo Gil Bera da. Hain zuzen, 1995ean *Ezabatuak*. *Idazle alemanak* izeneko antologia bat apailatu zuen. Izenburuak espezifikatzen ez badu ere, poesia expresionistaren antologia bat da eta, hitzaurreaz gain, egile bakoitzari buruzko sarrera txiki bat dauka. Edizioak, elebiduna izaki, interesa dauka korrante horretara gerturatu nahi lukeenarentzat.

Azkenik, liburu formatuan ez izanik ere, argitaratu izan dira antologia txikiak aldizkari edo liburuen ataletan. Pentsatzekoa da kasu horietan antologiaren oihartzuna txikiagoa izaten dela. Karlos del Olmok, esate baterako, poesia asturiarrari eskainiriko antologia bat eman zuen argitara *Senezen* 43. zenbakian. Del Olmoren antologiak *Surdimientu* deitu den berpizkunde kultural eta literarioko egileak hartzen ditu bere baitan, 1975etik 2010era doan garai historikoa kontuan hartuta. Antologiaren berezitasun handiena poeta kopuru handia da. Izagirrek 19 bildu zituen bezala *Ahalegina* bildumatxoan, Del Olmok 38 poetaren poema bana biltzen du —nabarmena da aukeratuak poetak direla, haien izena nabarmentzen baita formalki ere, gero haien poema bat aukeratuz—. Zabalatasun hori azaltzen duena Del Olmoren antologia «antologia baten antologia» izatea da, José Luis Argüellesen *Toma de tierra* antologiaren lagin bat baita itzultzaileak *Senezera* ekarritakoa. Aipatzekoa da, halaber, antologoak euskal poesiaren eta poesia asturiarraren artean egon daitezkeen harremanak nabarmentzera jotzen duela, Esther Prietoren «De la casa del padre», Antón Garcíaren «La casa del mio padre» edo Pablo Ardisanaren «Txillida» poemak hautatuz.

Bestalde, Andoni Lekuonak abesti zenbait itzuli zituen, eta *EIZI*ren *Itzulpen antologia III* (2002) liburukian argitaratu. Antologiari «hainbat kanta» izenburua eman bazion ere, izan zitekeen «hainbat kanta frantses», itzulitako sei piezak baitira kantari frantsesena —Jean Ferrat, Jacques Brel, Georges Moustaki, etab.—. Aipatzekoa da edizioak hiru formatutan biltzen dituela testuak: batetik frantesezko testua, euskarazko itzulpena bestetik, eta partitura xume bat ere bai abestiaren melodiarekin.

Ildo beretik, are interesgarriagoa izan daiteke Xabier Letek *Abestitzak eta poema kantatuak* (2006) liburuaren barruan egin zuen antologia laburra. Liburu horretan, bere abesti propioen hitzak bildu eta berrinterpretatu zituen Letek, baina, horrez gain, atal bat osatu zuen «euskarara itzulitako abesti eta poema kantatuak» bilduz (2006: 129-162). Anselmiren edo Sarrionandiaren kasuan bezala, antologia labur horrek —Jacques Brel, Cesare Pavese, etab.— Leteren obra poetiko eta musikala testuinguru zabalago batean ikertzeko aukera eskaintzen du, sare intertestualean eta birkreazio mekanismoetan murgilduz.

Orokorrean, aipatu ditugun antologiek oso gertutik jotzen dituzte itzultzaile-antologo-poetaren interes pertsonalak. Faktore horrek, batetik, corpus sistematizatu gabeak eragiten ditu, baina, bestetik, literatur sorkuntzaren inguruko mekanismo eta erremintak aztertzeko lagin aparta eskaintzen du. Beste kontu bat da antologia hauek zer nolako eragina izan duten gure sisteman, eta zenbateraino funtzionatu ote duten erdal poeten antologiek eredu gisa edo erreperitorio jakin batzuen itzulpen beharra aldarrikatzeko eragile gisa²⁰. Puntu honetan, azterketa gehiagoren beharra seinatzea baizik ez zaigu geratzen. Izan ere, nolabait euskal poetaren izenak babestua etorri ohi da itzulpena, eta horrek poeta itzuliaren harreran eragiten du, nahiz eta ezin den ahaztu gure sisteman —ere— ikusgarritasun txikia duen genero bati buruz ari garela.

²⁰ Nahiko markatua iruditzen zaigu, adibidez, C. Pavesek gurean duen itzala —bere obraren maila zalantzan jarri gabe—, konparatzen badugu euskarara oraindik itzuli ez diren beste hainbat poeta italiarrekin. Hain justu, litekeena da Pavesek gure idazleengan sortu duen jakinminak haren obraren itzulpenak eragin izana —azkena, *MPK* bilduman argitaratu dute haren poema antologia bat—.

4.2. Antologia asmoz sorturiko bildumak

Aurreko atalean, itzultzaile edo idazleen asmo pertsonalez itzulitako antologiak izan ditugu hizpide. Beha diezaiegun orain, laburki, asmo antologikoarekin sortu diren bildumei. Ezer baino lehen, eremu honetan argia da 80ko hamarkadatik hona gure kultur sistemak bizi izan duen garapenaren eragina, eta bereziki hezkuntza sistemarena, orduan hasi baitziren sistematikoki zabaltzen askotariko material didaktiko eta testu liburuak. Testu liburuak, oro har, ez dira poesia generoaren antologiak izaten, genero guztiak-edo hartu behar baitituzte aintzat, baina maiz testuen antologia gisa pentsatuak eta defendatuak izaten dira —adibide gisa, hor dago Izagirrek eta Mendigurenek apailatua—. Asmo hezitzailea izaten dute, eta irakaslearen gidaritza eskatzen duen testu bilduma komentatu gisa funtzionatzen dute. Adibide gisa, Iñaki Aldekoak eta Mari Jose Olaziregik (2012) batxilergorako atonduriko testu-liburua jar liteke —2016an Itziar Gilleneak eta sinatzaileak zabaldu eta berritua—. Testu liburuotan osatzen diren antologiaren arazo nagusia da fosilizatuta geratzeko joera izaten dutela, oso leku eskasa eskaintzen diotelarik historiaren berrirakurketa berritzaileei. Eta joera honek bereziki zabaldua ematen du literatura itzuliaz ari garenean, nekez eta berandu iristen baitira beste sistemetan egiten diren gaurkotzeak gure sistemara.

Eskolaz kanpoko eremuari begira, garai hartan sortu ziren bi proiektu interesgarri nabarmenduko ditugu. Lehena, *Gaur egungo euskal poesia / Poesía vasca hoy* antologia bilduma genuke. 1989an abiatu zen proiektua EHUren eskutik, eta Felix Maraňak eta Felipe Juaristik gidatu zuten. Anbizio handiko bilduma gisa sortu zen, eta euskarazko eta gaztelaniazko esparruak elkarrengana gerturatzea zuen asmo. Ondorioz, euskarazko zein gaztelaniazko poetak biltzen zituen kolekzioak. Poeten obrak osoki eta modu zainduan eskaintzen zituen ale bakoitzak: edizio elebidunak ziren, eta adituen azalpen testuz hornituta zeuden. Ohikoagoa izan den arren gure euskal poeten lanak gaztelaniara itzultzea, ezen ez alderantziz, kasu honetan bide hori ere egin nahi zuten. Horregatik baieztatzen zuen J. A. Ascuncek bilduma honek sustatzen zuela «una cultura de abrazo y de vigorización de la cultura euskérica» (1993: 18). Horrela, antologiaren bilduma honetan atera ziren, bi hizkuntzetan, gaztelaniazko hainbat poeta ezagunen obrak: Jorge Aranguren, Carlos Aurtenetxe, Francisco Javier Irazoki, Gabriel Celaya, Javier Agirre, Ignacio Aldecoa, etab. Gerora, bildumak beste bide batzuk hartu ditu, edizio partzial eta elebakarrak ere argitara emanez eta, beraz, hasierako izpiritua ia erabat galduz.

Hurrengo urtean abiatu zen derrigor aipatu behar den beste itzulpenen bilduma bat. Antologia ezinbesteko baina etorkizunera irekitako bat osatzeko asmoz ekin zion *Literatura Unibertsala* bildumak 1990ean, eta indar berak tiratzen dio aurrera egun ere. Hala ere, maiz aipatu izan den bezala, gaur 170etik gora doan izenburuen zerrendan, liburu bakarra da poesiaren alorrekoa: 70. zenbakiaekin atera zen Gerardo Markuletak apailaturiko *Zenbait poeta katalan* (1997) —gero Elkar etxearen urrezko bibliotekan berreditatua, 10. zenbakian (2014)—. Hanka sartzeko beldurrik gabe esan liteke antologikoa dela Markuletak poeta katalanekin osatu zuen antologia. Bestalde, itzuli zituen bederatzi poeten zerrendari erreparatuz gero, bistakoa da antologia kanonikoa dela irizpideei dagokienez, eta bere egiten dituela katalan poesiaren historiek nabarmendu dituzten autoreak: Josep Carner, Carles Riba, Salvador Espriu, Gabriel Ferrater, etab. Ondorioz, literaturaren historien joera eta gabeziak ere erreproduzitzen ditu; nabarmenena, generoari dagokiona, ez baitago antologian poeta emakumezkorik.

Literatura Unibertsala bildumak zabalduko atetik sartuta, merezi du interludio txiki bat egitea poesiaren itzulpen corpusari begira. Izan ere, Manu Lopez Gasenik 1976tik 2008ra argitara emandako itzulpenen inbentarioa eta azterketa egin zuen, eta ondorioa argia da: itzulpenen corpusetik, %8 baizik ez da izan poesia. Lopez Gasenik, egoera ikusita, hainbat proposamen egiten zituen etorkizunera begira (2009: 310-311). Besteak beste, iradokitzen zuen tokian kokiko literaturaren historiak eta literatura unibertsalaren historia kontuan hartzeko, horiek baitira kanona ezartzen duten eragileak. Jakina, eztabaidagarria da kanona erreproduzitu behar diren ideia, baina Lopez Gaseniren ideiak hutsuneak betetzeko bidea eskainiko luke bederen.

Horrez gain, «idazlan kanonikoen gutxieneko zerrenda» bat osatzea beharrezkoa irizirik, Lopez Gasenik aipatzen zuen Nobel Sariari erreparatzea ere aukera interesgarria izan litekeela. Hain zuzen, gurean ez da egon idazle sarituak itzultzeko sistema iraunkorrik, are gutxiago poesiaz ari bagara. Nobel sariaren itzulpena bideratu duen Jokin Zaitegi bekaren bidez T. Tranströmerren —Nobela 2011n— poesia osoa itzuli zen, baina behin bakarrik gertatu den esperientzia izan da²¹.

Azkenik, antzerki eta poesia argitalpenen proportzioa txikia denez gero, Lopez Gasenik (2009: 20) proposamen konkretu pare bat ere egiten zuen ildo horiei lehentasuna emateko: batetik, «poesia- eta antzerki-lanak bultzatzeko ahalegin berezia egitea»; eta, bestetik, «xx. mendeko obra asko dagoenez gero, arlo batzuetan (poesia, ipuinak, pentsamendua) antologiak» egitea. Lopez Gaseniren proposamenak ez du jarraipenik izan *Literatura Unibertsala* bilduman, baina beharbada esan liteke *MPK* bildumak behar horri erantzuten diola nolabait.

Susa argialetxearen ekimena izan da *Munduko Poesia Kaierak* antologia bilduma, eta esan liteke bi ahizpa nagusi dituela proiektuak etxe berean. Aurrena, lehen saiakera gisa, *Erreferentziak* saila aipatu behar genuke. 1986 eta 1998 bitartean, Susak 14 liburura iritsi zen bilduma osatu zuen: denak ziren itzulpen lanak, eta, horien artean, hiru, poesia antologiak. 11., 12. eta 13. liburuak izan ziren: 1993an, Koldo Izagirren itzulita, V. Maikovski; hurrengo urtean, Juanjo Ollasagarrek ekarria, W. H. Auden; eta, 1997an, Josu Lartategik itzulita, Ch. Bukowski. Ikusten denez, hiru poeta kanoniko izan ziren, hiru poetek itzuliak —denak, gizonetzkoak—. Laster etorri zen bigarren ahizpatzat har litekeena: Koldo Izagirrek apailaturiko *XX. Mendeko Poesia Kaierak*. Bilduma horretan, jakina den bezala, xx. mendeko euskal poeta nagusi gehienak antologatu zituen Izagirrek.

Munduko Poesia Kaieren kasuan, Beñat Sarasolak koordinatzen du bilduma, baina ez da bera poetak aukeratzen dituena. Egiak, ahizpa gisa ikus balitezke ere, bada alderik Izagirreraren bildumatik hona. Batetik, hautaketari dagokionez, *XX. Mendeko Poesia Kaierak* euskal poeten antologia itxia zen; aldiz, *MPK* bilduma irekia da. Bestetik, lehenengoak

²¹ W. Szymborska (Nobela 1996an) edo B. Dylanen (Nobela 2016an) kasuetan, poema solteak bakarrik dauzkagu —momentuz—; C. Miloscz (Nobela 1980an) ez da 80ko hamarkadatik itzuli; D. Walcott (Nobela 1992an) Luigi Anselmiren antologian bakarrik ageri da. Aldiz, E. Montalaren (Nobela 1975ean) eta S. Heaneyren (Nobela 1995ean) poema antologiak *MPK* bilduman agertu ziren, 2015ean eta 2017an, hurrenez hurren.

poeta bizi zein hilak antologatu zituen bezala, bigarrenak poeta hilak bakarrik hartzen ditu kontuan.

Ezaugarri formalei begiratzen badiegu, euskal poeten antologiak bibliografia eta diskografia xehea zekartzan; munduko poeten kaieretan, aldiz, ez dago halakorik. Horrez gain, lehenengoetan poemak orriz orri zetozen, eta bigarren sailekoetan elkarren segidan. Edizioaren taxuan, beraz, zenbait galera egiazta daiteke, eta absentsia horiek hezkuntza literarioa difuminatzen edo zailtzen dutela esango genuke, ez baitzaio eskaintzen irakurleari poetaren obra argitaratua edo kronologia ezagutzeko baliabiderik.

Antologia bilduma honen bereizgarri nagusia beronen definizioan itzultzaileek duten pisua da. Aurreko atalean esan dugu euskal poetak izan direla nagusiki euren ekimezez poesia antologiak euskaratu dituztenak. Bada, *MPK* bildumak biraketa izugarri bat dakar zentzu horretan: itzultzaileak eurak dira —horietako batzuk, inoiz poesiarik argitaratu ez dutenak— itzuli beharreko poeta hautatzen dutenak. Aldaketa hau itzulpen-gintzak —eta itzultzaileek—, bere txikian, urte luzez irabazi duen botere sinbolikoari lotua egon liteke.

Faktore hori tarteko, bilduma heterogeneoa da *MPK*: bertako zenbait autore kano-nikoak dira —Eugenio Montale Nobel saria, adibidez—, baina beste asko literaturaren historietatik eta kanonetatik apartatuago daude. Beraz, bildumak tokia egiten die, izen handien alboan, bestelako ahots subalternoei. Sarasolak dioenez, *MPK* ez da periferiako poetak sartzeko plaza (Garcia Lopez, 2017: 134); baina, egiazki, hala kanonean nola literaturaren historian guztiz balioespen desberdina izan duten egileak daude antologatuak. Ildo horretan, ekarpen nabarmenena, hala sortzaile nola itzultzaileei dagokienez, emakumeen presentzia da. Lehen 30 izenburuen artean —eta espero izatekoa da etorkizunean ildo hau mantentzea—, 12 dira itzultitako poeta emakumezkoak; itzultzaileen artean, berriaz, zortzi emakumezko aurki ditzakegu. Bistan da, beraz, hobetu litekeen arren, orain arteko beste edozein antologia nagusik izan duen baino zifra parekideagoa duela.

MPK bildumak poetak antologatzen ditu, eta liburu bakoitza poeta baten poema antologia bat da. Halere, bada salbuespen kurioso bat: Ezra Pounden *Cathay* liburua. Izan ere, Poundek —nahiz txinerarik jakin ez— zenbait poema txinatar klasiko itzuli zituen ingelesera. Luigi Anselmik itzuli zuen Pounden poesia *MPK* bildumarako (2018), eta gehigarri gisa, poema horiek osatzen duten *Cathay* delakoa ere argitaratu zen. Beraz, nahiz eta antologia, kasu honetan, Pound izan, poeta txinatarren antologia hori euskaraz daukagu Anselmiren itzulpenean.

Bestalde, gorago esan dugu hemen planteatu nahi genukeen galdera bat dela ea poeta itzulien antologiek zenbaterainoko eragina duten egile horiek gure sisteman sartzekoan. Zaila da erantzutea, eta aurreko atalean egin ditugu zenbait gogoeta gure poetek egindako itzulpen antologiaren ildotik. *MPK*ren kasura etorrira, etorkizunean aztertu behar da bilduma horretan sartu diren zenbat erdal idazlek egiten duen bidea gure sisteman, eta zenbateraino zor zaion bide hori *MPK* bilduman agertu izanari. Iradokizun gisa, kasu bat: Ingeborg Bachmannen poesia antologia 2015ean atera zen bilduman, Nagore Tolosak itzulia —lehendik zazpi poema bakarrik zeuden euskaraz, Iñigo Aranbarrik ekarriak 2012an *armiarma* web orrira—. Bada, 2019an, *Aldibereko* argitaratu

da *Literatura Unibertsala* bilduman, Idoia Santamariaren itzulpenean. Litekeena da, beraz, MPKk indar eragile gisa jokatzea etorkizunean, zenbait erdal idazleri ikusgarritasuna emanaz gure sisteman.

Atal hau ixteko, aipamen labur bat merezi luke *armiarma* web orriaren *Euskarari ekarriak* atalak (ekarriak.armiarma.eus). Garai batean *Maiatz* bezalako aldizkariak bete zuten rola, gero eta gehiago betetzen dute gaur egun sareko plataformek —hala norbanakoen orrialdeek, nola erakunde antolatuenek—. Horien artean, ahalegin entziklopediko eta antologiko handiena *armiarmaren* aipaturiko atalak egiten du. Tantaka-tantaka, etengabea da webaren sail horretara iristen den poema itzulien kopurua, eta kasik esan liteke plataforma, bere horretan, antologia erraldoi gisa funtzionatzen hasi dela. Are gehiago, Garcia Lopezek dioen bezala (2017: 131), edizioaren mundu tradizionalari lotuta ez dauden euskarri digital berriek mesede egiten diote periferiako literaturaren itzulpenari eta, alde horretatik, web orriak —zeinetan posible den poeten corpus oso txikiak argitaratzea— ate txiki bat zabaltzen die formatu tradizionaletan gure sistemara nekez iritsiko litatekeen poetei.

5. Azken gogoetak

Amaitzeko, ondorio zenbait plazaratu nahi genituzke, baina —Sarrionandiak idatzi zuen bezala— ahaztu gabe baieztatzen ari garenean ere galdetzen ari garela. Beraz, ondorio xumeok etorkizunera zabaltzen diren gogoeta ireki gisa datoz.

Lehen gogoeta antologiaren historiari begira egin beharrekoa da. Izan ere, esan liteke 80ko hamarkadak mugarri bat jarri zuela antologiei dagokienez. Garai hartan, aldizkarietako itzulpenekin eta poeta jakin batzuen eskutik osaturiko antologiekin batera —Borda, Sarrionandia, Izagirre, etab.—, proiektu sistematizatuak ere sortu ziren. Asmo haiek ez dute luzera begira poesia itzuliaren corpus sendorik sortzeko gaitasunik erakutsi, baina proiektu sistematizatu horien ildoan kokatu behar da, dagoeneko XXI. mendean, *Munduko Poesia Kaierak* bilduma.

Bestalde, antologietan euskarari ekarri zaion poesiaren irudi orokorrari begiratuz, sumatzen da gure itzulpenen corpora partziala dela literaturaren historien eta literatura unibertsalaren irizpideak aintzat hartuz gero, eta neurri batean soilik erantzuten diela kanonaren legeei. Beharbada narratibaren esparruan egon gaitzkeen baino are urrunago gaude parametro horietatik poesian. Ezagunak ditugun gure sistemaren nolakotasunak eta ajeak tarteko, gertatzen da poeta unibertsal kanoniko asko itzuli gabe egotea eta, aldiz, poeta «minorragoak» itzuliak izatea. Hori dela eta, euskarara ekarritako poeten antologiek askotan ez dute bat egiten literaturaren historiek markatutako irizpideekin, eta poesia itzultzaileen lana, museo bateko erakusketa osatzen ari denaren zeregin sistematikoa baino, bakarrik dagoen tiratzaile heroikoaren erronka izan ohi da.

Honek ez du esan nahi, halere, kanonarekiko fidel —edo fidel xamar— izaten jarraitzen duen itzultzaile-antologorik ez dagoenik. Gil Beraren, Izagirreren edo Markuletaren antologiak kanonarekiko —kanon jakin batekiko, bederen— fidelagoak diren bezala, Sa-

rrionandiak edo Anselmik eginak pertsonalagoak dira. Puntu horretan, ematen du aintzat hartu behar den irizpide garrantzitsu bat dela itzulpena egiten duen sortzailea nola kokatzen den literarioki euskal literatur sistemaren baitan. Ildo horretan, *MPK* izan liteke abanikoaren ertza, non itzultzailearen hautuak antologia orokor lausoa sortarazten duen literaturaren historiaren ikuspegitik aztertuz gero. Bat egiten dugu, beraz, Garcia Lopezen baieztapenarekin, esaten duenean «itzultzaileak, ondorioz, kanona baino erabakigarriagoak» direla (2017: 127), euskal literatur sistema eraldatzeko duten indarragatik.

Itzultzaileen eskuak eragin berebizikoa duen literatur esparru bati buruz ari garenez, ebidentea da itzultzaileen irizpideen aldaketak eragin handia daukala corpusean. Horrela, ikuspegi historikotik, ez da kasualitatea kanon klasikoaren itzultzaile nagusiak Pizkundekoak eta Gerraostekoak izatea eta, aldiz, 80ko hamarkadatik hona jardun duten itzultzaileek kanonarekiko askeago jokatu izana. Gaur egun, esan bezala, *MPK* bildumak ihes egiten die kanon eta historia ohikoen parametroei; ondorioz, literaturaren ikuspegitik antologia partzial edo desorekatua izan daitekeen neurri berean, justizia poetiko moduko bat ere badakar berarekin, tokia egiten baitie historiaren bazterrean egon diren poetei.

Itzultzaile-antologo gisa aritu izan diren euskal poetek sortu dituzten corpusek interes apartekoa daukatela ikusi dugu. Izan ere, egile hauen kasuan, antologiaren interesak bi noranzkotan jokatzen du. Batetik, nahiz eta antologia sistematizatu bat izatetik urrun geratu, itzulpen corpusa bera bihurtzen da interesgarria; bestetik, berriz, corpus horrek itzulpena egin duen poetaren obrarekin duen harreman intertestuala ere aztergai aparta da, egilearen tailerrean sartzearen pareko baita, non sorkuntzarako eta birsorkuntzarako erremintak ikusten diren. Hala gertatzen da, adibidez, Sarrionandiaren edo Leteren kasuetan.

Azkenik, lanean zehar komentatu ditugun ikerlerroetan sakondu beharra azpimarratu nahi genuke. Bi ildo markatuko genituzke, bereziki. Batetik, plano sistemikoan, ikertu behar genuke zer nolako eragina duten erdal poeten antologia eta itzulpenek poeta horien obrak gure literatur sisteman txertatu eta zabaltzeko, eta baita zein eragilek parte hartzen duten ere mugimendu horietan. Bestetik, kritikaren ikuspegitik aparteko interesa dauka poetek egindako antologia eta itzulpenak aztertzeak, sorkuntza mekanismoei behatzeko talaiak pribilegiatua eskaintzen baitute.

Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki (ed.) (1993) *Una antología de la poesía vasca / Euskal poesiaren antologia*. Madril: Visor.
- Amenabar, Joan (ed.) (1983) *Euskal poesia kultoaren bilduma (1880-1963)*. Donostia: Elkar.
- Anselmi, Luigi (itz.) (2006) *Bertzerenak*. Iruñea: Pamiela.
- Apalauza, Amaia (2017) «Itzultzaileak eta poetak eskuz esku katalanezko poesia euskaratzen», *Senez: itzulpen aldizkaria* 48, 141-164.
- Ascunce, José Ángel (1993) «Valoración del momento actual de la poesía vasca en castellano I», *RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 41. urtea, XXXVIII. liburukia, 2. zk. (1993). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 11-31.

- Askoren artean (2019) *Lurra eta dardara. Zortzi ahots emakumezko (Antologia poetikoa)*. Donostia: Ba-
lea Zuria.
- Askoren artean (2016) *Literatura unibertsala (Batxilergoa 1)*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo (1988) *Obabakoak*. Donostia: Erein.
- Auden, Wystan H. (1994) *Poema antologia* (Juanjo Olasagarreren antologia). Zarautz: Susa.
- Bukowski, Charles (1997) *Poema antologia* (Josu Lartategiren antologia). Zarautz: Susa.
- Coco, Emilio (ed.) (1994) *Antologia della poesia basca*. Milano: Crocetti.
- Corti, Maria (1978) «Testi o macrotesto? I racconti di Marcovaldo di I. Calvino», in *Il viaggio tes-
tuale*. Turin: Einaudi.
- Del Olmo, Karlos (itz.) (2012) «Poesia asturiarra», *Senez: itzulpen aldizkaria* 43, 9-30.
- Do Cebreiro, María (2004) «Las antologías de mujeres en la poesía catalana (1975-2001)», *Lectora:
revista de dones i textualitat*, 10. zk., 325-336.
- Egaña, Ibon (2006) «Tradizioagatik, topa!», *Berria*, 2006-09-17.
- Etxarte, Hedoi & Lindemann, David (ed.) (2011) *Brecht-Aresti. Poema hautatuak – Ausgewählte Ge-
dichte*. Gasteiz: EuskAlema.
- Etxarte, Hedoi & Urrutia, Alain M. (2009) *Ihes ederra*. Irun: Alberdania.
- Even-Zohar, Itamar (1990) *Polysystem Studies, Poetics Todayren* monografikoa, 11-1.
- Garcia Lopez, Ane (2017) «Poesia-itzulpena: jarduera periferiko baten analisia», *Senez: itzulpen al-
dizkaria* 48, 123-138.
- Gil Bera, Eduardo (itz.) (1995) *Ezabatuak. Poeta alemanak*. Iruñea: Pamiela.
- Fernandez, Arantza (ed.) (2001) *Once (poetas) para trescientos (lectores): (mujeres poetas en el
País Vasco)*. Madril: La Palma.
- Irigaray, Jose Angel (2009) *Siete poetas vascos*. Iruñea: Pamiela.
- Izagirre, Koldo (ed.) *Elurra ikusi dut*. Donostia: Elkar.
- (itz.) (2004) *Ahalegina*. Donostia: Koldo Mitxelena Kulturunea.
- (ed.) (2000) *XX. mendeko poesia kaierak*. Zarautz: Susa.
- (ed.) (1988) *Aresti / Ferreiro / Espriu. Antologia*. Donostia: Erein.
- Izagirre, Koldo eta Mendiguren, Xabier (ed.) (1998) *Euskal literaturaren antologia*. Donostia: El-
kar.
- Jaka, Aiora (2012) *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*.
Euskaltzaindiaren IKER bilduma, 28. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Kortazar, Jon (ed.) (2006) *Montañas en la niebla: Poesía vasca de los años 90*. Bartzelona: DVD poesía.
- (2005) *Un puente de palabras: 5 jóvenes poetas vascos*. Madril: Palas Atenea.
- (2000) *A ponte das palabras: poesía vasca 1990-2000. Hitzezko zubia: euskal poesia 1990-2000*. San-
tiago de Compostela: Letras de Cal.
- Laboa, Mikel (1969) *Bertolt Brecht*. Baiona: Goiztiri.
- Lekuona, Andoni (itz.) (2002) «Hainbat kanta», *EIZIEn Itzulpen antologia III*, 183-201.

- Lertxundi, Anjel & Valverde, Antton (ed.) (2020) *Hitzak hots*. Arre: Pamiela.
- (2013) *3 L: Lauaxeta, Lizardi, Lete*. Iruñea: Pamiela.
- Lete, Xabier (2006) *Abestitzak eta poema kantatuak*. Donostia: Elkar.
- López-Casanova, Arcadio (2007) *Macrotexto poético y estructuras de sentido. Análisis de modelos líricos modernos*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Lopez Gaseni, Manu (2009) «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)», *Senez: itzulpen aldizkaria* 37, 299-311.
- Maiakovski, Vladimir (1993) *Poema antologia* (Koldo Izagirreraren antologia). Zarautz: Susa.
- Manterola, Elizabete (2011) *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko aldaketa* (doktorego-tesia). Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Marçal, Maria-Mercè (ed.) (1998) *Cartografies del desig. Quinze escriptors i el seu món*. Bartzelona: Proa.
- Markuleta, Gerardo (itz.) (1997) *Antologia. Zenbait poeta katalan*. Literatura Unibertsala, 70. Amorebieta-Etxano: Ibaizabal. Urrezko Bibliotekan berredidatua (2014) *Poeta katalan garaikideak*. Donostia: Elkar.
- Olaziregi, Mari Jose (ed.) (2007) *Six Basque Poets*. Manchester: Instituto Cervantes, Arc Publications.
- Onaindia, Santiago (ed.) (1954) *Milla euskal olerki eder*. Zarautz: Itxaropena.
- Otaegi, Lourdes (ed.) (2014) «Il giardino dei sensi risvegliati. Antologia di sei poeti baschi contemporanei», *Tintas, Quaderni di letterature iberiche e iberoamericane*, 4. Università di Milano, 209-254.
- (2013a) «Gudaosteko euskal poesiaren antologiak. Poetikak eta irakurketa soziokulturalak», *Euskera* 58, 2, 515-556. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2013b) «Distopia eta paradisia Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren Etiopia makrotestuaren irakurketa semiotikorako hausnarketa kritikoak», *Lapurdum* 2013 XVII, 109-173.
- Otxoa, Julia (ed.) (1990) *Emakume olerkariak / Mujeres poetas*. Madril: Torremozas.
- Palenque, Marta (2004) «Historia, antología, poesía: la poesía española del siglo xx en las antologías generales (1908-1941)», Leonardo Romero Tobar (zuz.) *Historia Literaria / Historia de la literatura*. Zaragoza: Prensas Universitarias, 313-367.
- Penna, Sandro (2019) *Bilduma bat: Sandro Penna* (Iñigo Astizen antologia). Bilbo: Farmazia Beltza, EFI galeria.
- Pound, Ezra (2018) *Cathay* (Luigi Anselmi itz.). Zarautz: Susa.
- Retolaza, Iratxe (2007) «Antologías de poesía vasca: itinerarios personales por territorios poéticos», *Caravansari* (Poesía Contemporánea en Lenguas Peninsulares) 2 (2007/2008), Bartzelona, 22-24.
- San Martín, Juan (ed.) (1969) *Uhin berri*. Bilbo: SGEP.
- Sarasola, Ibon (ed.) (1973) *Gerraondoko euskal poesiaren antologia. 1945-1964*. Donostia: Lur.
- Sarrionandia, Joseba (itz.) (2006) *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*. Iruñea: Pamiela.
- (1991) *Hezurrezko xirulak*. Donostia: Elkar.
- (1984) *Alkohola (poemak)*. Iruñea: Pamiela.

Segre, Cesare (1985) (1985) *Principios de análisis del texto literario*. Barcelona: Crítica. [*Avviamento all'analisi del testo letterario*, Turin: Einaudi.]

Stern, David (1997) «The Anthological Imagination in Jewish Literature, Part 1», *Prooftexts: A Journal of Jewish Literary History*, 17, 1.

Urkizu, Patri (ed.) (2009) *Poesía vasca. Antología bilingüe*. Madrid: Uned.

Zaldua, Iban (ed.) (2005) *Poetikak & poemak*. Donostia: Erein.

Bibliodibertsitatea: irakurketa-planerako baliabide¹

Miren Ibarluzea Santisteban

UPV/EHU-MHLI

Laburpena

Lan honetan edizioaren soziologiaren eremuko *bibliodibertsitatea* kontzeptua aplikatzen da Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren esparruan, ikastetxeko eta gelako biblioteketako testu-aniztasuna sustatzeko eta bermatzeko. Bibliodibertsitatea edizioaren sektoreak aniztasuna sortzeko duen gaitasunari esaten zaio (Galliand, 2011), eta hiru propietateren bidez neurtzen da: aukera, oreka eta desberdintasuna (Benhamou & Pelletier, 2011), eta propietate horiek adierazle jakinen bidez egiten dira ikusgai. Hemen, saioa egingo dugu indarrean den hezkuntza-markoan zehaztutako beharrizan eta betekizunei erantzuteko, kultura-, hizkuntza-, eduki- eta materialitate-aniztasun handiagoa eskaini eta baliatzeko eta kulturazintasunaren zein sistema ekosozialen osasun onaren alde egiteko (Hawthorn, 2016), bai eta bibliodibertsitatearen adierazle egokiak identifikatzeko eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren esparrura ekartzeko ere; hala, proposatutako kontrol-zerrendatarako itemak, irakasleen eta liburuzainen eskura jarrita, irakurketa-planerarako materialen hautatze- zein programatze-lanerarako erabilgarri izan daitezke.

Sarrera

Bibliodibertsitate kontzeptua, edo bestela esateko bibliodibertsitatearen aldeko mugimendua, liburuaren eta edizioaren munduan globalizazioaren eta sektorearen bilakabidearen eraginez bizi izandako mutazioei erantzuteko jaio zen. Bibliodibertsitatea esaten

¹ Argitalpen hau IT 1047-16 ikertaldea burutzen ari den US 17/10 (UPV-EHU) etaFFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa proiektuetan sartzen da.

zaio edizioaren sektoreak aniztasuna sortzeko daukan gaitasunari (Galliand, 2011); hortaz, ekosistema baten osasuna biodibertsitatearen bidez neurtzen den modu berean, edizioaren osasuna bibliodibertsitatearen bidez neur daiteke (Hawthorn, 2016).

Industrializazioak eta globalizazioak ekosistema naturalei ez ezik kulturaren eta edizioaren ekosistemei eragiten diete, eta ekosistema horiek uniformizazioaren ondorioak jasaten dituzte. Gutiérrez de la Torre «Sociedad lectora y Bibliodiversidad» (2005) artikuluan jakinarazten duenez:

Desde el principio de la sociedad, de la civilización, la lucha entre lo grande, lo uniforme, lo concentrado, lo globalizado, por un lado, y lo pequeño, lo disperso, lo plural, lo diverso, por otro, es permanente. Afecta a la cultura, a la sociedad lectora y al mercado (a las industrias culturales y concretamente a la industria editorial, en especial a la industria editorial independiente). Una industria que se mueve, con grandes dificultades, entre la presión de las nuevas tecnologías y medios de comunicación, la presión de las grandes corporaciones «multi-mediáticas», la producción y la distribución masivas, etc. por un lado y la escasez de lectores y la precariedad de librerías y bibliotecas por otro, pero que tiene su mejor defensa en la diversidad, la calidad y la especialización y, por supuesto, en la relación lo más directa posible con la sociedad lectora (un dato significativo es que el 80% de las editoriales en España son pequeñas empresas). (Gutiérrez de la Torre, 2005: 363)

Nabarmendu beharrekoa da bibliodibertsitateaz ari garenean, ez garela produktuez soilik ari (hots, liburuez, paper zein online edizioez): eragileen aniztasunaz ere ari gara, pertsona eta kolektiboen aniztasunaz alegia, bai eta edizio-prozesu osoan zehar, hots, produktua ekoizten hasten denetik kontsumitzen den arteko bidean, aurreko horiek darabiltzaten egiteko moduez edo jardunbidez ere. Hortaz, giza-harremanez ari gara, kultura- eta ekonomia-harremanez, bai eta botere-harremanez ere; bada, horiek guztiek eragin egiten dute, halaber, hezkuntzaren eremuan eta hezkuntzaren merkatuan.

Ana María Machado irakasle eta ikertzaile brasildarrak, haurrentzako irakurgaiak aukeratzeko irizpidez ari zela, adierazten zuen askotariko literatur lanak irakurtzeak irakurleen gaitasun kritikoa garatzen laguntzen duela, eta horrek bide ematen duela irakurlea kultura hegemonikoaren biktima ez bihurtzeko (in Prats, 2016: 70). Bada, Prats irakaslearen aburuz (2016: 72), Machadoren ideiek zerrenda bakarrei uko egin beharri buruzko gogoetetara garamatzate, editorial handien interes ekonomikoak gorde ditzaketen aldetik, bai eta irakasleek sortutako zerrenda pertsonalen alde egitera ere. Beraz, irakasleen zein eskola-liburuzainen esku geratzen da askotariko testuak aukeratu beharra.

Gauzak horrela, garrantzitsu deritzogu gogoeta egitea eta hausnartzea zein neurritan birsortzen diren ikastetxeetako geletan eta biblioteketan edizioaren eremuari eragiten dieten ekonomia- eta botere-harremanak, eta datozen orrialdeotan gai horri buruz ariko gara.

Bibliodibertsitatearen aldeko mugimenduak eta jarduerak

Bibliodibertsitatea terminoa erabat lotuta dago Alianza internacional de editores independientes izeneko mugimenduarekin, zeina Editores independientes de Chile ko-

lektiboaren eskutik sortu zen 90eko hamarkadaren bukaeran (Alianza internacional de editores, 2014: 4). Mugimendu hori, Pinhas (2013: 68)-ek adierazi bezala, Editores independientes eragileak sortutako eredutik abiatu zen, hain zuzen ere Txalaparta euskal argitaletxearekin bat egindako hiru argitaletxe latinoamerikarrek sortutako eredutik:

LOM en Chile, Trilce en Uruguay y ERA en México, asociados a Txalaparta, del país vasco español, toman nota de la similitud de sus concepciones editoriales y se asocian bajo la bandera de «Editores Independientes para desarrollar proyectos de coedición y favorecer la visibilidad de sus obras en un área hispanohablante caracterizada por la fragmentación de los mercados del libro. Tras ellos y siguiendo su ejemplo, los editores chilenos deciden organizarse, al año siguiente, en una Asociación de los Editores Independientes de Chile (EDIN). (Pinhas, 2013: 68)

Hainbat bilgune eta biltzarren ostean (Pinhas, 2013: 69), eta eredu ekonomikoei, liburu-politikei, nazio-hizkuntzetako edizioei, elkarte eta kooperazio-bideei buruzko mintegien eta lantaldeetan egindako lanaren ondotik, trukerako hainbat tresna sortu ziren eta nazioarteko erakunde publikoei eta profesionalei hainbat gomendio proposatu zitzaizkien. Azkenik, elkarlanean bildutako proposamenak batuta, elkarte bat eta webgune bateratu bat sortu ziren, www.alianzadeeditores.org, bai nazioen baitan, bai nazioartean, aniztasuna sustatzeko asmoz (Alianza internacional de editores, 2014: 4). Editore-talde horrek honela definitzen du bibliodibertsitatea:

La bibliodiversidad es la diversidad cultural aplicada al mundo del libro. Haciéndose eco del término biodiversidad, se refiere a una necesaria diversidad de las producciones editoriales que se ponen a disposición de los lectores. Si bien los grandes grupos participan, por la importancia cuantitativa de su producción, de una cierta diversidad editorial, eso no alcanza para asegurar la bibliodiversidad, la cual no se mide únicamente por el número de títulos disponibles. Aunque cuiden del equilibrio económico de su editorial, los editores independientes se preocupan ante todo por los contenidos que publican. Sus libros aportan una mirada y una voz distintas, en paralelo a la propuesta editorial más estandarizada de los grandes grupos. La producción editorial de los editores independientes y los canales que privilegian para difundir sus libros (librerías independientes por ejemplo) son por ende imprescindibles para preservar y enriquecer la pluralidad y la difusión de las ideas. (Alianza internacional de editores, 2014: 4)

Arestian aipatutako editore independenteen bilguneak bibliodibertsitatea sustatzeko funtsak eta oinarriak jasotzen ditu «Declaración Internacional de los editores independientes 2014» dokumentuan, eta 45 herrialdeetako 400 editorek sinatzen dute (Alianza internacional de editores, 2014: 3)². Sinatzaileek bere egiten dituzten jomugek honako hauekin dute lotura: tokiko, nazioko eta nazioarteko liburu-politikak abian jarzea (hala liburuaren eta irakurketaren demokratizazioa laguntzeko nola tokiko produkzioa eta tokiko hizkuntzetan egindako ekoizpena babesteko), kulturarteko trukea laguntzea, edizio-eskubideekin lotutako lege orekatuak sortzea, zentsuraren aurka borrokatzea eta adierazpen-berdintasunaren alde egitea (ahots pluralak egon daitezela

² Euskaraz argitaratzen duten argitaletxeen arteko bakarra dago sinatzaileen artean, Txalaparta argitaletxea, hain zuzen ere.

bermatzeko), Amazon, Google edo Apple bezalako eragile digitalen hegemoniaren aurka jardutea, liburuen zirkulazioa askotariko norabideetan gertatzeko sustapen lanak egitea, trukeen eta itzulpenen oreka bermatzea, tokiko eragileei eskola-liburuen esparruan jarduten uztea, profesionalen arteko sareak eta solidaritatea, ko-edizioak eta proiektu bateratuak sustatzea, betiere liburu justuaren printzipioan oinarrituta (Alianza internacional de editores, 2014: 6-8). Antzeko beste mugimendu batzuk sortu izan dira, halaber, Frantzia eta Québec-en (Pinhas, 2013: 70-71). Bada, Pinhasek nabarmentzen du bibliodibertsitatearen aldeko elkarten lanak zenbait herrialdeetan biderik egin ez badu ere, beste herrialde batzuetan fruituak ematen hasia dela eta ematen duela zenbait botere publikoren gogoetetan integratzen hasiak direla bibliodibertsitatearen aldeko ideiak (2013: 78).

Bibliodibertsitatearen propietateak eta adierazleak

Edizioaren soziologiaren eremuan egin izan diren lanetan azaltzen denez, eta Benhamou eta Pelletierri jarraikiz (in Galiand, 2011), bibliodibertsitatea hiru propietate nagusiren arabera neur daiteke: aukera, oreka eta desberdintasuna. Hiru propietate horiek adierazle zehatz batzuen bidez ikusarazten dira: edizio-eremu jakin batean ageri diren tituluaren kopurua, genero kopurua edo hizkuntza kopurua (in Galiand, 2011). Benhamou eta Peltierrek (2011) azaltzen dutenez, aniztasuna handitzea zuzenki proportzionala zaio argitaratutako tituluaren kopurua handitzeari (aukera haztearen erakusgarri da tituluaren kopurua haztea), eta areagotu egiten da merkatua orekatua denean eta lanen edukia ahal bezain ezberdina denean (desberdintasuna). Generoari dagokionez, aniztasuna handitu egiten da zenbat eta genero aniztasun handiagoa (literatura, bidaiari-gidak, liburu akademikoak...) jarri irakurzailearen esku, baldin eta genero horiek ekitatez ageri badira eta generoak batzuk besteetatik ondo bereizirik aurkezten badira. Liburuen jatorrizko hizkuntzei dagokienez, esan dezakegu gureak ez beste hizkuntzetatik itzultzeak beste kultura batzuekiko irekitasuna erakusten duela eta, beraz, aniztasun-elementu bat dela itzulpena. Ildo horretan, zenbat eta jatorrizko hizkuntza ezberdin gehiagotako (kategoria) liburuak izan irakurzaile batek eskura, orduan eta gehiago handitzen da dibertsitatea, betiere hizkuntza horiek modu orekatuan agertzen badira sistema baten baitan eta hizkuntza batzuk besteetatik ondo bereizirik agertzen badira.

Aurrekoez landara, funtsetako liburuen, nobedadeen eta berrargitalpenen kontzentrazioarekin lotutako bibliodibertsitate-adierazleak ere badira. Esaterako, «Lire en Poitou Charentes» manifestuko gomendioetako batek jasotzen du beharrezkoa dela ez hautatzea nobedadeak soilik (nobedade esaten zaie dokumentu horretan azken urtean argitaratutako liburuei), eta bezeroei eskaintzen zaie liburuen arteko %40 liburu-funtsetakoak izatea, hautaketa estandarizatu gabea eskaini ahal izateko eta beharrian ohikoenei erantzun ahal izateko, betiere sorkuntza-edizioari dagokion garrantziazko espazioa eskainiz (Sambor, 2011: 58). Beste bibliodibertsitate-adierazle batzuek, aldiz, autore berrien eta kontsokratuen kontzentrazioarekin dute lotura, bai eta argitalpen-egituren izaerarekin ere: multinazional handiak, argitaletxe txikiak, tokiko eragileek eta eragile independenteek sustatutako edizioak... Halaber, materialen eskuragarritasunarekin lotutako adierazleak ere badira (Galiand, 2011).

Allerbonek, bere aldetik, honako adierazle hauek aipatzen ditu: titulu kopurua argitaletxe bakoitzeko, zenbat tokiko autoreren eta gairen inguruko argitalpenak ateratzen dituzten atzerriko kapitaleko argitaletxeek beren argitalpen osoaren aldean, ekoiztako liburuen gaien barietatea, merkatuan parte hartzen duten atzerriko kapitaleko etxeen kopurua, ehun mila biztanleko argitaratzen diren tituluak, liburu-denden eta biztanleen arteko proportzioa, kateen liburu-denden kopurua liburutegi txikien aldean (2011: 67-71).

Badira bestelako bibliodibertsitate-adierazleak ere, kasurako Hawthornek (2016) proposatzen dituenak feminismoari, antiarrazismoari, inguruneari eta teknologiari lotutakoak. Hala, esan liteke bibliodibertsitateak sustatu egin nahi duela edukien eta ideologiaren aniztasuna, eta paperezko bozgorailu zein bozgorailu digital izan nahi duela diskurtso feministek, antiarrazistek eta ekologistek ere beren tokia izan dezaten.

Lan honetan Edizioaren soziologiaren esparrutik Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren esparrura ekartzen dira nola bibliodibertsitatearen kontzeptua hala hari dagokion propietate kategoriatan eta adierazleak, ikastetxeko eta gelako biblioteketako testu-aniztasuna sustatzearekin eta bermatzearekin lotura dutenak hautatzeko. Izan ere, jarraian ikusiko dugunez, indarrean diren hezkuntza-dokumentuek, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak idazteko gidek zein Irakurketa-planek, nabarmentzen dute funtsezkoa eta beharrezkoa dela ikasleei askotariko testuak eskaintzea.

Kulturaniztasunaren, eleaniztasunaren eta testu-aniztasunaren aldeko hezkuntza-markoa

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan, mundu gero eta globalizatuago batean bizi garen aldetik, errespetua eta elkarrizketa sustatu eta beste kultura batzuetako aportazioak balioesteko eta etnozentrismoaren arriskuak saihesteko ahalmena izango duten pertsonak heztearen alde egiten da (236/2015). Halaber, kontuan harturik XXI. mendeko gizartea eleaniztuna dela eta pertsonen mugimendu gero eta handiagoak eta komunikazio-teknologiaren bitarteko jakintzen joan-etorri gero eta azkarragoak ezaugarritzen dutela, honako hau adierazten da: «hizkuntza ofizialak menderatzeaz gain, beharrezkoa da hizkuntza global deitzen direnetako bat edo batzuk jakitea, pertsonen arteko ezauguera, ideien trukea eta kulturen arteko ulermena hobetzeko» (236/2015: 3/268). Oinarrizko hezkuntzaren helburuetako bat da, arestian aipatutako Dekretuan zehazten denez:

c) Ikasleak helduarorako eta bizitza oso baterako prestatzea, gizabanako diren aldetik; bizikidetzaren harmoniatsua garatzearekin eta gizarte justu eta zuzenago bat eraikitzearekin konprometituak; eta natura zaintzearekin eta garapen jasangarriarekin konprometituak. (236/2015: 9/268)

Hala, esan dezakegu EAEko hezkuntza-markoak kulturaniztasuna eta eleaniztasuna sustatzen dituela globalizazioari aurre egiteko tresna gisa; era berean, esan dezakegu hein handi batean aniztasun kultural eta linguistikoen aldeko hezkuntza-markoaren ideiek bat egiten dutela bibliodibertsitatearen alde egiten duten eragileek aldarrikatzen dituztenekin.

Bestelako dokumentuetan ere ageri da egungo hezkuntza-markoaren aniztasunaren aldeko apustua. Esaterako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren *Ikastetxearen hizkuntza proiektua egiteko gidan* (2016) beren beregi adierazten da kon-tuan hartu behar dela zein baliabide dagozkion hizkuntza jakin bati soilik eta zein erabil daitezke hizkuntza batean baino gehiagotan (2016: 147); edonola ere, testuan adierazi gisa: «Baina baliabide guztien aniztasuna ziurtatu behar da beti, kopuruaren eta kalitatearen aldetik. Bestalde, Internet baliabide askotarikoen eta eguneratuen iturria da» (2016: 147). Gainera, honako hau zehazten da hizkuntza-aldaerez: «Testuen corpusean, bestalde, askotariko testuak, hizkuntza-aldaerei, erregistro, ikasle etorkinen hizkuntzei eta euskalkiei dagokie-nez, eta eredu erreala izatea komeni da, ikasleek horiek ezagutzeko eta lantzeko aukera izan dezaten eta hizkuntza-aniztasuna balioetsi dezaten» (2016: 147). Ildo berean, *Ikastetxearen hizkuntza proiektua egiteko gidan* zehazten denez: «Ikastetxean ikasgai diren atzerriko hizkuntzen eta hizkuntza ofizialen ohiko materialez gain, inguruan presentzia duten hizkuntzen laginak izatea komeni da, batik bat ikastetxeko etorkinen hizkuntzenak» (2016: 147). Ildo berean, eta zehazki literatur testuen inguruan, honako hau adierazten da:

Literaturak hainbat testu-egitura eskaintzen ditu: olerkiak, bertsoak, antzezlanak, eleberriak, ipuinak, mikronarratioak, komikiak, nobela grafikoak, zinema-gidoiak...; halaber, egungo gizartean, literaturaren baliabideak erabiltzen dituzten testu asko bizi dira elkarrekin, hala nola publizitate- testuak, kazetaritza-testuak, multimedia... Heziketa literarioak horiek guztiak ulertzen eta interpretatzen laguntzen du. (2016: 151)

«Euskadiko irakurketa plana» (2018: 7) dokumentuaren arabera, aniztasuna da, mal-gutasunarekin eta egokitze-gaitasunarekin, prozesu graduala izatearekin eta erantzuki-detasunarekin batera, zentroko irakurketa plan batek izan behar duen ezaugarri behine-netako bat. «Zer irakurri? Askotariko testuak» atalean honela aurkezten da gaia:

Irakurtzeko konpetentzia garatzeko, askotariko testuak, askotariko formatu eta eus-karritan ulertzeko eta interpretatzeko gauza izan behar dute ikasleek. Egun, gainera, irakurketaren konplexutasuna areagotu egin da: alde batetik, gizartea inoiz baino kul-tur anitzagoa eta eleanitzagoa da; eta, bestetik, iraultza digitalari esker, testu- genero berriak ditugu, testuen euskarriak aldatu dira eta testu idatziak sortzeko eta zabaltzeko moduak eta aukerak ere aldatu dira. Testu horiek guztiak, beraz, eskolara eraman behar dira. (2018: 41)

Jarraian, askotariko testuen garrantziari, euskaraz argitaratutako testuen bilaketari, maila eta etaparen arabera sailkatutako testuei eta arlo jakinetan sakontzeko testuen ze-rrendei lotutako baliabideak eskaintzen dira, bai eta gelan erabiltzen diren testuen anali-sirako eredu bat ere (2018: 42).

Aurrekoaz gain, literatur lanen bilduma eta katalogoen sarrera gisa, honako hau zehazten da irakurketa-planean:

Zenbat eta zabalagoa izan irakurgaien eskaintza, orduan eta handiagoa irakurtzeko zaletasuna sustatzeko aukera. Irakurketara hurbiltzeko inportantea da irakurgaiak au-keratu ahal izatea, irakurritakoaz hitz egitea edo idaztea, irakurketa ez lotzea irakurri osteko eskolako lanekin... Ikastetxeak askotariko testuak, eguneratuak, askotariko eus-karritan eta ondo hautatuak eduki behar ditu, ikastetxean ikasi eta irakasten diren hiz-

kuntzetan idatziak. Halaber, irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako laguntza sistemak ere eduki behar ditu. Horrekin batera, bi hizkuntza ofizialetan dauden testuak eduki beharko lituzke. (2018: 53)

Arestian aipatutako testu-aniztasunaren analisirako ereduak³ honako adierazle hauek biltzen ditu: «gaurkotasuna dute», «errealak dira, moldatu gabeak», «kalitatearen eta eraginkortasunaren arabera hautatuak», «ikasleen interesekoak eta haien ezagutza-mailarako egokiak», testu analogikoen kopurua, testu digitalen kopurua, testu jarraituen eta ez-jarraituen (irudiak, diagramak, grafikoak... dauzkatena) arteko oreka, «beste hizkuntza batzuetan» idatzitako testuen kopurua, «zailtasunak dituzten ikasleei ere egokituak», tipologia eta testu-genero askotarikoak erabiltzen ote diren (narrazioak, azalpenak, deskribapenak, argudioak, eta literatura-eremuko testuak). Bada, eredu hori irakurketa-planean ezarri beharreko ebaluazio-adierazleentzako zein diagnostikorako erabil daiteke; izan ere, irakurketa-planean «kudeaketako adierazleak ezarri behar dira, helburuak, ekintzak, baliabideak, epeak, emaitzak eta abar elkarrekiko egokiak diren ikusteko» (2018: 15). Nolanahi ere den, literatur testuei dagokienez, eskas samar gera daiteke, literatur testuei loturik aurkeztzen den adierazle bakarra beste testu batzuen artean egon badauden kontuan hartzea delako soilik.

Gure ustez, irakasleak edo gelako eta eskolako liburuzainek irizpide edo adierazle zehatzagoak behar dituzte. Bada, konpetentzia literarioarekin lotutako baliabideak baliosteko adierazleentzako batzuk arloko ikertzaileen lanetan aurki daitezke, batez ere testuen hautaketari buruzkoetan. Adibide batzuk aipatzearren, gogora ditzagun, esaterako, Gemma Lluch-en *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes* (2010) liburua edo hizkuntzaren eta literaturaren didaktika ardatz duten eskuliburuentzako «Criterios para la selección de lecturas» kapitulua, Margarida Prats-ena (2016) zein «La literatura en la etapa infantil» kapitulua, Colomer eta Durán irakasleena (2008). Aipatutako lanetan ageri diren irizpideek, labur esanda, honako hauen aniztasunarekin dute zerikusia: liburuetan jorratzen diren gaiak, genero eta azpi-genero literarioak, testuen eta liburuen funtzionalitatea eta alderdi estetikoa (irudiak eta paratestua).

Hemen proposatzen dugu adierazle horiez gain Edizioaren soziologiaren esparrutik bibliodibertsitatearekin lotura duten zenbait adierazle ere balia daitezkeela; izan ere, irakurketa-planerako baliabide erabilgarriak izan daitezke, bai testuen hautaketa-irizpide gisa, bai bibliotekako baliabideen ebaluazio-irizpide gisa.

Irakurketa-planeko baliabideak hautatzeko eta ebaluatzeko erabil daitezkeen zenbait adierazle, bibliodibertsitateari loturik

Kultura-, hizkuntza-, eduki- zein materialitate-aniztasun handiagoa eskaini eta baliatu asmoz, eta kulturaztasunaren eta sistema eko-sozialen osasun ona laguntzeko

³ PDF formatuan eskuragarri linean: <https://irakurgune.euskadi.eus/documents/30019/0/Testu-aniztasuna+aztertze+kontrol-zerrenda.pdf/c275f3a1-0a53-73db-4c59-32acd4e8ce50> [Azken kontsulta: 2020/07/20].

(Hawthorn 2016), ahaleginu gara identifikatzen bibliodibertsitatearen zein adierazle diren aproposak Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren alorrean irakasleei eta liburuzainei eskaintzeko; izan ere, gure ustez baliagarri izan daitezke irakurketa-planeko kontrol-zerrendetan txertatzeko, bai ikastetxeko materialak hautatzean, bai programazioak sortzean, denak ere koherenteak izan daitezten berdintasunaren, kulturaliztasunaren eta praktika iraunkorretan errotutako identitateekin; ezen, Kloecknerrek zehazten duenez (Hawthorn 2016 lanean aipatua), berdintasunaren, norbanakoen aniztasunaren eta bibliodibertsitatearen artean ez dago *continuum* bat baizik.

Ildo horretan, gelako eta ikastetxeko testu-aniztasunaren ardura duten irakasle zein liburuzainek behean zerrendatzen diren itemak txerta ditzakete gelako zein ikastetxeko bibliotekako katalogoa hautatzeko eta ebaluatzeko kontrol-zerrendetan:

- Ikasleko zenbat liburu ditugu liburutegian? Eskaintza handitu, txikitu edo mantendu egin da azken urteotan?
- Jatorrizko hizkuntzetan argitaratutako zein beste hizkuntza batzuetatik itzulitako liburuak dauzkagu gure biblioteketan?
- Bibliotekan dauzkagun liburuek jatorrizko kultura eta hizkuntza bakarraren errepresentazioa dira? Ba ote dugu askotariko hizkuntza eta kulturatik ekarritako liburuak?
- Itzulitako lan guztiek sistema editorial berean dute jatorria?
- Liburutegi eleanitza ote da gurea?
- Eskolako hizkuntza guztietan ote ditugu liburuak?
- Zenbat eta zer nolako lanak ditugu hizkuntza ofizial edota ko-ofizialetan?
- Zenbat eta zer nolako lanak ditugu eskolan lantzen diren atzerriko hizkuntzetan?
- Ba ote dugu libururik gure bibliotekan beste herrialde eta kultura batzuetako jatorria duten ikasleen hizkuntzetan?
- Orekatua al da nobedadeen eta berrargitalpenen kopurua? *Bestseller*-ak ote ditugu soilik eskura?
- Gure bibliotekako autore guztiak dira entzutetsuak edo kontsakratuak?
- Gure liburu-egileen lanen arteko zenbat dira idazle berrienak?
- Zenbat andreren lanak ditugu bibliotekan? Zenbat idazlerenak oro har?
- Gure inguruneko zenbat argitaletxeko liburuak ditugu gure bibliotekan?
- Gure liburuen argitaletxeei begiratuta, denak ote dira argitaletxe handietakoak? Ba ote dugu argitaletxe ertain eta txikietako libururik?
- Eskolan darabiltzagun testuliburu-argitaletxeen liburuak ditugu soilik bibliotekan?
- Ba al dugu gure inguruko tokiko-argitalpenik edo argitaletxe txiki eta independenteen lanik?
- Online edizioak eskuratzeko modurik ematen al du gure bibliotekak?

Azken gogoeta bat irakurketa-planean bibliodibertsitatearen adierazleak txertatzearen inguruan

Kultura- eta testu-aniztasunari lotutako irizpideetan oinarrituta eta bibliodibertsitatearen aldeko mugimenduen oinarritzko printzipioei eta EAEn indarrean den hezkuntza-

markoak zehaztutako helburuei jarraikiz, Edizioaren soziologiaren esparruko bibliodibertsitate-adierazle batzuk hautatu ditugu, ustez erabilgarriak eta aplikagarriak direlako Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren esparruan, hain zuzen ere irakurketa-planeko baliabide gisa erabil daitezkeelako gelako zein ikastetxeko biblioteketako katalogoak sortzeko eta ebaluatzeko. Adierazle horiek osagarri zaizkie Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikako adituek literatur edukiekin loturik proposatzen dituzten beste hainbati.

Nabarmentzekoa da lan hau abiapuntu bat baino ez dela Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren esparruak Edizioaren soziologiaren eremutik eskura dezakena ikusarazteko; izan ere, bi eremuen bidegurutzean ikerketa-bide berrietarako atak irekitze diren ustekoak gara, hain zuzen ere ikastetxeetako eta geletako bibliodibertsitate-mailak ikertzeari lotutakoak, esaterako katalogoek aukera, oreka eta desberdintasuna aztertzeko. Análisi zehatzak behar dira, baina gure hipotesi nagusia da ikastetxeetan bibliodibertsitateari lotutako irizpideak aplikatuz gero, handitu egiten dela lehenago aipatu diren testuetako gaiei, tipologiari, generoari, estilistikari, kultura-edukiei... lotutako aniztasuna ere.

Bibliografia

- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. EHAA, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2016/01/1.
- Alianza internacional de editores independientes (2014). Declaración Internacional de los editores independientes. Linean eskuragarri: https://www.alliance-editeurs.org/IMG/pdf/declaration_internacional_de_los_editores_independientes_2014-2.pdf [Azkenkontsulta: 2020/06/20].
- Allerbon, D. (2011): «Midiendo la diversidad – Hacia el desarrollo de un índice de bibliodiversidad». In E. Galland (ed.) *Bibliodiversity indicators*: 62-74.
- Colomer, T. eta Duran, T. (2016). «La literatura en la etapa de educación infantil». In Bigas, M. eta Correig, M. (ed.) (2008). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis: Madrid.
- Eusko Jaurlaritza (2016). *Ikastetxearen hizkuntza proiektua egiteko gida*. Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Saila: Vitoria-Gasteiz. Linean eskuragarri: https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/hizkuntza_proiektua/5002016001e_Pub_EJ_gida_hizpro_e.pdf [Azken kontsulta: 2020/06/20].
- Eusko Jaurlaritza (2018). *Euskadiko irakurketa plana*. Irakurgunea: Vitoria-Gasteiz. Linean eskuragarri: https://bideoak2.euskadi.eus/2018/01/31/plan_lector/Euskadiko_Irakurketa_Plana.pdf [Azkenkontsulta: 2020/06/20].
- Galland, E. (arg.) (2011). *Bibliodiversity indicators*. Bibliodiversity, Publishing and Globalisation. Linean eskuragarri: https://www.alliance-editeurs.org/IMG/pdf/Bibliodiversity_-_Indicators-2.pdf [Azken kontsulta: 2027/06/20].
- Gutiérrez de la Torre, J.M. (2005). «Sociedad lectora y “Bibliodiversidad”». *Revista de Educación*, zenbaki berezia 2005, 363-384.
- Hawthorn, S. (2016): *Bibliodiversité, Manifeste pour une édition indépendante*, Éditions Charles Léopold Mater: Paris.

- Lluch, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes*. Ediciones Trea: Gijón.
- Pinhas, L. (2013). «La reivindicación de la independencia editorial ante las políticas públicas del libro: ¿qué impacto?». *Comunicación y medios*, 27: 66-78. Linean eskuragarri: <https://comunicacionymedios.uchile.cl/index.php/RCM/article/view/27150> [Azken kontsulta: 2020/06/20].
- Prats, M (2016). «Criterios para la selección de lecturas». In Palou Sangrá, J. eta Fons Esteve, M. (koord.), *Didáctica de la lengua y la literatura en primaria*, Síntesis: Madril.
- Sambor, S. (2011). «Le centre du livre et de la lecture en Poitou-Charentes, un outil au service de la bibliodiversité». In Galliand, E. (ed.), *Bibliodiversity indicators*: 52-61.

Euskal literatura itzuliari buruzko gogoeta¹

Elizabete Manterola Agirrezabalaga

UPV/EHU-TRALIMA/ITZULIK

Laburpena

Erdaratutako euskal literaturari erreparatuko diogu ekarpen honetan, eta kanporako itzulpenen ekoizpenak izan duen eboluzioa aztertzea izango dugu helburu. Euskaratik itzuliriko literaturari buruzko azterketak egin izan ditugu aurrez ere, eta honako honetan datuak eguneratu eta azken urteetako joerak identifikatu nahi izan ditugu. 2020ko lehen hiruhilekora arteko datuak bildu eta aztertu dira hainbat ikuspegiatik begiratuta (hala nola ekoizpen datuak, kronologia, generoak, itzulpen bideak edo itzulpenen sustapena). Zenbaki soilek iradokitzen dutenaz haragoko hausnarketa proposatzen da, halaber, itzulpenak euskal literaturan betetzen duen paperaz eta gure literaturak beste hainbat literaturarekin duen harremanaz, besteak beste.

1. Sarrera

Sorreratik beretik izan da itzulpengintza euskal literatur sistemaren parte. Beste hainbat hizkuntzatatik ekarritako itzulpenik gabe ez genuke euskal literatura bere egungo forman ezagutuko². Euskararako itzulpenaz gain, baina, esportazioa ere pre-

¹ Eusko Jaurlaritzak aitortutako TRALIMA/ITZULIK (IT1209-19) ikerketa talde kontsolidatuaren baitan kokatzen da honako ekarpen hau.

² Ugari dira, itzulpenaren garrantzia nabarmendu duten ahotsak euskal literaturaren baitan, horien artean, Anjel Lertxundirena nabarmenena. 2019an argitaratu duen *Itzuliz usu begiak* saiakera ezinbestekoa da itzulpengintzaren eta literaturaren arteko harremana ulertzeko.

miazkoa du literatura batek biziko bada. Euskal literatur sistema xx. mendearen erditik aurrera joan zen eratzen eta prozesu haren helburuen artean zegoen kultur prestigioa lortzea hizkuntza nagusietarako itzulpenaren bitartez (Olaziregi, 2017: 550).

Honako ekarpen honetan kanporako ekoizpenari erreparatuko diogu, eta euskaraz sorturiko literaturaren itzulpenak izan duen eboluzioa ikusten saiatuko gara. Igaro dira dagoeneko zenbait urte euskaratik erdaratutako literatura aztertzen hasi ginenetik. Euskal literatura itzuliaren katalogoa 2006an azertu genuen lehenengoz, eta 2010era arteko ekoizpena gero (Manterola, 2012). Datuak eguneratuz joan gara ordutik ELI katalogoan. Ia hamabost urte hauetan eraldatuz joan da euskaratiko itzulpenaren errealitatea eta honako ekarpen honen bidez azken urteetan identifikaturiko joerak deskribatzea eta erakustea izango dugu asmo. Horretarako, ELI katalogoaren eguneraketa hartu dugu abiapuntu, 2020ko lehen hiruhilekora arte bildutako datuak jasotzen dituen, hain zuzen ere. Datu horien azterketaz haratago, erdaratutako euskal literaturaren azterketa orokor bat egitea izan dugu asmo, zenbaki soilek iradokitzen dutenetik hausnarketa pausatua egite aldera.

Euskal literaturgintza itzulpenaren ikuspegitik begiratzeak laguntzen du sistemaren izatea neurtzen, bai eta haren funtzionamenduari loturiko joerak identifikatzen ere. Azken batean, literatur ekoizpena itzulpengintzaren ikuspegitik aztertzeak literatur sistemak berak nola funtzionatzen duen ikusteko balio dezake³ (Manterola, 2012: 2).

Euskal literaturaren barruan itzulpenak hartzen duen proportzioari dagokionez, 2017an HGL eremuan argitaraturiko liburuen %74 itzulpenak izan ziren; aldiz, helduentzako literatur liburuen artean, %22,5⁴ (Torrealdai, 2019). Ondorengo orrialdeetan kontrako norabideko itzulpenen ekoizpena xehatzen saiatuko garenez, lagungarria izan liteke inguruko hizkuntzetan ekoizten diren liburu itzulien ehunekoei erreparatzea. Badirudi Europako literaturen artean jasotzen den itzulpen kopurua argitaratzen den liburu kopuru orokorraren zati txiki bat besterik ez dela; Europako batz bestekoa %15 inguruan kokatzen da (Grutman, 2015: 4-5), baina herrialdeka eta hizkuntzaka datuak asko aldatzen dira. 2017ko ekoizpenari dagokionez, itzulpenek liburugintza osoaren %21,1 osatu zuten Espainian⁵ (sorkuntza literarioari dagozkion liburuen %25,4 eta haur eta gazteentzako liburuen %47) (Franci, 2020: 94). Katalunian %18 eta 25 artean kokatzen da (Comellas, 2016: 134), eta Galizian %20an (Galanes, 2016: 159). Erresuma Batuan, aldiz, ohiko %3tik %5,5era igo zen 2019an (Franci, 2020: 94). Frantzian, bestalde, %10-18 bitartean kokatu ohi da itzulpenen proportzioa, Alemaniaren pareko; kopuru txikia da Espainiakoaren eta Italiakoaren aldean, bai eta Herbehereekin edo herrialde eskandinaviarrekin alderatuta (Grutman, 2015:

³ Arrula-Ruizek autoitzulpena aztertzean ere honela dio: «literatura sistemaren nolakotasunen berri emanen digulakoan nago. Betiere, helburu dudala euskal idazleek beren testuak itzultzean zer joera dituzten deskribatzea» (2018: xiv).

⁴ Portzentajea dantza dezentea izaten da urtetik urtera; hala, HGLko azken datuetan gorabeherak nabarmenak dira (2013an itzulpenek osatzen zuten produkzio osoaren %78,1, 2014an %62,1, 2015ean %70,5, 2016an %70,1 eta 2017an %74). Helduei zuzenduriko lanetan ere gorabeherak badira, baina ez hainbestekoak (2013an itzulpenak izan ziren produkzio osoaren %25,5, 2014an %29,2, 2015ean %27,8, 2016an %23,6 eta 2017an %22,5).

⁵ Montero Küpperren arabera (2016: 59), azken bost urteetan ekoizpen osoaren %21,7 izan ziren eta 2005-2009 artean %24,6.

5). Batzuen eta besteen arteko aldeak ikusita, ondoriozta liteke ez dela gauza bera hizkuntza bakoitzak kanpoko literaturen aurrean duen irekitasuna eta itzulitako literatura jasotzeko tradizioa. Ez dira aukera berak sortuko hizkuntza batera edo beste batera itzultzeko. Halaber, jatorrizko eta xede kulturen arteko harremanak ere izango du eraginik.

Bestalde, euskal literaturaren baitan bi norabideetan eginiko itzulpenen kopuruak hotz-hotzean begiratzeak lagun dezake itzulpen-trukeen presentzia neurtzen. NorDaNor datu-basearen arabera, 4.730 liburu itzuli dira euskarara eta 1.361 liburu itzuli dira euskaratik⁶. Index Translationum datu-basearen arabera, berriz, 3.908 liburu itzuli dira euskarara eta 999 euskaratik. Horrek esan nahi du euskal literaturaren baitan proportzioan lau itzulpenetik hiru euskarara egiten direla eta bat erdaretara. Proportzio horiek antzera mantendu dira azken alderaketatik (Manterola, 2016a). Ikus litekeenez, euskararako itzulpenak indar handiagoa du euskaratik erdaretara egiten denaren aldean. Hala izan ohi da gurearen moduko hizkuntza diglosikoen kasuan.

2. Euskal literatura itzuliaren azterketa

Datuak eguneratu eta aztertzen aritu gara ekarpen hau osatzeko. Erdaraturiko literaturari buruzko datuak bi iturritan daude eskuragai: ELI katalogoan eta NordaNor datu-basean. Bien arteko datuetan alderik egon daiteke, nahiz eta iturri beretatik edaten duten eta elkar elikatu⁷; hortaz, azterketa honetarako bien arteko erkaketa eta datu-osaketa egitea izan dugu lehenengo zeregina. Jakin badakigu datu guztiz osatuak lortzea zaila dela, eta itzulpen guzti-guztiak bildu ditugula ziurtatu ezin badugu ere, ekoizpen orokorra islatzeko asmoa betetzen dela esango genuke. 2020ra arteko ekoizpena kontuan izanda 1.432 sarrera zenbatu ditugu, eta datu hori hartuko dugu ardatz hemen aurkeztuko dugun azterketan. ELI katalogoaren aurreko azterketa 2010 arteko datuekin egin genuen (Manterola, 2012). Orduko hartan katalogoak 935 sarrera bildu zituen errepikapenak kontuan hartu gabe. Hortaz, ikus liteke ekoizpenak gora jarraitzen duela eta 500 sarrera gehiago bildu dituela hamar urtean.

Jakin badakigu itzuliriko literatura ez dela liburu formatura mugatzen, eta badirela bai paperezko aldizkarietan bai online beste hainbat iturri-motatan argitaratutako itzulpenak. Horietako zenbait jasota daude dagoeneko NordaNor datu-basean ere⁸. Dena den, beste euskarri batzuetan argitaraturiko lanen bilketa-lan xehea egitea ezinezkoa iruditatu zaigu eskatzen dituen denbora eta ahalegin handiak direla medio; eta hori dela eta, liburuetara mugatu ditugu datu bilketa eta datuen analisisa.

Datuak hainbat ikuspegitatik aztertu ditugu eta atalka banatuta aurkeztuko ditugu jarraian.

⁶ Bestelako euskarri batzuetako argitalpenei dagokienez, NorDaNorren arabera, 2.626 lan itzuli dira euskarara eta 462 lan erdaratu.


⁷ NorDaNor datu-baseak ELI katalogoaren datuak hartzen ditu bere barnean.

⁸ Horien artean, online argitalpenak jaso dira NorDaNorren batez ere.

2.1. Ikuspegi kronologikoa

Aurretik eginiko azterketek erakutsi dutenez, xx. mendeko azken laurdenera arte apenas izan da itzulpenik euskaratik, ordura arteko ekoizpen urria zela eta. XX. mendearen aurretik guztira 22 itzulpen zenbatu ditugu, eta xx. mendearen lehen 70 urteetan, 24. Espainian diktadura amaitu ostean hasi zen ekoizpena gora. Euskarazko idazkuntza hazi ahala hasi ziren tantaka erdaretarako lehen itzulpenak. Hala, 1971-1980 hamarkadan 20 itzulpen besterik izan ez baziren ere, 1981-1990 hamarkadan 67 argitaratu ziren. Eta handik aurrera ekoizpenak gora egin zuen: 1991-2000 artean 365 itzulpen argitaratu ziren erdaretan, 2001-2010 artean 547 eta 2011-2020 artean 377. Datuek erakusten dutenez, 2010eko hamarkadan eten egin da goranzko joera, eta mende hasierako hamarkadan baino itzulpen gutxiago argitaratu da. Hori azaltzeko arrazoi nabarmenena 2008an hasitako krisi ekonomikoa dugu, liburugintzan eta literaturgintzan nabarmen eragin zuena. Horretaz gain, gogoan izan behar dugu hamarkada osoa amaitu aurretik egin dugula azterketa, 2020aren lehen hiruhileko datuak besterik ez baitira bildu katalogoan⁹. Baliteke, baita ere, azken urteetako datuak guztiz osatu gabe egotea, erabilitako iturrietan ez daudelako itzulitako lan guztiak jasota oraindik.

Urtez urteko eboluzioa ikus liteke ondorengo grafikoan:




Ekoizpen osoaren eboluzioa

Kronologiari loturiko datuak neurtzeko ezinbestekoa da urtez urteko datuak irakurle motarekin gurutzatzea, proportzioak oso desberdinak baitira epealdi bakoitzean. 80ko hamarkadan erdaratutako euskal liburuen %55,22 HGL liburuek osatu zuten eta 90eko hamarkadan gora egin zuen proportzioak, %63,01era hain zuzen ere. Ordutik aurrera, jaitsiz joan da proportzioa: 2000ko hamarkadan, esaterako, %46,98n kokatu zen, nahiz eta kopurutan aurreko hamarkadan baino liburu gehiago argitaratu zen. Bestalde,

⁹ Dena den, 2020. urtean beste motelaldi bat iritsi da, Covid-19ak eragindako pandemia dela eta. Datozen hilabete eta urteetan ikusi egin beharko da liburugintzaren sektorean nola eragingo duen.

2010eko hamarkadan HGL liburu itzulien proportzioa inoizko baxuena izan da, ekoizpen osoaren %28,11koa.



NorDaNor datu-basean bildutako datuak aztertuta, ikusiko dugu kontrako norabidean ez dela hainbesteko gorabeherarik izan. Itzulpen kopuruak gora egin du 2001-2010 hamarkadan eta hurrengoan ere antzera mantendu da, bietan ere 1.300 itzulpenetik gora argitaratuta. 70eko hamarkadan HGL lanek argitalpen guztien %76 hartzen zuten, baina hurrengo hamarkadetan datua egonkortu egin da eta %63-65 artean kokatu. Bi norabideak alderatuta, hortaz, euskararako norabidean HGLren nagusitasuna antzeko proportzioan ari da mantentzen urtez urte baina kontrako norabidean apalduz joan da.

2.2. Autoreak

Jatorrizko 790 lan eta 1.371 xede izenburu jaso ditugu denera ELI katalogoan, antologiak kontuan izan gabe. Libururen bat erdaraz duten 237 autore zenbatu ditugu, bestalde. 2010etik honako datuek gora egin dute kopurutan, baina joerak nahiko antzerakoak dira.

Gehien itzuliriko autoreen hurrenkera aldatu egiten da erreferentzia gisa xede lan kopurua, jatorrizko lan kopurua edo hizkuntza kopurua hartu. Hala, xede lan gehien Bernardo Atxagak argitaratu du (197) eta bigarren lekuan Mariasun Landa kokatzen da, 99 itzulpenekin. Haren atzetik datoz Juan Kruz Igerabide (87), Piedad Ateka (63), Patxi Zubizarreta (62), Kirmen Uribe (37) edo Harkaitz Cano (33). Oro har, 28 idazlek argitaratu dituzte 10 itzulpen baino gehiago eta kontrako muturrean, 105 idazle daude itzulpen bakarrarekin, gehien-gehienetan gaztelaniarako itzulpena dena.

Jatorrizko izenburu kopurua hartuz gero ardatz, ordea, Juan Kruz Igerabide dugu lehen lekuan (59) eta haren atzetik datoz Bernardo Atxaga (40), Patxi Zubizarreta (34), Piedad Ateka (33), Mariasun Landa (30) edo Anjel Lertxundi (20).

Xede hizkuntzen arabera begiratzuz gero datuak¹⁰, azkenik, Bernardo Atxaga dugu zerrendaren buruan (37), eta haren atzetik topa litezke Bernard Etxepare (18), Mariasun Landa (17), Kirmen Uribe (17), Arantxa Urretabizkaia (12), Harkaitz Cano (10) eta Joseba Sarrionandia (10).

Ikus liteke lehen postuetan HGL egile ugari topa litezkeela xede argitalpen eta jatorrizko liburu gehien argitaratu dituztenen artean; aldiz, hizkuntza kopuru zabalagoetara itzuli diren autoreek batez ere helduentzako liburuak idazten dituzte, edo HGLez gain helduentzat ere idazten dute.

Nabarmentzekoa da azken hamarkadan zenbait egileren itzulpen kopuruak gora egin izana. Sarrionandiaren kasuan, esaterako, 2012an Euskadi Saria jaso zuenetik bere hainbat lan argitaratu da erdaretan. Uribek ere, 2008an Espainiako Sari Nazionala irabazi zuenetik itzulpen kopuru zabala izan du hainbat hizkuntzatan.

2.3. Lan itzulienak

Datu azterketa jatorrizko izenburuka egingo bagenu, datuak ez dira askorik aldatu azken azterketatik. Bernardo Atxagaren lanek jarraitzen dute itzulienak izaten, eta lehen postuetan ditugu *Obabakoak* (26), *Gizona bere bakardadean* (18), *Soinujolearen semea* (15), *Zeru horiek* (11) eta *Zazpi etxe Frantzian* (10). Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriak ere 14 itzulpen izan ditu eta Unai Elorriagaren *SPrako tranbiak* zortzi. Zortzina itzulpen izan dituzte, halaber, Atxagaren *Bi letter jaso nituen denbora guxian*, *Sugeak txoriari begiratzan dionean* eta *Xolak badu lehoien berri* liburuak, eta zazpina itzulpen Mariasun Landaren *Alex*, *Elefante txori-bihotza* eta *Tsan fantasmak*, Bernardo Atxagaren *Bi anaik*, Miren Agur Meaberen *Etxe bitan bizi naiz* liburuak, eta Arantxa Urretabizkaiaaren *Koaderno gorriak*. Azken horrek, gainera, bost hizkuntzatan argitaraturiko liburuaren lagin bat ere badauka plazaratuta.

Euskaraz argitaraturiko lehen liburuak, bestalde, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* lanak, 9 ediziotan argitaraturiko 18 itzulpen ditu orotara. Hau da, edizio eleanitzetan argitaratu dira horietako batzuk, batez ere, Euskal Herrian bertan plazaratuak.

Itzulpen bakarra izan duten 511 liburu ere zenbatu ditugu guztira, eta horietatik %75 gaztelaniaz argitaratu dira, eta %11 ingelesez eta euskaraz edizio elebidunetan, Euskal Herrian argitaratuak guztiak. Bestalde, bi itzulpen izan dituzten 129 liburuen artean 9 bakarrik izan dira gaztelania xede hizkuntzetako bat ez zuten kasuak, eta gainerakoan, ia erdia osatzen dute gaztelaniara eta katalanera itzuli diren liburuak.

¹⁰ Xede hizkuntzak zenbatzean kontuan izan da bertsio eleanitzetan biltzen diren hizkuntzak ere.

Azken hamar urteetako produkzioari erreparatuz gero, honako hauek izan dira hamarkada horretan hiru itzulpen edo gehiago izan dituzten liburuak:

Azken hamarkadako liburu itzulienak

Autoreak	Liburuak	Itzulpen kopurua
Uribe, Kirmen	<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	11
Atxaga, Bernardo	<i>Zazpi etxe Frantzian</i>	7
Uribe, Kirmen	<i>Elkarrekin esnatzeko ordua</i>	6
Atxaga, Bernardo	<i>Nevadako egunak</i>	4
Cano, Harkaitz	<i>Twist</i>	4
Meabe, Miren Agur	<i>Kristalezko begi bat</i>	4
Uribe, Kirmen	<i>Mussche</i>	4
Agirre, Katixa	<i>Atertu arte itxaron</i>	3
Alberdi, Uxue	<i>Aulki-jokoa</i>	3
Arana, Aitor	<i>Maitasun sua</i>	3
Atxaga, Bernardo	<i>Behi euskaldun baten memoriak</i>	3
Atxaga, Bernardo	<i>Soinujolearen semea</i>	3
Bilbao, Leire	<i>Piztipoemak eta beste xomorro batzuk</i>	3
Cano, Harkaitz	<i>Antzara eguna</i>	3
Etxepare, Bernard	<i>Linguae Vasconum Primitiae</i>	3
Igerabide, Juan Kruz	<i>Abezedario titirijario: letren txotxongiloa</i>	3
Jimenez, Irati	<i>Nora ez dakizun hori</i>	3
Salaberria, Leire	<i>Euria ari duenean</i>	3

Taula horrek erakusten duenez, azken hamar urteetan Kirmen Uriberen eta Bernardo Atxagaren lanek izan dute itzulpen gehien. Lehenengoaren kasuan, 2008an irabazi zuen Sari Nazionalak bultzada eman zion *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriari nazioartean, eta gerora argitaraturiko *Mussche* eta *Elkarrekin esnatzeko ordua* liburuek ere harrera ona izan dute. Atxagaren kasuan, taulan ikus litezke bai argitaratu berri diren liburuen itzulpenak (*Zazpi etxe Frantzian* eta *Nevadako egunak*) bai eta lan zaharragoenak ere (*Behi euskaldun baten memoriak* eta *Soinujolearen semea*). Zerrendan nabari liteke beste hainbat autoreren helduentzako narratiba lanak ere itzuli direla, hala nola Harkaitz Canoren *Twist*, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat*, Katixa Agirrereren *Atertu arte itxaron*, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* eta Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori*. Amaitzeko, badira HGL lanak ere zerrendan: Aitor Aranaren *Maitasun sua*, Leire Bilbaoren *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk* eta Juan Kruz Igerabideren *Abezedario titirijario*.

2.4. Argitalpenen azterketa

Atal honetan argitalpenen ezaugarri orokor batzuk hartuko ditugu mintzagai, itzulpenen ikuspegi orokorra osatzeko. Lehenik eta behin, itzulpenen argitalpen lekuari erreparatuko diogu. Erdaratutako liburuen %58,71 Euskal Herriko mugetatik kanpora argitaratu dira, eta gainerakoak Euskal Herrian. Azken horiek kopuru nahiko handia osatzen dute, hortaz. Euskal Herrian argitaraturiko lanek hizkuntzaka erreparatuta, gehienak gaztelaniaz argitaratu dira, 389 argitalpen guztira, eta gaztelaniaz argitaraturiko lanen %58,6 osatzen dute horiek. Hala, ikus liteke gaztelaniarako itzulpen gehiago argitaratu dela Euskal Herrian bertan Euskal Herritik kanpo baino. Ingelese ere itzulpenen %60,6 osatzen dute Euskal Herrian argitaraturiko lanek. Frantsesaren kasuan, berriz, proportzioa ere nahiko esanguratsua da, %47,25ekoa, nahiz eta ez izan gaztelaniaren eta ingelesaren parekoa. Bestalde, azpimarratzekoa iruditzen zaigu argitalpen eleanitzen kasua, izan ere, 3 eta 6 hizkuntza bitartean biltzen dituzten argitalpen gehien-gehienak Euskal Herrian bertan argitaratu dira.

Argitaletxeen azterketa sakona egiteak —argitaletxeen tamaina, xede kulturetan betetzen duten lekua, etab.— hemen duguna baino leku handiagoa hartuko luke, eta zertzelada gutxi batzuk besterik ezingo ditugu eman. Oro har, esan liteke, euskal idazle gutxi lortzen duela izen eta zabalkunde handiko argitaletxeetan argitaratzea. Atxagak, Elorriagak eta Uribe, esaterako, Sari Nazionala irabazi ostean argitaratu dituzte haien lanak hainbat herrialdetako argitaletxe nagusietan. Baina idazle gehienek argitaletxe txikien eskutik egiten dute kanporako bidea eskuarki.

Azken urteetan argitalpen merkatua eraldatzen ari da eta gero eta gehiago dira han-hemenka hizkuntza txiki edo urrunekoetatik itzulpenak egiten dituzten argitaletxeak. Hala, ingelesaren kasuan Parthian books argitaletxe galestarra aipa liteke. Argitalpen ildoan dute Europako hainbat hizkuntzatatik narratiba lanak itzultzea, emakumeek sorturikoak batez ere: Karmele Jaioren *Amaren eskuak* (*Her Mother's Hands*, 2018) eta Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* (*A Glass Eye*, 2018) itzuli dituzte euskaratik. Katalanezko Pol-len argitaletxea, bestalde, argitaletxe gazte eta independente bat da eta azken urteetan hainbat lan katalanera dituzte euskaratik. Itzuliriko autoreen artean honako hauek topa litezke, besteak beste: Joseba Sarrionandia, Miren Agur Meabe eta Mari Luz Esteban. Bide beretik, kanpoko literatur lanak galizierara itzultzen dituen Hugin & Munin argitaletxe independentea ere aipagarria da, orain artean, hiru lan itzuli dituzte euskaratik: Harkaitz Canoren *Pasaia blues* (2013), Juanra Madariagaren *Espedizioa* (*eSPedicion: o poder dunha montaña*, 2017) eta Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (*O xogo das cadeiras*, 2018).

HGLri dagokionez, berriz, aurrez ikusi genuen zer garrantzia zeukaten Espainiako estatuko hizkuntza ezberdinetako argitaletxeen arteko hitzarmenek (Lopez Gaseni eta Etxaniz Erle, 2005; Manterola, 2012). Eguneratutako datuek erakusten dutenez, baina, elkarlanak pisua galdu du azken hamarkada honetan, eta oso gutxi dira halako hitzarmenen bitartez euskaratik itzuli diren lanak. Pamiela eta Kalandraka argitaletxeen arteko elkarlanean sorturikoak aipa litezke horien artean, hala nola Uxue Alberdiren *Txikitzen zaretenean* edo Leire Bilbaoren *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk*.

Liburuaren argitalpena izan da berrikuntzarik azken boladan. Datu bilketak erakutsi digu paperezko liburuak gain argitalpen elektronikoaren kopurua nabarmen ari dela hazten¹¹. Badira paperezko zein kopia elektronikoak eskaintzen dituzten argitaletxe ugari, eta badira formatu elektronikoak hobetsi eta hura besterik argitaratzen ez duten argitaletxeak ere. Erdaratuak euskal lanen artean topatu ditugu zenbait argitaletxe lan kopuru zabala ari direnak biltzen formatu elektronikoan. Horien artean aipatzeko modukoak iruditzen zaizkigu batzuk. Hasteko eta behin, Libe edizioni, euskal literatura italiaraz argitaratzeko sorturiko argitaletxea. E-liburuak besterik ez ditu argitaratzen, eta honako azalpena ematen du erabaki hori arrazoitzeko:

Libe pubblica libri digitali ma ha un cuore di carta. Utilizziamo l'e-book come uno strumento che ci permette di pubblicare testi di autori baschi non ancora conosciuti in Italia e che non hanno ancora trovato uno spazio nel canale editoriale classico. In questo senso il lavoro di Libe è rivolto non solo ai lettori ma anche alle altre case editrici, una vetrina per i testi che si spera possano trovare in seguito nuove vie e supporti di distribuzione (Libe).

Hitz horietatik ondoriozta liteke argitalpen elektronikoaren bitartez lehen urrats bat eman nahi dela merkatu italiararen euskal lanak zabaltzeko.

Liburu elektronikoak argitaratzen dituen bigarren egitasmoa Booktegi dugu, Euskal Herriaren sortua, eta helburu duena bere webgunean mota guztietako euskarazko liburuak doan eskaintzea. Eskaintza orokorraren barruan baditu euskaraz eta ingelesez elebitan argitaraturiko zenbait e-liburu¹². EIZIEk ere argitaratuak ditu bere webgunean euskaratik beste hainbat hizkuntzatarara itzuliriko hainbat lan. *Idazlea itzultzailearen lantegian* mintegiaren emaitzak paperean argitaratu ziren 2012 arte, baina hortik aurrerakoak formatu elektronikoan besterik ez dira argitaratu¹³.

Argitaletxeei erreparatuta, bestalde, badira euskal lanak argitaratzeko itzulpen-ildo sendo bat garatu dutenak. Halako egitasmoak aurrera ateratzeko xede kulturetako argitaletxeek harreman zuzenak bultzatu dituzte euskal eragileekin. 2010era arteko ekoizpena aztertzean ikusi genuenez (Manterola, 2012: 515), Alemaniako Pahl-Rugenstein argitaletxeak Zubiak izeneko bilduma bat jarri zuen abian 2007an, euskaraz sorturiko helduentzako narratiba lanak alemanez argitaratzeko. 2012ra arte 7 lan argitaratu zituzten guztira, nahiz eta hasierako asmoa gehiago argitaratzea zen. Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-etik ere bultzatu da euskal lanen itzulpena, euskal gaiei buruzko beste hainbat argitalpenekin batera. Badute Basque Literature Series izeneko bil-

¹¹ Joan Mari Torrealdai eginiko euskal liburugintzaren azterketan (2019) ikus liteke nola 2012tik 2017ra etengabe joan den gorantz liburu digitalen kopurua. Literaturaren eremuan, 2017ko ekoizpenean helduentzako literatur liburuaren %23,5 osatzen zuten liburu digitalek, eta haur eta gazteentzako argitalpenen artean %5 besterik ez.

¹² Esteka honetan daude guztiak jasota: <http://booktegi.eus/basque-literature-in-english%E2%80%93free-e-books> [Kontsulta data 2020/04/14].


¹³ Esteka honetan daude guztiak jasota: https://eizie.eus/eu/argitalpenak/lantegian_agitalpenak [Kontsulta data 2020/04/16].

duma bat ere, eta euskal autoreen literatur lan itzuliak argitaratzen dituzte. Azkenekoa, 2020an argitaraturiko *Why little darling*, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik, panpox?* liburuaren ingeleserako itzulpena.

Azken urteetan beste hainbat argitaletxe ere ari dira euskal lanen itzulpenean eta zabalkundean. 2009an Herbehereetan sorturiko Zirimiri Press argitaletxea, konparazio batera. Hizkuntza gutxituetako eta gutxi itzultzen diren hizkuntzetako liburuak nederlanderara itzultzea dute helburu nagusi, eta euskal idazle zenbaiten lanak itzuli dituzte, besteak beste, Julen Gabiria, Harkaitz Cano eta Laura Mintegirenak. Haur eta gazte literaturaren eremuan, Esloveniako Malinc argitaletxearen lana ere nabarmentzekoa da. 2012tik orain arte 15 euskal lan itzuli baitituzte eslovenierara. Gorago aipaturiko Libe edizioni ere horien artean koka genezake.

2.5. Generoak

Generoei erreparatuta ikusiko dugu bi genero nabarmentzen direla gainerakoen gainetik: haur eta gazteei zuzenduriko literatura eta helduentzako narratiba lanak, hain zuzen ere, lehenengoak ekoizpen osoaren %44,83 hartzen du eta bigarrenak %35,26. Atzetik datoz beste hainbat genero, poesia (%9,07), saiakera (%3,70), antzerkia (%2,65) eta beste.



2010era arteko ekoizpenaren kasuan bezala, haur eta gazteentzako literatur lanak estatuko hizkuntzetara itzuli dira batez ere (%70,09), baina lau puntu behera egin du portzentajeak. Horrek esan nahi du badirela Espainiatik kanpoko hizkuntzetara egi-

niko itzulpenak ere. Azken hamarkadako HGLari erreparatuta, argitaratu diren 131 lanetatik 89 argitaratu dira galegoz, gaztelaniaz edo katalanez, hau da, %67,93. Horretaz gain, ez da itzulpenik egin estatuko gainerako hizkuntza txikietara (aragoiera, asturiera, aranera).

Bi norabidetako itzulpenak alderatzen baditugu, euskarara eginikoak zein euskaratik erdaratuak, ikusiko dugu itzulpen gehienak HGL lanak direla bietan (Manterola, 2016a: 201). Nagusitasun horrek erakusten du haur eta gazteentzako argitalpenek euskal literatur ekoizpenean betetzen duten eremu zentrala, kopuruei dagokienez behintzat.

2.6. Xede hizkuntzak

Xede hizkuntza kopuruak gora egin du: 38 hizkuntza zenbatu genituen 2010ean eta 46 izan dira 2020an. Aurretik eginiko azterketetan nabarmendu genuen moduan, ezberdintasun handiak ikus litezke hizkuntza batzuetatik besteetara.

Hona hemen hizkuntzen zerrenda eta bakoitzak jaso duen itzulpen kopurua:

Xede hizkuntzen taula

	Denera	Elebakarrak	Bi eletan (euskararekin)	Bi eletan (gaztelaniarekin)
Gaztelania	663	576	87	
Katalana	175	173	2	
Ingelesa	117	46	71	1
Frantsesa	91	49	42	
Galegoa	77	75	2	
Italiera	46	45		1
Alemana	29	28	1	
Esloveniera	23	22		1
Errusiera	17	16	1	
Asturiera	12	12		
Albaniera	10	10		
Esperantoa	10	10		
Portugeses	10	10		
Nederlandera	9	9		
Aragoiera	8	8		

EUSKAL EDIZIOGINTZAREN HASTAPEN IKERKETAK

	Denera	Elebakarrak	Bi eletan (euskararekin)	Bi eletan (gaztelaniarekin)
Bulgaria	8	8		
Greke	8	8		
Polonia	8	8		
Finlandia	7	7		
Arabia	6	6		
Japonia	6	6		
Turkia	6	6		
Bretania	5	5		
Dania	5	5		
Georgia	5	4	1	
Korea	5	5		
Suedia	4	4		
Txekia	3	3		
Aranera	2	2		
Errumania	2	2		
Estonia	2	2		
Hungaria	2	2		
Kroazia	2	2		
Serbia	2	2		
Ukrania	2	2		
Amharera	1	1		
Braile	1	1		
Frisia	1	1		
Gaelera	1	1		
Galesera	1	1		
Lituaniera	1	1		
Mazedoniera	1	1		
Norvegiera	1	1		
Txinera	1	1		
Argitalpen eleanitzak	32			

Hizkuntza kopuru zabalera egin dira itzulpenak, baina aldeak nabarmenak dira. Lehen begi kolpean ikusten da gaztelania dela hartzaile nagusia, itzulpen guztien

%46,39rekin. Proportzio hori 2010 arteko datuekin alderatuta ia berdina da, orduan %46,68koa baitzen. Katalana¹⁴, galegoa eta gaztelania kontuan izanda kopuru osoaren %63,40 osatzen dute, eta ikus liteke 2010 arteko proportzioarekin alderatuta (%66,48) oso antzekoa dela, apur bat gutxitu den arren. Proportzio horiek ez datoz bat estatuko itzulpen-trukeen joera nagusiarekin. Izan ere, ACE Traductores elkarteak argitaraturiko itzulpen editorialaren balio ekonomikoari buruzko txostenak dioenez, Espainian argitaratzen diren itzulpen gehien-gehienak atzerriko hizkuntza batetik estatuko hizkuntza batera igarotakoak izaten dira (%82,8), eta oso urrundik jarraitzen diete horiei estatuko hizkuntza batean argitaratu eta atzerriko batera itzulirikoek (%8,4) edo estatuko hizkuntzen arteko itzulpenek (%8,8) (ACE Traductores, 2017). Horretaz gain, euskararako eta euskaratiko norabideetan aldeak nabari daitezke hizkuntza bikoteen artean. Izan ere, gaztelania eta Europako hizkuntza nagusiak (ingeleza, frantsesa, alemana, italiera edo errusiera) lehenengo postuetan ageri dira, baina erdaretarako bidean Iberiar penintsulako hizkuntzek protagonismo handiagoa hartzen dute (Perez Isasi, 2014: 123). Hala, badirudi euskal literaturak ez dituela hartzen estatuko literaturak inportaziorako iturri nagusi gisa, baina bai xede gisa.

Estatuko hizkuntzetarako itzulpenak protagonismoa galduz joan dira denborarekin HGL liburuetan. 80ko hamarkadan xede hizkuntza garrantzitsuak ziren HGL liburuak katalanera eta galegorako itzulpenean, euskaratik jasotako itzulpenen %77,7 eta %100 osatzen baitzuen bakoitzak, hurrenez hurren. Hurrengo hamarkadan ere proportzio nahiko altua osatzen zuten HGL lanek (%90,27 eta %95,23). Milurteko berriarekin katalanera itzuliriko lanen proportzioak behera egin zuen, %73,7ra 2000ko hamarkadan eta %27,2ra 2010ekoan. Itzulpen kopurua bera ere nabarmen jaitsi da azken hamarkada honetan. Oro har, hortaz, helduen literatur lanak askoz ere gehiago itzuli dira. Galegorako itzulpenen proportzioak behera egin du: %75era lehenik 2000ko hamarkadan, katalanaren antzerako proportzioan, eta %50era azken hamarkadan. Oro har, itzulpen kopuruak ere behera egin du. Gaztelaniaren kasuan, HGLk ez du hainbesteko protagonismorik izan. 80ko eta 90eko hamarkadetan ekoizpen osoaren %51-52 osatzen zuten haur eta gazteei zuzenduriko lanek. Milurteko berriarekin behera egin zuen proportzioak hizkuntza horretan ere, %42,36ra 2000ko hamarkadan eta %30era 2010ekoan.

Ingelesa hirugarren hartzaile nagusia dugu, 117 argitalpenekin. Datuek erakusten dutenez, argitalpenen erdia baino gehiago elebidunak izan dira eta horietatik hiru besterik ez dira argitaratu Euskal Herritik kanpo. Horrek esan nahi du, itzulpen horiek ez dutela atzerriko irakurlea hartzaile nagusi. Aldiz, ingeles hutsez argitaratutako 46 lanetatik lau besterik ez dira Euskal Herrian argitaratuak. Esan liteke ingelesez soilik argitaraturiko argitalpenek bai izan dutela atzerriko irakurlea xede.

Ia ehun argitalpenekin, frantsesa dugu laugarren xede hizkuntza. Frantses literaturaren zurruntasuna islatzen du datu horrek, Frantziaren mugen barruan hitz egiten diren hizkuntza gutxituetan sortzen den literatura frantsesez jasotzeko. Bestalde, esangu-

¹⁴ Katalanaren barruan sartu ditugu valentzierarako itzulpenak ere, hizkuntza horren aldaera bat baita. Euskaratik itzuliriko liburuen artean badira bi edizio izan dituzten argitalpenak, bata katalan estandarrean eta bestea valentzieraz: *Eta zer?* bildumako liburuek, adibidez.

ratsua da baita ere argitalpen elebidunen kopuru handia¹⁵. Sarritan, gainera, jatorrizkoa eta itzulpena aldi berean argitaratzen dira lehenengoz eta horrek erakusten du jatorrizkoak itzulpena behar duela argitaratuko bada¹⁶.

Azken hamarkadan izan da jasotako itzulpen kopurutan gora egin duen hizkuntzarik ere. Esloveniera dugu horren adibide. 2010 arte bost lan besterik ez ziren itzuli hizkuntza horretara, eta azken hamarkadan 18 lan itzuli dira, gehienak Malinc argitaletxeak argitaratuak, HGL liburuak batez ere. Bulgariaraz ere 2 lan besterik ez ziren argitaratu 2010 arte eta azken hamar urteetan beste sei itzuli dira. Bestalde, azken hamarkadan euskaratik lanen bat jaso duten hizkuntza berrien artean ditugu mazedoniera, txinera, georgiera, amharera edo lituaniera.

Argitalpen eleanitzei dagokienez —hiru eta sei hizkuntza bitartean argitaratuak—, guztira 32 liburu topatu ditugu: 22 hiru eletan, 3 lau hizkuntzatan, 4 bost hizkuntzatan eta 3 sei hizkuntzatan. Hizkuntza kopuru eta konbinazio zabala topa liteke argitalpen horietan, eta ia denak Euskal Herrian argitaratuak izan dira¹⁷.

2.7. Itzulpen bideak

Jarraian, erdaratzean identifikatu ditugun itzulpen bideak izango ditugu hizpide. Hasteko eta behin, xede hizkuntza guztiak kontuan izanda, 718 itzulpen zuzen eta 170 zeharkako identifikatu ditugu denera. Horiez gain, 544 kasutan ezin izan dugu itzulpen bidea definitu, izan informazio faltagatik edo zalantzazko informazioa jaso delako. Alabaina, informazio hori xede hizkuntzaka banatuta aztertzea komeni da.

Literatur trukean parte hartzen duten kulturen eta hizkuntzen nolakotasunak baldintzatu egiten du batetik bestera igarotzeko bidea. Egoera asimetrikoan dauden sistemen arteko harremanean, bata bestearenganako menpekotasuna agertu ohi da, eta hainbat formatan bistaratu: itzulpenak egiteko xede edo iturri nagusi bihurtzea kultura hegemonikoa, hirugarren hizkuntzekiko harreman zuzena gauzatzeko zailtasunak izatea eta ondorioz bitartekari gisa hizkuntza hegemonikoa behar izatea, merkatuan eskaria urria izatea eta abar. Hizkuntza gutxietako literatur sistemen arteko trukeek, bestalde, zailtasunak izango dituzte harreman zuzenak bideratzeko, bi hizkuntzak dakizkiten itzultzaile gabeziagatik, adibidez. Hala, hizkuntza nagusien arteko literatur trukean bazterreko diren jarduerak ohiko bihur daitezke hizkuntza gutxiak tartean direnean.

¹⁵ Arrula-Ruizen hitzetan, «edizio elebidunek, hizkuntza-ordezkapen prozesu batean eta produkzio osoaren zati esanguratsua izanez gero, hizkuntza hegemonikoarekiko beharra ere iradokitzen dute[la]; hots, hizkuntza gutxituko testuak ondoan hegemonikoa behar duela argitara atera nahi badu» (2018: 109).

¹⁶ Ikus Eva Gentesek edizio elebidun autoitzuliei buruzko ekarpena (2013) halako argitalpenen eta itzulpenaren arteko harremanean sakontzeko.

¹⁷ Salbuespen dira Madrilgo Atenea argitaletxeak argitaraturiko lau liburu hirueledun (euskaraz, gaztelaniaz eta errumanieraz).

Itzulpen bideen artean autoitzulpena topa dezakegu, alegia, jatorrizko lanaren autotreak berak eginiko itzulpena. Horretarako, idazleak elebidunak izatea gutxieneko baldintza da, bai eta bi hizkuntzako literatur tradizioa gertutik ezagutzea ere. Jarduera nahiko zabaldua da gurean, eta guztira 323 autoitzulpen zenbatu ditugu: euskara-gaztelania norabidean 303, euskara-frantsesa konbinazioan 16, eta bina galegora eta esperantora eginak. Ikus dezakegunez, hortaz, gaztelaniarako norabidean du protagonismorik handiena fenomenoak, gogora dezagun baita ere, itzulpen kopuru orokorretan ere hizkuntza horretara itzultzen dela gehien. Euskal Herritik haragoko errealitateari begirata, adituek ondo asko erakutsi dute Espainiar estatuan autoitzulpena erruz egiten dela —Grutmanek autoitzulpenaren «paradisu» ere deitu dio Franco osteko garaia (2016: 60)—, eta Frantzian, aldiz, askoz ere urriagoak dira hizkuntza erregionaletan idatzitako lanen frantseserako itzulpenak, eta ondorioz autoitzulpenak, nahiz eta haien lana hizkuntza erregionaletatik frantsesera itzultzen duten idazleak¹⁸ izan badiren. Hizkuntza gutxituen ofizialtasuna gakoa izan da autoitzulpenaren zabalkunderako Espainian¹⁹.

Gaztelaniaren kasuan guztira 303 autoitzulpen zenbatu ditugu eta 220 itzulpen alografo. Horiez gain egilearen eta itzultzaile baten artean eginiko 31 itzulpen ere topatu dira, eta beste 5 argitalpenetan zatika egin da itzulpena: zati bat autotreak eta bestea itzultzaile batek. Badira zeharkako itzulpen bat eta sailkatu gabeko 103 liburu ere, izan informazio faltagatik edo datu kontraesankorrak jaso izanagatik. 2010era arteko datuen analisian, autoitzulpena eta itzulpen alografoa pareko ageri ziren, biak ere %38-39 inguruan (Manterola, 2012: 150). 2018ko datuek, aldiz, autoitzulpen kopurua (%48,89) itzulpen alografoena (%34,29) baino altuagoa zela erakutsi zuten (Manterola, 2018a: 8), eta joera horrek antzera jarraitzen duela erakusten dute 2020ra arteko datuek.

Generoei erreparatuta, haur eta gazteentzako lanetan autoitzulpen gehiago egiten dela ikus liteke (%63,29) itzulpen alografoak (%18,72) baino, baina itzulpen alografo gehiago argitaratzen da narratiban (%48,54) eta saiakeran (%63,41) autoitzulpenak baino (%36,09 narratiban eta %41,46 saiakeran). Kolaborazio kopuru apalagoa topa liteke HGLn helduentzako lanekin alderatuta, bestalde. Poesiaren kasuan autoitzulpenak gehiago badira ere, zalantzako kasu gehiago topatu da, informazio falta dela eta batez ere.

Egilearen eta itzultzailearen arteko elkarlan kasuak, berriz, zailak dira kategoría bakar batean sartzeko, hain zuzen ere, jardunbide oso heterogeneoak barnebiltzen baititu izendapen horrek. Modu askotara itzul dezakete liburu bat idazleak eta itzultzaileak bien artean: eskuz esku lan eginez, batak zirriborroa egin eta besteak berrikusten, atal ezberdinak itzuliz bakoitzak, etab. Identifikatu ditugu mota bateko zein besteko kasuak ELI katalogoan; hala ere, ez da beti erraza halako kasuetan lan-dinamika nolakoa izan den identifikatzen²⁰.

¹⁸ Grutmanek (2015) azterketa xehea egiten du frankofoniaren baitan autoitzulpenak duen presentziari buruz.

¹⁹ Santoyok hainbatetan azpimarratu du mende luzetan sortu izan direla autoitzulpenak Espainian; hala eta guztiz ere, fenomeno berria da autoitzulpenak modu jarraituan ekoiztea (Manterola, 2018: 7).

²⁰ Ikus Manterola (2017) edo Dasilva (2016), kolaborazioan eginiko autoitzulpenetan sakontzeko.

Gaztelania ez gainerako hizkuntzetako datuak kontuan izanda, guztira 767 itzulpen zenbatu ditugu, eta kasurik gehienetan ezin izan da informazio argirik topatu (441). Datuak eskaintzen dituzten liburuetatik 180 kasutan itzulpena zuzena izan dela zehazten da eta 169tan zeharka egin dela. Itzulpen zuzenen barruan 20 autoitzulpen zenbatu dira eta 3 itzulpen autorearen eta itzultzaile baten artean elkarlanean eginak. Autoitzulpen horien artean 2 galizierara egin dira, 2 esperantora eta beste 16 frantsesera. Hain zuzen ere frantseserako itzulpenetan autoitzulpenak eta bestek eginiko itzulpen zuzenak pareko kopurutan daude (16-15) eta gaztelania erabiliz zeharka 18 itzulpen egin dira. Horietaz gain, 42 kasutan ez dugu informaziorik topatzerik izan.

Zuzeneko itzulpenek gora egin dute azken urteetan edo hori iradokitzen dute liburuetan emandako datuek behintzat: 2000. urtera arte 27 kasutan aitortzen da euskaratik zuzenean eginiko itzulpena, 2001-2010 artean, 46 kasutan, eta 2011-2020 bitartean, 77 kasutan. Kasu konkretuei erreparatuta, 2010 arteko datu-bilketan 5 zuzeneko itzulpen aitortu besterik ez da zenbatu katalanez, eta 2011tik orain arte 12.

Zuzeneko eta zeharkako kasuen artean koka genitzake jatorrizko konpilatua darabilten itzulpenak, hau da, itzulpenetarako iturri gisa euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok bi-biak erabiltzen diren kasuak. Liburuen paratestuek halakorik aitortu ez badute ere, autoreen eta itzultzaileen testigantzei esker dakigu halako kasuak egon badaudela. Euskaratik itzultzeko gai diren itzultzaileek gaztelaniazkoa kontsultatzen dute, batzuetan modu puntualean, itzulpen-arazoak konpontzeko, beste zenbaitetan, modu sistematikoagoan, izan bi testuen artean dauden aldeak ikusteko eta itzulpenetarako bertsiok egokia topatzeko²¹ edo izan itzultzaileek euskararen ezagutza mugatua dutelako eta testua hobeto ulertzeko.

Bitarteko hizkuntza baten erabilera faktore erabakigarria izaten da literatura baten estatusa edo literatura horren barruko genero baten estatusa neurtzeko (Manterola, 2016a: 187). Zeharkako itzulpena izan liteke harreman interliterarioak gauzatzeko baliabide nahikorik ez izatearen seinale bat. Hizkuntza hegemoniko baten bitartez zenbat eta gehiago itzuli, orduan eta menpekotasun handiagoa erakutsiko du hizkuntza batek bestearekiko. Zeharkako itzulpena ez aitortzeak iradoki dezake itzulpen bide hori saihesteko modukoa delako pentsaera. Jakin badakigu, baina, euskal literaturaren egungo ezaugarriak direla eta ez dela beti posible izango zuzeneko itzulpenak egitea. Ondorioz, ahalik eta konponbide egokienak bilatzen dira praktikan. Esaterako, euskararako itzulpen norabidean, Literatura Unibertsala bildumako liburuen itzultzaileak hautatzeko deialdietan, jatorrizko hizkuntza erabiltzen ez den kasuetan bitarteko hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea sustatzen da. Kontrako norabidean itzulpenak egiteko ematen diren diru-laguntzen deialdian eta Etxepare-Laboral sariaren deialdian ere zuzeneko itzulpena lehenesten da, zuzenean euskaratik egiten diren itzulpenei 10 puntu gehiago esleituz. Neurri horien bitartez zuzeneko itzulpenak hobesten dira, nahiz eta ez zaien aterik ixten zeharkakoei.

²¹ Nami Kanekoren esperientziaren berri jaso liteke hari eginiko elkarrizketa batean (Manterola, 2016b) edo Pau Joan Hernándezena beste ikerlan batean (Manterola, 2012).

2.8. Itzulpen ibilbideak

Inoiz edo behin bere lanen bat autoitzuli duen autore kopurua inoiz autoitzuli ez duen idazle multzoaren bikoitza dela ikusi genuen aurreko lan batean (Manterola, 2018a: 11). Alabaina, norbere lana itzuli duen orok ez du zertan modu jarraituan hala egin. Badira modu sistematikoan autoitzultzen duten idazleak eta badira behin edo bitan besterik itzuli ez dutenak²². Datuek hala erakusten digute: gaztelaniaratze bide nagusia autoitzulpena izanagatik, itzulpen alografoen kopurua zabala da, eta autorearen eta itzultzailearen arteko kolaborazio lanak askoz ere urriagoak dira. Bestalde, alde handia dago kopurutan autoitzulpena inoiz edo behin egin duten autoreen artean eta inoiz norbere lana itzuli ez dutenen artean (Manterola, 2018b: 102). Gainera, badira idazle-itzultzaile ibilbide aldakorra izan duten idazleak, hau da, bide bat baino gehiago baliatu dutenak euren lanak gaztelaniaratzeko. Hala erakutsiko dugu jarraian hainbat adibideren bitartez.

Badira autoitzultzaile peto dei genitzakeen idazle zenbait, beren lanak bere eskuz besterik itzuli ez dituztenak. Horien artean kokatuko genituzke Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa edo Piedad Ateka, esaterako, edo Unai Elorriaga eta Itxaro Borda. Beste muturrean ditugu berariaz norbere lana itzultzeari uko egin dioten idazleak. Joxe Azurmendi, Uxue Alberdi edo Kirmen Uribe ditugu horren erakusgarri²³. Bi muturren artean, ibilbidean zehar itzulpen bide bat baino gehiago probatu dutenak ere badira.

Bernardo Atxagaren itzulpen ibilbidea aztertuta, ikusi dugu gaztelaniarako bidean itzulpen bide bat baino gehiago baliatu dituela —autoitzulpena, beste batek eginiko itzulpena berrikustea edo eskuz esku itzultzailearekin lan egitea—, eta kasu guztietan autoreak parte hartu duela itzulpen prozesuan modu batean ala bestean (Manterola, 2012). Badira beste hainbat autore ere modu batera edo bestera itzulpen bide ezberdinak probatu dituztenak. 2018an eginiko azterketa baten arabera, 7 autorek probatu dituzte identifikatutako hiru itzulpen bideak (autoitzulpena, autoitzulpena kolaborazioan eta itzulpen alografoa), beste 15 idazle autoitzuli egin dira eta beste batzuetan besteren esku utzi dituzte euren lanak, 3 idazlek bakarka zein elkarlanean autoitzuli dituzte euren lanak eta beste 2 idazlek kolaborazioan egin dute autoitzulpenik bai eta besteren esku utzi euren lanak gaztelaniaratzera (Manterola, 2018b: 102-103). Batzuen eta besteen artean bada alderik, bai lan kopuruari edo lantzen dituzten generoei dagokienez, bai itzulpen bide bakoitzean argitaraturiko lan kopuruari dagokionez: Anjel Lertxundik, Jon Arretxek eta Arantxa Urretabizkaiak autoitzulpen bakarria dute eta gainerako itzulpen guztiak bestek eginak izan dira. Hirurek espreski egin diote uko autoitzultzeari, hura lehenengoz probatu ostean. Miren Agur Meabek, aldiz, kontrako bidea egin du, kolaborazio kasu bakarria baitu, bere ibilbideko gaztelaniarako lehenengo itzulpenean hain zuzen;

²² Arazotsua izan daiteke autoitzultzaile izendapena: «The term ‘self-translator’ is potentially problematic, as it equally describes an author who has translated a single work and an author who has translated many more; it also describes those who systematically translate all their works, as well as any other author who has at some point translated a work and decided not to repeat the experience» (Manterola, 2018a: 11).

²³ Autoitzulpenari uko egin dioten idazleei buruzko honako artikulua hau irakur liteke gai horretan sakontzeko: «No a la autotraducción. Razones para renunciar a la traducción de obra propia en el contexto de las relaciones asimétricas entre el castellano y el euskera» (Arrula-Ruiz eta Manterola, 2019).

gainerako guztiak bakarka sinaturiko autoitzulpenak izan dira. Meaberren antzera, Har-kaitz Canok ere autoitzulpenak ditu bere gaztelaniarako itzulpen gehienak, baina baditu autoreak eta itzultzaileak eginiko bi itzulpen edo bestek eginiko hainbat itzulpen ere. Canoren kasuan, baina, ez dago joera kronologiko jarraiturik, baizik eta, unearren edo liburuaren arabera egin du itzulpen bide baten edo bestearren alde. Esaterako, 2013an plazaratutako *Twist* Gerardo Markuletak itzuli zuen, eta 2017an argitaraturiko *La orquesta terrestre* eta *El turista perpetuo* autoitzulpenak izan ziren. 2019an ere *La voz del Faquir* ez zuen berak itzuli, Jon Muñozek baizik, baina 2020an argitaraturiko *La consulta. Los últimos días de Santi Brouard* komikia, bai²⁴.

Idazle-itzultzaile baten ibilbide literarioak aurrera egin ahala itzulpenari eta autoitzulpenari buruzko jarrera eraldatuz eta egokituz joan liteke. Errepara diezaiogun, esaterako, Joseba Sarrionandiari. Euskal letretako idazle nagusienetako bat izanagatik, euskal literaturaren baitan betetzen duen leku kanonikoa ez dator bat kanpoan duen irudiarekin, izan ere, presentzia nahiko mugatua baitu erdaretan. 2012ra arte lan bakarra zeukan itzulia gaztelaniara (*No soy de aquí*, 1991, Bego Montoriorren eskutik), nahiz eta bazen itzulpenik beste erdara batzuetan (katalanera, alemanera eta italierara). Badirodi euskarazko eta erdaretako corpusetan dagoen aldean izan dezakeela eraginik idazlearen konpromiso politikoak, bai eta haren jarrera ideologikoak ere. Baliteke gaztelaniazko sisteman bere lanik argitaratu ez izana aukera faltagatik edo klandestinitatearen ondorioz sorturiko zailtasunak medio. Nolanahi ere, 2011n *Moroak gara behelainocean?* saiakerarekin Euskadi Saria irabazi eta gero, itzulpenak ugaltu egin dira. Gaztelaniaz topa litezke *¿Somos como moros en la niebla?* (2012), *Será colosal* (2016) eta *¿Esta muerta la poesía?* (2016) antologia; italieraz, *L'amico congelato* (2014), *Lettere ad Ainhoa* (2015), *Il tamburo e la pioggia* (2018) eta *Le ore del nord* (2018); katalanez, *Som com moros dins la boira?* (2012), *Jo no sóc d'aquí* (2014) eta *És morta la poesia?* (2018); eta antologia poetiko bana ingelesez (2019) eta galegoz (2014), baita EIZIEk argitaraturiko argitalpen eleanitz bat euskaraz, errusieraz, eslovenieraz eta lituanieraz ere (2016). Gaztelaniarako itzulpeni dagokienez, Javier Rodríguez Hidakok itzuli zuen *Moroak gara behelainocean?*, Daniel Escribanok *Kolosala izango da* eta autoreak berak, Eva Linazasoro editore zuela, *Hilda dago poesia?*. Hala, jarrera aldaketa nabarmena ikus liteke ibilbidean aurrera egin ahala²⁵.

Bestalde, idazle eta itzultzaileen arteko hainbat motatako eta mailatako elkarlanak topatu ditugu. Bi partaideen arteko harremanari erreparatuta, badira familia barruko kasuak (senar-emazteak, guraso eta seme alabak, etab.), idazlea eta editorearen arteko elkarlanak eta lagunen artekoak. Paratestuetan, formulazio ugari topa liteke, eta ez dira guztiak ere argigarriak itzulpen mota edo maila zehazteko²⁶. Sarritan, gainera, erreali-

²⁴ Canoren itzulpen ibilbideari buruzko xehetasun gehiago Manterola, 2018b-n topa liteke.

²⁵ Xehetasun gehiagorako, kontsultatu Manterola, 2018b.

²⁶ Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* poesia liburuaren gaztelaniazko bertsoan, esaterako, honako hau ageri da: «Traducción de Mari Luz Esteban con la colaboración de Eva Fernández y Miren Agur Meabe». Atxagaren azken eleberraren itzulpenean, *Casas y tumbas* (2020), «Traducción del euskera de Asun Garikano y Bernardo Atxaga» formula erabili da, aurreko lan zenbaitetan ohikoa izan dutenez. Anjel Lertxundiren *Horma* (2017) eleberraren gaztelaniazko itzulpenean

tatea ez da bat etortzen liburuek paratestuetan aitortzen dutenarekin, eta liburuaz haragoko testigantzen bitartez ezagutu ohi da elkarlanerako prozeduraren berri. Ardura legalei eta egiletza eskubideei dagokienez, ez da beti erraza izango bakoitzaren partaide-tza maila zehazki islatzea.

2.9. Itzulpenaren sustapena

Sustapena eta hedapena ezinbestekoak dira literatura bat bere hizkuntzaren mugetatik kanpo ezagutarazteko. Literatura-sistemaren biziraupenerako nahitaezkoak direla ere esan liteke, bi norabideetan egiten diren kultura-trukeek aberastu eta aldarazi egiten baitute literatura bat (Manterola, 2016a: 197).

Hizkuntza gutxituetako kultur-ekoizpena sustatzeko eta haren zabalkundea egiteko ondo hausnarturiko politikak behar dira. Sustapenari begirako bi joera identifikatu ditu Grutmanek, Belgikako errealitatea aztertzean:

On the one hand, *laissez-faire* linguistic policies, which give free reign to market forces, do not promote literary bilingualism but rather encourage writing (exclusively) in the dominant language.[...] On the other hand, policies aimed at levelling the playing field between languages encourage individuals from symbolic minorities to no longer neglect their mother tongues. (Grutman, 2017: 45)

Itzulpenari gagozkiolarik, gogoan izan behar dugu hizkuntza bati edo literatura bati prestigioa emateko tresna izan daitekeela, hain zuzen ere, beste hainbat literatur sistemarekin harremanetan jartzeko eta haiekiko parekotasuna erakusteko modua eskaintzen duelako. Hizkuntza nagusietako idazleek ez dute itzulpenaren beharrik izango aitorpena lortzeko, baina bai hizkuntza gutxituetakoek; hori dela eta, itzulpen kopuruan aldeak egongo dira batetik bestera: «translations are much less common in literary production in the United States or the United Kingdom, where they account for approximately 3% of literary production. Indeed, this low figure compares starkly with the 25% of publishing output in the Basque language» (Olaziregi, 2017: 550).

Itzulpena, beraz, tresna ezinbestekoa da literatura gutxitu baten zabalkunderako. Erdaretarako itzulpenak sortu eta ezagutaraziko badira, baina, babes bat beharko dute. Segidan, hortaz, erdaretarako itzulpena indartzeko egitasmoez mintzatuko gara, eta aipatuko ditugu bai erakunde publikoetatik egiten diren laguntza deialdiak, bai itzulpenen aitortza egiteko ematen diren sariak, bai eta prestakuntzari lotutako ekimenak ere.

Montero Küpperrek dioen moduan (2016: 53), itzulpena fenomeno sozial gisa begiratzean ezin dira bazter utzi itzulpen literarioaren sustapenera bideratutako politikak, izan erakunde publikoek edo pribatuek gauzatuak, haien bitartez finkatuko baita zer eta

honako hau esaten da: «Traducción de Jorge Giménez Bech, revisada por el autor». Idazleak eta itzul-tzaileak urte luzetako itzulpen-ibilbidea daramate elkarrekin eta lehenengo aldia izan da autorea itzulpen prozesuaren partaide gisa agertu dena. Ikus xehetasun gehiagorako Gotzon Egiak *Senex* aldizkarian biei eginiko elkarrizketa (1999) edo Manterola, 2017.

nola itzuli²⁷. Hala, politika horiek hainbat modutara eragingo dute bai jatorrizko eta bai xede kultur sistemetan. Kultura subalternoen testuinguruan, Montero Küpperren araberaren (2016: 58), arreta berezia eskaini beharko litzaieke erakunde publikoen politikei. Politika horiek mota ugariak izan daitezke eta hainbat eremutatik etorri.

Euskaratik erdaretarako norabideari erreparatuta, merkatuaren arauetatik haratago joan beharko da. Izan ere, hizkuntza nagusietako literatur sistemek ez dute eskaririk hizkuntza gutxituetan sorturiko lanak jasotzeko. Eta eskaririk ezean, kultur politika sendo eta iraunkorrek ezinbesteko izango dira hizkuntza gutxituetako literatura sustatu eta zabaltzeko. ELI katalogoaren aurreko azterketan (Manterola, 2012) dagoeneko identifikatu zen politika publikoen beharra, eta urte gutxian eman dira urratsak sustapena egonkortu eta zabaltzeko. Etxepare Euskal Institutuaren sorrera berebiziko tresna izan da²⁸. 2007an sortu bazen ere 2012tik aurrera ari da jardunean. Eta ordutik hona ekimen ugari jarri ditu abian euskal kultura atzerrian sustatzeko, tartean, euskal literatura Euskal Herritik kanpora ezagutarazteko.

Euskal Autonomi Erkidegoan badira itzulpenetarako laguntzak, bai beste hainbat hizkuntzarako lanak euskaraz argitaratzeko²⁹, bai erdaretarako itzulpenak egiteko. Eusko Jaurlaritzak eta EIEk 2000. urtean sinatutako hitzarmen bati esker jarri ziren martxan euskal literatura kanporatzeko laguntzak. 2011 arteko deialdiak Kultura Sailak egin zituen eta 2012tik aurrerakoak Etxepare Euskal Institutuak. Laguntza horien xedea honako hau da: jatorriz euskaraz idatzi eta argitaraturiko literatura-obra edozein hizkuntzatarantz itzultzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan errolatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura-obra euskara ez den beste edozein hizkuntzatarantz itzultzea³⁰ (EHAA, 2019).

Moldaketak izan ditu deialdiak urteen joanean, hasierakoetan barnean biltzen baitziren liburuak itzultzeko laguntzez gain nazioarteko merkatuetan itzulpen-eskubideak saltzera bideratutako literatura-lanen laginen itzulpenak, literatura-itzulpenaren eremuan prestakuntza-jarduerak antolatzea eta jadanik itzulita dauden literatura lanak nazioartean ezagutarazteko bidaia-poltsak. Gaur egun, laguntza-mota bakoitzerako deialdi bana egiten da. Liburuak erdaratzera bideratutako zenbatekoa ere aldatuz joan da urtez urte. 2007an, esaterako, 82.000 euro bideratu ziren liburuak itzultzera, baina krisiaren ondorioz, erdia baino gehiago murriztu zen emaniko laguntza eta 2013-2019 bitartean

²⁷ Honela dio Montero Küpperrek itzulpen politiken inguruan: «Un cometido importante de las políticas de traducción es encaminar las estrategias de publicación de traducciones, con el fin de que las traducciones aporten un beneficio simbólico, económico o estético a la sociedad por cuyos valores velan» (2016: 71).

²⁸ Europako herrialde ugarietan dute kultur ekoizpena atzerrian sustatzeko antzerako erakunderen bat.

²⁹ Euskararako itzulpen laguntzak literatura-argitalpenetarako diru-laguntza orokorren barruan sartzen dira.

³⁰ Montero Küpperren iritziz, bitxia suertatzen da hizkuntza propioa duten beste erkidego batzuen ikuspegitik euskarazko zein gaztelaniazko lanak izatea kontuan (2016: 68), haietan hizkuntza propioko testuak besterik ez baitira laguntzen.

39.000 euro bideratu dira urtero helburu horretara. Itzuliriko liburu kopurua ere aldatuz joan da: urtean 14-36 liburu bitartean zenbatu ditugu. Euskarazko liburuak izan dira batik bat itzuli direnak, baina izan da laguntza jaso duen gaztelaniazko libururen bat edo beste ia urtero, adibidez, 2010ean 36 liburutatik 4, 2015ean 16tik bi edo 2019an 13tik bat. Xede hizkuntza kopurua eta bakoitzean jaso den liburu kopurua ere aldakorra izan da, urtean 3-11 hizkuntza bitartean³¹. Nabarmentzekoa da gaztelaniaren presentzia zabaldua xede hizkuntza gisa. Hala, 2006an itzultitako euskarazko 18 lanetatik 13 gaztelaniara itzuli ziren, 2009an itzultitako 16 lanetatik 12, 2013an 14 lanetatik 4, 2017an 15etik 5 eta 2019an 13tik 7. Proporzioak urtez urte aldatu arren, itzulpen gehien jaso duen hizkuntza da, urte guztietako itzulpenak kontuan izanda. Sarritan, Euskal Herriko bertako argitaletxeek plazaratu dituzte, eta gure mugetatik kanpora zabalkunde mugatua izan dute. Azken edizioetako ebazpenak aztertuta, nekez jakin liteke euskal literatura kanpoan ezaugarazteko helburua bete ote den. Zilegi begi pentsatzea Euskal Herrian bertan argitaraturiko lanek eta kanpoan argitaratzen direnek helburu ezberdinak izango dituztela.

Espainia mailan, Kultura eta Kirol Ministerioak atzerriko hizkuntzetarako itzulpena sustatzeko laguntzak ematen ditu urtero, gaztelaniaz zein estatuko hizkuntza koofizialtan sorturiko lanentzat. Helburu horretara bideratutako diru kopuruak gorabeherak izan ditu azken urteetan³², krisi ekonomikoaren ondorioz jaitsi ostean berriro ere igotzen hasi da. Laguntza horiez gain, 1986-2012 epealdian abian izan ziren estatuko hizkuntza koofizialetatik gaztelaniara itzultzeko laguntzak, 1991tik aurrera estatuko hizkuntza koofizialen arteko itzulpenetarako laguntza bihurtu zirenak.

Montero Küpperren iritziz (2016: 71), espainiar estatuak abian dituen itzulpen politikarako estrategiak kapitala metatzera bideratuta daude, eta kapital sinbolikoa metatzea gailentzen da hizkuntza koofiziala duten erkidegoetan. Espainiako itzulpen politikek ez dute zehazten itzulpena deskubritzeko baliatzea. Oro har, laguntzak egon badaude ere literatura estatuko hizkuntzetan argitaratzeko eta hizkuntza horien arteko itzulpena sustatzeko, hizkuntza koofizialetako literatura atzerriko hizkuntzetara itzultzea eta nazioartekotzea ez du bere gain hartzen. «Opinamos que la política cultural estatal en este ámbito se caracteriza por una omisión no solo de estrategias traductivas fundamentales (traducir desde el TO, indicar las fuentes, seleccionar textos más variados según el género, etc.) sino también por una falta de apoyo que revalorice cada una de las culturas dentro y fuera del Estado» (Montero Küpper, 2016: 71). Ondorioz, espainiar estatua ez da erakusten estatu kulturantz gisara.

Frantziako estatuan ere badira itzulpenetara bideratutako laguntzak. Badira Frantzian sorturiko lanak atzerriko hizkuntzetara itzultzeko laguntzak eta baita atzerriko lanak frantsesera itzultzeko laguntzak ere. Argitaletxei bideratutako laguntzak dira biak ala

³¹ Xede hizkuntzak aztertzean kontuan izan dugu bakar-bakarrik euskarazko jatorrizkoak jaso dituztenak.

³² Montero Küpperren hitzetan «se trata de un apoyo económico, que a partir de 2012 se ha visto reducido pasando de aproximadamente 850.000 € a 300.000 € y en 2015 incluso a 250.000 €» (2016: 65-66). 2019an 400.000 eurokoa izan da (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2019).

biak ere, eta Frantzia sorturiko lanak itzultzeko edo Frantziako hizkuntza batean argitaratzeko lanak bultzatuko dira, izan frantsesez edo Frantziako hizkuntza batean³³.

Bestalde, Europar Batasunaren baitan ere badira literatur itzulpena sustatzeko laguntzak. Europe Creative izeneko programaren barruan, esaterako, Europako literaturaren itzulpena eta zabalkundea sustatzen da. Argitaletxeei finantzazioa eskaintzen zaie Europako hizkuntzen³⁴ arteko itzulpenak sustatzeko. Bereziki azpimarratzen da zabalkunde mugatua duten hizkuntzetatik ingeleserako, frantseserako, alemanerako edo gaztelaniarako itzulpena, ikusgarritasuna lortuko baitute hala itzulpenek bai European eta bai Europatik kanpo³⁵.

Itzulpen sariei dagokienez, nabarmentzekoa da 2015ean Etxepare Euskal Institutuak eta Laborak Kutxak abian jarritako Etxepare-Laboral itzulpen saria, jatorriz euskaraz idatzitako literatura-lanen itzulpenak saritzeko. Saria itzultzailearen eta argitaletxearen artean banatzen da eta euskal lanen zabalkundea sustatzeko modua ematen du. Orain arteko bost edizioetan idazle kontsokratuen lanak itzuli dira (Sarrionandia, Atxaga, Uribe eta Aresti) galizierara (Isaac Xubín), ukrainerara (Yaroslav Gubarev), japonierara (Nami Kaneko), ingelesera (Amaia Gabantxo) eta katalanera (Ainara Munt).

Espainia mailan kanporako itzulpen saririk ez dago egun, ez hizkuntzaka bereizita ezta estatu barruko itzulpenak sustatzen dituenik. 1980-1984 artean abian izan ziren Premio Nacional de Traducción entre Lenguas Españolas eta Premio Nacional de Fomento de la Traducción de Autores Españoles a otros idiomas. 1978-1993 bitartean, bestalde, Premio Nacional de Traducción de Libros Infantiles y Juveniles ere abian izan zen. Franciren iritziz (2016: 131), Itzulpen Sari Nazionalaren bi modalitateak (urteko libururik onena eta itzulpengintzari eskainiriko bizi osoko ibilbidearena³⁶) mantentzera mugatu da Administrazioa. Izan ere, horien bitartez ez da sustatzen euskaratik estatuko hizkuntzetarako itzulpenik³⁷.

Euskal lanen itzulpenek jaso izan dute saririk nazioartean, eta horiek oso lagungarriak izan dira itzulpenon zabalkunderako. Nami Kanekok 2015eko Japoniako Itzulpen

³³ Hona hemen bi laguntzei buruzko informazio xeheagoa kontsultatzeko estekak: <https://les-aides.fr/fiche/bZZmAX1G2e3B/cnl/edition-aide-a-la-traduction-d-ouvrages-francais-en-langues-etrangeres-extraduction.html> eta <https://les-aides.fr/fiche/bZZmD39G2e3B/cnl/edition-aide-a-la-traduction-en-francais-d-ouvrages-etrangers-intraduction.html> [Kontsulta data 2020/04/24].

³⁴ Europako hizkuntza gisa ulertzen dira Europako herrialde batean ofizial gisa onartuak direnak.

³⁵ Honako esteka honetan topa liteke informazio xeheagoa: https://eacea.ec.europa.eu/creative-europe/actions/culture/creative-europe-culture-literary-translation_en [Kontsulta data 2020/04/24].

³⁶ 2013an Josu Zabaletari eman zioten sari hori, orain arte, euskal itzultzaile batek sari hori jaso duen aldi bakarra.

³⁷ 2016an Luis Baraiazarrari eman zioten behin behinean Itzulpen Sari Nazionala Santa Teresa Jesusenaren lan nagusiak euskaratzeagatik. Alabaina, Kultura Ministerioak sariaren berri eman eta gutxira baliogabetu zuen, sariaren oinarriak bete ez zirela argudiatuta. Antza, itzulpenak atzerriko hizkuntza batetik egin behar du eta ezin da estatuko beste hizkuntza batetik eginiko itzulpenik saritu.

Onenaren saria eskuratu zuen, Kirmen Uriberen *Musscheren* japonierarako itzulpenari esker. Kanekoren hitzetan, Japonian izugarrizko garrantzia ematen diete itzultzaileei eta haien lanei, bai irakurleek, bai kritikariek (Manterola, 2016b: 2). Halako sari bat, hortaz, zabalkundeari begira oso lagungarria da. Margaret Jull Costak ere irabazi du saririk Atxagaren ingeleserako itzulpenekin. *Soinujoleren semea* eleberria gaztelaniatik ingelesera itzulita Valle-Inclán eta TLS itzulpen sariak irabazi zituen 2009an, eta 2012an finalista izan zen *Zazpi etxe Frantzia* liburuaren itzulpenagatik.

Itzulpen sariez gain, beste hainbat motatako literatur-sariak jasotzeak ere laguntzen du bai itzulpenak sustatzen, bai horien zabalkundean ere. Euskadi Saria irabaztean, sariak berak ematen duen sonaz aparte, idazleek laguntza gehigarri bat jaso dezakete euren lana beste hizkuntza batera itzultzeko. Bestalde, Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi duten euskal autoreei haien lana hainbat hizkuntzatarara itzultzeko bidea ireki zaie, hala nola Bernardo Atxagari, Unai Elorriagari edo Kirmen Uriberi. Espainiako Sari Nazionalaren beste kategoria batzuetan ere irabazle suertatu dira beste euskal idazle batzuk: Mariasun Landa eta Juan Kruz Igerabide haur eta gazte literaturan eta Anjel Lertxundi saiakeran, baita Bernardo Atxaga ere Espainiako Letren Sari Nazionalan. Beste hainbat saririk ere, autoreak eta haien lanak xede kulturetan ezagutarazteko modua egin dute. Esaterako, Italiako Grinzane Cavour sari ospetsua eman zioten *Soinujolearen semea* eleberriagatik.

Saririk jaso ez baina finalista izatea edo aipamen bereziren bat jasotzea ere bultzada bat izan daiteke zabalkunderako: Bernardo Atxagaren *Nevadako Egunak* Estatu Batuetan argitaratutako bost itzulpen-lan onenen artean aukeratu zuten 2018an PEN America sarietan. Mariasun Landari dagokionez, bestalde, *Iholdi* ipuina (1992) eta *Krokodriloa ohe azpian* (2006) IBBYko Ohorezko Zerrendan sartu ziren eta *Elefante txori-bihotza* liburua (2001) Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegi famatuaren White Raven zerrendan.

Sari eta izendapenok lagungarriak dira idazleak eta haien lana ezagutarazteko. Xede kulturean ematen den sariak kultura horretako zabalkundea bultzatuko du. Jatorrizko kulturean ematen denak, aldiz, jatorrizko kulturen errekonozimendua emateaz gain beste hainbat literaturen arreta pizteko ere balio dezake. Jatorrizkotasunari edo bitartekotasunari buruz zer pentsatua ematen du sarien eragina aztertzeak. Izan ere, idazle edo lan batek euskal sisteman izan dezakeen aitorpenaz gain, berebizikoa bihurtzen da espainiar sistemaren aitortza esportazioari begira. Euskadi Sariak baino bultzada handiagoa eman ohi du, zentzu horretan, Espainiako Sari Nazionalak. Orain artekoari begira, Euskadi Saria ez da hain tresna eraginkorra izan saritutako lanak eta idazleak atzerrian ezagutarazteko, ez behintzat, Sari Nazionalaren neurri eta erritmo berean.

Zabalkundeari eta hedapenari begirako laguntza eta politikez gain, itzultzaileen prestakuntza ere ezinbestekoa da literatur trukeak sustatzeko estrategia modura. Horretarako baliabide eta ahalegin handiak erabili behar dira (Manterola, 2016a: 198). Euskaratik itzultzeko gai den itzultzaile profesional gutxi dago, eta askotan itzultzaile amateurak dira euskal lanak beren ama-hizkuntzara eramaten dituztenak, edo are euskal itzultzaileek itzultzen dute euskal lan bat beren beste hizkuntzara, alderantzizko norabidean. Nolanahi ere, prestakuntza funtsezkoa da itzulpen horiek behar bezalako baldintzetan egin daitezen eta kalitatezko lanak izan daitezen.

Euskal literatur itzulpena eta itzultzaileen trebakuntza sustatzeko ekimen interesgarrien artean itzulpen-programak aipatu behar dira ezinbestean. Batetik, EIZIEk antolaturiko *Idazlea itzultzailearen lantegian* itzulpen-lantegia, 2004-2014 epealdian urtero egin zena formatu bera mantenduz: idazle gonbidatu bat, eta haren lanaren lagin bat itzuliko duen itzultzaile taldea, bakoitzak xede hizkuntza batera lan eginez. Urtez urte, lantegiak emaniko emaitza *Senex* aldizkariaren ale monografiko batean argitaratu izan da, paperean, 2011ko ekitaldira arte. 2012koa, Etxeparek diruz lagunduriko lehenengoa, Institutuak berak argitaratu zuen paperean; aldiz, azken hiru edizioetako lanak argitalpen elektronikoak izan dira³⁸. Horretaz gain, ekimenak balio izan du zenbait kasutan lantegian landuriko testu-laginari tiraka argitalpen osatuago bat lantzeko. Halaxe izan da *Erraiak* eleberriaren kasuan: 2014ko edizioan eleberriaren lehen atala itzuli zuten hiru itzultzailek gaztelaniara, katalanera eta frantsesera. Lantegian parte hartu zuen Miren Iriartek eleberria osorik gaztelaniaratu zuen gerora, eta 2019an argitaratu zen, Reikiavik argitaletxean.

Idazlea itzultzailearen lantegian egitasmoak formatu desberdina izan zuen 2016an, *Itzultzaile berriak* programaren baitan kokatu baitzen. DSS2016 Fundazioak eta Etxepare Euskal Institutuak elkarrekin sustatu zuten programa hura, eta EIZIE bidelagun izan zuten programa gauzatzeko. Egitasmoaren helburu nagusia euskal literatura atzerrian ezagutaraztea izan zen, eta, horretarako, nazioarteko literatur itzultzaileak euskaraz trebatzean jarri zen azpimarra. Hainbat ama hizkuntzatako eta herrialdetako itzultzaileak etorri ziren Euskal Herrira, euskara ikasi eta euskal autoreen lanak euren hizkuntzetara itzultzeko: lauk hilabeteko egonaldia egin zuten eta beste lauk sei hilabetekoa. Egonaldi horien helburua beren itzulpenetan euskara ere zubi nahiz sorburu hizkuntza gisa erabili ahal izateko hizkuntza gaitasuna lortzea zen. Egonaldi luzea egin zutenek itzulpen bat argitaratzeko diru-laguntza jaso zuten, eta horri esker plazaratu dira Arantxa Urretabizkaiaren lana bulgariaraz, Maria Páchkovaren eskutik; Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* poloniaraz, Katarzyna Sosnowskaren eskutik eta Bernardo Atxagaren Xolaren liburuak esloveniaraz, Barbara Pregeljen eskutik.

Gainera, azpimarratzekoa da horien ondorenean ere itzultzaile berriek euskal idazleen lanak itzultzen jarraitu izana. Esaterako, Maria Páchkovak Katixa Agirrerren *Atertu arte itxaron* bulgariarara itzuli du (2019) eta Barbara Pregeljek Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (2018). Bide emankorra izan liteke, hortaz, *Itzultzaile berriak* programa euskal literatura atzerrian sustatzeko. Hori hala izanik, 2020an programaren bigarren edizio bat deitu da, oraingo honetan, baina, ekimena xumeagoa da, bi itzultzaileentzako laguntza aurreikusi baita. Edizio berri honetan, Quebecoko, edo orokorrean, frankofoniako bi itzultzaile euskara irakatsiko zaie euskal literatura sustatzeko, hain zuzen ere, Etxepareren 2020ko helburua baita Quebecen eta Euskal Herriaren arteko hartu-emana indartzea³⁹. Ekimenean parte hartuko duten bi itzultzaileek aurretik euskara ezagutza izan behar dute eta mentoretza baten bidez ezagutza horretan sakonduko dute testuak

³⁸ Honako esteka honetan eskura litezke guztiak: https://eizie.eus/eu/jarduerak/idazlea_eta_itzultzaileak [Kontsulta data 2020/03/30].

³⁹ Covid-19 gaitzaren pandemiaren ondorioz, ekimena urtebetez atzeratu da eta 2021ean gauzatu da.

euskaratik itzultzen trebatzeko; bi itzultzaileetako batek, gainera, hilabeteko egonaldia egingo du Euskal Herrian, euskarazko eskolak jasotzeko eta euskal literaturara hurbiltzen jarraitzeko.

Itzulpenak egin eta zabaltzeko beste bide emankor bat literatur-trukeak sustatzea da, eta kultur harremanak sendotzea ezinbestekoa da horretarako. Etxepare Euskal Institutuak estrategia berria jarri zuen abian 2019an herrialde bat hautatuta maila eta mota ugaritako elkarlana eta elkartrukea sustatzeko, bi herrialdeetako artisten eta kultur ekitaldien arteko zubiak eraikiz. Hala, Scotland goes Basque izeneko programa gauzatu zuen 2019an. Haren bitartez, institutuaren urte hartako jardunaren jomuga nagusietako bat Eskozia izan zen. 2020an antzerako egitasmoa gauzatzeko asmoa du Euskadi eta Quebecen arteko elkartrukea bultzatzeko⁴⁰.

Aipatu literatur truke horien antzerako beste ekimen batzuk ere gauzatu dira⁴¹, modu askoz ere xumeagoan bada ere. 2015 urtean Etxepare Euskal Institutuak eta Institució de les Lletres Catalanes (ILC) erakundeak Katalunian antolaturiko poesia itzulpenaren mintegia, Tere Irastorza eta Karlos Linazasoro izan ziren poeta eta itzultzaile katalanekin⁴².

Itzulpen mintegiek, topaketek zein lantegiek euskal literatura beste hainbat hizkuntzatan sustatzen dute, eta horretaz aparte trebakuntzarako ezinbesteko tresnak dira. Izan ere, itzulpengintzako formakuntza arauturik ez denez euskara jatorrizko hizkuntza gisa lantzen duenik, hutsune hori betetzen dute neurri batean behintzat. Horien bitartez, gainera, berebiziko ikasbidea eta harreman-sarea sortzen da eta literatur eztabaida pizteko balio dute. Hala, itzultzaileak xede kulturaren beteko duen euskal literaturaren enbaxadore rola indartzen lagun dezakete. Euskaratik erdarara zuzenean itzultzeko gai diren itzultzaileek editoreei ezezagunak izango zaizkien idazleen lanak itzultzeko proposamena egingo diete sarritan. Argitaletxeekin eta editoreekin zuzeneko harremana izatea eskatzen du horrek, eta editore lana egitea ere bai, hein batean⁴³.

Ekarpen honetan ez dugu itzultzaileei buruzko atal beregainik eskaini, luze joko baiduke haien inguruko azterketak. Baina, aurreko paragrafoan aipatu dugunez, xede kulturaren ikuspegitik arrotz eta ulertezin den kultura gutxitu bateko lan bat itzultzeko ezinbesteko elementuak dira itzultzaileak. Sarritan, haiek dira literatur agenteak, haiek hautatzen dute itzulgaia, haiek ematen dute laguntzen berri, komunikazio eta zubigintza lanak egiten dituzte, baita beste zeregin asko ere.

⁴⁰ 2020ko udaberrian hasita Covid 19 gaitzaren pandemiak izaniko eragina dela eta, ikusi egin behar zer gertatzen den abian diren egitasmo eta ekimen konkretuekin.

⁴¹ Ez ditugu hona ekarri itzulpen-trukeez haratago doazen literatur ekimenak, esaterako, Galeusca topaketak.

⁴² Itzulpen mintegi haren pareko bat egin zuten hilabete batzuk beranduago Euskal Herrian. Kasu horretan, katalanez idazten duten bi poeta (Esteve Plantada eta Gràcia Jiménez) hainbat euskal idazle eta itzultzaileekin aritu ziren lanean.

⁴³ Ikus, esaterako, Nami Kanekok Japonian Uriberen lana ezagutarazteko urratsei buruz aipaturiko xehetasunak Manterola 2016b-n.

Itzulpenen sustapenari eta zabalkundeari begirako atal hau amaitzeko literatur agenteak aipatu nahi ditugu. Euskal literatur sisteman oso idazle gutxi eduki izan dute agente bat. Idazkuntzatik bizi den idazle kopuru urria tarteko, literatur agenteak ere ez dira ohikoak izan. Liburuen eskubideen salmentan jarduten dira besteak beste literatur agenteak, eta azken aldian ikus liteke nola haien lana eraginkorra den kanporako merkaturatan zabaltzeko. Erreferentziazko autore zenbaitek badute literatur agentea, konparazio batera, Bernardo Atxagak eta Mariasun Landak Ute Körner, Kirmen Uribe Pontas, Karmele Jaiok, Katixa Agirrek zein Hasier Larretxeak Ella Sher, eta Unai Elorriagak Martin. Lehenengo hiru agentziak Bartzelonan kokatuta daude eta azkena Frankfurt, Alemanian. Horrek erakusten du literatur agentearen figura ez dagoela guztiz garatuta eta zabalduta Euskal Herrian.

3. Azken hausnarketak

Euskal literaturaren itzulpenari buruzko gogoeta egitea izan da honako artikulua honen helburua. Aurrez argitaraturiko ekarpenak kontuan izanda eta datu eguneratuak aztertuta saiatu gara azken urteetako joerei erreparatu eta euskaratiko itzulpenaren ikuspegi osatzen.

Azterketak erakutsi duenez, erdaretarako literatur itzulpenak gorantz jarraitzen du, nahiz eta motelaldirik nabaritu den. Lehenengoa, 2008an hasitako krisi ekonomikoaren ondorioz, 2010eko hamarkadan zehar islatu dena. 2020ko pandemiaren ondorioz, ikusi egin beharko da zer garapen duen literatur itzulpenen ekoizpenak hementik aurrera.

Bildutako datuak aurreko azterketen emaitzekin alderatuta ikusi dugu badirela antzera jarraitzen duten zenbait alderdi. Esaterako, erdaratutako autoreen zerrenda ugaltzen doa urtez urte, eta itzuliriko jatorrizko kopurua ere bai, baita xede hizkuntza kopurua ere. Eta oraindik orain Atxaga dugu euskaratik gehien itzuli den autorea, eta haren lanen itzulpenek gorantz jarraitzen dute. Generoei dagokien ere, HGL da nagusi itzulpen kopurutan, eta segidan narratiba lanak itzultzen dira gehien. Xede hizkuntzei dagokien ere, gaztelaniak jarraitzen du xede hizkuntza nagusi izaten eta estatuko gainerako hizkuntzak ere lan kopuru nabarmena jasotzen dute.

Joera aldaketa batzuk identifikatu ditugu, bestalde. Argitalpenei dagokien ere, konparazio batera, paperezko ohiko liburuez gain gero eta gehiago dira liburu elektronikoak eskaintzen dituzten argitaletxeak, eta bada bertsio elektronikoan soilik argitaraturiko libururik ere, merkatuaren joera berrien erakusle. Ikusi egin behar, liburu elektronikoaren hedapena paperezkoenaren parekoa ote den.

Horretaz gain, Euskal Herriko bertako argitaletxeek argitaraturiko itzulpen kopurua nahiko zabala da —gaztelaniarako, frantseserako eta ingeleserako itzulpenetan batetik bat— eta horrek erakusten du erdaretarako itzulpenaz hitz egiteak ez duela nahitaez gure mugetatik kanpo ezagutaraztea esan nahi. Hau da, itzulpena ez dela zabalkundearen edo atzerriratzearen sinonimo.

Bestalde, gaztelaniarako produkzioa handia da, eta produkzio horren zati nabarmen bat euskal argitaletxeen eskutik plazaratzen da. Aztertu beharko litzateke ea liburu horien zabalkundea Euskal Herriko mugen barruan besterik ez ote den egiten ala estaturako jauzia egiten ote duten irakurlego zabalago batengana heltzeko.

Itzulpen bideetan ikus liteke garapenik. Gaztelaniarako itzulpenei dagokienez autoitzulpenak bere bidea egiten jarraitzen du, eta, ikusi dugunez, itzulpen alografoari gailendu zaio azken urteetan. Dena den, hausnartzeko modukoa da autoitzulpenaren eta itzulpen alografoaren artean generoka dagoen aldea. Bestalde, zenbait kolaborazio kasu ere topatu da. Elkarlan mota ezberdinak ageriko egiten ari dira paratestuetan, eta horrek ikusgarritasuna ematen dio jarduerari.

Azken boladan, gero eta gehiago dira euskaratik zuzenean itzuliriko liburuak, edo behintzat, gehiagotan aitortzen dute itzulpenek paratestuetan euskaratik zuzenean eginak izan direla, datu-bilketak erakutsi digunez. Zuzenekoaren aldeko ahotsak gero eta ozenago entzun badaitezke ere, horretarako egoera aproposa lortzea ezinbestekoa da, eta ez da hain erraza zuzeneko harremanak bideratzea zabalkunde mugatua duen hizkuntza batentzat. Behar-beharrezkoa da itzultzaileen trebakuntza horretarako, gorago aipatu dugun moduan. Eta prestakuntza arauturik ezean, beste bide batzuetatik bultzatu beharko da erdaretarako itzultzaileen trebakuntza. Formaziorik ezean, zeharkako itzulpenak egiten jarraitu beharko da. Jakin badakigu gero eta gehiago dira euskara ikasi eta euskaratik itzultzeko gai diren itzultzaileak. Dena den, ezin ahaztu euskara ikasten duten itzultzaileek gaztelania maila handia izan ohi dutela eta sarritan gaztelaniaren bitartez heltzen direla euskarara. Horrek esan nahi du, itzulpena euskaratik abiatuta ere, gaztelaniazko bertsioa laguntza baliotsua izango dutela, izan kontsulta material soil gisa, izan jatorrizko testuaren maila berean erabiltzeko edo hura itzalpean utzi eta iturri nagusi gisa erabiltzeko⁴⁴. Kanekok aipatzen duenez, garrantzitsua da gaztelaniazko bertsioa ahalik eta egokiena izatea, zabalkunderako tresna garrantzitsua izango da eta. Hona hemen hark emandako azalpenak:

[...] euskarazko testua jatorrizkoa izanik ere ezin dugula gaztelaniara egindako itzulpena guztiz arbuiatu, arrazoi askorengatik, baita idazlea autoitzultzailea ez den ere: Espainiako literatur sistema nagusi delako, gaztelaniazko bertsioa beste hizkuntza askotarako itzulpenen iturburu testu bilakatzen delako, Espainian izandako harremerak pisua duelako beste hizkuntzetara itzultzeko erabaketan... Edo, aipatu bezala, itzultzailearen beraren ezagutza eta hizkuntza gaitasunagatik: ze, jakina, kontuan hartuta gaztelaniaren bitartez hurbildu ohi garela euskal literaturara, hasieran, gaztelaniaz gehiago eta hobeto irakurtzen dugu guztiok, eta gaztelaniazko testuaren mende gaude, modu batean edo bestean. Gainera, pentsa, hizkuntza askotan ez daukagu euskarazko hitzak zuzenean kontsultatzeko hiztegiak ere, eta, hizkuntza gutxi horien artean ere, gaztelaniazkoak hobeak dira. Orduan, gaztelania beti hor dago, itzulpen prozesu osoan zehar. Gero, itzultzaile bakoitza euskararen ezagutza sakonduz joan ahala, aldatuz joango da dependentzia harreman hori. Baina, aldatuta ere, oso naturala da gaztelaniazkoa ere kontsultatzea itzulpen prozesuan, ongi asko ezagutzen dugun hizkuntza

⁴⁴ Gaztelaniazko bertsioaren garrantziaz ohartarazten du Nami Kanekok *Senex* aldizkarian eginiko elkarrizketan (Manterola, 2016). Horretaz gain, Manterola (2020) lanean ere ematen da horren berri.

izaki; eta, itzultzaile eleaniztun garen neurrian, esango nuke guztiz zilegi dela eskura dauzkagun bertzio guztiak baliatzea. (Manterola, 2016b: 24)

Hausnarketa hori irakurrita, galdera sor liteke zuzenean eginiko itzulpenik izango ote den ala gaztelaniaren bitartekaritza ezinbesteko ote den hirugarren hizkuntzetarako bidean. Edo, gorago aipatu dugun moduan, euskarazko eta gaztelaniazko testuak bi-biak erabiltzea ote dagokion itzultzaileari hirugarren hizkuntzetara heltzeko. Azken batean, 1:1eko harremanetatik haratago doaz hizkuntza gutxitu baten testuinguruan egiten diren literatura trukeak. Gaztelaniazko bertzioak hartzen duen pisua ikusirik, bai xede testu gisa bai zubi gisa beste irakurle batzuegana heltzeko, garrantzitsua izango da bertzio hori ahalik eta baldintza egokienetan sortzea eta modurik aproposenean argitaratzea.

Bestalde, ikusi dugu patrozinoa berebiziko elementua dela hizkuntza gutxitu eta diglosikoetan sorturiko literatura sustatu eta hedatzeko. Laguntza jatorrizko kulturatik etor daiteke, edo xede zein zubi kulturetatik. Berariazko eskaerarik ezean, jatorrizko kultura izan ohi da sustapena egiten duena. Gurearen moduko kulturetan, baina, jatorrizko kulturaz gain, bitarteko kulturak ere garrantzia hartzen du hirugarren hizkuntzetarako zabalkundea bultzatzerakoan. Horren erakusle dugu gaztelaniaren bitartekaritza zubi hizkuntza gisa, ez bakarrik itzulpenak egiteko, baita autoreak eta euren lanak xede kulturetan ezagutarazteko ere.

Aurkeztutako azterketa kuantitatiboetan azaldu den bezala, euskal literatur sistemak harreman estua du Espainiako sistemarekin, harreman asimetrikoa hain zuzen ere. Horregatik, sistema horretako erakundeen eskutik datorrenean euskal autore eta lanen babesa, hirugarren hizkuntzetarako tranpolin gisa balia daiteke. Euskal autore batek Espainiako sari bat jasotzen badu, sistema horren mendeko elementu bihurtzen du, euskal jatorrizkoaren kalterako. Horregatik, kontuz ibili behar da, autore edo lan bat sistema hegemonikoaren itzalpean gera ez dadin, eta, hartara, jatorrizko identitatea gal ez dezan. Lehen ere aipatu dugu nola lagundu duen Narratiba Sari Nazionalak Atxagaren, Elorriagaren eta Uriberen lanen esportazioan, baina sakonki aztertzea komeniko litzateke haien lanen harrera zer nolakoa izan den. Nolabait, autore elebidunak bi sistematan kokatzen dira autore propio gisa, eta horrek identifikazio argi bat izatea zailtzen du. «Autoreak bi sistemen barruan kokatzen diren momentutik, eta bigarren sisteman hartzen duten posizioak lehenengo sisteman eragina duenez gero, sistema ez da guztiz autonomia izango» (Manterola, 2012: 514). Ondorioz, euskal literatura Espainiako sistema zentralaren mendekoa da hein batean. Eta handik jasotzen dituen laguntzak eta babesak mende-kotasun-harremani forma ematen diete.

Jatorrizko kulturatik egiten den patrozinioari buruz hausnartzea komeniko litzateke, orain arte eman diren urratsak baloratzeko eta etorkizunekoak finkatzeko. Erdarretarako itzulpenetarako Etxepare Euskal Institutuak ematen dituen laguntzen onuradun asko Euskal Herrian kokatutako argitaletxeak izaten dira, gaztelaniarako itzulpenak argitaratzen dituztenak. Euskal Herrian bertan edo kanpoan argitaratu gauza bera ez dela pentsa liteke, helburuak ez dira berdinak izango ez eta xede irakurlea. Ondorioz, diru-laguntzak emateko helburua zein den ongi definitu beharko litzateke, zer itzulpen mota sustatu, zein hizkuntzetara eta zein irakurlegoentzat hausnartuta lan ildoak garatzeko. Deialdia bera birpentsatzea egokia izan liteke etorkizunera begira. Bi modali-

tate ere planteaz litezke: batetik, euskal lanek Euskal Herrian zabalkundea lortzeko gaztelaniazko zein frantsesezko itzulpenak eta argitalpenak sustatzea bertako argitaletxeen bitartez eta, bestetik, Euskal Herritik kanporako argitalpenen zabalkundea sustatzea kanpoko argitaletxeen eskutik. Dena den, muga lausoak izango dira bien artean eta laguntza sistemari buruzko hausnarketa sakona beharko litzateke.

Aurrera begira gogoeta egiteko zenbait gako aipa litezke amaitzeko. Esaterako, bisibilizazioak ekarriko du nazioartekotzea: euskal literatura ikusgarri egitea ezinbestekoa da itzulpenak sustatu eta nazioartean ezagutarazteko. Hala ere, kanpora begira egiten denak badu oihartzunik euskal literaturaren beraren barnean ere, beste hizkuntzetarako itzulpenak geure buruarekiko dugun kontzientzian eragina baitu. Hortaz, kanporako egiten den itzulpenak barne merkatua ere indartzen du. Bestalde, komeni da pentsatzea norengana iritsi nahi dugun, izan ere, itzulpenari eta zabalkundeari begira eman beharreko urratsak diseinatzen lagunduko baitu horrek.

Ikusiko da etorkizunak zer ekarriko duen. 2020ko hamarkada motel hasiko da, 2010ekoa hasi bezala, krisi betean. Ekonomia krisiak eraginikoa izan zen ordukoa, pandemia batek ekarria honako hau. Denborak erakutsiko du liburugintzaren eta literaturgintzaren sektoreak nola eragingo dituen, eta euskaratik erdaretarako itzulpenak zer garapen izango ote duen.

Bibliografia

- ACE Traductores (2017). *Informe del valor económico de la traducción editorial*, Madril. URL: <https://ace-traductores.org/wp-content/uploads/Informe-del-valor-econ%C3%B3mico-de-la-traducci%C3%B3n-editorial-1.pdf> [Kontsulta data 2020/03/30].
- Arrula-Ruiz, Garazi (2018). «Autoitzulpenaren teoria eta praktika. Euskaratik erdaratutako literatura-lanak oinarri hartuta». UPV/EHU. URL: <https://addi.ehu.es/handle/10810/27983> [Kontsulta data 2020/03/13].
- Arrula-Ruiz, Garazi eta Manterola Agirrezabalaga, Elizabete (2019). «No a la autotraducción. Razones para renunciar a la traducción de obra propia en el contexto de las relaciones asimétricas entre el castellano y el euskera», in Lila Bujaldón de Esteves *et al.* (ed.), *Literary Self-Translation in Hispanophone Contexts - La autotraducción literaria en contextos de habla hispana, Translation History*, London: Palgrave-Macmillan, 241-265.
- Comellas, Pere (2016). «La traducción literaria en el ámbito catalán (y un apunte sobre el aranés)», in Iolanda Galanes, Ana Luna, Silvia Montero eta Áurea Fernández (ed.), *La traducción literaria. Nuevas investigaciones*. Granada: Comares, 133-151.
- Dasilva, Xosé Manuel (2016). «En torno al concepto de semiautotraducción», *Quaderns. Revista de traducció*, 23, 15-35.
- Egia, Gotzon (1999). «Anjel Lertxundi eta Jorge Giménez Bech: idazlea eta bere itzultzailea». *Senex* 21, 113-131.
- EHA (2019). *EBAZPENA, 2019ko apirilaren 10ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2019an literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak emateko modua arautzen duen deialdia*, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa. 2019-04-10.

- Euskal literatura itzuliaren katalogoa*. Euskara Institutua, UPV/EHUren webgunea. URL: <http://ehu.eus/ehg/eli/> [Kontsulta data 2020/04/24].
- Franci, Carmen (2020). «La feminización del ejercicio profesional de la traducción editorial: entre la precariedad y el entusiasmo». *Transfer XV*: 1-2, 93-114.
- Franci, Carmen (2016). «La traducción literaria en España. 1980-2015», in Iolanda Galanes, Ana Luna, Silvia Montero eta Áurea Fernández (ed.), *La traducción literaria. Nuevas investigaciones*. Granada: Comares, 115-132.
- Galanes, Iolanda (2016). «La traducción literaria gallega contemporánea. Intratraducción y extratraducción», in Iolanda Galanes, Ana Luna, Silvia Montero eta Áurea Fernández (editoreak), *La traducción literaria. Nuevas investigaciones*. Granada: Comares, 153-175.
- Gentes, Eva (2013). «Potentials and Pitfalls of Publishing Self-Translations as Bilingual Editions». *Orbis litterarum* 68: 3, 266-281.
- Grutman, Rainier (2015). «Francophonie et autotraduction». *Inter-francophonies*, 6, Regards croisés autour de l'autotraduction (Paola Puccini, ed.), 1-17. URL: http://interfrancophonies.org/images/pdf/numero-6/1_Grutman_Interfrancophonies_6_2015.pdf [Kontsulta data 2020/04/01].
- Grutman, Rainier (2016). «L'autotraduction, de la galerie de portraits à la galaxie des langues», in A. Ferrardo eta R. Grutman (ed.), *L'autotraduction littéraire*. Paris: Classiques Garnier, 39-63.
- Grutman, Rainier (2017). «Babel in (Spite of) Belgium: Patterns of Self-Translation in a Bilingual Country», in O. Castro, S. Mainer eta S. Page (ed.), *Self-Translation and Power. Negotiating Identities in European Multilingual Contexts*, London: Palgrave Macmillan, 25-49.
- Kultura eta Kirol Ministerioa (2019). *Resolución de 2019 de la Subsecretaría de Cultura y Deporte, por la que se convocan las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para el fomento de la traducción a lenguas extranjeras*.
- Libe edizioni*. URL: <https://www.libedizioni.it/chi-siamo/> [Kontsulta data 2020/03/30].
- López Gaseni, Manu eta Xabier Etxaniz Erle (2005). *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*. Iruña, Pamiela.
- Manterola, Elizabete (2007). «Euskal literatura beste hizkuntzetara itzulia». *Senez* 32,165-182.
- Manterola, Elizabete (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Bilbao: UPV/EHU.
- Manterola, Elizabete (2016a) «Traducción literaria en el País Vasco», in Iolanda Galanes, Ana Luna, Silvia Montero eta Áurea Fernández (ed.), *La traducción literaria. Nuevas investigaciones*. Granada: Comares, 177-203.
- Manterola, Elizabete (2016b) «Nami Kanekori elkarrizketa (bertsio osoa)». *Senez* 47. Bertsio elektronikoa. URL: https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20161103/03manterola/senez47_manterola_kaneko_osea.pdf [Kontsulta data 2020/04/14].
- Manterola, Elizabete (2017). «Collaborative Self-Translation in a Minority Language: Power Implications in the Process, the Actors and the Literary Systems Involved», in O. Castro, S. Mainer eta S. Page (ed.), *Self-Translation and Power. Negotiating Identities in European Multilingual Contexts*, London: Palgrave Macmillan, 191-215.
- Manterola, Elizabete (2018a) «Self-Translation from a Diglossic Perspective. The Reality of the Basque Country». *Testo e Senso* 19, 1-19. URL: <https://testoesenso.it/index.php/testoesenso/article/view/390> [Kontsulta data 2020/05/02].

- Manterola, Elizabete (2018b) «Evolución de la faceta (auto)traductora o de autor traducido. La casuística vasca actual». *eHumanista/IVITRA – Journal of Iberian Studies*13, 100-115. URL: <https://www.ehumanista.ucsb.edu/ivitra/volume/13> [Kontsulta data 2020/05/02].
- Manterola, Elizabete (2020). «Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko muga lausoa», in Ekaitz Santazilia *et al.*, *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpenerriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*. Iruñea: Nafarroako Gobernu, 391-404.
- Montero Küpper (2016). «Políticas para la traducción de textos literarios», in Iolanda Galanes, Ana Luna, Silvia Montero eta Áurea Fernández (editoreak), *La traducción literaria. Nuevas investigaciones*. Granada: Comares, 53-72.
- NorDaNor datubasea. EIZIE. URL: <http://nordanor.eus> [Kontsulta data 2020/03/13].
- Olaziregi, Mari Jose(2017). «Going Global: The International Journey of Basque Culture and Literature». In Javier Muñoz Basols *et al.* (editoreak), *The Routledge Companion to Iberian Studies*. London: Routledge, 547-557.
- Perez Isasi, Santiago (2014). «La literatura vasca en el contexto de los estudios ibéricos: historiografía y traducción». *1611 Anuario de la literatura comparada* 4, 107-126.
- Torrealdai, Joan Mari (2019). «Euskal liburugintza 2017». *Jakin*. URL: <https://www.jakin.eus/liburu-behatokia/2017ko-liburugintza> [Kontsulta data 2020/03/30].

Euskal artista garaikideen sormena euskal liburu-azalen diseinu eta ilustrazioetan¹

José Antonio Morlesín Mellado

UPV/EHU-LAIDA

Laburpena

Ikerlan hau euskal artista garaikideek diseinatutako eta ilustratutako liburu-azal-letan ardatzen da. Jarduera hori Diseinu Grafikoari dagokion arren, argi dago Artearekin ere lotura izan dezakeela. Hurbilketa honetan, bi prozedura aztertzen dira: batetik, artistek espresuki egindako ilustrazio edota diseinuak dauzkagu, batzuetan egilearen produkzio artistikoarekin kidetasunak ohar daitezkeelarik. Bestetik, zenbait argitalpenetan artelanak azaleko ilustrazio gisa erabiltzen direla ikus dezakegu. Testuinguru aldaketa horren ondorioz, liburuaren edukiarekin erlazionatzean artelanak interpretazio berriak eragin ditzake. Bi planteamendu hauen bitartez, aztertutako liburu-azal-letan Arte, Literatura eta Diseinua uztartzen dira.

Liburu-azalen diseinua argitalpen-diseinuaren baitan burutzen den jarduera espezifikoa da eta Diseinu Grafikoaren arlo zabalari dagokio. Hala ere, lan hori ez dute beti diseinuko edo ilustrazioko profesionalek egiten, zenbaitetan artista plastikoen ekarpenak ere aurki baititzakegu. Hasiera batean, nolabaiteko tentsioa sor daiteke Diseinutik eta Artetik datozen ikuspegi artean². Diseinua, berez, komunikazio grafikoko arazo bat ebaz-

¹ Ikerlan hau Eusko Jarlaritzak eratzten duen Ikerketa Talde Finkoen Sarean kokaturik dagoen eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (Literatura eta Identitatea) Ikerketa Taldearen (IT 1397/19, GIU 20/26) eginkizunen barnean egin da.

² Aspektu horri dagokionez, interesgarria da Anna Calvera (2003) Diseinuaren arloko ikertzaileak editatutako liburua. Bertan, hainbat egileren saiakerak biltzen dira, Artearen eta Diseinuaren arteko harremanei eta desberdintasunei erreparatzen dietenak.

tera bideratzen da, bezeroaren beharretara egokituz. Aldiz, artista bakoitzaren sortze-jardueran irizpide eta helburu pertsonalak nabarmenagoak izan daitezke. Artearen eta Diseinuaren arteko mugak zehaztu beharrean edo elkarren arteko ezberdintasunei buruzko eztabaidan sakondu ordez, ikerlan honek euskal artista garaikideek liburu-azalen diseinuaren esparruan egindako ekarpen batzuk biltzen ditu. Euskal argitaletxeek azken urteotan argitaratutako literatur lanei dagozkien hautatutako adibideak aurkezten dira. Horrela, Diseinua, Artea eta Literaturaren artean egituratzen diren harremanak liburu-azaletan nola zehazten diren ikus dezakegu, ikuspegi panoramiko orokor bat osatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoan, xx. mendearen lehen hamarkadetan, Aurelio Arteta, Ángel Cabanas Oteiza, José Arrue, Antonio de Guezala edo Jenaro Urrutia bezalako margolariak, besteak beste, liburu-azalak ilustratu zituzten³. Geroago, Nicolás Martínez Ortiz edo Antonio Valverde «Ayalde» margolarien lanak aurki ditzakegu. Nestor Basterretxea artista izan zen euskal arte garaikidean ezinbestekoa den *Quousque tandem...!* liburuaren lehen edizioaren azalaren egilea. Añamendik 1963an argitaratutako liburu hau Jorge Oteiza sortzaileak idatzi zuen. Azalaren konfigurazio grafikoak antzekotasunak ditu Basterretxearen zenbait obra grafikorekin (Morlesín, 2016: 282). Urte batzuk geroago, Xabier Egaña margolariak ilustratutako azalak dauzkagu. Bi aipatuko ditugu: alde batetik, Bitoriano Gandiagak idatzitako eta Arantzazuk 1977an argitaratutako *Uda batez Madrilen* liburuan aurki dezakeguna eta bestetik, Paulo Iztuetaren *Ibiltari* liburuan inprimatutakoa, Elkarrek 1979an argitaratu zuena. Zuri-beltzaren erabilera kontrastatua deigarria da bi kasuetan, non forma beltzak hondo zuriari gainjartzen zaizkion. Lehenengoan, pinto-rea pintzelkada lodi eta adierazkorrez baliatu zen eta bigarrean, aldiz, lerro beltzen bitartez egituratu zuen irudia.

Jose Luis Zumetak, euskal pintura garaikideko artistarik esanguratsuenetako batek, hainbat argitalpen-proiektutan parte hartu zuen bere ibilbidean zehar⁴. 1973an Joxean Artzeren («Harzabal» ezizenarekin) *Laino guztien azpitik* eta *Eta sasi guztien gainetik...* poesia liburuen azalak eta edukia ilustratu zituen⁵. Izenburuek euskal folklore tradizionalean sorginei egotzitako konjuria osatzen dute, bi liburuek osatutako batasuna nabarmenduz. Batasun hau arlo grafikoan ere ikus dezakegu, bi liburuek ezaugarriak partekatzen baitituzte, hala nola serigrafiatutako kartoizko azalak, idazmakinarean letraren erabilera eta Zumetaren ilustrazioak. Estalki banatan «Zumetaren xoriak» irakur dezakegu, bi lanetan azaltzen diren hegaztien irudikapenei erreferentzia eginez. Azaletako marrazkietan kolore lauz egindako lerroak eta eremuak konbinatzen dira. Artistak ga-

³ Esan beharra dago artisten parte-hartzeaz gain, Arteak berak eragina izan duela diseinu askotan. XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, Modernismo eta *Art Déco* joeren aztarnak ikus ditzakegu, adibidez, euskal azalen planteamendu grafikoetan, garai hartan Europan zabaltzen ziren ikuspuntuak Euskal Herrian barneratu eta interpretatzen zirelarik (Morlesín Mellado eta González-Miranda, 2013).

⁴ Arte Grafikoak ez ziren ezezagunak berarentzat, 14 urterekin marrazkilari gisa sartu baitzen Industria Gráfica Valverde inprimategian, Antonio Valverde «Ayalde» margolari eta ilustratzailea nagusizela.

⁵ Lankidetza horren aurretik, Joxean Artzek idatzi eta 1969an argitaratutako *Isturitzetik Tolosan barru* liburuan parte hartu zuen Zumetak. Artzeren poesiaren izaera esperimentalak, lanaren konfigurazioa eta diseinuarekin batera berrikuntza nabarmena suposatu zuten garaiko euskal literatura eta argitalpen-ekoizpenean.


rai hartan koaderno batean marrazten zituen txorien artean aukeraketa bat egitea erabaki zuen, testu bakoitzera hobekien egokitzen zirenak kontuan hartuz (Guillan, 2015).




2011, Elkar.




2013, Elkar.



2014, Elkar.



2007, Susa-Literatura.



2019, Susa-Literatura.

1. IRUDIA

Jose Luis Zumeta margolariaren ilustrazio eta irudiak dituzten liburu-azalen hautaketa

2011n Pako Aristi idazlearekin lan egin zuen, *Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak* liburua ilustratuz (1. irudia). Liburu-azalak kontakizunaren argumentuari egiten dio erreferentzia. Protagonista, hanka ahulduak eragindako gelditasunaren aurrean, bere gelako objektuei erreparatzen hasten da, ilustrazioan irudikatzen diren erlojuaz eta gizontoz ohartuz, besteak beste. Koloreari dagokionez, eremu gorriek, urdinek eta berdeek eragindako inpaktu bisuala nabarmentzen da, baita irudian ikus daitezkeen trazu eta pintzelkadaren trinkotasuna ere. Beste alde batetik, garrantzitsua da protagonistaren aur-

pegiaren irudikapenari egozten zaion eskematizazioa aipatzea, lerro gutxirekin egina. Aldiz, lehen planoan daukagun gizontto edo figura artikulatua xehetasun eta bolumen gehiagorekin irudikatu du artistak, ikonizitate maila handiagoa erabiliz.

Bestalde, oso ezaguna da Zumetak Mikel Laboa kantautorearekin izandako lankidetzatza, azken honen hainbat disko-azal burutu zituen eta. 2013an Elkar argitaletxeak *Xume. Laboa Zumetarenean* liburua argitaratu zuen, musikaria hil eta bost urte geroago (1. irudia). Zumetak haren omenean egindako ilustrazioak biltzen ditu. Azaleko irudian, tresna digitalen bitartez sortutako lerroak eta kolore lauak ikus daitezke, irudiok tableta batekin egin ziren eta (Zumeta, Elkar argitaletxea liburuak-en: 2013). Zumeta *Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat* liburuko azalaren egilea ere bada (1. irudia). Liburua Marisol Bastidak idatzi zuen eta Elkarrek 2014an argitaratu. Kasu honetan, 1988. urte inguruan margotutako Laboaren erretratu batera jotzen du artistak (Sainz de Bikuña, 2014). Azala bi zatitan dago banatuta. Beheko aldean, Laboaren erretratuaren zati bat kokatzen da. Laboaren erretratua bera bi zatitan banatuta dago. Aspektu hori azpimarratuz, estalkiaren erdigune bertikalarekin eta aurpegiaren simetria-ardatzarekin bat datozen lerro batzuk gainjarri dira. Horretarako, kolore digitala erabili du artistak, azalaren goiko aldean daukagun laukizuzen urdinean bezala. Izenburua eta egilearen izena eskuz idatzita daude tresna digitalen bidez.

Aipagarriak dira, halaber, Zumetak Rafa Egigurenen *Chevrolet tropikala* eta *Txipiroiak bere beltzean* (1. irudia) liburuetarako egindako irudiak, Susak argitaratutakoak 2007 eta 2019an, hurrenez hurren. Lehenengoaren azalean, eremuaren eskuinaldean bat egindako bi aurpegi daude; ezkerrean, berriz, silueta berde bat dago, izenburuan agertzen den «tropikal» adjektiboarekin lotu dezakegun palmondo bat gogorarazten duena. Bigarrenaren azalean, izenburuari buruzko aipamena ere badago, tentakuludun izakiak txipiroia gogoraraz baitezake, begi ugari eta aho irribarretsu bat dituen arren. Tentakuluek, muturretan, aurpegiara groteskodun buru beltzak eusten dituzte.

Zumetaren adibideekin amaitzeko, haren margolan askotan topa ditzakegun ezauzarriak liburu-azaletarako ilustrazio batzuetan ere aurkitzen direla esan dezakegu. Kolore biziak eta pintzelkada indartsuak daude, baita zenbait kasutan abstrakzioerantz jotzen duen figurazioaren interpretazioak ere.


Erramun Landa artista plastikoak egindako liburu-azalak ere aipagarriak dira. Pamiela argitaletxe nafarrak Lewis Carroll eta Charles Perraulten testuen edizioetarako egindakoak nabarmenduko ditugu. Liburu hauetarako, collage teknika erabiliz⁶, Landak hainbat objektu ezberdin egurrezko kaxen barruan antolatu zituen. Konposizio hauen argazkiak dira liburu-azalen ilustrazioak. Hala gertatzen da *Ispiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena* zein *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* (2. irudia) liburuekin, 1990 eta 1992an argitara emanak, hurrenez hurren (azken hau 1995ean *Alice* izenburupean plazaratu zen, azaleko ilustrazioa mantenduz). Artistak John Tennielek XIX. mendeko Ingalaterran jatorrizko testuaren ediziorako egin zituen ilustrazio ospetsuen zatiak gehitzen ditu.

⁶ Edorta Jimenez idazlearen *Atoiuntzia* ipuin-liburuaren azalerako, Susak 1990. urtean argitaratutakoa, Landa ere *collage* teknikaz baliatu zen, argazki eta objektuak batuz.


Ezaguna den erreferentzia horri esker, azalak Carrolen testuarekin duen lotura azpimarratzen da. 1995ean argitaratutako *Perraulten ipuinak* antologiari dagokion liburu-azalean (2. irudia), Landak ikuspegi bera erabiltzen du collagea erabiltzerakoan. Kasu horretan, Gustave Doré-ren XIX. mendeko grabatu baten zatia gehitu zuen, Txanogorritxo irudikatzen duena. Tipografiari dagokionez, hiru kasuetan nabarmendu behar da letra kapitular tradizionalak gogorarazten dituzten tamaina handiko inzialen erabilera, ipuinen izaera tradizionala iradokiz.



1990



1992




1995

2. IRUDIA

Erramun Landa artistak ilustratutako liburu-azalen hautaketa. Pamiela argitaletxea

Marta Cárdenas artistak azalgintzan ere jardun izan du, 2013an Bernardo Atxagak idatzitako *Obabakoak* liburuaren 25. urteurreneko edizioan ikus daitekeen bezala (3. irudia). Azalaren irudia bizkarretik hedatzen da eta kontrazala ere betetzen du. Margoak euskarri originalaren gainean sortutako testura nabarmentzen da, hondoko kolore berde eta laranja asekin batera. Estalkiaren erdian, haren erdiko ardatz bertikalarekin bat etorritik, musker baten silueta agertzen da, puntu horiz egindako ingeradak zehaztua. Animalia hori liburuko elementu adierazgarrietariko bat da, nazioarteko hainbat edizio eta itzulpenen azaletan agertzen delarik. Testuaren konfigurazioari dagokionez, egilearen izena eskuz idatzita dago, kolore purpuraz eta laranjaz, ingerada urdin batekin. Hala ere, izenburua eta Marta Cárdenasen izena eskuz marraztuta daude, letra beltz lodi eta irmoetan. Hizki hauen konfigurazioa *stencil* edo txantilo bidez inprimatutako letren diseinuetan oinarritzen da, baina formak ez dira asko zehazten. Horrek irakurgarritasuna zaildu dezake, nahiz eta testuaren ebazpena ilustrazioaren planteamendu grafikoarekin bat etorri. Kolore asekin eragiten duten inpaktu bisuala eta testuren presentzia artistaren lan artistikoan ere aurki ditzakegun ezaugarriak dira.




3. IRUDIA


**Marta Cárdenas artistak ilustratutako liburu-azala,
Ereinek 2013an argitaratu zuen Bernardo Atxagak idatzitako
Obabakoak libururako**

Juanjo Olasagarre idazlearen hainbat liburutan artisten lanak azaltzen dira, aldez aurretik egindakoa kasu batean daukagu eta liburu-azala ilustratzeko berariaz egin diren irudiak besteetan. Bigarren aukera honen eredu bat 2017ko *Poz aldrebesa* nobelaren azalean aurki dezakegu, Txupo Poyok apropos egindako irudia baitu (4. irudia). Argazkian, eskumuturreko erloju ugari pilatuta ageri dira, zentzu bertikalean, esferak gutxi gorabehera lerrokatuta daudelarik. Goiko aldean, erabilera anitzeko laban bat partzialki ikusten da zentzu horizontalean, koilara zabalduta, formatuaren goiko ertzean. Argazkiaren eskuineko zati angeluzuzen txiki bat positiboan dagoen arren, beste guztia negatiboan ikusten dugu. Ikusizko aurkakotze horrek eraldaketa interesgarria eragiten du argazkian. Erlojuen motiboa artistak denboraren eta erlojuen inguruan idatzitako hausnarketa batekin erlaziona dezakegu, non erlojuen pilaketa erakusten duen argazki bat ere agertzen den (Poyo, d.g.: 6).


Dora Salazar artistak Juanjo Olasagarrek idatzitako eta Susak argitaratutako hiru poesia liburuen azaletarako irudiak egin zituen: *Gaupasak* (1991), *Bizi puskak* (1996) eta *Puskak biziz* (2000) (4. irudia). Azken bi liburuen azaletan lerroz marraztutako egitura esferikoak azaltzen dira, artistak hainbat lan grafiko eta alambrezko eskulturatan erabiltzen dituen egitura geometrikoak gogora ekartzen dituztenak.




2017



1991



1996



2000

4. IRUDIA

Txuspo Poyo (1. azala) eta Dora Salazar (gainontzeko azalak) artistek Juanjo Olasagarrenen liburuetarako apropos egindako irudiak. Susa-Literatura argitaletxea

Jarraian, artelanak erabili dituzten liburu-azalen adibide batzuk aipatuko ditugu, nahiz eta argitalpen horietarako espresuki sortuak ez izan. Liburu baten azalean artelanak erreproduzitzea oso hedatua dagoen praktika bat da nazioarteko argitalpen eremuan. Hala ere, gaur egungo zenbait kasu aipatuko ditugu, non euskal artista garaikideen artelanak liburu-azalen ilustrazio gisa erabiltzen diren.

Xabier Gantzarainek idatzi eta Elkarrek 2018an argitaratutako *Zuloa* liburuaren azala Juanma Aramendi diseinatzaileak diseinatutakoa da (5. irudia)⁷. Hala ere, erabilitako irudia Ibon Aranberriren argazki-pieza bat da, bere (*Ir. T. 513. zk.*) *zuloa* lanari dagokiona, testuaren edukian eta liburuaren izenburuan bertan aipatzen dena.

Bestalde, Rikardo Arregi Diaz de Herediaren *Bitan esan beharra* poema-liburuan, Alberdaniak 2012an argitaratutakoa, Héctor Orruñok 2006an margotutako *Plaza Roja XYZ* mihisea daukagu, non perspektiba eta arkitekturari egindako keinuak ikus ditzakegun (5. irudia). Orruñoren pinturak, azalaren hondo urdinean gainjartzeaz gain, itzala sortzen du haren gainean. Baliabide honek koadroek hormetan zintzilikatzerakoan sortzen duten efektua gogora ekartzen digu, aukeratutako artelana koadro bat dela azpimarratuz. Liburuaren edukiari erreparatuz, esan beharra dago artea testuan jorratzen den gai bat dela, beraz azaleko margolana eta edukiaren artean lotura tematiko bat badagoela esan genezake.


Susa argitaletxeko hainbat liburu-azalean artelanek duten presentzia nabarmentzea bidezkoa da. Izan ere, sortzaile garaikide ugariaren lanak testu literarioekin elkartu izan dira, hurrengo lerroetan jasotzen diren adibideetan ikus daitekeen bezala.

Asun Goikoetxea artistaren 2004ko *Begitzal* artelana urte horretan argitaratutako Juanjo Olasgararreren *Ezinezko mailetak* nobelaren azalerako erabili izan zen (5. irudia). Bestalde, Gaizka Zabartek idatzi eta Susak 2015ean argitaratutako *Jende desegokia* liburuak Joseba Eskubik urte bat lehenago egin zuen izenburu gabeko margolan bat erreproduzitzen du (5. irudia).


Susa argitaletxean bertan, jatorrizko konposizioa alderantzikatuz artisten lanak egokitzen dituzten bi poesia-liburu aurkitzen ditugu. Alde batetik, Hedoi Etxarteren *Simplistak*, 2012an argitaratua, non Alain Urrutiaren pieza bat ikus dezakegun, hain berezkoa duen zuri-beltzaren erabilera erakusten duelarik (5. irudia)⁸. Pello Irazu eskultoreak paper gainean egindako *Sólido II* lan grafikoaren geometria zehatza eta forma zuzenak, Kirmen Uriberen *17 segundo* poemarioaren azalari egokitzen zaizkio, 2019an argitaratua (5. irudia). Hain zuzen ere, izenburuak museo batean jendeak koadro bakoitzaren aurrean ematen duen denborari egiten dio erreferentzia, New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-eko gida batek esandakoaren arabera (Uribe, 2019: 9). Artea eta Literatura lotzen dituen datu horrek azaleko irudiaren eta tituluaren artean dagoen erlazioa azpimarratzen du.

⁷ Xabier Gantzarain idazle eta arte kritikaria Susa argitaletxeak argitaratutako hainbat libururen azalen egilea da planteamendu eta prozedura grafiko ezberdinen bitartez osatutakoak (*Neguko zirkua; Fakirraren ahotsa; Euri kontuak*, etab.).


⁸ Hedoi Etxarte eta Alain Urrutia urte batzuk lehenago elkarlanean ibili ziren, 2009an Alberdaniak argitaratutako *Ihes ederra* eleberri grafikoaren sortzaileak baitira.



Ibon Aranberriren (*Ir. T. 513. zk.*) *zuloa*. (2018, Elkar).




Héctor Orruñoren *Plaza Roja XYZ*, Arabako Artiumen lagapenez erabilia. © Gert Voor in't Holt. (© 2012, Alberdania).



Asun Goikoetxearen *Begitzal*. (2004, Susa-Literatura).




Joseba Eskubiren izenburu gabeko artelana. (2015, Susa-Literatura).



Alain Urrutiaren artelana. (2012, Susa-Literatura).



Pello Irazuren *Sólido II*. (2019, Susa-Literatura).



Asier Mendizabalen *Figures and Prefigurations*. (2019, Susa-Literatura).

5. IRUDIA

Zenbait euskal artistaren artelanen erabilera liburu-azaletan

2019an plazaratutako beste poema-liburu batean ere, Iñigo Astizek idatzia eta *Anal-fabetoa* izeneko, artelan bat erabiltzen da ilustrazio gisa (5. irudia). Aukeratutako lana Asier Mendizabal sortzailearen *Figures and Prefigurations* collage serieari dagokio, hain zuzen. Nicolás de Lekuonak 1935ean egindako collage bat oinarritzat hartzen du eta zuri-beltzeko konposizioa jende-taldeak irudikatzen dituzten argazkien ebakinak erabiliz osatu da⁹. Pertsona-ugaritasun horrek eragiten duen testurak hondo gris lauarekin kontraste nabaria sortzen du.

Amaitzeko, testu honetan egindako hurbilketaren laburpen gisa, garrantzitsua da liburu-azal baten diseinua ebazteko orduan ikusitako bi alderdi nagusiak azpimarratzea, artisten parte-hartzea edo artelan baten erabilera aintzat hartzen direnean.

Batetik, berariaz egindako piezak enkarga daitezke. Kasu batzuetan artistaren sorkuntza artistikoarekin partekatzen diren ezaugarriak modu argian hautematen dira, bere idiosinkrasia sortzailea liburu-azaletara hedatuz. Baliteke liburu baten egileek edo editoreek artista baten aztarna pertsonala edo diskurtso artistikoa bera, liburu-azala diseinatzeke edo ilustratzeko irtenbide egokitzat jotzea.

Bestalde, ikusi dugun bezala, liburu-azal bat diseinatzean aurretik egindako obra artistiko bat erabil daiteke. Azalera berri horretan birkokatuz gero, esanahi eta interpretazio berriak eragin ditzake, testu jakin baten edukiarekin lotzen baita. Gerta daiteke testuarekin jatorrian lotura zehatzik ez izatea, nahiz eta kidetasun tematikoak, kontzeptualak, historikoak eta abar egon. Konbinazio horrek azala interpretatzeko aukera zabala eskaini diezaioke ikusleari, azalaren atzean topatuko duen eduki literarioarekiko jakinmina piztuz. Hortaz, artelana, testuinguruz aldatzerakoan, azalak betetzen dituen funtzioen zerbitzura egotera pasa daiteke. Izan ere, liburu-azalak, liburuari nortasun grafiko bat emateaz gain, irakurleak erakartzeko helburua izan ohi du.

Azkenik, interesgarria da euskal literatura eta argitalpen arloetan, Artea oro har eta bereziki, ekoizpen artistiko garaikidea bide posibletzat hartzen direla adieraztea, azalgintzari dagokionez. Ikuspuntu honekin jarraituz, Artea, Literatura eta Diseinua uztartzen dituen mezu grafikoak egitura dezake liburu-azala.

Bibliografia

Calvera, A. (Ed.). 2003. *Arte? Diseño*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Elkar argitaletxea liburuak (2013). «Xume. Laboa Zumetarenean - Aurkezpena 5», 2013/11/10. [bideo artxiboa]. Berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=AiCKnOxUGDw> [Kontsulta data: 2020ko ekainak 2].

⁹ Lekuonaren obra grafiko hori Jorge Oteizaren *Itziar. Elegía y otros poemas* liburuaren barnean ere inprimatu zen, liburuaren bi zatiak banatuz. Oteizak berak (1992: 58-59) baiesten zuen artelan hori liburuaren gakoa zela, eta bere ikerketen aitzindari edo aurrerapen gisa interpretatzen zuen, erlijio eta arte aurreindoeuroparraren inguruan garatu zituen ideiekin lotuz.

- Guillan, O. (2015). «Berrogei urteko sormen hegaldia», *Gaur8*, 2020/03/14. Berreskuratua: https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2015-03-14-06-00/hemeroteca_articles/berrogei-urteko-sormen-hegaldia [Kontsulta data: 2020ko maiatzak 25].
- Madariaga Ateka, J. eta Sáenz de Buruaga Renobales, P. (2011). La ilustración gráfica en Bizkaia en el siglo xx. In Bizkaiko Foru Aldundia (Ed.), *Ilustratzaileak Bizkaian (xvi-xx): Odisea grafiko/ Ilustradores vizcaínos (xvi-xx): Una odisea gráfica* (127-201 orr.). Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Morlesín Mellado, J. A. eta González-Miranda, E. (2013). *Cubiertas de libros y grafistas vascos (1900-1936): Identidad y Vanguardias*. *RIEV.*, 58(2), 334-359.
- Morlesín Mellado, J. A. (2016). *Evolución, estado actual y perspectivas del diseño de la cubierta del libro: estudio particularmente orientado a la Comunidad Autónoma del País Vasco*. (Doktorego tesia). Berreskuratua: <https://addi.ehu.es/handle/10810/25771> [Kontsulta data: 2020ko maiatzak 25].
- Oteiza, J. (1992). *Itziar. Elegía y otros poemas*. Iruña: Pamiela.
- Poyo, T. (d./g.). *Water Proof*. Berreskuratua: <https://txuspo-poyo.com/web/wp-content/uploads/2018/11/Water-Proof.pdf> [Kontsulta data: 2020ko uztailak 3].
- Sainz de Bikuña, K. (2014). «Memorias. Una biografía de Mikel Laboa». *Postdata*, 2014/05/22. [elkarrizketa web logean]. Berreskuratua: <https://postdata.elkar.eus/es/marisol-memorias/> [Kontsulta data: 2020ko maiatzak 25].
- Uribe, K. (2019). *17 segundo*. Zarautz: Susa.

Literatur aldizkariak argitaletxeen eratzeko bidean (1975-1984)¹

Beñat Sarasola Santamaria

UPV/EHU-MHLI

Laburpena

Artikulu honek aldizkariak euskal literatur sistemako argitaletxeen osakeran egindako lana aztertzen du. Zehazki, euskal literatur sistemaren hastapenetan, zenbait aldizkari geroko argitaletxe garrantzitsu batzuen ernamuin izan ziren. Bi aldi bereizita, Lehen Francostea (1975-1980) eta Bigarren Francostea (1980-1984), aldi bakoitzean garatutako aldizkariak azaltzen dira, gerora argitaletxe profesional bihurtu zirenak (*Susa, Maiatz, Pamiela*) zein bidean geratu ziren beste zenbait garrantzitsu (*Ustela, Pott, Oh! Euzkadi*). XX. mendeko 70-80ko hamarkadak funtsezkoak izan ziren euskal literatur sisteman, eta horren barruan, garaiko literatur aldizkariak ezinbesteko elementu izan ziren argitaletxe berriak sortu eta sistema sendotzeko.

1. Sarrera

1975. urtea data mugarria da Hego Euskal Herriko historian. Azaroaren 20an Espainiako Francisco Franco diktadorearen heriotzak bidea ireki zuen aldaketa politikorako, eta hortik aurrera zertu zen erreforma politikoak garai berri baten hasiera ekarri zuen. Gerora Espainian «Trantsizioa» izenarekin bataiatu zen garaia dugu, hain zuzen ere, zeinetan kultura berri bat ere garatu baitzen Espainia mailan, Trantsizioaren Kultura² delakoa (Martínez, 2016).

¹ Argitalpen hau IT 1047-16 ikertaldea burutzen ari den US 17/10 (UPV-EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa proiektuetan sartzen da.

² Jatorrian, CT edo Cultura de la Transición.

Euskal Herriko politikari zein kulturari dagokionez, eraldaketa garaiak izan ziren halaber. Instituzionalki, adibidez, garai hartan jarri ziren Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako egitura instituzional berrien oinarriak. Esate baterako, 1979an aprobaturik ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua eta 1982an Nafarroako Foru Hobekuntza. Testuinguru horretan ere zertu zen, estreinakoz, euskal literatur sistema autonomo bat (Aldekoa, 2004; Olaziregi, 2012). 36ko Gerra baino lehen, Euskal Pizkundean, euskal literatur sistema baten hastapenak bizi izan ziren, José Ariztimuño «Aitzol»-en ekimenak bultzaturik, eta besteak beste, Lauxeta, Lizardi eta Orixe bezalako idazleen lumek hauspoturik, baina gerrak proiektu hori errotik geldiarazi zuen³. Hala, nekez esan daiteke XX. mende hasiera horretan euskal literatur sistema autonomo bat gauzatzera iritsi zenik, eta horregatik kokatu ohi dute ikertzaileek XX. mendeko 70ko hamarkadan literatur sistema autonomoaren eratzea.

Literatur sistema autonomo baten osaeran ezinbesteko faktore dira literatur instituzioen eraketa eta sendotzea. Itamar Even-Zohar ikertzaileak proposatu zuen eskema oinarritzakoaren arabera, literatur sistema bost elementuz gorpuzten da funtsean: ekoizlea, instituzioa, errepertorioa, merkatua, produktua eta kontsumitzailea (Even-Zohar, 2011: 5). Ezagun denez, eskemak Roman Jakobsonen hizkuntza funtzioen eskemari jarraitzen dio, elementu bakoitzari bere kidea atxikiz literaturaren sistemaren ikuspuntutik. Hala, Jakobsonen eskeman testuingurua dena dugu literatur sistemaren eskeman instituzioa. Even Zoharren definizioaren arabera, «La “institución” consiste en el agregado de factores implicados en el mantenimiento de la literatura como actividad socio-cultural» (Even-Zohar, 2011: 12). Instituzioa arauemailea da, hots, literatur sistemako elementuak (adibidez, idazleak edo obrak) zilegiztatu (argitalpen edo sarien bidez, adibidez) edo baztertzen ditu, eta hala, literatur sistemaren barruan eta kanpoan zein elementu dauden ezar dezake. Horrek ez du esan nahi, halere, instituzioa homogenea eta bateratua denik; alderantziz, haren barnean botere-borroka egon ohi da agente ezberdinen artean instituzioaren erdigunean kokatzeko. Izan ere, askotarikoak dira instituzioaren parte diren elementuak: kritikariak, argitaletxeak, aldizkariak, klubak, idazle-taldeak, gobernu-organismoak (Kultura Ministerioa, adibidez), hezkuntza-instituzioak, masa komunikabideak, eta abar.

Kasu honetan, instituzioko bi elementu eta beren arteko harremanak izango ditugu ikergai: literatur aldizkariak eta argitaletxeak. Zehazki, euskal literatur sistema autonomoa osatzean izan zuten garrantzia argitzen saiatuko gara. Izan ere, azterketa sistemikoak ez dira ugariak izan euskal literaturaren kritikan, eta gauzatu direnak beste instituzioei erreparatu izan diete; esate baterako, Idurre Alonsok (2008, 2010, 2012) egindako azterketek irakaskuntza izan dute gai. Neronek ere aipatutako garaiko hiru aldizkari aztertu nituen (Sarasola, 2015), baina ikuspuntua ez zen hertsiki sistemikoa izan, eta ikertu gabe geratu ziren garaiko beste zenbait aldizkari, eta baita argitaletxeak oro har ere. Horregatik, oraindik aztertze dagoen zerbait da literatur aldizkarien pisua zein izan zen zenbait argitaletxe sortzerakoan, eta honenbestez, aldizkari eta argitaletxeon garrantzia euskal literatur sistema autonomoaren eraketan.

³ Hori dela eta, ez da ahaztekoa faxistek Aitzol eta Lauaxeta fusilatu zituztela.

2. Literatur aldizkariak

70eko hamarkada hasieran apenas zen literatur aldizkarik euskaraz. 50eko eta 60ko hamarkadetan amaitu ziren *Euzko Gogoa*, *Igela* eta *Olerti*⁴, eta ondorioz, *Egan* eta *Karmel* ziren bizirik jarraitzen zuten aldizkari bakarrenetakoak (Elkoroberezibar, 2004). Kontuan izan behar da, halere, *Egan* Koldo Mitxelena, Alfonso Irigarai eta Antonio Arrueren zuzendaritzapean argitaratzen zela, eta garaiko belaunaldi nagusien esku egonik, ez zela belaunaldi berrientzat sarbide erraza. *Karmeli* dagokionez, idazle berriek ere han argitaratu zuten arren⁵, alde batetik generikoki zabalagoa zen (kultur aldizkaria), eta bestetik, kutsu erlijiozkoa zuen aldizkaria zen, eta hala, literatura urbano eta modernoagoa egin nahi zuten belaunaldi berriagoentzat ere ez zen bereziki erakargarria. Testuinguru honetan, Ibon Sarasola ere literatur aldizkarien gabezia zexu zen 1973an.

Euskaldunok ez dugu azken urte hauetan kultur-aldizkaririk eta badirudi oraingoz ez dugula izanen. Eta haien hutsunea nola hala betetzeko erabiltzen den zenbait aldizkarik gure lanak argitaratzeko jartzen dituen eragozpenek ez digute egoera samurtzen. (Elkobaroberezibarrek aipatua, 2004)

Hain justu Sarasola kide zen Lur argitaletxearenak urte horretan bertan, 1973an, egin zuen, eta ondorioz, oraindik zailagoa egin zen belaunaldi berrikoentzat lanak argitaratzea⁶. Ondorengo hilabeteetan ere eztabaida sortuko da euskal prentsan (*Anaitasuna* eta *Zeruko Argiako* zenbait artikulutan) literatur aldizkariak sortzearen premiaren inguruan (Elkoroberezibar, 2004). Horregatik guztiagatik, 70eko hamarkadaren erdialdean, «lehortea nabarmena da» (Elkoroberezibar, 2004), baina berehala hasiko dira sortzen aldizkari berriak egoerari buelta emateko helburuz.

Franco osteko aldiko lehen urteetan hiru izan ziren literatur aldizkari erreferentzialak, zeinak hiruak elkarloturik dauden: *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi*. Neurri batean, gainera, belaunaldi berri baten abiapuntutzat jo daitezke, Ibon Sarasolak 64ko belaunaldia deitu izan zion horren (Olaziregi, 2000: 525) ondorengo belaunaldiarena, alegia, 50eko hamarkadan jaiotako idazleek osatuko luketena. Belaunaldi horri «Autonomiaren belaunaldia» deitu izan zaio, zeinak bi ezaugarri nagusi izango lituzkeen: literaturarekiko konpromiso zorrotza (hortik autonomiarena), eta Euskara Batuarekiko distantzia handiagoa (Torrealdei, 1997: 344-345). Egiazki, literatur belaunaldien periodizazioa aski eztabaidagarria den metodologia da, eta guk ez diogu hertsiki helduko⁷, baina kasu honetan interesgarriena dena da ikustea aldizkari horietako idazleak Franco hil ondoren abiatuko

⁴ Zehazki, *Olerti*ren lehen aldia amaitu zen 1969an. Bigarren aldia 1980an abiatu zen 1994. urtera arte luzatu zelarik.

⁵ Ikusiko dugun bezala, Koldo Izagirrek han argitaratuko zituen bere lehenengo poemak.

⁶ Ez dezagun ahaztu Lurrek, besteak beste, hiru liburu kolektibo argitaratu zituela, batez ere belaunaldi gazteetako idazleen lan laburrez hornituak: *Euskal Elerti 69*, *Euskal Literatura 72* eta *Aurtengo zenbait berri* (1973).

⁷ Belaunaldi kontzeptua ulertzeko moduak ere ugariak dira eta, esaterako, Astrid Erll ikerlariak oraindik ere haren erabilgarritasuna defendatzen du, «generation' in its very complexity deserves to become part of the conceptual core of literary history» (Erll, 2014: 405). Ziur aski, arazoa da sarritan konplexutasun horri uko egin izan zaiola literatur ikasketetan belaunaldi kontzeptua erabili izan denean.

dutela funtsean beren ibilbidea, salbuespen garrantzitsu batekin⁸. 64ko belaunaldiak Lur argialetxea izan bazuen argitalpen egitasmo nagusitzat, hurrengo aldizkarion bidez hasiko da beren lanak plazaratzen, baina luze gabe liburuen argitalpen proiektuak ere sortuko dituzte.

Horietaz landa, literatur aldizkari berri ugari ipini ziren martxan hurrengo urteetan, hainbeste ezen 1980ko hamarkada izan da, luzaz, euskal literaturako aldirik emankorrena aldizkari dagokienez. 1980. urtean sortu zen *Susa* aldizkaritik 1986an abiatu zen *Enseiucarrean* aldizkarirainoko zazpi urte soil horietan hamasei aldizkari berri sortu ziren (Ibinagabeitia Proiektua, 2001). Horien artean *Idatz & Mintz* eta *Korrok* bezalako aldizkari garrantzitsuak aipa litezke⁹, baina gure egitasmoari begira hiru dira aipagarrienak, geroa argialetxe bihurtuko direlako: *Susa*, *Maiatz* eta *Pamiela*.

2.1. Literatur aldizkariak Francostean

Aintzat hartuko dugun garaia bitan banatuko dugu, arrazoi hertsiki didaktikoengatik. Alde batetik, Lehen Francostea deituko dioguna, zeinetan *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi* nabarmentzen diren, eta bestetik, Bigarren Francostea, non *Susa*, *Maiatz* eta *Pamiela* aztertuko diren. Banaketa hau egiteko badira hainbat arrazoi. Alde batetik, arestian azaldu bezala, *Ustela*, *Pott* eta *Oh Euzkadi!*-k, beren arteko kontraste ez txikiak gorabehera, osotasun moduko bat osatzen dute elkarren artean zuzenean harremanduak daudelako —parte hartu zuten kideen bidez—, eta nolabait, belaunaldi baten testigutzat har litezkeelako. Ezin esan daiteke halakorik 1980tik aurrera sortutako beste hiru horien inguruan. Proiektu autonomoak izan ziren, eta gainera, alde batetik, beste belaunaldi baten (Tropelaren belaunaldiaren) proiektutzat har daiteke *Susa*¹⁰. Bestetik, *Maiatz* eta *Pamiela* aldizkariak euskal literaturako erdigunetik (Donostia-Gipuzkoa) kanpo garatu zituzten beren proiektuak, Lapurdin eta Nafarroan hurrenez hurren, eta alde horretatik ere Lehen Francosteko aldizkariaren kokapen zentralagoetatik bereiztea komeni dela iruditzen zaigu¹¹.

⁸ Ramon Saizarbitoria da salbuespena, zeina 64ko Belaunaldiaren kide garrantzitsuenetako bat den. Ikusiko dugun moduan, Saizarbitoriak egin zuen belaunaldi batetik besterako lotura, eta horrek gatazkaren bat sortu zuen.

⁹ *Idatz&Mintz* da egun martxan dirauen literatur aldizkari bakanetako bat. *Korrok*-i dagokionez, aldizkari erreferentziala izan zen, idazle nafar ugariren bilgune eta hastapen izan zelako: Jon Alonso, Jostxo Azkona, Aingeru Epaltza, Ana Iribar, Patziku Perurena, Bixente Serrano, Mikel Taberna eta abar.

¹⁰ Azalpenak errazte aldera, beraz, hauexek lirateke artikuluko honetan aipatzen ditugun belaunaldiak, gutxi-asko hamarkadaka bereiz daitezkenak:

- 64ko Belaunaldia (40. hamarkadan jaiotakoak): Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, etab.
- Autonomiaren belaunaldia (50. hamarkadan jaiotakoak): Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Pello Lizarralde, Joseba Sarrionandia, etab.
- Tropela (60. hamarkadan jaiotakoak): Iñigo Aranbarri, Itxaro Borda (59an jaiotako), Miren Agur Meabe, Jokin Muñoz, etab.

¹¹ Salbuespena, eta ez nolanhikoa, *Pott* da, Bilbon sortu eta gauzatu zena. Hala ere, kontuan izan behar da Atxaga *Ustelatik* zetorrela eta bai bera eta baita *Pott*-eko zenbait kide (Josemari Iturralde, Ruper Ordorika) gipuzkoarrak zirela. Bestetik, Bilbo garai hartan Donostiarekiko periferikoa zen arren

Arrazoi soziopolitikoak dagokienez, aintzat hartzekoa da 1978ko Espainiako Konstituzioaren ezartzeak eta, batez ere, 1979 amaierako Euskal Autonomi Erkidegoko Estatuaren onarpenak aro berri bat ireki zuela Hego Euskal Herrian. Zehazki, 70eko hamarkadako lehen erdian indar handia hartu zuen eztabaida politikoaren (haustura/erreforma) ebazpena suposatu zuen nolabait, erreforma gailendu zela konfirmatuta. Horregatik, zenbait ikertzailek ustez, 1979an berretsi zen gerora 78ko Erregimena deitu izan zaiona, non deslilura eta desengainua nagusitu ziren ezein saiakera iraultzailearen aurrean (Rodríguez, 2015: 204), eta normalizazio politikoa ezarri. Euskal Herria anomalia izan bazen ere eskema horren baitan besteak beste ETaren borroka armatuaren jarraipenagatik, esan daiteke, halaber, deslilura hori ere jabetu zela 70ko hamarkada bukaeran Euskal Herriko hainbat sektore ezkertiarren baitan (Gorostidi, 2016). Horregatik guztia, ikuspuntu soziopolitikotik ere 70eko hamarkada bukaerak aldi berri bat ireki zuela esan daiteke, Hego Euskal Herriari dagokionez bederen.

2.1.1. Lehen Francostea (1975-1980)

Hiru ale baino ez zituen argitaratu *Ustela* aldizkariak (1975-1976), baina arrasto nabarmena utzi zuen euskal literaturan. Arduradun nagusiak ere aldatu egin ziren aldizkaritik aldizkarira. *Ustela* Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirrek sortu zuten, eta haien manupean argitaratu zen lehen zenbakia 1975eko urtarrilean: *Panpina ustela*. Bigarren zenbakia, *Zorion ustela*, urtebete geroago argitaratu zen, 1976an, eta bitarte horretan Ramon Saizarbitoria batu zen taldera. Atxagak eta Saizarbitoriak, baina, ez zuten elkar ondo hartu, eta ondorioz, Atxagak taldea utzi eta Izagirre eta Saizarbitoriaren gidaritzapean argitaratu ziren nola *Zorion ustela*, hala *Mermelada ustela* (1976), aldizkariaren hirugarren eta azken zenbakia. *Ustela* da, bada, Atxaga, Izagirre eta Saizarbitoria hirukoa batzen dituen lehen egitasmoa, eta horregatik bakarrik esanguratsua litzateke, gerora euskal literatura garaikideko figura garrantzitsuenetakoak bilakatuko baitziren.

Ustelak belaunaldi berri baten hastapena sinbolizatzeaz gain, katebegi garrantzitsua osatu zuen euskal literaturaren historian. Hala, zenbait ikertzailek (Elkoroberezibar, 2004) adierazi dutenez, *Ustelarekin* hasi zen literatur aldizkariaren booma, gerora (bereziki 80ko hamarkadan) pisu nabarmena izango duena.

Panpina ustela argitaratu zenean, 1975eko urtarrilean, Franco oraindik bizirik zen, eta aldizkaria zentsuratua izan zen, tirada osoa poliziak bahitu zuelarik. Garai hartan 14/1966 Legea zegoen indarrean, Fraga Legea izenarekin ezaguna dena, eta aurretiazko zentsura borondatezkoa zen printzipioz. Hots, argitalpen oro ez zen derrigorrez aurretik zentsura-aparatutik pasa behar (aurreko lege frankistak exijitzen zuen modura), baina argitalpena kalean zela, zentsurak erabaki zezakeen argitalpena bahitu eta zirkulaziotik erretiratzea. Horixe gertatu zen *Panpina ustelarekin*. Ez zuten aurretiazko zentsuratik pasa, baina «Elizaren kontrako irainak» zirela eta (Atxaga eta Izagirreraren eskela trufati

euskal literaturaren baitan, bazuen Iruñea eta Baionak ez zuten zeltraltasuna (Aresti, Verdes liburudenda, Gerediaga elkarte, Durangoko Azoka).

banagatik) tirada bahitu zieten (Sarasola, 2016: 30). Zuhurtziaz, ordea, tirada erdia baino ez zuten banatu, eta ondorioz, beste erdia poliziaren kontrolpetik kanpo geratu zen.

Atxaga eta Izagirre idazle hasiberriak ziren. Atxagak bi lan zituen publikatuak ordu-rako, Arestiren ediziopean argitaratutako *Euskal Literatura* 72 liburu kolektiboan editatu zirenak: *Oskar* ipuina eta *Borobila eta puntua* antzerkia. Horietaz landa, ordea, argitaratu gabeko testu mordoa zuen makinaz joa (Sarasola, 2016: 29). Izagirrek Donostiako Udal Liburutegiak antolatutako sariketa batean saria eskuratua zuen ipuin batengatik (nahiz eta ez zen argitaratu), eta *Karmel* aldizkarian 1974ean plazaratu zituen zenbait poema solte. Horregatik, *Ustela* beren testuak plazaratzeko argitalpen moduan jarri zuten mar-txan, euskal edizioz ez baitzen orduan aukera askorik¹², eta oraindik idazle gazte ezezagunak izaki, beren kabuz argitalpen-plataforma bat sortzea beste aukerarik ez zute-lako ia.

Panpina ustela aldizkariak, bestalde, «Ez dezagula konposturarik gal, halere» testu programatiko moduko bat zekarren, Atxagak eta Izagirrek sinatua, eta nolabait, autono-miaren belaunaldiaren manifestutzat jo izan dena; izan ere, haien arabera «literaturak bai bait du bere dinamika propio eta berezia» (Atxaga eta Izagirre, 1975).

Pultsio autonomia-zale honetan Atxagak zerikusia handia izan zuen, lehenagotik ere ideia horiek garatzen baitzebilen literaturaren autonomiaren defendatzaile sutsu modura (Sarasola, 2017). Autonomiaren auzitik landa, eta artikulua honen ikergaiari dagokionez, badu interesik manifestuak; izan ere, testuan etengabeak dira garaiko testuen argitalpe-netarako zailtasunen aipamenak. Argitaratzeko beharra hasi-hasieratik zehazten da, hi-rugarren esalditik beretik: « Bere zeregina betetzearren, lehen lehenik literaturak plazara dezaten eskatzen du: ezkutu ta isileko poemek poemak izaten diraute, bainan aidetik gabe, arnasarik gabe, panpina ustelak bilakatzen dira» (Atxaga eta Izagirre, 1975). Pixka bat aurrerago, sariketeko oso kritiko agertu ziren.

Sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriaz idazleak ito ta zapuztu egiten di-tuztelako.

Non ditugu presentatutako lanak?

Noraino daude epai-mahaikoak jantziak lanak juzgatzearren?

Sariketa literarioen aurka, liburuak, aldizkariak, poema, bertso ta teatro saioak pro-posatzen ditugu. (Atxaga eta Izagirre, 1975)

Sariketen bidea izan ohi da idazle hasiberrien lehen urratsetan argitalpen-bideetako bat, eta hain justu horren kritiko ziren biak. Arestian aipatu legez, Izagirrek, adibidez, ipuin batekin sari bat irabazi zuen, baina ez zen publikatu. Sariketen bidea, honenbes-tez, ez zuten egoki ikusten beren lanei aterabide jarraia emateko. Alta, garaiko argitalpen plataformek ere ez zituzten asebetetzen: «Gaur eguneko argitara-etxe, aldizkari ta saioe-kin ez gatoz bat: hertsia eta literaturaz kanpoko (xtraliterarioak, beraz) xederen morroi

¹² Beren sentsibilitatetik gertu egon zitekeen Lur argitaletxea, esaterako, 1973an iritsi zen azken-era. Haren errautsetatik Luis Haranburu Altunak sortutako Kriselu ez zen 1976 urtera arte martxan jarriko, eta hain zuzen ere, hortxe argitaratu zituzten Atxagak eta Izagirrek beren lehen liburuak; hurrenez hu-rren, *Ziutateaz* eta *Itsaso ahantzia*.

direlarik, marrantatu ta baztertu (nazkatu ere bai) egiten dituzte eztarri berriak» (Atxaga eta Izagirre, 1975). Gerora Izagirrek adierazi duenez, ez zuen orduan alternatiba askorik ikusten euskal argitalpenaren panoraman: Lur amaituta, Kriselu Luis Haranburu Altunaren eskuetan geratu zen¹³, Gero argitaletxeari kutsu elizkoiegia zeriola iruditzen zitzaion, eta martxan zegoen besteren bat —Leopoldo Zugaza— bere eremutik kanpo geratzen zitzaion (Sarasola, 2015: 58).

Haien arabera, garaiko argitaletxe eta aldizkariak ez zuten bidea errazten idazle berriek beren lanak han publikatu zitzaion, eta beraz, alternatiba bakarra geratzen zitzaion: beren argitalpen modu propioa sortzea. Horixe, izango da, bada, *Panpina ustelaren* funtzioa.

Ustela aldizkariaren ale bat Saizarbitoriaren eskuetara iritsi zen, eta han irakurritakoak erakarrita, bi gazteengana gerturatu eta haiekin lanean hasi zen. Arestian aipatu bezala, hasteko, bada urte ezberdintasun esanguratsu bat. Saizarbitoriak 31 urte bete zituen 1975ean, eta Atxaga eta Izagirrek 24 eta 22 hurrenez hurren. Horrekin lotura, Atxaga eta Izagirre unibertsitate ikasle ziren edo ikasketak amaitu berri, eta Saizarbitoria, aldiz, soziologia kabinete batean egiten zuen lan ordurako. Izatez, Saizarbitoriak lana lortu zion Atxagari kabinete horretan, baina gutxi iraun zuen (Sarasola, 2015: 39). Adin tartek ere aldea markatzen du kasu honetan sistema literarioaren barneko kokapenari dagokionean. Saizarbitoria ordurako euskal literatura garaikideko erreferente garrantzitsuenetako bat zen, eta Atxagak eta Izagirrek apenas zituzten lanik argiratu.

Alde hauek azaldu ahal dute, neurri batean bederen, Atxagak *Ustela* uztean aldizkariak hartuko duen ibilbide berria. *Zorion ustela* eta *Mermelada ustela* zenbakietan, tonua nabarmen aldatzeaz gainera, ez dira *Panpina ustelan* bezainbesteko sortze lan ageri, eta iritzi-artikulu gisako testu gehiago irakur litezke. Kontrastea are agerikoagoa da Atxagak 1978an Bilbon sortzen duen *Pott* aldizkaria eta Izagirre eta Saizarbitoriak 1979an Donostian sortu zuten *Oh! Euzkadi* alderatzen baditugu. *Pott* literarioagotzat jo daiteke, eta *Oh! Euzkadi* aldizkari kulturalagotzat, non lehenengoan sormen-lan gehiago aurkitu daitezkeen.

Zentzuzkoa dirudi pentsatzeak Atxaga eta Izagirre gazteek beren lanak argitaratzeko premia handiago izatea Saizarbitoriak baino. Alde batetik, lehen zenbakian adierazi bezala, ez zuten beren lanak plazaratzeko leku egokirik topatzen, eta *Ustelaren* sorrera gabezia horrekin lotu behar da. Hori ez da Saizarbitoriaren kasua, zeinak, ordurako, *Egunero hasten delako* argitaratua zuen, *100 metro* idatzia eta *Ene Jesus* bukatzeaz (azken biak 1976an argitaratu zituen Kriselu argitaletxeak). Gainera, Saizarbitoria argitaletxe-proiektu (eta gauzapen) batetik pasea zen ordurako, Lur argitaletxetik. Bestetik, Saizarbitoria nobelagile petoa izan da beti, bere hastapenetan argitaratutako poema solte batzuk (*Euskal Elerti* 69 liburuan, 1969. urtean) eta *Kapitaina* ipuina (*Hegatsen* publikatua 1971ean) alde batera utzita. Atxaga eta Izagirre, ordea, biak ala biak izan dira poeta eta

¹³ Bere lehen liburua, 1976ko *Itsaso ahantzia*, hain justu, *Kriselun* publikatuko zuen, Saizarbitoriak bide eginda. Alabaina, gerora ez zuen gogo askorik izan han publikatzen jarraitzeko.

ipuingile hastapenetik, eta genero horietarako egokiagoak ziren gisa horretako literatur aldizkariak, besteak beste, pieza laburragoak publikatzeko aukera ematen zutelako.

Horregatik Miguel Angel Elkoroberezibarrek (1988) definitu izan ditu literatur aldizkari hauek «literaturgintzarako plataforma» gisa, hain justu idatzitako hainbat sormen-piezari irteera emateko tresnak zirelako, bereziki Atxaga eta Izagirre bezalako idazle gazteentzat. Saizarbitoriak, ordea, literaturgintzarako plataforma bainoago, eztabaida sozial eta kulturalerako plataforma moduan ikusten zituela esan dezakegu, bereziki *Oh! Euzkadin* ikusi zen bezalaxe. Atxaga eta Izagirre izan ziren, hain justu, aldizkari horietatik liburu-argitalpen proiektuak sortzen ahalegindu zirenak. Modu horretan, literatur aldizkariak argitalpen plataforma sendoagoak (argialetxeak) sortzeko bidean katebegi moduan ere ulertu behar dira.

2.1.1.1. ALDIZKARIETATIK ARGIALETXEETARA

Izan ere, argitalpen plataformen garapenari dagokionez, hala *Ustelatik* nola *Pottetik* sortu ziren liburuak argitaratzeko proiektu bana. Ez alferrik, Izagirrek eta Atxagak bulztatu zituzten, hurrenez hurren.

Ustela aldizkariak 1977an eman zituen azkenak *Mermelada ustela* plazaratuta, baina urte berean, Izagirrek eta Joxemari Olaizolak *Ustela saila* jarri zuten martxan, non liburuak formatuko¹⁴ obrak argitaratu zituzten. Edizio lanak Izagirrek egiten zituen eta Olaizola kontu administratiboez eta inprentakoez arduratzen zen (Sarasola, 2015: 58). Lehenengo zenbakiak autoedizio moduan argitaratu zituzten legalki, zenbaki editorialik ez zutelako, baina berehala, Iñaki Mujika Arregi «Ezkerra»-k zuzentzen zuen Hordagoren babespean hasi ziren argitaratzen, askatasun osoz. 1977-1983 zazpi urteko tarte horretan hemeretzi titulu argitaratu zituzten, honako hauek:

1. *Oinaze Zaharrera*. Koldo Izagirre.
2. *Joan eta Ane zigarro bat erretzen*. Ibon Sarasola.
3. *Bidaia / Termitosti*. Joxe Austin Arrieta.
4. *Hitzakia*. J.I. Garmendia.
5. *Zutaz amoroski*. Jon Casenave.
6. *Guardasola ahantzia*. Koldo Izagirre.
7. *Hilargiaren hotzikarak*. Pello Lizarralde.
8. *Azkenean dilindan*. Jon Casenave / Mattin Larzabal.
9. *Gauzetan*. Koldo Izagirre.
10. *Egunero hasten delako*. Ramon Saizarbitoria.
11. *Haize lainotuaren nekeak*. MaripiSolbes.
12. *Isiletik*. Gabriel Korta.
13. *Espaloietako ginola*. Daniel Garbizu.
14. *Poemak*. Alex Azkue.
15. *Egunsenti biluzia*. Jose Luis Otamendi.

¹⁴ Izan ere, ez ziren liburu luzeak gehienak, eta sakeleko edizio modukotan argitaratu ziren. Hala ere, edizio zainduak izan ziren, horietako asko ilustrazioz hornituak argitaratu ziren.

16. *Itsu-mandoka*. Jon Casenave.
17. *Txipiroiren bat edo beste*. Rafa Egiguren.
18. *Alizia eta biok*. J. Iñaki Lasa.
19. *Azken undinaren kaira*. Jose Luis Otamendi.

Sailaren ezaugarri nabarmenetako bat izan zen titulu gehienak opera primak edo bigarren liburuak izan zirela, eta beraz, idazle berriak plazaratzeko funtzioa bete zuela. Zentzu horretan, *Ustela* aldizkariaren hasieratik adierazitako gabezia horri aurre egiten zion. Denak izan ziren liburu berriak, bat izan ezik: *Egunero hasten delako*-ren berrargitalpena. Hala, han argitaratu ziren gerora euskal literaturan ibilbide oparoa egingo zuten zenbait idazle esanguratsuren (Joxe Austin Arrieta, Pello Lizarralde, Jose Luis Otamendi) opera primak.

Potten kasuan, jada aldizkariko lehenengo aleko (*Pott bandaren berriematea*) editorialean zehaztu zuten hasierako helburua argitaletxe bat sortzea zela, baina liburuak argitaratzeko garai hartan beharrezkoa zen zenbaki editoriala ukatu zietenez, behin behinean aldizkaria argitaratzea deliberatu zutela. Hortik aurrerako zenbaki askotan aipatu zituzten argitaletxea sortzeko edukitzen ari ziren zailtasun eta gorabeherak. Bigarren zenbakiko, *Pott bandaren blagako* (1978), editorialean, honako hau zioten:

Begira, liburu bat kalera botatzea ez da gauza erraza, mekaben pott. Guk arrazoi asko direla medio, TS Eliot poetaren itzulpen batekin hasi nahi genuen. Baina zenbaki editorialea ez zaigu iristen behar bezala, eta liburu hori ezin genezake argitara bera gabe.

Horregatik, eta udak estrainatu gabe harrapa ez gaitzan, beste liburu batekin ekingo diogu lan editorialari.

Liburu hau, bernardoren *Etiopia* izango da. Poema eta lan literario laburrez osatutako liburua da. Ehun eta hogeitatu orrialde ditu, 208 × 148 mmko neurritan, eta 200 pztan salduko da. Pottale hau atera eta berehala egongo da liburudendetan, ekainaren bigarrei astean edo. Azala, JM Susperregirena izango du.

Esan eta egin, urte horretan bertan argitaratu zen *Etiopia*, Potten babespean argitaratuko zuen liburu bakarra. T.S. Elioten itzulpenen liburua urte batzuk geroago (1983an) argitaratuko zuen Hordago argitaletxeak, *T.S. Eliot euskaraz* izenburuarekin eta Aresti, Sarrionandia eta Juaristiren itzulpenez osatua.

2.1.2. *Bigarren Francostea* (1980-1984)

80ko hamarkadaren hastapenetan hiru aldizkari funtsezko jarri ziren martxan, gerora argitaletxe bana sortuko zutenak eta edizioaren historia garaikidean mugarri izango zirenak: *Susa*, *Maiatz* eta *Pamiela*.

Susa aldizkaria 1979. urtearen amaiera aldera sortu zuten Mikel Hernández Abaituak, Josu Landak, Xabier Montoiak, Eneko Olasagastik, Pablo Sastrek eta Iñaki Uriak. Deustuko Unibertsitateko Gipuzkoako campusean sortu zuten, garaiko Gipuzkoako

Unibertsitate Eskola Teknikoa¹⁵ zeritzon, eta kide gehienak hasi berria zen Euskal Filologiako karreraren matrikulatuta zeuden. Lehen zenbakia 1980an argitaratu zuten, eta haren helbidea, hain justu, unibertsitatearena berarena izan zen. Luze gabe, lehengo zenbakian jada kolaboratu zuen Mikel Antza ere batu zen taldera, eta proiektuaren bultzatzaile nagusienetakoa bilakatuko zen (Sarasola, 2019). 1980an bi ale argitaratu zituzten, 1981ean bakarra eta 1982an hiru. Horien artean, bosgarren alea da aipagarrienetakoa (1982ko apirilean plazaratua), Bernardo Atxagari eskainitako ale berezia. Oraindik obra laburreko autorea zen Atxaga, *Ziutateaz* eta *Etiopia* zituen helduentzako¹⁶ bere lan bakarrak (*Pott* aldizkariaren gain, jakina, 1980an amaitu zena) eta horixe bera aipatu zuten ironikoki *Susako* kideek ale bereziaren aurkezpenean: «Nola uler daiteke lau txorrada idatzi dituen bati SUSA osoa eskaintzea?» (Susadi Taskatasuna, 1982).

Ale berezi honek aldizkariaren egitasmoen transmisioa irudikatzen du nolabait; izan ere, *Susako* kideak hurrengo belaunaldikoak ditugu, Atxaga baino hamar bat urte inguru gazteagoak gehienak, eta nahiko agerikoa da *Susa* aldizkariaren lehenengo urteetan bederen, Lehen Francosteko aldizkariaren eragina. Hala aldizkariaren egitura (ipuin eta poemak, itzulpenak, literatur kritikak...) nola tonuan, hain arrastoa nabaria da, eta hala, ez da harrizkoa aldizkariaren bultzatzaile nagusienetakoarengan jarri izana arreta (Atxagaren obraren indar berezkoaz aparte, noski).

Atxaga bere ibilbideko une mugarrizkoen zegoen orduan, Obabako munduan izango zenaren hastapenetan. Hilabete gutxi batzuen buruan, 1982an bertan, emango zioten Atxagari Irun Hiria Saria *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* ipuinagatik, zeina Obaba proiektuaren baitan sortu zuen lehen testua izango zen¹⁷. Kritikok lau alditan banatzen dute Atxagaren obra (González-Allende eta Ascunce, 2018), eta 1982. urtea lehen aldiaren (aro abangoardista) eta bigarrenaren (Obaba zikloa) arteko igarobidean koka dezakegu.

Geroago azalduko denez, 1983an *Susak* argialetxea sortzea erabaki zuen, eta horrekin batera, egitura guztia (aldizkaria barne) *Argia* aldizkariaren babespean geratu zen. Kontuan izan behar da garai hartan *Susako* kide batzuk (Josu Landa, Mikel Antza, 1985-tik aurrera Gorka Arrese) *Argiako* langile zirela, eta beren eginbeharren pean geratu zen halaber *Susa* aldizkaria (eta argialetxea) aurrera eramatea.

1980tik 1994ra 33 zenbaki argitaratu zituzten, eta aldizkariaren hiru aldi bereiz litezke gutxi gorabehera. Hastapenekoak, 1980tik 1987 artekoak, zeinak, besteak beste, 1983an argialetxearen sorrera bizi izan zuen. 1987-1993-koa, non Iñigo Aranbarri eta

¹⁵ Gazteleraz EUTG moduan ezaguna: Escuela Universitaria Técnica de Gipúzcoa.

¹⁶ 1980an hasi zen haur eta gazte literaturako erreferentziak argitaratzen, Juan Carlos Eguillor-en ilustrazioekin. Bi zituen argitaratuak ordurako: *Nikolasaren abenturak eta kalenturak*, eta *Ramuntxo detektibeak*.

¹⁷ *Obabakoak* liburuko lehen testua da, orobat.

Gorka Arrese izan ziren arduradun nagusiak; eta, azkenik, 1993-1994 artean argitaratu ziren azkeneko hiru aleena, Lubaki Bandak¹⁸ zuzendu zituenak.

Maiatz proiektua Baionan sortu zen 1981eko maiatzaren 10ean (Elizalde, 2019). Itxaro Borda eta Luzien Etxezaharretak abiatu zuten proiektua, baina luze gabe «Maiatz Batasuna» taldea osatu zuten hainbat belaunalditako kideak bilduz: 36ko Gerra baino lehen jaiotako Iratzeder eta Piarres Xarriton alde batetik, baina baita garaiko idazle gazteak ere: Borda eta Etxezaharretaz gain, Aurelia Arkotxa eta Jon Casenave, besteak beste. Iparraldeko idazleen elkargune eta sustatzaile izan zen *Maiatz*, eta lan berriak publikatzeko plataforma eskaintzeaz gain (aldizkariaren bidez lehenik, argitaletxearekin gero), euskara eta literaturaren inguruan hausnartzeko gunea eskaintzen zuen. Izan ere, Itxaro Bordak (2007) aipatzen duenez, garai hartan euskararen eta Euskal Herriaren iraganari buruzko ikerketak hobesten ziren, eta literatura ia luxutzat jotzen zen iparraldeko euskaltzaileen artean: «euskal gauzen ikerketa hobesten zen, hilerriak, sorginak, jantziak, dantzak, idazki zaharrak. Orduko gure mundua iraganari begira zegokion, iraganaren azterketak zekarkeen unibertsitate mailako ohore bila».

Aldizkariaren lehen zenbakia ez zen 1982ko otsailera arte argitaratu. Baionako Fakultatean aurkeztu zen, sortu berrian zen Euskal Ikasketen Institutuan (Elizalde, 2019). 500 aleko tirada izan zuen eta literatura bizia aldarrikatu zuten zenbakiko editorialean, ez gauza hilak, «ikerketa hotzetarakoak» (*Maiatz*, 1982). Hiruhilekoa izateko sortu bazen ere, urtean bi zenbaki argitaratu izan dira, eta kolaboratzaile talde esanguratsua izan du, garaiko idazle nabarmenetakoek osatua: Emilio Lopez Adán «Beltza», Eñaut Etxamendi, Daniel Landart, Mayi Pelot, Manex Erdozaintzi-Etxart, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, eta abar. Egun argitaratzen jarraitzen duen literatur aldizkari bakarrenetakoa da, garai hartatik jarraitzen duen bakarra *Idatz & Mintz*-ekin batera.

1984. urtea mugarria izan zen *Maiatz*entzat. Argitaletxea sortzeaz gain, lehenengo literatur jardunaldiak antolatu zituzten Baionako Bil Txokoan, zeinetan hegoaldeko idazleek ere parte hartu zuten. Hortik aurrera, jarraiak izan dira hegoaldeko idazleen kolaborazioak, eta neurri batean, *Maiatz*ek iparraldeko eta hegoaldeko literatur sistemen katebegi lana egin duela esan liteke.

Izan ere, *Maiatz* aldizkari berezia izan zen literatur aldizkariaren booma deitu izan zaion (Elkoroberezibar, 2004) horren barruan. Ikusi dugunez, boom honen hastapena Donostian koka liteke *Ustelarekin*, eta Bilbora zabaltzen da gero *Pottekin*. Garaiko beste aldizkari batzuk ere Donostian (*Oh! Euzkadi*, *Xaguxarra*, *Susa*) kokatu ziren, eta testuiguru horretan, Baionan kokatutako eta iparraldeko idazleek sustatutako aldizkari bat iraultza txiki bat suposatu zuen. Hain justu, halaxe definitua izan zen: garaiko aldizkari ezberdinena eta aukera gehien eskaintzen zituena (*Kandela*, 1985).

*Maiatz*ekin batera *Pamiela* izan zen garaiko aldizkariaren ingurune gutxi-asko zentraletik aparte garatu zen beste proiektua. Kasu horretan Iruñean sortua, *Maiatz*en lehen zen-

¹⁸ Idazle gazteen taldea izan zen, hamalau kidekoa, tartean GariBerasaluze, Harkaitz Cano, Xabier Gantzarain, Ander Izagirre, Asier Serrano.

bakia argitaratu eta hilabete gutxitara agertu zen *Pamiela* aldizkariaren lehen alea, 1983ko ekainean. Iruñeko Auzolan liburu-dendaren bueltan sortu zen (haren helbidearekin argitaratu zen aldizkaria), literaturaz mintzatzeko han elkartzen ziren lagun talde batek bultzatua: Txema Aranaz, Miguel Sánchez Ostiz, Xabier Eder, Pello Lizarralde, Víctor Moreno, Santiago Etxandi... *Pamiela* izena Lizarralde proposatua izan zen, Azkoitiako aitonari entzunda; antza, belaunaldiz belaunaldi pasatzen zen kaxaren izena zen, zeinak ipuin eta alegia zaharrak gordetzen zituen eta itxita utzi behar zen (Olaziregi, 2019). Aranazen ideia izan zen aldizkaria sortzea, eta lehen zenbakian, aipatutako idazleez gain beste batzuen kolaborazioak ere izan zituen, tartean urtebete geroago Iruñean bertan *Korrok* aldizkaria sortuko zuten zenbaitena: Ana Iribar, Mikel Taberna eta Jon Alonso.

Hamar urte iraun zituen aldizkariak, 1993ko urte bukaera aldera argitaratu zuten azkena, 15. zenbakia. Hala ere, esan beharra dago argitalpena ez zela jarraia izan, 1986tik 1991ra ez zelako alerik argitaratu. Hala banatu ziren aldizkariak urteka:

- 1983: 1-3 aleak.
- 1984: 4-7 aleak.
- 1985: 8-10 aleak.
- 1986: 11-12 aleak.
- 1991: 13. alea.
- 1992: 14. alea.
- 1993: 15. alea.

Honenbestez, garbi ikusten 1983-1986 aldia izan zela emankorra. Aipagarria da, bestalde, *Pamielako* testu gehienak gaztelera argitaratu zirela, euskarazkoak gutxiengoa izanik. Haatik, horretan ere garapena suma liteke: hastapen ia gaztelera hutsezkorik, geroz eta euskarazko testu gehiago publikatu zituzten (horietako asko itzulpenak), batez ere 6. aletik 12. alera. Hala, euskal idazle gehiago batu zitzaizkien lehen aletik aurrera, besteak beste: *Potten* bueltan ibilitako Bernardo Atxaga, Jon Juaristi, Jon Kortazar, Ruper Ordorika eta Joseba Sarrionandia; Luigi Anselmi, Pako Aristi, Itxaro Borda, Andolin Eguzkitza, Juan Martin Elexpuru, Xabier Etxaniz, Jose Angel Irigaray, Xabier Kintana, Txema Larrea, Laura Mintegi, Patziku Perurena, Bixente Serrano Izko, Patri Urkizu.

Aipagarria da, ildo horretan, Pott Bandako zenbait kidek *Pamielarekin* izan duten harreman estua. Atxaga eta Ordorikak gertutik parte hartu izan dute argitaletxearen martxan, eta *Pamiela* da Atxagaren obra gehienak argitaratzen dituen 1991n *Behi euskaldun baten memoriak* argitara eman zuenetik. Bestetik, *Pamiela* ondorengo beste literatur aldizkari batzuen ernamuin izan da: *Mazantini* (1991-1993), *Garziarena Berria* (1997-1997) eta *Erlea* (2009-2018)

2.1.2.1. ALDIZKARIETATIK ARGITALETXEETARA

Bigarren Francostean ere aldizkaritik argitaletxerako eraldaketak ikus ditzakegu *Susa*, *Maiatz* eta *Pamielaren* kasuan. Aurreko aldiarekiko konparazioan, ordea, ezberdintasun funtsezko bat dago; hots, hiru proiektuek jarraipena izan dute argitaletxe modura, eta egungo euskal literatur sistemako argitaletxe garrantzitsuenen artean daude.

Susaren lehen sei zenbakien (1980-1982) ostean, taldeak argitaletxea sortzea erabaki zuen. Josu Landa eta Xabier Montoia liburu banarekin joan ziren Luis Haranburu Altunarengana Kriselu argitaletxean publikatzea ziezazkien, baina hark bakarrik Landarena argitaratzea onartu zuen. Hori izan zen argitaletxea sortzeko gertakari piztailea. Izan ere, hori ikusirik, argitaletxea sortu zuten, bi liburuok izan zirelarik lehendabiziko aleetako batzuk: Montoiaren *Anfetamiña* (1983) poema liburua lehena eta Landaren *Ipurtargi beltza* liburu hibridoa hirugarrena. Bigarrena aldizkariako garaiko hiru kidek sinatu zuten, Eneko Olasagasti, Gorka Setien eta Maripi Solbesek: *Eta zergatik ez... Sigrid?* poema liburua. Lehen urte horietan, liburu guztiak bilduma bakarrean argitaratu zituzten harik eta 1987an Poesia eta Narratiba bildumak sortu zituzten arte. Lehenaldi horretako liburu aipagarriak dira, besteak beste: Mikel Antzaren *Lehen bilduma 82-84*, Itxaro Bordaren *Basilika*, Omar Nabarroren *Itxastxorien bindikapena*, Jon Aranoren *Bileterik gabe* edo Iñigo Aranbarraren *Jonas Poisson*. 1986tik aurrera, argitaletxea egonkortu eta pixkanaka handitzen eta garatuz joan zen, harik eta, esan bezala, egungo argitaletxe garrantzitsuenetakoa den. Honakoek publikatu dute, besteren artean, Susaren katalogoan: Uxue Alberdi, Jon Alonso, Jon Benito, Leire Bilbao, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Hasier Etxeberria, Koldo Izagirre, Miren Agur Meabe, Juanjo Olasagarre, Jose Luis Otamendi, Mikel Peruarena, Eider Rodriguez, Kirmen Uribe. Gorka Arrese izan da argitaletxeko editorea hogeita hamar urtean, 1987tik 2017 arte; handik aurrera, Leire Lopez da editorea.

Dagoeneko esana den bezala, *Maiatz* aldizkariarentzat 1984. urtea mugarririk izan zen. Orduan ipini zuten martxan, halaber, argitaletxea. Bi izan ziren argitaratu zituzten liburuak urte horretan, bat euskaraz eta bestea frantsesez: Itxaro Bordaren *Bizitza nola badoan* eta Marc Legasse-ren *Concerto guerriller opour un paísquin'existe pas*, zeina aurrez euskaraz eta gazteleraz plazaratu zuen Txertoa argitaletxeak. Orduz geroztik, urtean 3-5 titulu argitaratu izan ditu *Maiatzek*, eta hala, orotara 150 titulu inguru plazaratu ditu (Elizalde, 2019). Horien artean ugari aipa litezke, baina besteren artean honako hauek dira azpimarragarri: Piarres Aintziarten *Biziaren bazterrean* (1992), Ur Apalategiren *Erdi gunek* (1995), Manex Erdozaintzi-Etxart-en *Herri honen erraietan* (1985), Eñaut Etxamendiren idazlan guztiak, Luzien Etxezaharretaren *Inter porcos* (2007), Antton Luku-ren *Botoiletan* (1998), Txomin Peillenen *Mende joanaz* (2003), Mayi Peloten *Biharko oroitzapenak* (1985) eta *Teleamaraua* (1987). Gaur egun, Luzien Etxezaharreta da *Maiatz* argitaletxeko editore eta kudeatzailea.

Azkenik, *Pamielaren* kasuan, aldizkariaren sorrera-urte berean (1983an) argitaratu zuten lehen liburua, Pablo Antoñanaren *Pequeña crónica*¹⁹. Orduan osatu zen, beraz, argitaletxea, Jorge Oteizak diseinatutako logoa zeramana (Olaziregi, 2019). Bigarren liburua euskaraz argitaratu zuten, Pello Lizarraldaren *E pericoloso sporgersi. Zuri beltzean* (1984), haren lehen narratiba-lana izan zena. Hortik aurrera, ibilbide oparoa egin du argitaletxeak euskal literatur sisteman. Txema Aranaz izan da kide garrantzitsuenetako bat, eta editore zein maketatzaile lanak egin izan ditu batez ere. 2000. urtetik hona Pello Elzaburu da editore eta kudeatzaile nagusia, baina aipatzekoa da, halaber, Jose Angel Irigaray egiten duen lana bilduma batzuetako editore gisa. 2019. urtean sei langile ditu ar-

¹⁹ Aldizkariaren laugarren zenbakia, 1984ko lehena, Antoñanari eskaini zioten osoki, zeinak testu bakarra zuen euskaraz, Pello Lizarralde idatzia.

gitaletxeak soldatapean, nahiz eta kolaboratzaile sare oparoa duen hainbat lan puntual egiteko (Olaziregi, 2019). Bilduma ugari ditu argitaletxeak, eta aski emankorrak izan dira bere narratiba, haur eta gazte literatura, eta poesia bildumak. Horien artean honako autoreen hainbat lan aipa litezke: Bernardo Atxaga, Tere Irastortza, Joxemari Iturralde, Mariasun Landa, Xabier Lete, Ixiar Rozas, Joseba Sarrionandia, Arantxa Urretabizkaia, Patxi Zubizarreta. Alta, bereziki nabarmentzekoa da, orobat, saiakera bilduma, zeina urte-tan Juan Zelaia Sariaren bidez sustatu izan den. Arlo horretan, euskal kulturari buruzko hainbat liburu erreferentziazko argitaratu dira: Juan Carlos Etxegoien «Xamar»-en *Orhipean, gure Herria ezagutzen* (1992), *Euskara jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (2006) eta *Etxera bidean* (2018), Asun Garikanoren *Far West-eko Euskal Herria* (2009), Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean* (2010), Jon Sarasuaren *Hiztun-polisa. Euskalduntasunaren norabidez apunteak* (2013). Bestetik, seinalatzeak dira, halaber, Nafarroaren historia eta memoria historikoa landu duten erreferentzia ugariak, hala nola, Tomas Urzainqui eta Joan María Olaizolaren *La Navarra marítima* (1999) eta Jimeno Jurioaren idazlan guztiak. Orotara, 35 urtetan, 1100 liburu inguru argitaratu ditu Pamielak euskaraz zein gazteleraz (Olaziregi, 2019).

3. Aldizkariak literatur sisteman

XX. mendeko 70eko eta 80ko hamarkadak funtsezkoa izan zen euskal literatur sistemaren eraketan, ez soilik testuinguru politikoaren bidez sortutako egitura politiko autonomiko berriengatik, baizik eta egun garrantzitsuenak diren argitaletxeetako batzuk sortu eta instituzio literarioak gorpuztu zituztelako. Kontuan izan behar da orduan sortu zirela Elkar (1972), Erein (1976), Maiatz (1984), Pamiela (1983) eta Susa (1983), zeinak egungo panorama literarioan argitaletxe garrantzitsuenak diren (gerora sortutako Alberdania eta Txalapartarekin batera).

Argitaletxeen instituzionalizazio bide horretan, baina, elementu aski garrantzitsuak izan ziren literatur aldizkariak. Lehen Francostean *Ustela* eta *Pott*, zeinek argitaletxe-proiektu bana izanagatik ez zuten mamitzerik izan. Bigarren Francostekoek, ordea, *Maiatz*, *Pamiela* eta *Susak* lortu zuten argitaletxeak sortu eta egonkortasunez garatzea, eta hala, argitaletxeen ernamuin izan ziren aldizkariak bigarren plano batean geratu ziren argitaletxeen egitasmo anbiziozkoen aurrean.

Prozesu horrek aditzera ematen du hain justu literatur sistema prekario baten normalizazio eta garapena. Literatur sistema oraindik heteronomoetan, literatur aldizkariak eta gisako egitura ahul eta behin-behinekoak nagusitzen dira argitaletxe independente edo are enpresa editorial handien aldean. Literatur sistema bat indartu ahala, argitaletxeek ordezkatzeko literatur aldizkariaren funtzioa, eta hala, aski normala izaten da haien pixkanaka desagertuz joatea²⁰. Literatur generoei dagokienez, literatur sistema heteronomo eta txikietan ohikoagoak izaten dira poesia eta ipuinak nobelak baino, eta ho-

²⁰ 2018an *Erlea* aldizkaria itxi ondoren, bakanak dira egun literatur aldizkariak: *Idatz&Mintz*, *Maiatz*... Horren harira, interesgarria litzateke *Erlearen* ibilbidea ikuspuntu sistemiko honetatik aztertzea.

rixe gertatu zen euskal literaturan ere. 80ko hamarkada poesiaren eta ipuinaren hamarkada izan zela esan izan da, eta 90ekoa, aldiz, nobelarena, eta biraketa hori bat dator, halaber, aldizkarietatik argitaletxeetarako igarotzearekin. Ez alferrik, aproposagoak izan ohi dira aldizkariak poema eta ipuinak argitaratzeko nobelak argitaratzeko baino.

Halaber, argitaletxeen egonkortzeak ere zerikusia du editore autonomoaren figura-rekin. Ohartzen bagara, Lehen Francosteko saiakerak ezin izan ziren mamitu, bestek beste, *Ustela* zein *Pott* proiektuetako bultzatzaile nagusiak idazleak izan zirelako. Ordea, Bigarren Francostean egonkortu ziren hiru proiektuetan idazleak ez diren editore autonomo (eta gerora profesionalekin) egiten dugu topo: Maiatz – Luzien Etxezaharreta²¹, Pamiela – Txema Aranaz (eta Pello Elzaburu) eta Susa – Gorka Arrese. Jakina, editorearen figura ere hertsiki loturik dago literatur sistemaren egonkortzearekin, eta zehazki, instituzio literarioen eta baldintza ekonomikoen indartzearekin. Zentzu horretan, Bigarren Francosteko hirukoan salbuespena Maiatz litzateke, Etxezaharretak ez duelako bizibidetzat editore lana izan. Ez da kasualitatea; bistan denez, Ipar Euskal Herriko instituzio literarioak eta testuinguru sozio-politikoa euskal literaturarentzat Hego Euskal Herrikoa baino aski ahulagoa dugu. Horrek azaltzen du, neurri batean, hala *Maiatz* aldizkaria mantentzea nola argitaletxearen funtzionamendu eta argitaldiak askoz ere xumeagoak izatea Pamiela eta Susaren aldean. Bestetik, Pamiela eta Susaren konparazioan, *Ustela* eta *Pott* (eta aurretik, *Lur*, esaterako) ez ziren ekonomikoki bideragarriak izan editore bat sostengatuko zuen egitura profesional minimo bat osatzeko. Gainera, haien bultzatzaileak (Izagirre eta Atxaga, hurrenez hurren) idaztea izan dute helburu nagusi, eta hala, horretara lerratu dira gerora ere.

Instituzionalizatze prozesu horrek ere eragina izan zuen literaturaren kanonean. 70eko eta 80ko hamarkadetan hasiberriak ziren idazle eta egiturak egonkortu ahala, kanonean legitimazio indar handiagoa erdietsi zuten. Lehenengo Francosteko bultzatzaileak, esaterako, Atxaga eta Izagirre, idazle kontestatario eta bazterrekoak ziren, eta beren testuek kutsu kontrakultural argia zuten. Ez alferrik, ohikoak ziren beren aldizkarietan idatzitako testuetan garaiko euskal intelligentsiaren kontrakoak irakurtzea (Sarasola, 2015): Joseba Intxausti, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza, Juan San Martin... Gaur egunean, haatik, agerikoa da Atxaga kanonaren erdigunean kokatua dela, bereziki 1989ko Espainiako Literatura Sari Nazionala erdietsi ondoren eskuratu zuen arrakasta nazioartekoarekin. Izagirreri dagokionez, ezin esan liteke argiki euskal literaturaren kanonean dagoenik: ez da autore bereziki arrakastatsua ez eta saritua, eta askotan aipatu izan da kritikak eta, oro har, instantzia legitimatzaileek baztertu samar eduki izan dutela (Rodriguez, 2011). Hori kontuan izanik ere, nabarmentzekoa da Izagirreren eragina hainbat idazlerengan, hala estilistikoki nola ekintzaitza literarioari dagokionez ere, eta aintzat hartua izan da Hasier Etxeberriaren *Bost idazle* bezalako liburu erreferentzialetan. Bestetik, Idurre Alonsok egindako ikerketaren arabera, irakaskuntza materialetan aski kokapen zentrala duen idazlea dukegu Izagirre, zehazki hirugarren multzokoa zazpitik (Alonso, 2010: 97). Kurioski, Atxagak eta Izagirrek nagusiki landu dugun aldiko argitaletxeetan argitaratu dute azken urteotan, Pamielan eta Susaren hurrenez hurren, eta horrek ere adi-

²¹ Egia da Etxezaharretak libururen bat argitaratua duela, baina gehienak editore lana garatu eta ondorengoak dira, eta lan harekiko modu subsidiarioan.

tzera ematen du 70-80etan sortutako proiektu editorialak ere erdigunean kokatu direla denborarekin, egungo idazle garrantzitsuenetako batzuen obrak argitaratzen dituztelarik.

70-80etako literatur aldizkarien booma literatur sistema autonomoaren eraketarekin paraleloan uler liteke. Egitura berrien ernamuinak izan ziren batetik, zeinetatik batzuk ez ziren mamitu (*Ustela, Pott*), baina beste batzuk bai (*Maiatz, Pamiela, Susa*), gaur egungo argitaletxe nagusietakoak izateraino. Era berean, aldizkari horiek sortu eta bultzatu zituzten idazle askoren patua ere antzekoa izan da; hastapen kontrakultural eta bazterrekoak izan zituzten aldizkari haien garaian, baina gerora leku zentralagoa eskuratu dute euskal literatur sisteman. Neurri horretan, literatur aldizkarietatik argitaletxeetarako ibilbidea, eta horrekin batera, lehenengo murriztea, literatur sistemaren normalizazio sintoma gisara ere uler liteke. Izan ere, sistema normalizatueta argitaletxeak (horietako asko egitura profesionalizatuekin) kokatzen dira argitalpen-instituzioen erdigunean, eta literatur aldizkariak bigarren mailako rola hartu ohi dute, bereziki sortzen ari diren literatur sistemetan dutenarekin alderatzen badugu.

Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- Alonso, Idurre (2008). *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai. Idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboen argitara*, Bilbo: Labayru.
- Alonso, Idurre (2010). *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alonso, Idurre (2012). «Idazleen hierarkizazioa euskal sisteman», in *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 81. zenbakia, 41-59.
- Atxaga, Bernardo eta Izagirre, Koldo (1975). «Ez dezagula konposturarik gal, halere», in *Panpina ustela*.
- Borda, Itxaro (2009). «Maiatz, 25 urte», in *Bazka. Literaturaren soziologia baterako*. <http://www.bazka.info/?p=227-tik berreskuratua> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Elizalde, Amaia (2019). «Maiatz (Baiona, 1984) [Semblanza]», Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.
- Elkoroberezibar, Miguel Angel (1988). «Literaturgintzarako plataformak», in *Jakin*, 49, 21-42.
- Elkoroberezibar, Miguel Angel (2004). «Beste eskailera baten historia: *Panpina Ustelatik* literatur aldizkariaren boamera», in *Disidentziak oro. Poetikak eta arte ekinbideak euskal trantsizio politikoan. 1972-1982*, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia: Autorea. [https://sites.google.com/xubi.eus/liburuak/hasiera/euskal-literatur-aldizkariak-tik berreskuratua](https://sites.google.com/xubi.eus/liburuak/hasiera/euskal-literatur-aldizkariak-tik-berreskuratua) [Kontsulta data: 20/6/24].
- Erl, Astrid (2014). «Generation in Literary History: Three Constellations of Generationality, Genealogy, and Memory», in *New Literary History*, vol. 45, n.º 3, 385-409.
- Etxeberria, Hasier (2002). *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Irun: Alberdania.
- Even-Zohar (2011). «El sistema literario», in Even-Zohar, Itamar, *Teoría de los polisistemas*. Tel Aviv: Universidad de Tel Aviv.

- González-Allende, Iker eta Ascunde Arrieta, José Ángel (2018). *El mundo está en todas partes- La creación literaria de Bernardo Atxaga*. Bartzelona: Anthropos.
- Gorostidi, Juan (2016). *Zazpigarren heriotza*. Donostia: Erein.
- Ibinagabeitia Proiektua. *Literatur aldizkariaren gordailua* (2001). Zarautz: Susa argitaletxea. Kontsulta: <https://andima.armiarma.eus/> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Kandela (1985). *Euskal letren dantza 1983an*. Donostia: Hordago.
- Maiatz (1982). «Aldizkari bat, gurea...», in *Maiatz*, 1. <https://andima.armiarma.eus/maia/maia0101.htm> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Martínez, Guillem (2016). *CT o la Cultura de la Transición*. Madril: Debolsillo.
- Olaziregi, Mari Jose (2000). «Un siglo de novela en euskera», in Urkizu, Patri (zuz.) eta al. *Historia de la literatura vasca*. Madril: Uned ediciones.
- Olaziregi, Mari Jose (ed.) (2012). *Basque Literary History*. Nevada: Center for Basque Studies.
- Olaziregi, Mari Jose (2019). «Pamiela (1983-) [Semblanza]», Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <http://www.cervantesvirtual.com/buscador/?q=pamiela> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Rodríguez, Eider (2011). «Hitzaurrea», in Gopegi, Belén, *Tiroa kontzertuaren erdian: eleberrietan politikaz aritzeari buruz*. Tafalla: Txalaparta.
- Rodríguez, Emmanuel (2016). *Porqué fracasó la democracia en España. La Transición y el Régimen del 70*. Madril: Traficantes de Sueños.
- Sarasola, Beñat (2015). *Bainaren belaunaldia; Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi*. Bilbo: Labayru.
- Sarasola, Beñat (2017). «Bernardo Atxaga y su defensa de la autonomía de la literatura», *Castilla. Estudios de literatura*, 8, 1-26.
- Sarasola, Beñat (2019). «Susa-Literatura (Donostia-San Sebastián, 1983-) [Semblanza]», Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <http://www.cervantesvirtual.com/obra/susa-literatura-donostia-san-sebastian-1983--semblanza-971083> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Susadi Taskatasuna (1982). «Ale berezi honek ez du justifikaziorik», *Susa*, 5. <https://andima.armiarma.eus/susa/susa0501.htm-tik> berreskuratua. [Kontsulta data: 20/6/24].
- Torrealdai, Joan Mari (1977). *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Donostia: Jakin.

Ibilaldia euskal klasikoen ediziogintza modernotik (1840-2020)¹

Eneko Zuloaga

UPV/EHU-MLV

Laburpena

Lan honek euskal idazle kanonikoen ediziogintza modernoa du aztergai; zehazki, 1850 baino lehenagoko testu klasiko kanonikoak nork, noiz, non eta nola argitaratu eta berrargitaratu dituen azken mende eta erdian, 1840-2020 denbora-tartean. Azterketa horrek, hain zuzen, aukera eman du hainbat joera ikusarazteko eta, bereziki, bi alderdiren ikuspegi orokorragoa lortzeko. Alde batetik, garaian garaiko kultura-jendeak eta inprimatzaileek izandako interes soziokulturalen eta literarioen bilakabidea agerrarazten da. Beste alde batetik, ediziogile eta inprimatzaileek bizi zuten garaia eta zituzten interes, helburu eta ezagutzen arabera testuei emandako tratamenduak azalera-tzen dira.

1. Sarrera

Lan honetan euskal klasikoen ediziogintza modernoa izango dut hizpide; hots, 1840/1850eko hamarkadez geroztik prestatutako eta argitaratutako euskal idazle eta testu klasikoen ediziogintza. Funtsean, nire helburua da XIX. mendearen erdialdeaz geroztik gaur egunera bitartean euskal klasikoek edizioen eta (ber)argitalpenen ikuspegitik izan duten tratamenduaren ikuspegi orokorra ematea: garairik garai zer argitaratu eta

¹ Lan honek MINECOK finantzaturako «*Monumenta Linguae Vasconum* (V): cronología y periodización» (kodea: FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzaren «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HMLV-LHC) [IT1344-19] ikerketa-talde kontsolidatuaren babesa izan du. Eskerririk asko Blanca Urgelli, zenbait azpi-atal osatzeko emandako argibideengatik.

zer berrargitaratu den, argitalpen horiek norik prestatu dituen, non eta noiz argitaratu diren, nola landu diren argitaragaiak, eta abar.

Euskararen corpus historikoa erlatiboki txikia dela aipatu izan da aspaldirik: 1545etik 1900era bitartean 101 liburu sortu zirela azaldu zuen Sarasolak (1975: 107-109). Liburu horien artean, baina, zeinek bere ibilbidea egin du, espero zitekeen bezala, eta hemen luzeegi joko luke hala liburu *gutxi* horietako bakoitzaren ibilbidea irudikatzeak nola hamarkadaz hamarkada (ber)argitaratutako lanen berri zehatza emateak. Ikuspegi orokorra aurkeztu nahi da hemen, garaian garai nagusi izandako joeren berri eman eta joera horien erakusgarri diren editore, edizio-molde, argitalpen, bilduma eta abarrak ikusarazi.

Literaturaren esparruan hainbatetan eztabaidatu da zein idazle edo testuri esleia daiekien *klasiko* izendapena. Definizio estandarretan behin eta berriz aipatzen dira eredu-garritasuna eta kanonikotasuna, kalitatea eta belaunaldiz belaunaldiko biziraupen onartua. Euskal literaturaz den bezainbatean, hala dio Euskaltzaindiaren *Literatura terminoen hiztegiak* (s.v. *klasiko*):

Euskal klasiko edota idazle eredugarritzat hartzen dira, oro har, XVI. eta XVIII. mendeen artean lan zabala duten ia idazle guztiak, gure literatur tradizioaren urritasuna bera delarik zabaltasun horren zio nagusia. Olerkian, B. Etxepare, A. Oihenart eta Ziburuko J. Etxeberri jotzen dira klasikotzat. Bestalde, hitz lauzkoaren eredu nagusi bihurtu da P. Agerre «Axular» eta beraren *Gero* (1643), izan ere, argitalpen kopuruek bultzatu baitute lehen mailara eta euskara batua eratzeko orduan eredu eta erreferente nagusitzat hartu izanak bermatu baitu bere klasikotasuna.

XVIII. mendearen bukaeran, bizkaiera eta gipuzkera literarioak sortu zirenean, orduko lehen idazleak ere klasikotzat harturik dira. Bizkaieraren kasuan, J. A. Mogelen prosa aszetikoak klasikoaren izena merezi du, P. A. Añibarro eta Frai Bartolomerenak bezala, erabili duten literatur mintzairaren maila kontuan harturik. Arrazoi berarengatik hartzen dira klasikotzat gipuzkera literarioaren lehen egileak ere: M. Larramendi, S. Mendiburu, eta abar. (Kortazar, 2008)

Lan honetan, bada, ikuspegi zabal horrekin egiten dut lan, eta klasikotzat jotzen ditut batzuetan ugariago eta beste batzuetan eskasago baina zein bere garaiko obra arrakastatsu eta eredugarri izanik arrakasta eta eredugarritasun horri berrargitalpenen bidez eutsi dioten lanak². Zehazki, arreta nagusia liburuen argitalpenetan eta horien edizio-moldeetan jarriko dut, tarteka bestelako testu laburrageoi eginiko aipamenak aipamen.

Denbora-tartea dela eta, 1850 aurreko testuez arituko naiz, gaia nonbaitetik mugatu behar dela eta. Tematikoki, 1900era arteko testu gehienak (are beranduagora artekoak ere, esan lezake norbaitek) oso urrun geratzen dira egungo euskal gizartearen interesetatik: gogoan hartzekoa da 1545-1900 denbora-tartean argitaratutako liburuen % 98 erlijiosoak zirela Sarasolaren (1975) kalkuluen arabera, eta 12 ez-erlijioso besterik ez zeudela. Azken urteotako aurkikuntzek ez dituzte zenbaki horiek askorik aldarazi, eta gaur egun 1900 aurreko testuak irakurtzen direlarik, nagusiki interes linguistiko eta filologikoz irakurtzen

² Kanpoan utzi ditut, aparteko lan historiografikoa behar dutelakoan, gramatika, hiztegi eta hizkuntza-eskuliburuak.

direla baieza daiteke, aurreko mendeetako euskara ezagutzeko eta idazleen idazkera eredugarria lantzeko. Interesen urruntze hori, aldiz, ez da betierekoa izan: denboran aurrerago, handiagoa izan da urruntzea. Aurreko mendeetan interesez irakurtzen eta zabal-tzen ziren orain gehienbat interes linguistiko-filologikoa duten lanak: G. Arruek itzultitako *Brabanteko Jenobeba* izan zen euskal liburu irakurrienetarik bat (Torrealdai, 1977; Sarasola, 1982). Aitzitik, interes linguistikoa ere ez da gaur egungoa: ez dira ahaztekoak Etxeberri Sarakoak XVIII. mende hasieran Axularren euskarari egiten dizkion goraipamenak eta aitortzen dion eredugarritasuna, gerora ere egin den legez. Ediziogintzaren bilakaera aztertzea, besteak beste, interesen bilakabide hori aztertzekeo lagungarri ere bada.

Klasiko izenak ez ezik, *edizio* ere behar du azalpena, laburra bada ere. Prestakuntzaz filologo denarentzat baitezpada bereiztekoak dira (ber)argitalpenak, edizioa(k), transkripzioak... eta horietako bakoitzaren barnean egon litezkeen motak edo azpi-kategoriak; aitzitik, lan honen asmoa ez da ñabardura, eztabaida eta azalpen filologikoetan sakontzea, nahiz eta zenbait kasu berezitan (muturrekoetan, onerako nahiz txarrerako) edizio- eta argitalpen-moldeez aritzean zenbait ohar egitea ezinbestekotzat jo dudan. *Edizioez* aritzean, beraz, *klasikoez* aritzean legez, ikuspegi zabala darabil: hainbeste eta askotarikoak izan dira testuek izan dituzten tratamenduak, eta etengabeko ñabardurek testua tratu eta ilunduko lukete.

Lan honetan hiru garai bereizi ditut, eta horien arabera egituratu dut kapitulua. Lehenik eta behin (§2) ediziogintza modernoaren hastapenez arituko naiz, XIX. mendearen erdialdetik Espainiako Gerra Zibilak eragindako etenera bitarteko garaiaz. Bigarrenik (§3), Francoren diktaduraren sasoiko lanak izango ditut hizpide. Hirugarrenik (§4), Franco hil ondoko trantsizio-urteetatik gaur egunera bitarteko argitalpen eta lan-moldeez arituko naiz. Azkenik (§5), ikuspegi orokorra emango dut 1840tik 2020ra bitartean ediziogintzan atzemandako joera eta aldaketa nagusiez.

2. Ediziogintza modernoaren hastapenak (1840-1936)

Euskal testuen ediziogintza modernoa XIX. mendean sortu zen, eta *Euskal Pizkunde* deitu izan den garaian sendotu eta finkatu (garaiaz, ik. Camino, 2018: §1). Zehazki, kristau-dotrina hedatzeko euskarrien beharrianari, XIX. mendearen erdialdeaz geroztiko berpizkunde kulturalari eta atzerriko nahiz tokiko ikertzaileen jardunari lotzen zaio 1936 aurreko ediziogintza, nahiz eta garai hartan prestatu eta argitaratutako testu guztietan ez diren ikuspegi, jokamolde eta joera berak islatzen. Euskararen historiaren bi garai luze-ren arteko trantsizio mailakatua gertatu zen XIX. mendearen bigarren erdian, Lehenengo Euskara Modernoaren (1745-1891) eta Azken Euskara Modernoaren (1891-1968) artekoa (periodizazioaz, ik. Lakarra 1997). Hain zuzen, Euskal Herriko politikan eta bizitza soziokulturalean askotariko gorabehera, interes eta ikuspegiak sortu ziren, eta euskal klasi-koen ediziogintza-moldeetan ere islatzen da aniztasun hori.

Urgellek (2000) eginiko sailkapenaren arabera, bi irizpide nagusiren arabera bana daiteke 1936 aurreko edizioleen jokamoldea: jatorrizko testua eraldatu zutenak daude alde batetik, eta jatorrizko testua gorde edo errespetatu zutenak beste alde batetik.

Lehenengoei dagokienez, testuaren edukia edo/eta hizkera-eredua eraldatu zuten, ez jatorrizko egilearen asmo eta ikuspegiatarara hobeto egokitzeko, ezpada edizioegilearen ezagutza, uste eta xedeen arabera. Urgelli (2000: 2) jarraikiz, hiru arrazoi nagusi zeudekeen inoren testua eraldatzeko:

- (i) Testua bizirik egotea (alegia, argitaratzen zen garaian irakurtzea edo erabiltzea) eta biziraupena bermatzeko eguneratzea: dotrinei, adibidez, atalak gehitzen zitzaizkien edo hurrek errazago erabiltzeko laburtzen ziren, atalen banaketa berrantolatzen zen, etab³. Arrakasta handiko dotrina eta erlijio-liburuetan etengabe ikusten dira halakoak, baita klasiko kanonikoen berrargitalpenetan ere, tarteka. Azken horien adibide paradigmaticoa da E. Intxauspek prestatutako *Gero* (1864), Axularrek emandako atalak berrantolatuta eta ez-moraltzat jotako pasarteak zentsuratuta dakartzana (§2.1.1).
- (ii) Euskara sasoi bakoitzean *modan* zegoen hizkera-ereduaren arabera moldatzea. Testuak hizkuntza-aldaki prestigidunen arabera moldatzea arrunt izan da menderik mende; zehazki, aldaki horien ezaugarri bereizletzat jotakoak sistematizatu ohi ziren, baita puztu ere. Kasu honetan ere hainbatetan berrargitaratutako lanetan adibide garbiak daude, eta garaian garaiko joera estilistiko eta hizkera literarioen bilakabidea aztertzeke aukera ematen dute⁴. XIX. mendearen azken urteez geroztik, bestalde, aintzat hartzekoa da garbizalekeriaren indarraldia, zenbait kasutan testu zaharrak zuzenean baztertzea edo erabat eraldatzea ekarri zuena⁵: hizkera aldetik, alde nabarmena dago *Peru Abarcaren* 1880, 1899 edo 1904ko edizioetatik 1936an *Euzkerean* argitaratutakora, adibidez.

³ Dotrina zaharrenetarik ikus daiteke ohitura hori: E. Materraren *Doctrina christiana* (P. de la Court, Bordele, 1617) haurrentzat argitaratu zen lehenbizi, baina bigarren edizioak (J. Millanges, Bordele, 1623) ez dakar haurren aipamenik eta lehenengoak ez zuen hirugarren zati bat du, lehenengo edizio osoa bezain luzea. Hirugarren edizioak (I. de Gayau, Agen, 1648) bigarren edizioa du oinarri, baina latinez idatzitako pasarteak gehitu zitzaizkion. Laugarrenak (Maffre, Baiona, 1704) 1693koaren antolamendua du, baina 1648koaren edukietara itzultzen da (ik. Krajewska *et al.*, 2017: §3.1).

⁴ Honetaz aritzean, ezinbestean hartu behar dira aintzat literatur euskalkien sorrera eta finkatzea, eta euskararen gramatizazio-saioen arrakasta eta eragina: Axularrekin goia jotzen duen lapurtera klasikoa, Larramendik XVIII. mendearen lehen erdian gipuzkerari (eta euskarari oro har) Euskal Herrian dakarkion estatusa eta XIX. mende hasieran Bizkaiko idazleen artean finkatutako bi hizkera-ereduak aipa daitezke, besteren artean.

⁵ Gaiak sortu zuen hika-mikarrik, J. Urkixoren eta E. Bustintza «Kirikiño»-ren artean, azken horrek RIEV aldizkariko zenbait argitalpen (testu zaharren edizioak) ikusita euskara txarrekoztat eta erdara-zaletzat jo ondotik. Zenbait obraren pasarte laburrak eman ondotik, hala aritu zen «Kirikiño» 1914/VIII/17ko artikulua batean:

Nik, benetan diñot, orrelako idaztirik (libururik) iñun aurkituko baneu, apurtu egingo neuke ta iñok ez leuke jakingo, lotsagarriak diralako.

Nik ori egingo neuken arren, ulertzen dot askok zaletasuna eukiten dabela antziñeko gauzekana; jakin gura izaten dabela antziñekoak zelari bizi ziran, zelari idazten eben, zelako ekanduak eukezan, zelako errediza ta izkillu ta jantziak erabilli ebezan, eta abar. Urkixo-tar Juli da orretariko jakikura bat, eta atsegin izaten dau jakitea zelako idaztiak argitaldu ebezan gure asabak. Ondo dago. Nik ez diñotsot ezer orregaitik. Bakotxak bere zaletasunak euki daroaz. Onetan aske bakoitza.

Baiña Urkixo-tar Julik edo bera lako antziña-gauza zaleren batek ataraten badau autsartetik argitara gauza zatarren bat edo idazti kirtenen bat, eta enparauok badiñogu zatarra edo kirtena dala, ez dauko zegaitik asarratu ta ez dauko zetari etorri destaiñaka (Arejita & Perea, 1984: 54).

- (iii) Testuari lagin zientifikoaren balioa emanaz, laginaren batasuna, argitasuna eta zuzentasuna bilatzea: adibide garbiena Bonaparte printzearena da, eta hizkuntza-aldaketan ikusi nahi zuen homogeneousutasunak eta aldakion laginak ahal bezain argi aurkeztu nahiak eragiten du. Iturriagaren *Jolasak* editatzean, adibidez, Bonapartek ez zion jatorrizko edizioari zehatz jarraitu:

Bonapartek ere bere mania txikiak baitzituen. Ez zuen, esate baterako, herriak erabiltzen ez zuen eta inork asmatua zen hitzik maite eta Iturriaga orduko hila baitzen, bere gogara egin zuen zenbait aldakuntza. Har badezagu, esate baterako, *Lehenbiziko jolasa*, aldakuntza hauek atzemango ditugu: Iturriagak *ciricoa edo seda* dioenean Bonapartek *seda* bakarrik uzten du eta beste bitan *ciricoa* bakarrik ageri baita Iturriagarenean, haren ordeztu *seda* ezartzen; Iturriagak *boltsa edo zorro* dio eta Bonapartek *bolsa* bakarrik uzten du, eta hori bi bider. Gainerako zuzenketak sinpleak dira: Iturriagak *baña, lerdia, lirdizco* (hutsa ote?) eta *pistuco*; Bonapartek aldiz *bana, lerdea, lerdezco* eta *piztuco*; halaber Iturriagaren *-tzen* asko *-tzen* idazten ditu, eta azkenik beste hau: *Atseguin den jaquitea* dio Iturriagak; Bonapartek berriz *Atseguin det jaquiteaz*, lehena okerra edo hutsegitea balitz bezala. (Altuna, 1987: 27)

Testuak eraldatu zituzten inprimatzaile eta edizioegileei jatorrizko testuen berezko balioaz jabetu ziren ikertzaileak kontrajartzen zaizkie, eta horien artean ere bi multzo bereizi zituen Urgellek (2000: 2), edizioen hartzaileak nor ziren.

- (i) Alde batetik, edizioegileek euskal irakurle arruntentzat prestatutako lanak daude, gehienez ere irakurgai arintzeko eta errazteko egokitzapenak dakartzatenak (ortografia eguneratua, erdal itzulpena aldamenen...); oro har, Euskal Herriko euskalariak prestatutako edizioak dira, hala nola R. M. Azkuerenak.
- (ii) Beste alde batetik, ikerketari eta ikertzaileei begira prestatutako edizioak daude, eta gehienak atzerriko euskalariak prestatu zituzten (§2.2.1), haien eskutik sartu baitzen ikuspegi filologikoa Euskal Herrian (Urgell, 2018: 604). Atzeritarrekin batera, halere, leku berezia behar du J. Urkixo deustuarrak, ahalegin handia egin baitzuen jatorrizko iturriak, *editio princepsak* eta mikrofilmak bilatzeko, eta ahal bezain txukun eta ahalik eta gutxiena ukituta argitaratzeko.

Hurrengo bi azpi-ataletan ~1840-1936 bitarteko euskal testu klasikoaren edizioegintza-aren ikuspegi orokorra emango dut, edizioegileak eta editatutako testuak ardatz hartuta. Datuak ugariak eta askotan nahasiak direla eta, Urgellen (2000) banaketa nagusiari jarraituko diot.

2.1. Euskal irakurleak hartzaile

XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren lehenengo hamarkadetan ugari argitaratu ziren ez ikertzaileak baina euskal irakurleak jomugan zituzten lanak; funtsean, aurreko hamarkada eta mendeetako zenbait obra erlijiosoren berrargitalpenez eta egokitzapenez ari naiz: xede erlijiosoetarako euskarrien beharrak dotrina, erlijio-tratatu eta kantutegiak eskatzen zituen, eta behin eta berriz argitaratu ziren XX. mendearen lehenengo erdira arte, gutxienez. Urgellek (2000: 2) zioenez, *bizirik* zeuden irakurgai horiek,

nahiz eta *bizi* hori betea edo beteagoa izan zedin obrak etengabe moldatu ziren (gehienetan, anonimoki), aurretik aipatu bezala.

Zinez luzeegi joko luke berrargitalpen horien guztien berri emateak, baina Francisco de la Lamak eta haren alargunak, eta Mendizabaltarrek XIX. mende osoan zehar berrargitaratutako lanen zerrendak begiratzea lagungarri da berrargitalpenen jario etengabearen berri izateko (ik. Bidador, 2001). Bizkai-Gipuzkoetako idazle klasiko gorenen izenak behin eta berriz agertzen dira zerrenda horietan: J. B. Agirre, P. A. Añibarro, L. Astigarraga, A. Basterretxea, J. C. Etxeberria, J. Irazusta, J. I. Iztueta, A. Kardaberatz, J. A. Ubillos, F. I. Lardizabal, S. Mendiburu, J. A. Mogel eta abarrenak.

XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik argitaratutako lan batzuek aparteko arrakasta izan zuten XIX. mende osoan zehar eta are XX.aren lehenengo hamarkadetan ere; horren lekuko dira, hain zuzen, horien berrargitalpenak, tartean egindako moldaketak moldaketa:

Hegoaldean alde handiz argitaratuena Kardaberatzen *Eskuliburua* izan zen (26 bat aldiz 1826-1901 artean). 1783-1840 artean, berriz, Añibarroren *Esku-liburua* (1802-1897) eta Etxeberriaren *Deboziazko bizitzarako* (1821-1885), zazpina edizioekin. Dotrinetan aurrenik ibili ziren Irazusta gipuzkeraz (30 bat 1892 arte) eta Olaetxea bizkaieraz (16 bat 1883 arte)⁶. Astigarragaren eskuliburuak (36 baino gehiago, 1825-1917; Fernández de Gobeo a.e.) ez dauka parerik, eta bizkaieraz ere atera zen (...). Iparraldean *Exercicio izpirituala*-k marka guztiak hautsi zituen (c. 1716; 39 bat aldiz 1741-1880 artean), eta haren ondotik *Kantiko izpiritualak* (1763; 23 bat 1868 arte), *Uskara libria* zubererazkoa (14 bat 1851 arte), Baratzarten *Meditazioneak* (14, 1784-1864) eta zenbait dotrina: Astrosena lapurteraz (sei aldiz, 1824-1872) eta zubereraz Revolena (1706; c. 1743tik aurrera zazpi bat). (Urgell, 2018: 603)

Erljioaren esparruko klasikoei dagokienez, E. Intxauspe zuberotarrak Axularren lanaren berrargitalpena atondu zuen (*Gueroco guero*, Laignère alharguna, Baiona, 1864), ikertzaileentzat ezagunak diren aldaketak eginez (Villasante, 1964: 12; Salaberri, 1997: §7.1.3; Haritschelhar 1999 eta 2003): atalak berrantolatu zituen Intxauspek, bai eta garaiko ikuspegi moraletik ezegokitzat jotako pasarteak kendu ere: «Garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana» zehazten da liburuaren da azalean.

Lan erlijiosoez gandi, Euskal Herriko bertako inprimatzaileen eskutik argitaratu ziren aparteko interesa zuten edo izan zezaketen zenbait lan. XIX. mendearen erdialdean M. Larramendiren gramatikaren eta hiztegiaren berrargitalpena egin zuen P. Zuazuak (Donostia, 1853). Halaber, 1802 aldera idatzitako baina XIX. mendean zehar batez ere kopien bidez ezagututako *Peru Abarca* 1880an hasi zen zatika argitaratzen, hurrenez hurren Bilboko eta Gasteizko *Beti-bat* egunkarian eta *Ateneo* aldizkarian lehenbizi (Altzibar 1990), eta liburu gisa urtebeteren buruan (J. de Elizalde, Durango, 1881).

⁶ Martin Arzadun durangarraren *Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera* (1731) gehi daiteke zerrendara: 1758ko bigarren argitalpenaz gain, 1819, 1830, 1841, 1855, 1856, 1861, 1869, 1873, 1890, 1895, 1900 eta 1905ekoak aipatu zituen Altzibarrek (1992: 50-51), eta hemezortzi berrargitalpenen berri jaso du Rementeriak (2018: 34-37).

XIX. mendearen hondarrean Azkuek eginiko ekarpena ere aipatu izan da garai hartako edizio gintzaz aritzean; zehazki, lekeitiarrak zuzendutako bizitza laburreko *Euskalzale* (1897-1899) astekariaz eta izen bereko liburu-bildumaz ari naiz. Batez ere Hego Euskal Herriko testu klasikoen pasarteak eman zituen Azkuek zuzendutako *Euskalzalek*: A. Kardaberatzen *Eusqueraren berri onac*, B. Gazteluzarren zenbait pasarte, X. Muniberen *Acto para la nochebuena*, A. P. Iturriagaren alegiak, J. I. Iztuetaren testuak, S. Mendiburuaren erlijio-testuak, J. A. Mogelen *Paskalen gogamenak*, B. Mogelen *Ipui onac*, *Refranes y sentencias* bildumako errefracuak eta interes linguistiko eta historiografiko bereziko zenbait material⁷.

Euskalzale aldizkarian agertutako lanez gain, ez dago guztiz argi zein liburu agertu ziren *Euskalzale* liburuteria izeneko bilduman: Villasantek «reediciones de Ubillos, Añibarro y otros» (1979: 388) aipatu zuen, baina Urgellek (2000) Añibarroren *Escu-liburua*rena eta *Lore-sorta espiritual*arena jo zituen ziurtzat, *Euskalzale* aldizkarian bertan aipatu baitziren. Horiekin batera, *Peru Abarcaren* edizioa atondu zuen Azkuek kopia eskuizkribatu bat erabilita, eta bilduma berean argitaratu zuen (Bilbo, 1899)⁸; halaber, Mogelen *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac* lana 1897an berrargitaratutzat jotzen da 1898ko *Euskalzalen*: «Igaz argitaratu eban Euskalzalek liburu eder au: Sei errealgaitik edozeiñek beragandu al izango dau» (*Euskalzale*, 1898/09/29).

2.2. Euskalariak hartzaile

2.2.1. Atzerriko ikertzaileen ekarpenak

Euskararen jatorri ezezagunak eta beste hizkuntzekiko ezberdintasunak aspaldirik erakarri izan dute atzerriko ikertzaileen arreta, eta, euskararen historian interesaturik, berau gorpuzten duten testuak bilatu, arakatu eta (ber)argitaratzeari ekin zioten hainbatetik 1850az geroztik: «No deja de ser sintomático el que muchos de los textos vascos antiguos hayan sido publicados o reeditados por extranjeros. Los *euskaltzales* del país (salvo honorables excepciones) han sido y siguen siendo miopes en orden a apreciar el valor de los textos vascos antiguos» zioen Villasantek (1979: 99).

Horren erakusgarri dira, hain zuzen, XIX. mendearen erdialdeaz geroztiko zenbait (ber)argitalpen: Frantziako Biblioteka Nazionalan B. Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* aurkitua zuela jakinarazi zion F. Michelek G. Bruneti, eta honek argitaratu egin zuen, J. B. Archuren frantses itzulpenarekin (H. Faye, Bordele, 1847). Urte hartan bertan, A. Oihenarten atsotitzak eta neurtitzak argitaratu zituen Michelek: *Proverbes basques recueils par Arnaud Oihenart, suivis des poésies basques du même auteur* (P. Faye, Bordele, 1847). Urte gutxiren buruan biblioteka berean A. Oihenartek bildutako beste 170 errefracu

⁷ Aldizkarian bertan argitaratutako testuez landara, garai hartan (ber)argitaratzen ari ziren eta Azkuek erredakzioan jasotzen zituen liburuen berri ere eman zuen *Euskalzalek*.

⁸ 1936. urtea baino lehen, *Peru Abarca* F. Elosuren liburudenda-inprimategian berrargitaratu zen 1904an, bai eta 1930eko hamarkadan ere, *Tierra vasca* eta *Euzkerea* aldizkarietan, ortografia eta hizkuntza bera eraldatuta; ik. xehetasun gehiago Altzibar (1990: 874-875) lanean.

aurkitu eta argitaratu zituen Brunetek Archuren laguntzaz (*Notice sur les proverbes basque recueillis par Arnaud d'Oihenart, A. Aubry, Paris, 1859*) (ik. Kaltzakorta 1997).

L. L. Bonapartek askotariko testuak egin(arazi) zituen, eta tarteka arduratu zen iturri zaharragoen edizio gintzaz, dialektologia-ikerketari loturik interesgarri zitzaizkion heinean; zehazki, A. P. Iturriagaren elkarrizketak beste euskalki batzuetara itzularazi eta parez pare eman zituen *Dialogues basques* lanean (W. H. Billing, Londres, 1857), *Formulaire de prône en langue basque* (Lamaignère, Baiona, 1866) izenburupean kaleratu zuen J. Olzeren *Pregariac Bayonaco diocezacoetz* (G. de la Court, Bordele, 1651) lanaren faksimilea, eta Lizarraga Elkanokoaren *Jesus, copla guisa batzuc molde gutitacoac* (Stangeways & Walden, Londres, 1868) eta *Jesus-Cristoren evangelio sandua Juanec dacarran guisara* (Bonaparte, Londres, 1868) ere kaleratu zituen.

S. Sanpere y Miquel historialari katalanak R. Mikoleta bilbotarraren *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* (1653) eskuizkribu artean ezezaguna aurkitu zuen Londresko British Libraryko funtsetan, eta *Revista de Ciencias Históricas* (1880) aldizkarian argitaratu. Akatsak zituela eta, testuaren bigarren edizioa beste atzerritar batek prestatu zuen, E. S. Dodgson ingeles euskalariak, eta 1897an argitaratu zuen liburuxka batean, Sevillan, Francisco de Paula Díazen inprimategian. Hain zuzen ere, hainbat testu zaharren bigarren edizioak prestatu zituen Dodgsonek: zenbait urte lehenago Kapanagaren *Exposición breve de la doctrina christiana* emana zuen (A. Folha, Viseu, 1893), eta ondoko urteetan bide beretik jarraitu zuen: Kardaberatzen *Eusqueraren berri onac* (Eusebio López, Tolosa, 1898), Mendibururen *Jesusen Bihotzaren devocioa* (Pozo, Donostia, 1900), Otxoa Arinen *Doctrina Christianaren Explicacioa* (L. Lancis, Donostia, 1902) eta Kardaberatzen *Christiñau doctrinea* (La Renovatrice, Baiona, 1906) berrargitaratu zituen liburu banatan.

J. Vinson paristarrak XVII. eta XVIII. mendeetako zenbait testu argitaratu zituen⁹, hala nola Etxepareren olerkiak A. Hovelacquerekin elkarlanean *Poèsies basques de Bernard Dechepare* izenburupean (P. Cazals, Baiona, 1874), Zubia durangarraren dotrinaren zati ezaguna *Revue de linguistique et de philologie comparée* aldizkarian (RLPhC 20, 1887), Antiokiako San Julianen Pastoral (Moquet, Bordele, 1891), Pouvreauren zenbait testu biltzen dituen *Les petites oeuvres basques de Sylvain Pouvreau* (L. Marceau, Chalon-sur-Saone, 1892), Urteren Bibliako pasarte itzulien zati bat, *Moisseren lehenbico libúruü ieneraçionea edo etórquiâ deitúü* (Trinitarian Bible Society, Londres, 1898)¹⁰, Harizmendiren *Ama Virginnaren hirur officioac* (E. Bertrand, Chalon-sur Saone, 1901) lanaren edizio «berreraiki» bat (ik. Kerejeta 1991 eta Etxagibel 2018) eta P. Argaignaratzaren *Devoten breviaríoarena* (E. Bertrand, Chalon-sur-Saone, 1910).

Aurrekoez landara, V. Stempf alemaniarrek *Textes des anciennes danses basques chantées* (F. Destouesse, Bordele, 1894) izenburupean berrargitaratu zituen Iztueta-

⁹ Testuak argitaratzeaz gain, ezin utzizkoa da *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (J. Maisonneuve, Paris, 1898) lana, ezagututako liburu eta aleen berri ematen duena.

¹⁰ Zenbait urte lehenago M. A. Llewelin Thomasek ere egin zuen argitalpen bat Urteren itzulpenarekin: *The earliest translation of the Old Testament into the Basque language (a fragment)*, Clarendon Press, Oxford, 1894.

ren *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira* (I. R. Baroja, Donostia, 1824) eta Oihenarten atsotitzen eranskina (*Supplément des proverbes basques recueillis par Arnauld Oihenart*, F. Destouesse, Bordele, 1894). Bestalde, *Refranes y sentencias* (Pedro Porrallis, Iruñea, 1596) bildumaren ale bat aurkituta, edizioa prestatu zuen Willem Jan Van Eysek (Georget Cie, Genève et Bale, 1896).

XIX. mendean zehar arestiko ikertzaile atzerritarren eta beste batzuen aparteko arreta erakarri zuen XVI. mendeko lan batek: Leizarragaren *Testamentu berriak* (P. Hautin, Arroxela, 1571). Ingeles protestanteen elkarteek sustatuta, 1828an Testamentu berri osoa eta Mateoren ebanjelioa argitaratu ziren Baionan (Lamaignère, 1828), eta F. Léclusek, J. Vinsonek, W. van Eysek eta E. S. Dodgsonen hainbat atal argitaratu zituzten 1830-1900 bitartean. Dodgsonen berak *Testamentu berria* osoaren edizioa eman zuen argitara birritan (Trinitarian Bible Society, Londres, 1903 eta 1908). Aitzitik, Leizarragaren *Testamentu berriaren*, *ABCaren* eta *Kalendreraren* edizio zaindua prestatua eta argitaratua zuten ordu-rako Th. Linschmannek eta H. Schuchardtek (*I. Leicarragas Baskische Bücher von 1571*, Verlag von K. J. Trübner, Estrasburgo, 1900), eta edizio horrek gainerakoek baino arrakasta handiagoa lortu du:

Zalantzarik gabe, orduko ekoizpenik onena eta aipagarriena Linchsmann eta Schuchardten Leizarraga osoaren berrargitalpena da (1900). Testua orriz orri, lerroz lerro eta letraz letra errespetatzen saiatu ziren, baita neurri handi batean lortu ere; orduan xehetasun nimiñoetarako ere zebilen zaletasun mirengarri haren lekuko ezin fidelagoa den hitzurre luze bat ere erantsi zion Schuchardtek argitalpenari. (Urgell, 2000: 20)

2.2.2. Julio Urkixo eta RIEV

Euskal Pizkundearen garaiko testu klasikoen ediziogileen artean J. Urkixok aparteko lekua eta aipamena behar ditu bai argitaratzeko hautatutako testuengatik, bai argitalpenetan erabilitako arretagatik: gerora berrartu diren hainbat testuren edizio modernoek Urkixorenak izan dituzte abiapuntu edo helduleku. Lehenago esan bezala, *editio princepsaren* alde eginda faksimileak eskaintzeko nahia zuen Urkixok, eta hark prestatu-riko argitalpenak bi multzotan bana daitezke; alde batetik, liburuki bakar batean bereiz argitaratutakoak daude; beste alde batetik, 1907az geroztik eta Espainiako Gerra Zibileraren bitartean *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) aldizkariko zuzendari zela emandakoak¹¹.

Urkixok prestatutako monografikoen artean gogoangarriak dira Etxeberri Sarakoaren idazlanak (*Obras vascongadas del doctor laboriano Joannes d'Etcheberri*, P. Geuthner, Paris, 1907) eta E. Garibairen erretra (1907) (*El Refranero vasco. 1. Los refranes de Garibay*,

¹¹ Gogoratzea da, halaber, euskal testu zaharren funts paregabea bildu zuela: «En cuanto a las características de la biblioteca que J. Urquijo poseía sobre todo en su residencia de San Sebastián y, en menor parte, en la de San Juan de Luz (Francia), esta albergaba unos 14.000 volúmenes, que abarcaban desde el siglo XVI hasta el XX, muchos de ellos excepcionales desde el punto de vista de la filología» (Ugarte 2019: 173).

Martín y Mena, Donostia, 1919)¹²; aurretik, halaber, Oikiako XVIII. mendeko dotrina (ik. Lakarra 1987 eta Segurola 2013) argitaratua zuen *Revue de linguistique et de philologie comparée* aldizkarian (RLPhC 1905 eta 1906) lehenbizi, eta liburuxka bezala ondotik (E. Guil-moto, Paris, 1906).

Monografikoez harago, Urkixok RIEV aldizkariaren zuzendari zela egin zuen ekarpen filologiko handiena; izan ere, 1907tik 1936ra bitartean zatika baina etengabe argitaratu zituen aurreko mendeetako euskal testu kanonikoei buruzko ikerlanak eta edizioak, izan berak prestatuak, izan beste inork paratuak: Tartasen *Onsa hilceco bidia*, Zavalaren *Fábulas en dialecto vizcaíno*, Muniberen *El borracho burlado*, Etxeberri Sarakoaren *Lau-urdirigomendiozco carta edo guthuna*, Dasanzaren *Laborarien abissua*, Basterretxearen *Jesu-Christogure Jaunaren passioa*, Zalgizeren errefracuak, Axularren *Gero eta Geroko gero*, *Refranes y sentencias* bildumako errefracuak, Iburguen-Cachopín kronikako euskal materialak, Etxeparearen *Linguae Vasconum Primitiae*, Oihenarten atsotitzak eta neurtitzak, XVI-XVII. mendeetako erdal obretan agertutako euskarazko pasarteak eta Mitxelenak *Textos arcaicos vascosen* (1964) bilduko zituen 1700 baino lehenagoko testu laburretarik asko¹³, besteren artean.

Urkixoren jarduna, aurreko datuen argitan, batago dator jatorrizko testua ahal bezainbeste errespetatzearekin: «La publicación en fascímil de tantas obras esenciales, precedida algunas veces de magníficas introducciones, no fue un capricho de bibliófilo rico, sino la consecuencia de su preocupación por la reproducción más perfecta posible» (Mitxelena, 1971: 278). Hain zuzen, zenbait hamarkadaren buruan Mitxelenak (1964) aldarrikatuko zuen testuen berezko balioa ezagutzen eta aitortzen zuen Urkixok, eta mende laurden batez XVI-XIX. mendeetako testu nagusietarik asko jarri zituen euskalarien eskueran, izan kanonikoetan kanonikoenak, izan arazo eta interes filologiko berezikoak.

3. Gerra ondoko hamarkadak (1946-1976)

Espainiako Gerra Zibilak eten eta hondamendi ezagunak eragin zituen Hego Euskal Herriko bizimoduan, oro har, eta eten horren oihartzuna eta albo-kalteak Ipar Euskal Herrira eta beste herrialde batzuetara hedatu ziren, erbesteratutako euskalari eta euskaltzaleen bidez.

Euskal kulturaren eta, zehatzago, argitalpenen esparruan bat-batekoa eta erabatekoa izan zen etena. Sorkuntza lanei dagokienez, Hego Euskal Herrian T. Agirre «Barren-soro»-ren *Uztaro* nobela (Editorial Vasca, Bilbo, 1937) izan zen gerra-garaian (Gerra Hego Euskal Herrira zabaldu aurretik) argitaratutako azkena, eta S. Mitxelenaren *Arantzazu* (Editorial Aranzazu, Oñati, 1949) eta J. Etxaideren *Alos-torrea* (Itxaropena, Zarautz, 1950)

¹² Zenbait urte lehenago, *Euskal Erria* aldizkarian (54:2) ere argitaratuak ziren Garibairen errefracu gutxi batzuk.

¹³ Halaber, J. C. Guerrak XVI-XVII. mendeetako euskal historialarien lanetan agertzen diren eta Erdi Aroko gatazken oihartzuna dakarten kantetako asko bildu zituen *Viejos textos del idioma. Los cantares antiguos en euskera* (Martín y Mena, Donostia, 1924) lanean.

gerraosteko lehenengo poema-liburua eta nobela, hurrenez hurren. Artean, Euskal Herri-
tik kanpo argitaratu ziren Azkueren *Euskalerrriaren yakintza* bilduma (Espasa-Calpé, Ma-
dril, 1939-1947) eta J. A. Irazustaren *Joñixio* eta *Bizia garratza da* (Ekin, Buenos Aires, 1946
eta 1950).

Bestelako edizio-gintzan parekoa izan zen etenaldia Hego Euskal Herrian, eta Eus-
kal Pizkundean, oro har, *in crescendo* ageri ziren argitalpen, interes eta proiektuak ahitu-
rik edo suntsiturik geratu ziren. Kultur azpiegiturak deuseztatu zituen hondamendiaz
eta errepresioaz gain, heriotzek eta gizartean gertatutako aldaketa soziopolitiko, demo-
grafiko eta kulturalek tarte gutxi utzi zuten Euskal Pizkundeko proiektuekin jarraitzeko:
adibide paradigmaticoa da N. Ormaetxea «Orixe»-ren *Euskaldunak* (Itxaropena, Zarautz,
1950) lana, argitaratu orduko *zaharkitua* (Aldekoa, 2008: 211-216). Testu klasiko-
gintzari eta interes filologikoari dagokienez, aurretik berbagai izandako *RIEV* aldizka-
riaren kasua gogoratu behar da: ale bakarra argitaratu zen 1936an, Gerrak bertan behera
utzarazi zuen proiektua eta ezinezkoa izan zen, Eusko Ikaskuntzarekin zuen atxikimen-
dua eta Eusko Ikaskuntzak izandako jardunbide «politikoki markatua»-ren ondorioz, ge-
rraostean berrabiaraztea: «Una vez concluida la guerra civil, en la España franquista no
hubo posibilidades reales de resucitar a la *RIEV* y mucho menos a la S[ociedad de] E[tu-
dios] V[ascos], totalmente identificada, como hemos dicho, con el autonomismo político
y cultural vasco-navarro» (Ugarte, 2019: 174). *RIEV* aldizkariak 1983an hasi zuen biga-
rren aroa, oso bestelako garai batean eta bestelako interes batzuekin.

Euskarazko edizio-gintza, euskal kulturarekin berarekin batera, 1950eko hamarka-
dan hasi zen apurka-apurka berpizten, eta 1960-1970ekoetan heldu eta eutsi zion berriz
ere gora bideari, oso apal bada ere.

Gaiei dagokienez, erlijioaren esparruko lanak ugari ziren oraindik, baina aurreko
mendeetako idazle klasikoak etengabe berrargitaratu beharrean, dotrina, kantutegi,
otoitz-liburu... berri(tu)ak argitaratu ziren gehienbat. Bestalde, euskal testu klasiko-
artearen gero eta leku gehiago eman zitzaizkien erlijioaz gaindiko bakanei (Oihenarten erre-
frauak, Mogeldarren lanak —*Peru Abarca* eta *Ipui onac*—, jauntxoaren giroko antzerki-lanak
eta abar); erlijioaren esparruko lanak argitaratzekotan, idazle kanonikoenak hautatzen
ziren (Axular, Kardaberatz eta Lardizabal, adibidez).

Argitaralekuei dagokienez, 1950az geroztik sortutako edo berreskuratutako argita-
letxe eta bildumak aipatu behar dira, hala nola Itxaropena (eta, bereziki, F. Unzurrunza-
gak zuzendutako «Kuliska sorta»), Auñamendi, Txertoa, Arantzazuko frantziskotarrena,
Auspoa, Lur edo La Gran Enciclopedia Vasca. Izan ere, bestelako argitalpen eta interes
bibliografikoak izan arren, tarteka lekua egin zieten euskal klasikoei. Beste alde batetik,
ezin utzizkoak dira 1940ko hamarkadaz (eta, batez ere, 1950ekoaz eta 1960koaz) geroztik
sortutako aldizkari eta bilduma espezializatuak, hala nola *Egan*, *ASJU* eta *Fontes Linguae
Vasconum*, filologia eta hizkuntzalaritza ardatz izanda hainbat testuren edizioak plaza-
ratu zituztenak.

Edizio-irizpideei dagokienez, berrargitalpen eta edizio gehienetan ez da aurrerapen
handirik ikusten prestatzaileen arretari eta zehaztasun filologikoari dagokienez, garbiza-
lekeria bortitzaren gainbehera gorabehera. Edizio faksimile gutxi batzuk argitaratu ziren

tarteka, eta hala jokatu ez zen gehienetan testuak grafia modernizaturik transkribatu ziren (tamalez, askotan akatsak gehituta edo obren edukia eraldatuta). Urgellek *Villasante paradigma* deitutako edizio-moldea izan zen nagusi atal honetan hizpide dudan garai osoan:

Asmorik onenaz eta garaiko zailtasunengatik ere ahalegin handiak eginez, baina inolako prestakuntza kritiko eta metodologikorik gabe ari ziren euskaltzaleek egindako edizioak; bihotzez eskertzekoak, mesede izugarria egin dutenak, baino nahi baino gehiagotan akatsez, gaizkiulertuz eta irizpide okerrez zamatuak. (Urgell, 2013: 533)

Beste alde batetik, iturriak aztertzean eta aurkeztean *filologia zehatzaren* beharra aldarrikatzeaz gain, beronen adibide onak eman zituen K. Mitxelenak, testuen ediziozintza kritikoan eta Euskal Filologiarenean aro berria irekiz.

Atal honetan bi multzo nagusitan aipatuko ditut Gerra ondoko urteetatik 1970eko hamarkadaren amaierara bitarteko testu klasiko berrargitalpenak. Lehenik, ikuspegi orokorra emango dut urte horietan guztietan indarrean egondako edizio-molde orokorrez, argitaletxe eta bildumez, eta testuen kopuruaz. Bigarrenik, Mitxelenaren ekarpena bereiz aipatuko dut.

3.1. 1946-1976 arteko argitalpenez ikuspegi orokorra

Gerra ondoko urteetan eta euskal klasiko edizioei dagokienez, ezer gutxi aurki daiteke Espainiako Gerra Zibiletik 1950eko hamarkadaren erdialdera arte: P. Lafittek prestatutako *Piarres Adameren* (Euskal Herria, Baiona, 1946) berrargitalpena besterik ez dut aurkitu Torrealdai (1977) dakarren zerrenda zehatzean. 1950eko hamarkadako lehenengo urteetan ere ezer gutxi kaleratu zen kristau-ikasbideez harago, baina hamarkada horretan aldaketa ikusten da, bereziki 1954. urteari loturik; balirudike data hori mugarriztat jo daitekeela, hala urte hartan argitaratutako zenbait lanengatik nola orduz geroztik ekoizpena arian-arian ugaritu zela eta.

1954an J. Heguyren *Andre Dena Maria* (Herria, Baiona, 1954) berrargitaratu zuen Lafittek, eta Axularren *Gero* (Itxaropena, Zarautz, 1954) M. Lekuonak, 1643ko edizioari jarraikiz¹⁴. Urte hartan bertan, S. Onaindiak *Milla euskal olerki eder* (Karmeldar idaztiak, Larrea, 1954) antologia historikoa argitaratu zuen, garai eta maila guztietako idazleen testuak biltzen dituen (Mitxelena, 1954: 494)¹⁵. Liburuan atalka antolaturik baina batera ematen dira Erdi Aroaren amaierako kantuak eta XVIII-XIX. mendeetako baladak, eta XVI-XIX bitarteko euskal literatura klasikoak leku zabala du: Etxepare, Etxeberri Ziburukoa, Oihenart, Argaignaratz, Pouvreau, Mikoleta, Gazteluzar, Kardaberatz, Mendiburu, Mu-

¹⁴ Ik., halere: «Esta edición es bastante deficiente, tanto por los errores involuntarios como por los que parecen cambios voluntarios o despreocupación por los ‘detalles’ de la lengua de Axular (podríamos hablar de un *Gero* teñido de *gipuzkera osotua*, es decir, de lo que sería el dialecto central estándar de la época)» (Urgell 2008: 5).

¹⁵ Ik. xehetasun gehiago Retolaza (2010) eta Otaegi (2013) lanetan, eta argitalpen honetan bertan Gurrutxagak argitaratutako atalean.

nibe, Gamiz, Duvoisin, Mogeldarrak, Zabala, Basterretxea, Aboitiz, Iztueta zein Iturriagaren testuak biltzen dira, besteak beste, ortografia eguneraturik eta ohar argigarriekin.

1950eko hamarkadan berrabiarazi zuen Itxaropena argitaletxeak bere jarduna, eta 1952an sorturiko «Kuliska sorta» ezagunean oro har xx. mendeko idazleen lanak agertu baziren ere, tarteka egin zitzairen lekurik zaharragoei ere: J. A. Mogelen *Peru Abarka* (Itxaropena, Zarautz, 1956) argitaratu zen bilduma horretan, jatorrizko obran agertzen ziren hitzaurrea eta azken elkarrizketa kenduta. Euskaltzaindia ere bide bertsutik aritu zen urte haietan, eta idazle garaikideen lanekin batera Lardizabalen *Testamentu berriko kon-daira edo historia* (Euskaltzaindia, Bilbo, 1957) berrargitaratu zuen.

1960ko hamarkadan ugaritu egin ziren euskal liburuen (ber)argitalpenak, eta argitaletxe eta bilduma berriak agertu ziren. A. Zavalak *Auspoa* sortu zuen: oro har bertsolarien lanak, zenbait antzerkigilerenak eta ahozko literaturaren esparrukoak bildu zituen arren, tarteka XVIII-XIX. mendeetako lanen berrargitalpenak ere aurki daitezke, hala nola B. Mogelen *Ipui onak* (Auspoa, Tolosa, 1963), Iturriagaren *Jolasak* (Auspoa, Tolosa, 1963), Kardaberatzen *Euskeraren berri onak* (Auspoa, Tolosa, 1964), *Teatro zaarra* (Auspoa, Tolosa, 1965) izeneko alea, Barrutiaren *Acto para la nochebuena* eta Muniberen *Gabon sariac* eta *El borracho burlado* lanak biltzen dituen, eta Iturriagaren testuak biltzen dituen *Ipuiak* (Auspoa, Tolosa, 1967).

Hamarkadaren bigarren erdian, bestalde, klasiko zaharragoetan jarri zen arreta. Lehenik, Urkixoren *Refranes y sentencias* bildumaz eginiko lana argitaratu zuen bi liburu-kitan Auñamendik: *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596*, Auñamendi, Donostia, 1964-1967. Bigarrenik, Luis Villasantek *Geroren beste edizio bat* prestatu zuen Lekuonarena agertu eta hamar urtera (J. Flors, Bartzelona, 1964)¹⁶:

La edición de Villasante sigue, en parte al menos, la tónica de la de Lekuona, con algún pequeño retroceso, y varias y meritorias mejoras: guarda rigurosamente el debido respeto a la lengua del original, moderniza con tino la grafía y realiza una interpretación completa del texto en la traducción castellana que la acompaña, pero no es consistente en la puntuación, con frecuencia demasiado conservadora, tiene cientos de errores de todas las gamas, incluidos varios homoioteleuton e infinidad de pérdidas de palabras no significativas (un posesivo aquí, un *ere* allá...), que delatan poco cuidado en la corrección de pruebas; además, procede como Lekuona en la constitución del texto, pero señala menos sistemáticamente que él los cambios introducidos siguiendo la segunda edición. (Urgell, 2008: 5)

Hirugarrenik, Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*aren faksimilea argitaratu zuten, gaztelaniarako itzulpenarekin, L. Akesolok eta N. Alzolak (*El primer libro impreso en euskera*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1966)¹⁷. Urtebeteren buruan Etxepareren testuen edizio berria agertu zen (*Olerkiak*, Edili/Txertoa, Donostia, 1968) Mitxelenaren hi-

¹⁶ Egindako edizio-lana berrikusi zuen Villasantek gerora, eta bertsio berritua eman (*Gero (Después)*). Pedro Axular, Jakin, Oñati, 1976).

¹⁷ Liburua hurrengo hamarkadan berrargitaratu zen, etxe berean: *El primer libro impreso en euskera*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1978.

tzaurrearekin, L. Akesolok ortografia eguneraturik eta gaztelaniara itzulirik, eta R. Lafonen frantses itzulpenarekin¹⁸.

1960ko hamarkadaren amaieraz geroztik, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeke arduradun J. M. Martín de Retanaren jokamoldea ez zen beti garbia izan: RIEV aldizkariaren 1907-1936 arteko aleak berrinprimatzeari ekin zion «sin que su legítimo dueño —la suspendida Sociedad de Estudios Vascos— pudiera reclamar los derechos de propiedad que le asistían» (Monreal, 2001: 27)¹⁹; hots, Frankismopeko jazarpena baliatuz eta egile-eskubideak ordaindu gabe²⁰. Halaber, Azkuek prestaturiko *Peru Abarka* elebiduna berrargitaratu zen (Bilbo, 1966)²¹ J. San Martínen hitzaurrearekin, eta 1978an berrargitaratu. Hain zuzen ere, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak aurreko hamarkadan hasitako bideari jarraitu zion, eta Mogelen lanaz gain Duvoisinin bibliaren itzulpena (*Bible saildua*, Bilbo, 1972, Akesoloren hitzaurrearekin), Uriartek hautatutako Iturriagaren elkarrizketak (*Diálogos euskéricos*, Bilbo, 1972), Kardaberatzen lan guztiak (*Euskal lan guztiak*, Bilbo, 1973-1974), Iztuetaren *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira* (Bilbo, 1975), Onaindiaren *Las cien mejores poesías de amor de la lengua vasca* antologia (Bilbo, 1975), besteren artean Etxepare, Oihenart edo Elizanbururen testuak dakartzana, eta apailatzaile beraren *Milla euskal olerki eder* bildumaren berrargitalpena (Bilbo, 1976) ere eman zituen.

1970eko hamarkadaren hasieran sortutako Lur argitaletxe donostiarrak ere egin zion lekuri euskal klasikoaren berrargitalpenari: *Euskal protestantismoa zer zen* (Lur, Donostia, 1970) izeneko liburuan Leizarragaren obra laburrak bildu zituen G. Arestik, eta, Urkixok xx. mende hasieran eginiko edizioan oinarriturik, Sarako Etxeberriren *Lan hautatuak* (Lur, Donostia, 1972) eman zituen X. Kintanak.

1970-1975 artean berrargitaratutako lan zahar eta klasikoaren artean daude M. Zaretek *Bizkaiko euskal idazleak* (Apaizgaitegia, Derio, 1970) lanerako hautatutako testuak; Oihenarten *Atsotitzak eta neurtitzak* (Herri gogoa, Donostia, 1971), J. A. Enparantza «Txillardegik» orduan «Larresoro» izengoitiaz sinatua; Etxeberri Ziburukoaren *Noelac* (Sociedad Guipuzcoana de Edic. y Publicaciones, Donostia, 1970), L. Akesolok paratua; S. Monhoren *Poèmes Basques* (Ikas, Baiona, 1972), Lafittek atondua; Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* (Jakin, Oñati, 1975), A. Eguzkitzak prestatua; eta J. P. Ulibarriren *Gutun-liburuaren* (Arabako Foru Aldundia, 1975) faksimilea.

¹⁸ Kasu honetan ere, hurrengo hamarkadan berrargitaratu zen, gaztelaniazko itzulpena berriturik: *Olerkiak 1545*, Txertoa, Donostia, 1978.

¹⁹ Mitxelenak ere egoera salatu zuen bere garaian: «nada habría que objetar si, a diferencia de lo que siempre han hecho «Johnson Reprints», etc. (porque esto no se ha inventado en Bilbao), los bienes ajenos, entre ellos la obra de don Julio y la Sociedad de Estudios Vascos (cuya vida legal, que se sepa, no ha terminado todavía) no fueran tratados como baldíos y mostrencos. Hay que tener muy buena voluntad, o muy poco juicio, para confundir con el original una imitación tan burda» (1971: 279).

²⁰ Sarasolaren (2012) arabera, berdín jokatu zuen Retanak Azkueren hiztegiarekin, zenbait euskaltzainen laguntzarekin.

²¹ Azkueren *Morfología vasca* (Bilbo, 1969) ere berrargitaratu zituen argitaletxe berak.

3.2. Argitalpen akademikoak eta Mitxelenaren *filologia zehatza*

1940ko hamarkadaren amaieraz geroztik, eta batez ere 1950ekoan eta 1960koan, euskal testuen edizioari loturik ezinbestekoa izan zen zenbait aldizkariren ekarpena, iker-tzaileei argitaralekua eman baitzieten, bai eta elkarren berri izateko aukera ere. *Euskal-erriaren Adiskideen Elkartearen* baitan *Egan* (1948-) sortua zen literatur gehigarri gisa (1954an Mitxelenak hartu zuen aldizkariaren zuzendaritza, eta heriotzara arte eutsi zion), eta elkarte beraren *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* (BRSVAP) delakoak hartu zuen, neurri batean, RIEVen lekukoa (ik. Ugarte, 2019: 174-175). Euskal testu klasikoen edizioaz denaz bezainbatean, ezinbestekoak dira *Julio Urkixo mintegiak* sortutako ASJU (1954-) eta hurrengo hamarkadaren amaieran agertutako *Fontes Linguae Vasconum* (1969-), biak ere Mitxelenaren partaidetzarekin sortuak eta oraindik ere euren alorretan erreferente nagusi direnak²².

Mitxelenak hizkuntzalari diakronistatzat zuen bere burua, ez filologotzat (cf. Lakarra, 1997: §3); aitzitik, euskararen historia ezagutzeko eta historiaurrea berreraikitzeke euskal testuen ezagutza ahalik eta zehatzena ezinbestekoa zenez, «el lingüista hubo de devenir filólogo, con el fin de establecer por sí mismo esas bases firmes que hacían falta para cualquier investigación en torno al eusquera» (Lakarra 1990 [1989]: 354)²³. Jardun horretan, bada, euskal hizkuntzaren eta literaturaren beste esparru batzuetan legez, mugarria ezarri zuen Mitxelenak: filologiaren eta edizilogintzaren esparruan *ante* eta *post* Mitxelena garaiez hitz egin behar da, berak ekarri baitzuen A. Meilletek (2001 [1925]: 24) xx. mende hasieran aldarrikatutako *philologie de précision* delakoan oinarritutako edizilogintza kritikoa.

Urgellek aipatu bezala (2013: 533-534), Mitxelenak ez zuen libururik editatu, baina hasiera batetik ikusi eta aldarrikatu zuen filologiaren beharra: gogoan hartzekoa da 1950eko hamarkadakoak direla, besteak beste, *Viva Jesus* katiximaren (*BAP*, 10) eta Be-tolatzen dotrinaren (*BAP*, 11 eta *ASJU*, 2) edizioak, eta Landucciren hiztegiarena, M. Agudekin batera prestatua (JUMI, Donostia, 1958). Mitxelenaren edizio-lanen artean, dena den, *Textos arcaicos vascos* (Minotauro, Madril, 1964) nabarmentzen da²⁴; alegia, 1700 aurreko testu idatzi arkaiko eta zaharren edizio kritikoa biltzen duen bilduma, tamainaz xumea izan arren (203 orrialde) Euskal Filologiaren eta literatura zaharrenaren ikerketaren esparruan ezinbesteko eta eredugarri dena²⁵.

²² Halaber, ez da ahaztekoa hala erbestean nola Euskal Herrian kultura-gaiez oro har eta hizkuntzaz eta literaturaz arduratu ziren beste aldizkari garrantzitsu batzuk ere sortu zirela 1945-1965 denbora-tartean, hala nola *Euzko Gogoa* (1950-1959) Guatemalan, *Gernika* (1945-1953) Donibane Lohizunen, *Igela* (1962-1963) Parisen, *Olerti* (1959-1995) Zornotzan eta *Jakin* (1956-) Oñatin.

²³ Begiratu, bide bertsutik, Urgellen azalpenok: «hizkuntzari zegokion teori arazo larriei aurre egi-terakoan ia oinarrizko lan guztiak peitu zituelarik, halabeharrez —zioen berak— filologo ere bihurtu zitzaigun, berez —euskaraz atetiko alorretan ere ederki frogatu bezala— hizkuntzalari zena, euskarari buruzko ikerketei oinarri sendoak ematen hasi nahirik» (1987b: 133-134).

²⁴ Egun, Mitxelenaren lan osoen bildumako XI. liburukian bildutako lanek argiro erakusten dituzte errenteriarren irizpide, jardunbide eta *obsesio* filologikoak, euskal testuen tradizio osoa zeharkatzen dutenak. Ik. Lakarra, J. A. & Ruiz Arzalluz, I. (arg.), 2011, *Luis Michelena. Obras completas. XI. Textos vascos*, Donostia & Gasteiz, JUMI, GFA & UPV/EHU.

²⁵ Obraren izaeraz eta bilakaeraz, ik. Bilbao (2012).

J. Urkixok *editio princepsak* bilatzearen eta faksimileak argitaratzean egin bezala, Mitxelenak testuek berez duten balioa nabarmendu zuen *Textos arcaicos vascosen* hitzaurrean:

Aunque una colección de este género se justifica en principio por sí misma, no está de más repetir que la lengua vasca, aparte de su casi proverbial pobreza de documentos antiguos, padece de la escasa atención que a los que tiene se les ha venido concediendo, con muy honrosas aunque aisladas excepciones. La idea que inspira estas páginas es que una muestra de lengua de una época determinada vale como tal, sin necesidad de apoyos externos, independientemente de que posea otros valores o de que carezca de ellos en absoluto. Y esas muestras, naturalmente, son tanto más valiosas cuanto más escasas. (Mitxelena, 1964: 5)

Mitxelenaren edizio gintzaren ezaugarri behinena da nazioarteko *filologia zehatzaren* estandarrak aldarrikatu eta aplikatu izana:

Se mencionan todas las fuentes —y las variantes cuando éstas existen—, se avisan lecturas dudosas, se destacan las cruces y se ofrecen posibles salidas, haciendo hincapié en los inconvenientes de las mismas; se proporcionan nuevas traducciones o interpretaciones, apoyándose en contextos comparables; cuando no se encuentra solución a algún problema, o parece insatisfactoria no lo oculta el autor sino que así lo manifiesta paladinamente (...). *Textos arcaicos vascos* no fue sólo una llamada a los vascólogos para que acudieran al campo de los textos antiguos; la importancia fundamental del libro radica en los criterios, en los fundamentos (...). En efecto, lo verdadero y lo fantástico, lo sucedido y lo simplemente deseado, lo seguro y lo dudoso, lo que sabemos y lo que quizás siempre ignoremos no se mezclan sino que se delimitan nítidamente desde el inicio del libro. (Lakarra, 1990 [1989]: 355-356)

Euskararen, euskal literaturaren eta Euskal Herriaren historia hobeto ezagutzeko materialak prestatu zituen, beraz, Mitxelenak (Bilbao 2013), ahal izan zuen guztietan lehenengo mailako iturriak baliatuz, hutsune eta interpretazio ilunak testu paraleloen bidez osatzen eta azaltzen saiatuz, hizkuntzaz zuen ezagutza sakona testuen irakurketa kritikoa emateko baliatuz eta argitu ezin izan zituen pasarte arazotsuak zeuden-zeude-nean utziz eta zalantza edo ezintasuna aitortuz.

4. Azken hamarkadak (1976-2020)

Frankismoaren ondoko trantsizio-garaiko eraldaketek bidea eman zuten hainbat esparrutan askotariko egiturak sortu eta proiektuak abiarazteko. Esparru publikoan, instituzio-sistema berrien bultzadak aparteko eragina izan zuten edizio gintzaren gorakadan, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako hezkuntza-sistema deszentralizatuetarako material gintzaren esparruan: ez dira ahaztekoak jada 1980ko hamarkadan diruztatutako proiektu handiak, hala nola Euskal Editoreen Elkartearen gidaritzapeko *Euskal idazle klasikoak* bilduma edo Bonaparteren ondareko eskuizkribuena. Euskal testu klasikoaren edizio gintzari dagokionez, baitezpadakoa da giro akademikoa aipatzea, 1970eko hamarkadaren amaieran hurrenez hurren Deustuko eta Euskal Herriko unibertsitateek Euskal Filologiako ikasketa-programak ezarri izanak beste aro bat ireki bai-

tzuen. Hala irakasleek euren eskolen lagungarri urterik urte argitaratutako lanek nola ikasleek prestatutako argitalpenek ugaritu egin zituzten, batzuen eta bestetzuen artean dauden aldeak alde, euskal klasikoen edizioak.

Argialetxeen esparruan, aldez aurretik sortutakoek euren sarea hedatzeko eta ekoizpena handitzeko aukera izan zuten, muga eta arazoak gutxitzen zirela baliatuz; bestalde, Franco hil ondoko hamarkadan sortu ziren egungo argialetxe nagusietarik batzuk, hala nola Erein (1976), Susa (1983) eta Pamiela (1983) Hego Euskal Herrian, eta Maiatz (1984) Ipar Euskal Herrian (ik. argitalpen honetan bertan B. Sarasolak emandako kapitulua garai hartan argialetxe bihurtutako aldizkarietz).

Azken berrogei edo berrogeita bost urteotan, aurreko mende eta erdian legez, ez da joera bat eta bakarra egon euskal testuen edizio gintzaren esparruan: edizio gileen edo argitaldarien interesa zein zen, era bateko eta besteko edizioak kaleratu dira etengabe. Edizio-motei dagokienez, Urgellek (2013) *Villasante paradigma* deitutakoak indarrean jarraitzen du eta *faksimilearekiko lilura* (Mitxelena, 1981: 333) gainditu gabe dago; baina, testuen edizio gintza kritikoaren esparruan aurrerapauso nabarmenak eman dira hala kantitateari nola kalitateari dagokienez. Gainera, euskal klasikoak ezagutarazteko aldez aurretik pentsaezin ziren proiektuak abiarazi eta gauzatu dira, hala nola arestian aipatutako *Euskal idazle klasikoak* bilduma, eta zenbait argialetxe eta editorek euskal klasikoak irakurle *arruntari* hurbiltzeko eginiko antologia, egokitzapen eta sortak. Argitaralekuak ere askotarikoak izan dira, beraz, ondoko orrialdeetan ikusiko den legez.

Azken hamarkadotako edizioak ugari izan dira, eta ez da erraza horien sailkapen garbiak egitea ikuspegia hain zabala denean: edizio-motaren arabera egin liteke bereizketa, baina muturretan kokatzen diren edizio bikain eta eskasen artean askotariko lanak daude; halaber, edizioei ematen zaien izendapena ez da beti fidagarria sailkapen-lanetarako: *edizio kritiko* etiketa modan jarri baitzen sasoi batean, eta kritikotik ezer ez duten lanei ere eman zitzairen. Datuak antolatzeko, bereizketak garbiagoak izango direlakoan, erakunde eragile edo babesleak eta argitaratzaileak aintzat hartzea erabaki dut; alegia, nork sustatu eta diruztatu dituen argitalpenak, eta zein argialetxe eta bildumatan agertu diren aintzat hartzea.

4.1. Esparru akademikoko argitalpenak

4.1.1. *Euskal Herriko unibertsitateak*

Azpi atal honen sarreran esandakoarekin bat, 1970eko hamarkadaren amaieran Deustuko eta Euskal Herriko unibertsitateetan Euskal Filologiako ikasketak ezarri izanaren eragina funtsezkoa da euskal klasikoen edizio gintzak azken hamarkadotan izandako bilakaera azaltzeko; izan ere, gaur egun filologiko-linguistikoa da euskal testu klasikoen interes handiena, testuok gehienbat zein zirkuitutan erabiltzen eta aipatzen diren aintzat hartuta. Esparru akademikoko irakasle-ikertzaile guztien edizioak ez daude maila berean; baina, ezin uka daiteke esparru akademikoan lortu dutela arreta berezia eta tratamendu onena, edizio gintzaren estandarren ikuspegitik, euskal klasikoek.

Unibertsitateek eurek argitaratutako lanei helduta, Deustuko eta Euskal Herriko unibertsitateek kaleratu dituzte lan gehienak.

Deustuko Unibertsitatean P. Altuna josulagunaren zenbait edizio aurki daitezke: I. Tartasen *Onsa hilceco bidia-ren bi lehen kapituluak* (Bilbo, 1987) eta *Onsa hilceco bidia* osoa (Bilbo, 1995), F. Bartolomeren *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (Bilbo, 1995), *Euskal bertsozaintza: XVIII, XIX, XXgarren mendeetako jesuita gazteek egin neurritzak* (Bilbo, 2000) eta J. A. Mujikarekin elkarlanean emandako A. Oihenarten *Euskal atsotitzak eta neurritzak* (Deustuko Unibertsitatea & Euskaltzaindia, Bilbo, 2003).

Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen-zerbitzua gehiago arduratu da ikerketak argitaratzeaz, iturriak argitaratzeaz baino; aitzitik, unibertsitate horretako gordailu digitaallean argitaratu dira G. Bilbaoren *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera lanak eta latina ikasketeko gramatika: edizioa eta azterketa* (2015 [2006]), J. Arriolabengoaren *Ibarguen-Cachopín kronika. Edizioa eta azterketa* (2014 [2006]) eta K. Ulibarriren *Dotrinazko sermoitegia* (2015) doktorego-tesiak. Bestalde, J. P. Lazarragaren eskuizkribu arazotsu bezain garrantzitsu eta interesgarriaren edizioa argitaratu du (Bilbao *et al.* 2020) UPV/EHUk, bi liburukitan: lehenbizikoak sarrera, edizioa eta oharrak biltzen ditu, eta bigarrenak testuaren gramatika eta adizkitegi-hiztegia. Edizioaz *Monumenta Linguae Vasconum* ikerketa-taldeko G. Bilbao, R. Gómez, J. A. Lakarra, J. Manterola, C. Mounole eta B. Urgell arduratu dira, gramatikaren azterketaz C. Mounole eta adizkitegi-hiztegiak E. Blanco eta D. Krajewska, eta zalantzarik gabe baieztatu daitezke lanak mugarriz ezarri duela Euskal Filologiaren esparruan hala tamainaz nola edizio-lanean eta testuaren azterketan eginiko ahaleginaren argitan.

Paperezko ediziozatik harago, UPV/EHUko irakasle-ikertzaile P. Salaberri Muñoak *Euskal testuen gordailua* sortu zuen xx. mendearen amaieran: euskal testu klasikoaren transkripzio modernizatuak jasotzen zituen gordailu zabala eta irekia. Gordailuak arrakasta bete izan zuen: *Euskal klasikoaren gordailua* bihurtu zen 2005ean²⁶, eta orduz geroztik etengabe elikatu eta hazi da. Euskal testu klasikoaren dibulgaziorako tresna bikaina izan da, bai eta zenbait ikerketa egiteko lanabes ere, bilaketak egiteko aukera ematen baitu; aitzitik, materialek ahulgune nabarmenak dituzte, transkripzioak ematen baitira, ez edizioak. Arazo larrienen artean daude transkripzio- edo edizio-irizpide bateraturik eza, oinarritzat erabilitako edizio edo ale arazotsuak eta transkripzio-akats zuzendugabe eta erantsiak.

4.1.2. Aldizkari espezializatuak

Esparru akademikoan ohiko denez, filologiari eta hizkuntzalaritzari lotutako aldizkari espezializatuetan hainbat euskal testu eman dira argitara azken hamarkadotan: ikertzaileek arian-arian baina etengabe aurkitu dituzte aurreko mendeetako testuak, eta arrunt izan da horien edizioak aldizkarietan aurkeztea (hamarkadaz hamarkadako ekarpenez, ik. Lakarra, 1990 [1989], 1997: §4 eta Lakarra *et al.*, 2019 §10); hain arrunt non zaila

²⁶ Armiarma.com atariaren barnean: <https://klasikoak.armiarma.eu/>

baita testu berriak aurkitu edo/eta aurkeztu ez diren urterik aurkitzea. Ugaritasun horrek ezinezko egiten du argitaratutako testu guztien berri emateak (hemengo interesetarako ere ez da beharrezkoa), zenbait aldizkarik gaiari buruzko monografikoa egiteko material nahiko baitute.

Euskal testuen esparruan aparteko lekua behar dute *ASJU* eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariak, horietan argitaratu baitira testu gehienak.

*ASJU*ri dagokionez, 1970eko hamarkadaren amaieran J. R. Zubiaurrek eta J. Arzamendik Garibairen errefrauak argitaratu zituzten (*ASJU* 10, 1976), eta 1980koaren hasieran J. A. Lakarrak Barrutiaren testuaren edizio-proposamena egin zuen (*ASJU* 15, 1981). Mitxelenak *Textos arcaicos vascos* (1964) lanean erakutsitako interesei eta filologia zehatzari jarraikiz, I. Sarasolak «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos» (*ASJU* 17, 1983) prestatu zuen, Mitxelenaren lana eta euskal testuen corpora osatuz. 1980ko hamarkadaren erdialdekoak dira, halaber, J. Arzamendiren eta M. Azkarateren Zalgizeren errefrauak (*ASJU* 17, 1983), J. A. Lakarraren *Bertso bizkaitarrak* (*ASJU* 18:2, 1984)²⁷, Larramendiren *Azkoitiko sermoia* (*ASJU* 19:1, 1985), *Burgosko dotrina* (20:1, 1986) eta *Oikiako dotrina* (*ASJU* 21:2, 1987), F. Ondarrak editatutako *Zegamako dotrina* (*ASJU* 18:2, 1984), B. Urgellek prestatutako *Egiaren kanta* (*ASJU* 20:1, 1986), Añibarroren *Nekea arindurik* (*ASJU* 21:1, 1987) eta *Lora-sorta espiritual* (*ASJU* 22-1, 1988), eta B. Oihartzabalen *Xarlemagne* pastoralaren edizio atalka argitaratua (*ASJU*, 1988-1990). Azken bi hamarkadotan agertu dira, bestalde, X. Alzibarrek prestatutako J. A. Mogel gaztearen zenbait testu (*ASJU* 25:2, 1991), I. Caminoren eta J. A. Lakarraren Beriain osatzeko lana (*ASJU* 27:3, 1993), F. Altunaren García Albenizen testua (*ASJU* 29:1, 1995) eta Loiolako dotrina (*ASJU* 29:2/3, 1995), J. Arriolabengoaren Erdi Aroko zenbait kanta ezezagun (*ASJU* 30:1, 1996), G. Bilbaok prestatutako *Edipa* pastorala (*ASJU* 30:1, 1996) eta De la Quadraren dotrina (*ASJU* 31:1, 1997 eta 32:1, 1998), P. Urkizuren Dasanzaren edizioa (*ASJU* 33:1, 1999), K. Ulibarriren *Viva Jesus* (*ASJU* 44:2, 2010) eta Sevillako 1619ko euskal bertsoak (*ASJU* 45:1, 2011), eta E. Zuloagaren D. L. Urkizuren 1740ko koplak (*ASJU* 49:1/2, 2015) eta P. J. Aldazabalen euskal testuak (*ASJU* 53:1/2, 2019).

Aurreko artikuluez harago, UPV/EHUren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lan-kidetzari lotzen zaizkio aspaldirik *ASJU*ren *gehigarriak*, non liburuki banatan argitaratu baitziren K. Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* eta I. Sarasolaren *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* (Donostia, 1990), B. Oihartzabalen *La pastorale souletine. Édition critique de «Charlemagne»* (Donostia, 1988) eta Nafarroa Garaiko 1416-1750 bitarteko testu ezagun guztien edizioa biltzen duen *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)* doktorego-tesia, U. Reguerok egina eta *Monumenta Linguae Vasconum: Studia et Instrumenta* bilduman aterea.

Fontes Linguae Vasconum aldizkarian ateratako lanen artean daude, bestalde, J. M. Sartrategik emandako testu ugari, hala nola maitasun-olerki eta -kanta bizkaitarrak (*FLV* 28, 1978 eta *FLV* 30, 1978), J. Kortazarren J. A. Mogelen fabulak (*FLV* 35-36, 1980),

²⁷ Hamarkada berean *BAP* (1980) aldizkarian argitaratuak zituen L. Murugarrenek, eta *ASJU*n (18:1, 1984) K. Mitxelenak.

F. Ondarraren Mendibururen platika argitaragabeak (FLV 47, 1986) eta XVIII. mendeko bertsoak (FLV 64, 1993), Elizalderen dotrinaren faksimilea (FLV 64, 1994), B. Hidalgo-ren García Albeniz arabarraren testua (FLV 73, 1996), R. Urrizolaren Etxalekuko kopia (FLV 104, 2007), P. Perurenaren Berastegiko 1823ko bertsoak (FLV 106, 2007), J. M. Bidadorren Aita Palaciosen sermoia (FLV 108, 2008), E. Santaziliaren Zaraitzu ibarreko testuak (FLV 121, 2016) zein U. Regueroren Etxalarko dotrina (FLV 124, 2017).

Arestiko bi aldizkarietaz kanpo, *Litterae vasconicae* aldizkarian argitaratu ziren A. Arejitarren *Amilletaren dotrina* (*Litterae vasconicae* 3, 1985), *Egiaren kanta* (*Litterae vasconicae* 4, 1988), *Enojadurik maitasun-kanta* (*Litterae vasconicae* 5, 1991), Gernikako 1801eko Gabon-kanta (*Litterae vasconicae* 6, 1993), J. Kalzakortak prestatutako J. A. Mogelen *Versiones vascongadas* (*Litterae vasconicae* 9, 2004) eta Eibarko 1721eko kopia-sorta (*Litterae vasconicae* 11, 2010), A. Arejitarren eta A. Bidarten Elorrioko ziri-bertsoa (*Litterae vasconicae* 11, 2010) eta K. Ulibarriren J. P. Ulibarriren Gabon-kanta bat (*Litterae vasconicae* 11, 201). *Karmelen atera zuen L. Akesolok XVI. mendeko miserere bat* (*Karmel* 166, 1982), *Oihenarten A. Zelaietak Mikoletaren eskuizkribuaren edizioa* (*Oihenart* 7, 1988), *Mundaizen eman zuen argitara P. Urkizuk Garibairen erretrauen B eskuizkribua* (*Mundaiz* 37-38, 1989), *Enseiukarrean R. M. Pagolak Elizalderen eta Beriainen dotrinak* (*Enseiukarrean* 10, 1994 eta *Enseiukarrean* 11, 1995), *Euskeran J. Kalzakortak Gandararen Gabon-kantak* (*Euskera* 44, 1998), *Eganen G. Etxeberriak, B. Aginagaldek, I. Aldekoak eta J. L. Ugartek Alzibarren Grand tourra antzerki-lana* (*Egan* 2, 2007) eta *Sancho el sabio* J. Sainz-Pezonagak Amenduxen eresia (*Sancho el Sabio* 24, 2006) eta J. Kalzakortak Larramendiren San Agustin eguneko sermoia (*Sancho el Sabio* 41, 2018).

4.1.3. Euskaltzaindiaren argitalpenak

4.1.3.1. EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMA

1970eko hamarkadaren amaieran sortutako bildumen artean Euskaltzaindiaren *Euskararen lekukoak* izenekoa nabarmendu behar da, bai egun bizirik dagoen bilduma delako, bai azken lau hamarkadotan bertan argitaratu direlako edizio-gintza kritikoaren ikuspegitik eredutzat jo beharreko zenbait lan. Hala aurkezten da bilduma argitaratutako azken liburukiaren (Krajewska *et al.*, 2017) atzealdean:

Mendez mende, edozein euskalki eta edozein literatura motatan euskara landu duten autore eta hizlariekin eta arrazoi batengatik edo besteagatik estudiatuak izatea merezi duten testuekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak. Euskararen lekuko horiek gaurko eta etorkizuneko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale, euskalari eta abarren eskuetan modu egoki eta artatuan jarri nahi genituzke bilduma honi esker.

Ikuspegi zabaleko bilduma da *Euskararen lekukoak*, hainbat garaitako euskal testu klasikoak berreskuratzen eta aurkezten dituen, nahiz eta bilduma osatzen duten aleen artean ez den edizio-irizpide bateraturik aurkitzen; azken batean, urterik urte esku hartu duten edizio-gileak asko eta askotarikoak izan dira, eta zeinek bere ikuspegi eta jakintza filologiko-linguistikoaren arabera eman izan ditu bere lanak. Hori dela eta, gorabeherak daude liburuki batzuen eta bestetzuen artean, eta *edizio kritiko* izendapena hainbatetan

agertzen bada ere, kasu batzuetan badirudi marketinari besterik ez dagokiola. Gorabeherak gorabehera, zenbait lan-molde eta joera atzematen dira bilduman.

Lehenik eta behin, *Villasante paradigma* delakoari lotzen zaizkio Villasantek berak argitaratutako lanak, jakina: Belapeyreren *Credo edo sinhesten dut esplikatua* (Bilbo, 1982), Lavieuxvilleren *Bayonaco Diocesaco bigarren catichima* (Bilbo, 1985), J. A. Mogelen *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiana* (Bilbo, 1987) eta Zabalaren *Sermoiak* (Bilbo, 1996 & 2000) prestatu zituen euskaltzainburu ohiak. Halaber, paradigma horretan edo horretatik hur kokatzekoak dira J. Apezetxearen Lizarraga Elkanokoaren testuen edizioak (*Doctrina christioaren catechima* eta *Koplak*, Bilbo, 1979 eta 1983), L. Akesoloren Gazteluzarren *Eguiac catolicac* (Bilbo, 1983), F. Ondarraren Lizarraga Elkanokoaren *Ongui iltzen laguntzeco itz-gaiac* eta *Urteko igande guztietarako prediku laburrak* (Bilbo, 1984 eta 1990), Tx. Peillenen Egiategiren *Filosofa hiiskaldunaren ekheia* (Bilbo, 1983 eta 2011), J. L. Davanten Belapeyreren *Catechima laburra* (Bilbo, 1983) eta J. M. Satrustegiren *Euskal testu zaharrak I* (Bilbo, 1987) bilduma. Lan horietako batzuen azaletan arestian aipatutako *Edizio kritikoa* izendapena baliatzen bada ere, liburuok gehiago dute transkripzioetik ikuspegi kritikoz eginiko ediziotik baino, hitzaurrearen batean aitortzen den legez:

Transkribapena arretaz egiten ahalegindu gara testuen fidagarritasunak inolako zantzarik sortu ez dezan. Esandakoekin erraz uler daiteke ez dela euskal testu horien aurkezpen kritikoa lanaren helburua, aztergai izan daitezkeen materialen bilduma eskaintzea baizik. (Satrustegi, 1987: 14)

Bigarrenik, transkripzioetik harago jo nahi izan duten ediziogileen lanak biltzen ditu *Euskararen lekukoak* bildumak: gehienak unibertsitateko filologoek prestatuak dira, eta batzuetatik bestetzueta garaian garaiko jakintzari eta ediziogileen hezkuntzari lotutako alde nabarmenak atzeman badaitezke ere, oro har, aurrekoek baino lan sakonagoa islatzen dute.

Bigarren multzo honetan aipatu behar dira P. Altuna josulagunaren edizioak: B. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (Euskaltzaindia & Mensajero, Bilbo, 1980), Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioezcoa* (Bilbo, 1981)²⁸, Mendibururen *Lan argitaragabeak* (Bilbo, 1982), Haranederren *Jesu Christoren evangelio saindua* (Bilbo, 1990) eta Kardaberatzen *Eusqueraren berri onac* (Bilbo, 2004)²⁹.

Bestalde, bigarren multzo honetan daude *Monumenta Linguae Vasconum* ikerketataldearen orbitako kideek azken hogeita bost urteotan argitara emandako lanak. Mitxelenak (1964) aldarrikatutako ikuspegia eta lan-ildoak berreskuratuz eta sistematizatuz, zenbait euskal testuren edizio eredugarriak argitaratu dituzte *Euskararen lekukoak* bilduman: J. A. Lakarrak *Refranes y sentencias* (Bilbo, 1996), B. Urgellek Añibarroren *Gueroco guero* (Bilbo, 2001), M. Padilla-Moyanok *Kadet eta Bettiriño* anonimoa (Bilbo, 2011), I. Caminok *Alphonsa Rodríguez* (Euskaltzaindia & UPV/EHU, Bilbo, 2014) eta D. Kra-

²⁸ Zehazki, lehenengo atalaren edizioa da.

²⁹ Deustuko Unibertsitateko Esther Zulaikarekin batera sinatua.

jewskak eta bestek Materraren *Do(c)trina Christiana* (Euskaltzaindia & UPV/EHU, Bilbo, 2017)³⁰.

Aurreko lan-sortez landara eta 1850 aurreko testuei dagokienez, J. A. Mujikaren *Bir-jinia, edo donceil christaba* (Bilbo, 2010) mardularen edizioa ere aipatu behar da, bai eta L. Baraiazarrak eta J. Urkizak prestatutako F. Bartolomereren *Idazlan guztiak* (Euskaltzaindia & Karmel, Bilbo & Gasteiz, 2000) ere mardulagoa ere, hain da handia edizioegileek eginiko ahalegina bai Frai Bartolomereren lanaren luzeagatik, bai testuen gainerako edizio modernoetako irakurketak jatorrizko testuarekin erkatzen hartutako lanagatik (ik. Urgell, 2013: 543). Aurkako muturrean kokatzekoa da, aldiz, L. M. Mujikak F. Bartolomereren beraren *Euscal-errietaco olqueeta eta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (Bilbo, 1986) lanaz eginiko edizioa, «etengabeko akatsak eta interpretazio okerrak» (Urgell 2013: 543) ugari baititu.

4.1.3.2. EUSKALTZAINAK BILDUMA

Euskaltzaindiak azken urteotan sortutako bilduma da *Euskaltzainak*, izenak berak islatzen duenez euskaltzainek prestatutako edo idatzitako lanak argitaratzera bideratutakoa. Ardatza literatura-testuak eta literatura-ikerketak izanik, askotariko lanak argitaratu dira bilduman, hala egungo idazleei buruzko monografiak nola idazle zahar eta klasikoek lanak. Horien artean daude J. L. Davantek prestatutako *Zuberoako literaturaz* (Bilbo, 2009) eta Maisterren *Jesü-Kristen imitazionea* (Bilbo, 2010), bai eta Tx. Peillenek prestatutako Dasanzaren *Albaitaritzkao idazlanak (1692-1893)* ere. Bildumako lanen kalitatea, ordea, zalantzan jarri da zenbaitetan (ik. Rebuschi 2012), eta ediziook *nahasgarritzat* eta *toxikotzat* jo zituzten Padilla-Moyanok eta Uribe-Etxebarriak (2015: 32-41).

4.1.3.3. EUSKALTZAINDIAREN BESTELAKO ARGITALPENAK

Aurreko bi bildumetatik kanpo, 1980ko hamarkadan zenbait faksimile argitaratu zituen Euskaltzaindiak: Axularren *Gerorena* (Bilbo, 1988), Ubillosen *Christau doctriñ berricarlearena* (Bilbo, 1989) eta Leizarragaren lanekin Linschmannek eta Schuchardtek 1900. urtean argitaratutako obra osoarena (azterketa-hitzaurrea barne). Gerora, Leizarragaren *Kalendreraren* (Bilbo, 2009) eman zuen X. Kintanaren ardurapean³¹.

1980an P. Altunaren edizio kritikoa argitaratu ondotik, *Linguae vasconum primitiaea*-ren 450. urteurrenaren kariatara berau berrargitaratu zen, sei hizkuntzatarako eginiko itzulpenarekin batera; halaber, 2010-2015 denbora-tartean beste hizkuntza batzuetarako itzulpenak argitaratu zituzten Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak.

³⁰ Azken biak ASJU aldizkariaren *Monumenta Linguae Vasconum: Studia et Instrumenta* bilduman.

³¹ Nafarroako Caja Navarrak 2000. urtean erositako Leizarragaren Testamendu berriaren faksimileak argitaratu zuen (CAN, Iruña, 2004).

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatutako Mikel Zarate saria irabazita argitaratu zen, bestalde, J. Arriolabengoaren doktorego-tesia oinarri zuen *Euskara Ibarguen-Cachopín kronikan*, kronika horretako euskal material guztien edizioa eta iruzkinak biltzen dituen liburukia (Euskaltzaindia & BBK, Bilbo, 2007).

Azken urteotan, berriz, Euskaltzaindiko Literatura Batzordeak *Euskal literaturaren antologia* egitasmoa abiarazi du, eta dagoeneko bi ale eman ditu argitara: *Euskal literaturaren antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentura* (Bilbo, 2015) eta *Euskal literaturaren antologia 2: Errenazimentutik Ilustraziora* (Bilbo, 2020).

4.2. Administrazioek sustatutako eta argitaratutako lanak

4.2.1. Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren argitalpenak

4.2.1.1. EUSKAL IDAZLE KLASIKOAK BILDUMA

Euskal klasikoak irakurleriaren esku jartzeko azken hamarkadotako proiektu nagusia 1980ko hamarkadaren erdialdean abiarazi zen. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak eta Euskal Editoreen Elkarteak sinatutako hitzarmen bati esker *Euskal idazle klasikoak* bilduma sortu zen: genero guztietako (ipuina, nobela, poesia, antzerkia, kazetaritza, bertsoa...) euskal idazle kanonikoen lauorgeri lanetik gora argitaratu ziren bertan 1986-1999 denbora-tartean. Bildumak, bestalde, hautatutako testuak ahal bezainbeste ezagutarazteko asmo nabarmena du: formatu erabilgarriak, salneurri merkeak, luzeegi jo gabe idazle eta obra bakoitza zehatz kokatzen duen sarrerek eta astun-keria saihesten duten ohar argigarriek unibertsitateko ikasketetarako zein bigarren hezkuntzan erabiltzeko egoki egiten dute bilduma, bai eta edozein irakurle interesdunek irakurtzeko moduko ere.

Argitaratzeko hautatutako testuak direla eta, XVI-XVIII. mendeetako idazleenak bildumatik kanpo utzi ziren, eta XIX. mendearen hasieratik XX.aren erdialdera bitartean argitaratutakoak lehenetsi; beraz, idazle eta testu modernoek bilduma da, funtsean, *Euskal idazle klasikoak*, eta barne biltzen ditu, besteren artean, 1850 baino lehenagoko Zabalaren *Fábulas en dialecto vizcaíno* (Labayru Ikastegia, Bilbo, 1987), Iturriagaren *Jolasak* (Kriseilu, Donostia, 1988), Arxuren *La Fontainaren alegia berheziak* (Ika-Ibaizabal, Zornotza, 1990), Iztuetaren *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira* (Gero-Mensajero, Bilbo, 1990), B. Mogelen *Ipui onak* (Elkar, Donostia, 1991), J. J. Mogelen *Baserritaar jakitunaren etxeko eskolia* (Labayru Ikastegia, Bilbo, 1991), J. A. Mogelen *Peru Abarka* (Kriseilu, Donostia, 1991), Xahoren *Azti-begia eta beste idazlan zenbait* (Elkar, Donostia, 1992), Duvoisinin *Telemaque, Ulizeren semearen gertakuntzak* (Elkar, Donostia, 1996) eta Agirre Asteasuokoaren *Erakusaldiak. Antologia* (Elkar, Donostia, 1999).

Bildumak batasun formal nabarmena du barne-antolamenduari dagokionez: lehenik eta behin, idazleari eta obrari buruzko argibideak ematen dira, bata eta bestea dagokien testuinguru soziokulturalean kokatzeko; ondoren, edizio-irizpide eta aldaketei buruzko argibideak eman ohi dira, eta azkenik testua bera, ulermena errazteko ohar argigarriak lagundurik.

Bildumak bi garai izan zituen: lehenengo hogeitaleak L. Akesoloren gidaritzapean argitaratu ziren, Akesolok berak sinatutako hitzaurrearekin. Harez geroztikoen kudeaketaz, berriz, P. Altuna, J. A. Lakarra, I. Sarasola eta B. Urgell arduratu ziren, eta edizioen prestatzaileak aukeratzeko ere ahalegin berezia egin zela agerikoa da, edizilogileek bestela ere ezagun edo langai zituzten idazle, garai eta euskaretako testuak prestatu baitzituzten. Euskal Filologiaren zein Ikasketen esparruan ibilbide luzea egin zuten edo egin dute gerora gehienek: L. Akesolo, F. Altuna, P. Altuna, X. Arbelbide, A. Arejita, I. Camino, A. Elordieta, M. J. Ezeizabarrena, G. Garate, R. Gómez, M. J. Kerejeta, J. Kortazar, I. Laka, J. A. Lakarra, A. Loidi, L. Otaegi, K. Otegi, I. Pagola, R. M. Pagola, J. Pikabea, I. Ruiz, I. Sarasola, I. Segurola, A. Toledo, B. Urgell, P. Urkizu, A. Urrutia, A. Zavala eta A. Zelaieta aritu ziren edizilogintzan, besteak beste.

4.2.1.2. *MENDAUR* BILDUMA

Nafarroako Gobernuak diruztaturiko argitalpenen artean dago Euskaltzaindiarekin lankidetzan argitaratutako *Mendaur* bilduma, Nafarroako euskararekin lotutako azterlanak argitaratzen dituena. Testu klasikoaren edizioei dagokienez, aipamen berezia behar du Axularren *Geroren* (Nafarroako Gobernuak & Euskaltzaindia, Iruña, 2015) edizio kritikoak, bai edizilogileak euskal klasikoetan gorentzat jo izan denari heltzeko izandako adorea gatik, bai erdietsitako emaitzagatik. B. Urgellek prestatutako lana da, «Aita Villanteren edizioaren ondorengo duina izateko asmoz sortua» (Urgell, 2015: vii), eta edizilogilearen filologo-ofizioa eta materialaren (testuaren, hizkuntzaren) ezagutza sakona eta zabala erakusten duena:

Esan dezagun, beraz, irakurleak *testu kritiko* bat aurkituko duela, hau da, xehe-xehe aztertua izan den testu bat, bai aurreko edizioetako ezin konta ahala kopia hutsetatik garbitzeko, bai eta arazoak azalarazteko ere eginahalak eginda. Eta, irakurketarako pentsatua denez, ahalegin berezi bat egin dugu, edizio honi oinarri eman dion lan filologikoa adituen eskura jartzeko aukera galdu gabe, ez ditzan honek gainerako irakurleak nahasi edo behaztoparazi. (Urgell, 2015: viii)

4.2.2. *Eusko Legebiltzarraren, aldundien eta udalen argitalpenak*

Eusko Jaurlaritzaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko eta berau osatzen duten lurralde historikoetako erakundeek ere zuzenean argitaratu dituzte, tarteka, euskal idazle klasikoaren edizioak.

Eusko Legebiltzarrak *Kondaira-mailako bilduma* izeneko sortan argitaratu zituen, esate baterako, Muniberen *Gabon sariac* eta *El borracho burlado* (Vitoria-Gasteiz, 1991) lanen edizio kritikoak eta faksimileak, X. Alzibarrek prestatutakoak. Bestalde, *Euskal azterlan bilduma* delakoan argitaratu zuen Eusko Legebiltzarrak H. Knörrek eta K. Zuazok prestatutako *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak* (Vitoria-Gasteiz, 1998) alea, Arabako euskal testu zaharrak eta horien gaineko zenbait azterlan biltzen dituena: Landucciren hiztegia (K. Mitxelenaren eta M. Aguden edizioa), Betolatzaren dotrina (K. Mitxelenaren edizioa eta faksimileak), 1695eko Gabon-kanta elebidun bat (H. Knörren edizioa), Gamizen olerkiak (I. Goikoetxearen edizioa), García Albenizen *Acto con-*

triciocoa (F. Altunaren edizioa) eta Portalen 1610eko olerkia (M. J. Kerejetaren edizioa) biltzen ditu liburuak.

Arabako Foru Aldundiak diruz lagundurik argitaratu ziren 1980ko hamarkadan XVIII. mendeko Gamiz olerkari arabarraren erdal eta euskal testuak, *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta bilingüe alaves del siglo XVIII* (Arabako Foru Aldundia & Euskaltzaindia, Vitoria-Gasteiz, 1982), I. Goikoetxeak prestaturik; bestalde, urtebeteren buruan argitaratu zuen Arabako Foru Aldundiak berak H. Knörrek koordinatutako *Pedro I. de Barrutia (Aramaio 1682-Arrasate 1759). Gabonetako ikuskizuna* lana, Barrutiaren antzerki-lanaren edizioa dakarrena, J. A. Lakarrak prestaturik³².

Aurrekoez landara, tokiko erakundeen eskutik ere argitaratu izan dira, tarteka eta bakan badira ere, zenbait euskal testuren edizioak: Eibarko Udalak *1685eko koplak zaharrak* (Ego ibarra, Eibar, 1982) lan kolektiboa argitaratu zuen, Durangoko Udalak P. Urkizuk atondutako *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)* (Durango, 1987), Andoaingo Udalak P. Altunak eta J. A. Lakarrak prestaturiko *Manuel Larramendi. Euskal testuak* (Donostia, 1990), eta Azkoitiko Udalak *Joaquín de Alcibar-Jauregui eta Acharan 1746-1810 eta Grand tourra (1772)* antzerki-lana (Azkoitiko Udala & Erroteta, Donostia, 2007), B. Aginagalde, I. Aldekoak eta J. L. Ugartek prestatua. Oñatiko Udalak, bestalde, Interneten eskuragai jarri ditu *Oñatiko eskuizkribu* izenarekin ezagutzen direnen transkripzioak, J. Elortzak 1977an eginak³³.

4.3. Kulturgintzaren esparruko erakundeen argitalpenak

4.3.1. Argitaletxe nagusienak

Euskal testu klasikoen edizio faksimileen esparruan aipamena behar du Hordago argitaletxeak 1978az geroztik argitaratutako *Euskal klasikoak bildumak*. Ekimena Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioezcoarekin* (Donostia, 1978) hasi zuen Hordagok, eta ondotik hogeita hamar bat lan kaleratu zituen, hala nola Agirre Asteasukoa, Añibarro, Argaignaratz, Beriain, Xurio, Duhalde, Duvoisin, Frai Bartolome, Goihetxe, Harizmendi, Hiribarren, Iturriaga, Kardaberatz, Laphitz, Larramendi, Larregi, Leizarraga, Lizarraga, Pouvreau, Ubillos eta Uriarterenak.

Euskal idazle klasikoen testuak jatorrizko itxuran emateko dibulgazio-ahalegina egin zuen Hordagok, nahiz eta argitaratutako lan batzuen fidagarritasuna zalantzarikoa edo zuzenean ezdeusa izan: Añibarroren *Escu-liburua* emateko, adibidez, lehenengo (1802) eta bigarren (1821) edizioetako pasarteak nahastu ziren, nahiz eta baten eta besteen artean alde nabarmenak dauden (ik. Urgell 1985, 1987a); orobat, Harizmendiren *Ama Virginaren hirur officioak* emateko J. Vinsonen edizioa hartu zuten oinarri Hordagokoek, Vinsonen alearen gorabeherak gorabehera:

³² Urte hartan bertan argitaratu zuen Latxagak *Acto para la nochebuena* (López-Mendizabal, Tolosa, 1983), galdutzat jotzen zen eskuizkribuaren faksimilea zekarren liburua.

³³ Ik. <https://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/euskara-eta-hezkuntza/bedita-larrakoetxea-udal-euskaltegia/argitalpenak> [Azken kontsultaren data: 2020/05/23]

Harizmendi Vinsoni esker ezagutzen dugu. Baina Vinsonen begien bitartez ere bai. Izan ere, berrargitalpena kaleratzear zegoela, Dodgsonen adierazi zion bazela beste ale bat, osoa eta ondo zaindua, Oxfordeko Bodleyan Library-n, agian Pierre Urterena izandakoa. Vinsonen Bonaparteren aleari falta zitzaizkion orrien kopia «*minutieusement exacte*» bat eginarazi zuen, eta bere argitalpenaren ondoan erantsi zuen, «*Appendice*» delakoan (113-130). Horrez gainera, «*a ma grande surprise*» diosku, orrialde horietako testua «*tout 'a fait différent de celui que portait la copie manuscrite qui m'avait servi de prototype*» (1901: 144), hizkuntza modernoagoa eta «*entaché de bas-navarrisme*» baita. (Urgell, 2000: 21)

Egungo euskal irakurleen interesak urrun daude, oso, euskal testu klasiko gehienek darabiltzaten erlijio-gaietatik; beraz, ez da erraza 1850 aurreko testuen argitalpenik aurkitzea egungo argitaletxe nagusien katalogoetan.

1990eko hamarkadan ez liburu-argitaletxeek baina *Egin* egunkariak *Egin biblioteka* izeneko jarri zuen salgai, hainbat euskal idazleren lana zabaltzeko. 1850 baino lehenagokoei dagokienez, Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*, Axularren *Gero* eta J. A. Mogelen *Peru Abarka* kaleratu zituzten (Orain, Hernani, 1995), lehenengoa faksimilearekin batera.

Garai bertsean *Klasikoak alberdania* bilduma sortu zuen Alberdania argitaletxeak: bertan argitaratu ziren I. Mujika-Iraolak prestatuturiko Iztuetaren *Ez direlako aketsak* (Irun, 1995), Agirre Asteasukoaren *Arpoi baten eran* (Irun, 1996) eta Tartasen *Sugearen errautsa* (Irun, 1998) testu-sortak, ikuspegi literarioa lehenetsiz atonduak. Elkar argitaletxeak, bestalde, K. Izagirrek eta X. Mendiguren Elizegik prestatuturiko *Euskal literaturaren antologia* eman zuen urte berean, hezkuntzara begira prestatuturiko lana.

Lapurtera klasikoari loturik, P. Salaberri Muñoak hainbat lanetan egin du Axular ezagutarazteko ahalegina: *Axularren historiak* (Pamiela, Iruña, 1998) argitaratu zuen lehenbizi, eta *Axular. Antologia* (Ibaizabal & Kriseilu, Euba, 1999) eta *Aizkora zuhaitzaren erroari kheinatzean (Axularren gogoetak eta erranak)* (Pamiela, Iruña, 2000) ondotik. Ildo beretik, *Axular. Gero euskara xumea* (UEU, Bilbo, 2017) prestatu du, Axularren testua euskara batu eta soilago batean emanez, beste tradizio batzuetan euren klasikoekin egin duten legez. Axularrez harago, *Euskal klasikoen atarian* (Pamiela, Iruña, 2004) ere atondu zuen Salaberri Muñoak: hainbat euskal klasikoren paratestuak biltzen ditu lanak.

2004ko otsailean J. P. Lazarraga arabarraren eskuizkribuaren aurkikuntzak hautsak harrotu zituen euskalaritzan, hainbeste baitziren testuak zekartzan berrikuntzak: hizkuntzaren ikuspegitik, Arabako euskara ikertzeko lekukotasun luzexka zen; literaturaren ikuspegitik, areagotu egiten zuen XVI. mendeko literatur testu ez-erlijiosoaren corpusa, besteak beste artzain-nobela baten zirriborroarekin. Aurkikuntzak eragindako algara-giroan, urte hartako ekainean aurkeztu ziren testuaren lehenbiziko transkripzio-saioak, baina P. Urkizuk harago joan nahi izan zuen, eta eskuizkribuaren «edizio literarioa» prestatu: *Diana & Koplak* (Erein, Donostia, 2004). Edizioa, ordea, urdurikeriaren eta filologiaren bezko dituen ezagutza eta mantsotasun faltaren erakusgarri besterik ez da, izenburutik bertatik (Urkizuk *Diana* pertsona-izena zekusan izena adizki bat da, egiazki: 'doanean'). Liburuak eskuizkribuaren faksimilea ematen du amaieran, eta baieztatu daiteke lanaren ekarpen nagusia dela berau, Urkizuren edizioak ageri dituen transkripzio- eta interpretazio-jario amaigabearen argitan:

Halere, aurkezpenetik lau hilabete igaro baino lehen, salgai zen *Diane eta Koplak*. Joan Perez de Lazarraga *Madrid 1567* deitu «edizio literario» bat («transkripzio moder-noan», gainera), beharbada edozein euskal lekukotasunetik funtzionario publiko baten eskutan inoiz pairatu sarraskirik larrienera; testua hondatzeaz landa, hura ez argitu eta ez ulertu ere hainbat zatitan, eta inorentzat ez diren ohar inozoz (*amatzen* ‘maitatzen’, etab.) hornitu eta haren ezagutzan aitzinatzeke inongo urratsik eman ez zuena. (Mounole & Lakarra, 2018: 393)

Euskal argitaletxeen artean Hiriak aparteko lekua egin die XVI-XX. mendeetako idazle klasikoei, batez ere L. Haranburu-Altunaren eskutik, nahiz eta edizio gintzaren ikuspegi-tik ekarpena txikia edo ezdeusa den hainbatetan, aldeztatik argitaratutako testuen be-rrargitalpen hutsak baitira, kasurik onenean beste edizio batzuetako akatsak mantenduta akats berriak gehitzen ez dituztenak. Hiriak argitaratuak dira, adibidez, L. Arisiren *B. Mo-gelen Ipui onak* (Donostia, 2000), Etxeberri Sarakoaren *Eskuararen ethorkia. Etxeberri hauta-tua* (Donostia, 2002), Leizarraga *hautatua* (Donostia, 2002) eta Tx. Peillenek prestatutako *Oihenart hautatuta* (Donostia, 2002), Oihenarten *Neurtitzak* (Donostia, 2009), Etxepareren *Olerkiak* (Donostia, 2003), Kardaberatzen *Euskeraren berri onak* (Donostia, 2003) eta Aita San Ignazioaren *bizitza laburra* (Donostia, 2006), Iztuetaren *Olerkiak eta bertsoak* (Donostia, 2003), Gazteluzarren *Lan hautatuak* (Donostia, 2006), Hiribarrenen *Euskaldunak* (Donostia, 2006), Larramendiren *Euskal testuak* (Donostia, 2007) eta Iturriagaren *Jolasak* (Donostia, 2008).

XVII. mendeko idazleak direla eta, J. B. Orpustanek *Proverbes et poesies basques / Ar-naud d'Oyhenart* prestatu zuen (Izpegi, Baigorri, 2000) eta A. Barandiaranek Axularren *Gero* (Fundación Diario de Navarra, Iruña, 2003). XVIII-XIX. mendeetako idazleei dagokienez, Itu-riagaren *Alegiak* kaleratu zuen Gero-Mensajerok (Bilbo, 1990) «Kimu» sailean, eta M. Ca-minosek prestatutako *J. A. Mogel. Antologia* (Zornotza, 1998) Ibaizabalek eta Kriseiluk.

4.3.2. Euskalgintza-erakundeak

Kulturgintzan aritu eta aritzen diren erakunde, fundazio eta elkarteek ere egin diete lekurik, tarteka izan bada ere, euskal klasikoek edizioei: Jakinek kaleratu zuen L. Vi-llasanteren Axularren *Geroren* edizioa (Oñati, 1976), Kardaberatz Bazkunak J. Garmen-diak prestatutako *Iztuetaren olerkiak* (Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978), eta «Kar-mel sorta» izenekoan hainbat idazleren lanak eman dituzte argitara Markinako (Bizkaia) karmeldarrek; besteak beste, F. Ondarrak eta A. Unzuetak prestatutako liburuki bat, Frai M. San Frantziskorena «Zuzaeta» eta Frai J. J. Mariarena «Arakistain»-en testuak bil-tzen dituenak (Karmel, Bilbo, 1997).

Labayru Ikastegiak, bere aldetik, X. Alzibarrek prestatutako J. A. Mogelen *Ipui-nak* (Bilbo, 1995) eman zuen. Bestalde, «Jarein» bilduman argitaratu zituen P. Ziarrustak prestatutako Añibarroren *Jesu Christoren lau Evangelioac batera alcarturic* (Bilbo, 1991) eta F. Ondarrak atondutako Lizarraga Elkanokoaren *Dekalogoaren eta Aitagurearen azalpena* (Bilbo, 2008), eta Astigarraga eta Sarria bizkaitarren sermoi-bildumak (Bilbo, 2007 eta 2009), N. Etxebarriaren eta A. Apraizen eskutik³⁴.

³⁴ Gogoratzekoa da Labayru Ikastegiak argitaratua zuela N. Etxebarriak prestatutako *Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)* (Labayru Ikastegia, EFA & BBK, Bilbo, 2005).

XXI. mendearen hasieran, halaber, «Arragoa» liburu-saila sortu zuen Labayru Ikas-tegiak, euskal liburu zaharren faksimileak argitaratzeko; alabaina, saila argitaratzen hasi eta gutxira geratu zen bertan behera, lau liburu argitaratuta: Axularren *Guero guero*, Pouvreauren *Guiristinoaren dotrina*, Kapanagaren *Exposición breve de la doctrina christiana* eta Materraren *Doctrina christiana* (1623ko edizioa). Bildumako azken bi ale horiek *arazo-tsuak* dira, Hordagorekin hiru hamarkada lehenago gertatutako akats larriak errepikatzen baitira tarteka: badirudi faksimileak egiteko erabilitako edizioak ez zeudela osorik, eta hutsuneak betetzeko ale ezberdinekin osatu zela ale osoago bat; bestalde, are larriago dena, badirudi eskuz osatu eta *txukundu* zirela pasarteetako asko, inoiz jatorrizko testuan ez zeuden formak sartuz: Kapanagarenean azalean bertan atzematen dira eskuz idatzitako pasarteak, eta Materrarenean pareko arazoak aipatu izan dira:

Labayru Fundazioaren faksimilea genuen, J. M. Rementeriak (2008) Oxfordeko alea oinarri hartuta atondu zuena. Faksimile horrek, halere, baditu arazo zenbait; izan ere, edizioaren oinarria ez da Oxfordeko alea, ezpada ale horren fotokopiak. Gainera, iturritzat erabilitako mikrofilmean edo fotokopian ikusten ez diren hainbat hitz eta letra eskuz osatu dira, eta ez beti zuzen. (Krajewska *et al.*, 2017: 2)

Erljioaren esparruko lanez harago, 1980ko hamarkadan Mogelen *Peru Abarcaren* 1880ko edizioaren faksimilea kaleratu zuen Gerediaga Elkartek (Durango, 1981), eta hoge urteren buruan formatu berean berrargitaratu (Durango, 2002). Tartean, A. Zelaietak prestaturiko *Mikoletaren era llaburra* argitaratu zuen AEK-k (Bilbo, 1995).

5. Azken hitza: ikuspegi orokorra (1840-2020)

Euskal edizio gintza modernoak barne biltzen dituen ia bi mendeetan joerak askotarikoak eta aldirerakoak izan dira, oro har: hemen bereizitako hiru garaietan (1840-1936, 1939-1976 eta 1976-2020) ez da erabateko batasunik agertzen ez editatutako testuei, ez edizio-moldeei, ez argitaratzaileen profilari, ez argitaralekuei dagokienez. Halere, sasoi batzuetan eta bestetuetan zenbait joera bereiz daitezke, bai eta garaikako aldaketak ere. Azken hitz honetan, bada, horietako zenbait aipatuko ditut, ikuspegi orokor bat eman nahian arreta ezaugarri, joera eta argitalpen jakin batzuetan jarriz.

Euskal edizio gintza modernoaren lehenengo hamarkadetan euskal klasikoaren erabilera utilitarista izan zen nagusi, eta erlijioa ardatz duen monokromatismoak bizi izan zuen. Irakurle eta erabiltzaile potentzialak gogoan hartuta, kristau dotrina eta ideologia hedatzeko eta finkatzeko (ber)argitaratu ziren obra gehienak, behin eta berriz eta dozenaka argitaratu ere, eta esparru horretan berebiziko lekua izan zuten XVIII. mendeko eta XIX.aren hasierako idazleek prestaturiko erlijio-tratatuak, kristau-ikasbideak, kantutegiak eta otoiztegiak; hots, erabilera errazeko liburuak, unean uneko interes eta joera ideologiko-estilistikoaren arabera egokitzen eta berrinprimatzen zirenak. Ildo horretan daude literatur historiografiak bigarren mailan utzi dituen idazle gehienek (ber)argitalpenak, bai eta erabiliaren erabiliz eta ikertzearen ikertzeaz kanonizatutako izen handienak ere.

Beste alde batetik, atzerriko ikertzaileek euskarari arreta eman izanak aurrerabide handiak ekarri zizkion euskal klasikoaren edizio gintzari: ikuspegi filologikoa ekarri zuten

Euskal Herrira, edizioen kalitatea gorabehera, eta euren ekarpenen artean dago hainbat testu zaharren (ber)aurkikuntza, hala nola Etxeparerena, Leizarragarena edo Oihenartena, bai eta XVIII-XIX. mendeetako idazle andana batena ere. Tokiko euskalariak Euskal Pizkundearen garaian eginiko ekarpena ere ez zen nolana hikoia izan, garbizalekeriari lotutako ikuspegi deitoragarriak eta emaitza irragarriak gorabehera. Orduko euskalarien artean aipamena behar dute Azkuek eta bizitza laburreko *Euskalzalek*, euskal klasikoak (erlijioso eta ez-erlijioso, Ipar eta Hego Euskal Herriko) ezagutarazteko eginiko ahaleginagatik; aipamen berezia behar dute, halaber, J. Urkixok eta hark zuzendutako *RIE* Vek, ordura arte ezagutu gabeko euskarria eman baitzion euskalaritzari euskal bibliografiari buruzko ikerketak plazaratzeko eta euskal testuak ziren-zirenean argitaratzeko.

Espainiako Gerra Zibilak ekarritako hondamendiak etena ezarri zuen Euskal Pizkundearen eta 1950-1960ko hamarkadetan euskal kulturgintzari ekingo zion belaunaldiaren artean. Pizkundeko proiektu gehienak hondatuta edo zaharkituta geratu ziren, eta gizartean gertatutako aldaketak edizio gintzan ere islatu ziren: hala editatzeko hautatutako testuetan nola edizio gintza-moldeetan.

Erljio-lanek indarra izaten jarraitzen zuten 1940-1970eko hamarkadetan; aitzitik, XVIII-XX. mendeetan behin eta berriz argitaratu ziren lanak baztertuta geratu ziren arian-arian: katixima, otoiztegi eta abarren bertsio berriak atondu ziren, eta horien erabilera lehenetsi zen. Denbora-tarte horretan berebizikoa izan zen sortu eta halako egonkortasun bat lortu zuten argialetxe eta bilduma batzuen ekarpena. (Ber)argitaratutako lan askok izan lezaketen kutsu erlijiosoak kutsu, batzuen helburua literarioagoa da, erlijioso baina: B. eta J. A. Mogelen *Ipui onak* eta *Peru Abarka*, Barrutiaren eta Muniberen antzerki-lanak eta Gabon-kantak, Oihenarten neurtitzak, *Refranes y sentenciaseko* errefrauek, Iturriagaren eta Iztuetaren testuak... berrargitaratu zituzten. Bestalde, zenbait euskalarik klasikoetan klasikoenak editatu zituzten: Axularren *Gero* hirutan argitaratu zen (1954, 1964 eta 1976), adibidez, eta argitalpen horien bidez sortu zen hurrengo sei hamarkadetan indarrean jarraitu duen edizio-paradigmatiko bat, Urgellek (2013) *Villasante paradigma* deitutakoa: edizio gintzaren ikuspegitik zer hobeturik asko duen edizio-moldea da, baina hainbat urtez ezezagun, lortezin edo ahaztuxe zeutzan testuak berreskuratzeko aukera eman zuen.

1960-1970ko hamarkadetan erlijiosoaren eta ez-erlijiosoaren arteko bikoiztasuna ezin hobeto islatzen dute Euskaltzaindiaren 1957ko bi argitalpenek: alde batetik, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eman zuen; beste alde batetik, Lardizabalen *Testamentu berriko kondaira edo historia*. Halaber, Lur argialetxe donostiarrak R. Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eman eta urtebetera Leizarraga berreskuratu zuen G. Arestik prestatutako *Euskal protestantismoa zer zen* (1970) liburuan.

Argialetxe-sistema oso ahul eta arazotsu baina gero eta egonkortuxeagoak eginiko ekarpenez gain, ezin utzizkoa da gerraosteko ikertzaile zenbaiten inguruan, eta bereziki K. Mitxelenarenean, sortutako giroa. J. Urkixok ezin izan zion jarraipenik eman *RIE* Vi, baina *Egan*, *ASJU* eta *Fontes Linguae Vasconum* euskarri gero eta sendoago bihurtu ziren euskal testuen edizio gintzarako. 1950-1960ko giro akademikoari loturik eta Mitxelenaren eskutik alde aurretik ezagutu gabeko (hurbilen Urkixo zegokeen zenbait irizpidetan eta, bereziki, testuen jatorrizko bertsioen manipulaziorik ezan) kalitatea lortu zuen euskal

ediziozintzak eta, horrekin bat, Euskal Filologiak, *Textos arcaicos vascos* (1964) bildumak erakusten duenez. Mitxelenak Euskal Herrira ekarritako *filologia zehatza* ez zen orokortu, irizpideen zein hizkuntzaren ezagutza argia eta sakona eskatzen baitzituen; aitzitik, Mitxelenaren ereduarekin lerratu diren edizioek lortu dute maila handiena ikuspuntu filologikotik.

Franco hil osteko trantsizio-urteetan eratutako erakundeek eta sortutako askotariko beharrezanek aukera eman zuten Euskal Ikasketen sistema egituratu, sendotu eta finkatzeko, eta artean argitalpen- eta banaketa-muga handiekin besterik lor ez zitezkeen lanak (ber)argitaratzeko. Denborak eta gizarteak aurrera eginak ziren, ordea, eta euskal klasikoek azken hamarkadan izan duten lekua horren arabera konfiguratu da.

Denboran aurrerago, xx. mendearen bigarren erdiko zenbait zantzuk iradokitzen zutenarekin bat, urrunago geratu dira euskal klasikoek gai erlijiosoak gizartearen ideologia eta iruditeriatik: euskal klasikoak (ia) guztiz desagertu dira Euskal Herriko argitaletxe nagusien katalogoetatik, euskal irakurle garaikideak eskatzen duenarekin bat. Salbuespen bakanak dira Hordagok 1970eko hamarkadaren amaieran sortutako faksimileen bilduma, Hiriak eginiko berrargitalpenak, oro har ediziotik gutxi dutenak, edo 1990eko hamarkadan Alberdaniak ateratako zenbait antologia.

Arestiko joerak, halere, ez du ekarri klasikoak erabat baztertuta geratzea: 1980ko hamarkadan zenbait proiektuk izandako babes instituzionala da horren lekuko. Euskal administrazioak sustatzaile eta diru-emaila izan izanari zor zaio, adibidez, *Euskal idazle klasikoak* bilduma zabala, laurogei liburukitik gorakoa. Euskal instituzio-sarearekin hertsiki lotua da, halaber, unibertsitateek, Euskaltzaindiak eta aldizkari espezializatuek eratzen duten esparru akademikoa: denboran aurrerago, esparru akademikoari (testuen interes linguistiko-filologikoari) lotuago agertzen dira klasikoak, eta edizio gehienak esparru horretan egin dira, noizean behin eta filologian nahi genukeena baino askoz sarriago gertatzen diren ezustekoak ezusteko. Deustuko eta Euskal Herriko unibertsitateek, Euskaltzaindiak eta aldizkari espezializatuek (bereziki *ASJUk* eta *Fontes Linguae Vasconumek*) argitaratu dituzte euskal idazle klasikoek edizio garaikide gehienak, baita onenak ere filologia zehatzaren irizpideei jarraitu zaienean. Halaber, UPV/EHUko giro akademikoa izan zuen jatorri *Euskal klasikoek gordailua* proiektuak: ikuspegi filologikotik fidagarritasun-arazo nabarmenak ditu, baina lehenengo aldiz doan eta irakurle oroaren eskueran jarri dira, bertsio digital eguneratuen bidez, xvi-xx. mendeen arteko idazle klasiko gehien lanak.

Bibliografikoa

- Aldekoa, I., 2008, *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein.
- Altuna, P. (arg.), 1987, *A. Iturriaga. Jolasak*, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Altzibar, X., 1990, «*Peru Abarca*-ren kopiak eta lehen edizioa», *ASJU* 24, 871-887.
- Arejita, A. eta Perea, X. (arg.), 1984, *Ebaristo Bustinza. Edo geuk edo iñok ez: euskerearen alde*, Bilbo: Labayru Ikastegia.

- Bidador, J. M., 2001, «Eusebio López: impresor y vascófilo lodosano», *Euskera* 46:2, 915-925.
- Bilbao, G., 2013, «Textos arcaicos vascos 50 urte geroago», in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Gasteiz: UPV/EHU, 717-728.
- Bilbao, G.; Gómez, R.; Lakarra, Joseba A.; Manterola, J.; Mounole, C. & Urgell, B. 2020. *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*. Bilbo: UPV/EHU.
- Camino, I., 2018, «Bigarren Euskara Modernoa», in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 659-735.
- Etxagibel, J., 2018, «XIX. mendean Harizmendiren *Ama Virginaren Hirur Officioac*-en ale ezagun bakarrari falta zitzazkion orriak osatu zituen esku ezezagunaz», in J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica (ASJU 52:1/2)*, Bilbo: UPV/EHU, 207-236.
- Kortazar, J., 2008, «Klasiko», in Otaegi, L. (koord.), *Literatura terminoen hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Krajewska, D., Zuloaga, E., Santazilia, E., Ariztimuño, B., Reguero, U. eta Uribe-Etxebarria, O., 2017, *Esteve Materraren Do(c)trina Chrisiana (1617 & 1623)*, Bilbo: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Haritschelhar, J., 1999, «Gero-ren bi parteak», *Lapurdum. Numéro Spécial 1: Les lettres basques au temps d'Axular (1600-1650)*, 105-118.
- Haritschelhar, J., 2003, «Intxauspe Axularren zentsuratzaile? Gero-ren gaurkotzaile?», *Euskera* 48:2, 569-582.
- Kaltzakorta, J., 1997, «Historia del refranero vasco», *Paremia* 6, 141-146.
- Kerejeta, M. J., 1991, «Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegia», *ASJU* 25:3, 865-899.
- Lakarra, J. A., 1987, «Oikiako dotrina (1759)», *ASJU* 21:2, 515-564.
- Lakarra, J. A., 1990 [1989], «Epílogo», in L. Michelena & I. Sarasola, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos (ASJUren gehigarriak 11)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 353-362.
- Lakarra, J. A., 1997, «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», *ASJU* 31:2, 447-535.
- Lakarra, J. A., Manterola, J. eta Seguro, I., 2019, *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Meillet, A., 2001 [1925], *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*, Bilbo: UPV/EHU.
- Mitxelena, K., 1954, «S. Onaindia, *Milla euskal-olerki eder*, Larrea-Amorebieta 1954», berrarg. in *Obras completas XIII*, 494-495.
- Mitxelena, K., 1964, *Textos arcaicos vascos*, berrarg. in *Obras completas VI*, 1-197.
- Mitxelena, K., 1971, «Urquijo y la sociedad de estudios vascos», berrarg. in *Obras completas X*, 259-280.
- Mitxelena, K., 1981, «Patxi Altunari erantzunez», berrarg. in *Obras completas X*, 329-339.
- Monreal, G., 2001, «Una historia de la Revista Internacional de los Estudios Vascos / Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria / Revue Internationale des Etudes Basques [RIEV] (1907-2000)», *RIEV* 46:1, 11-46.
- Mounole, C. & Lakarra, J. A., 2018, «Euskara Arkaikoa», in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 345-468.

- Otaegi, L., 2013, «Gudaosteko euskal poesiaren antologiak. Poetikak eta irakurketa soziokulturak», *Euskera* 58:2, 515-556.
- Padilla-Moyano, M. & Uribe-Etxebarria, O., 2015, «Begiak ez gaitzala tronpa: zer (ez) den filologia». *Euskararen historian barna: uste dugunetik dakigunera* ikastaroan emandako hitzaldia. Vitoria-Gasteiz, 2015/12/22.
- Rebuschi, G., 2012, «Jesü Kristen Imitazionea...», *Euskera* 57:3, 851-864.
- Rementería, J. M., 2008, *Dotrina Christiana. Aita Esteve Materre*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Rementería, J. M., 2018, *Euskerazko dotrinak. I. Bizkaieraz*, Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Retolaza, I., 2007, «Antologías de poesía vasca: itinerarios personales por territorios poéticos», *Caravansari* 2, 22-24.
- Sáez Rivera, D. M., 2006, «Crítica textual, historiografía lingüística e historia de la lengua», in L. Pons (arg.), *Historia de la lengua y Crítica textual*, Madril: Lingüística Iberoamericana, 265-300.
- Salaberri, P., 1997, «Axularren Gero liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan», *Egan* 4, 173-200.
- Sarasola, I., 1975, *Euskal literatura numerotan*, Donostia: Kriseilu.
- Sarasola, I., 1982, *Historia social de la literatura vasca*, Madril: Akal.
- Sarasola, I., 2012, «Orotariko Euskal Hiztegia eta euskal hiztegiogintza». Mitxelena Katedraren III. Biltzarrean emandako hitzaldia. Vitoria-Gasteiz, 2012/X/8-11. <https://www.youtube.com/watch?v=zx5GjrlOufY&nooredirect=1-tik berreskuratua> [2020/06/26].
- Satrustegi, J. M., 1987, *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Segurola, K., 2013, «Oikiako Dotrinak. F. Antonio Agirre Gabiria (Marin 1728-Oikia 1805)», *Lapur-dum* 17, 223-253.
- Torrealdai, J. M., 1977, *Euskal idazleak, gaur*, Oñati: Jakin.
- Ugarte, A., 2019, «Cultura vasca y regionalismo franquista: Julio Urquijo y los estudios vascos en la posguerra», *Cercles. Revista d'Historia Cultural* 22, 163-192.
- Urgell, B., 1985, «Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*», *ASJU* 19:1, 65-117.
- Urgell, B., 1987a, «*Esku-liburua*-ren grafi aldaketak (1812-1821)», *ASJU* 21:2, 357-388.
- Urgell, B., 1987b, «Mitxelena eta euskal testu zaharrak», *Egan* 3-6, 133-136.
- Urgell, B., 2000, «Euskal edizioen historiaz (I): 1936 arteko edizioogintza», *Euskal testuen historiaz eta edizioaz (I)*, UPV/EHUko Udako Ikastaroetako hitzaldia (2000/07/04).
- Urgell, B., 2008, «Editando a Axular», *Monumenta Linguae Vasconum (2002-2008). Sei urte ikerketan mintegian aurkeztutako txostena*. Vitoria-Gasteiz, 2008/09/10. <https://docplayer.es/39272415-Editando-a-axular-blanca-urgell-upv-ehu.html> helbidetik berreskuratua. [2020/06/26].
- Urgell, B., 2013, «Euskal Filologia. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago?», in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 533-570.
- Urgell, B., 2018, «Lehen Euskara Modernoa», in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 549-657.
- Villasante, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*, Oñati: Arantzazu.

IKERTUZ

Ikerketa lanak
Trabajos de investigación

INFORMAZIOA ETA ESKARIAR • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea